

V. I. Lenin



**IRAUTZA
PROLETARIOA
ETA KAUTSKY
DAMUTUA**

Fondo documental **EHK** Dokumentu fondoa

Euskal Herriko Komunistak

IRAULTZA PROLETARIOA ETA KAUTSKY DAMUTUA

LENIN
1918

Lan hau liburu digital bihurtu da
EHKko militanteek,
barne erabilerarako eta zati bat da
lanerako materiala,
ikerkuntza eta prestakuntza
pentsamendu marxista

<http://www.ehk.eus>

<http://www.abertzalekomunista.net>

<http://iraultza-garaia.blogspot.com/2016/11/gure-liburuxkak-iraultza-proletarioa.html>

Izenburua: Iraultza proletarioa eta Kautsky damutua
Egilea: Lenin (Vladimir Ilitx Ulianov)
Itzultzailea: Jon Kortazar
Legezko gordailua: LG NA 2315-2016
Argitalpena: IRAULTZA GARAIA liburuxkak *Klasikoak* bilduma
Lehenengo edizioa: 2016ko azaroa

AURKIBIDEA

HITZAURREA (Lander Perez)	5
SOBIETAR ARGITALETXEAREN OHARRA	11
IRAULTZA PROLETARIOA ETA KAUTSKY DAMUTUA	13
I. Kautskyk Marx liberal eskas bat nola bilakatu duen .	13
II. Demokrazia burgesa eta demokrazia proletarioa . . .	29
III. Egon al daiteke esplotatzailearen eta esplotatuaren arteko berdintasunik?	43
IV. Ez daitezela sobietak estatu-erakundeak bihurtzen saiatu	53
V. Biltzar Konstituziogilea eta Sobietar Errepublika . . .	63
VI. Konstituzio sobietarra	77
VII. Zer da internazionalismoa?	93
VIII. Burgesiarekiko menpekotasuna “analisi ekonomikoa” aitzakiatzat hartuta	113
Lehen eranskina: Biltzar Konstituziogilearen gaineko tesiak	149
Bigarren eranskina: Estatuari buruzko Vandervelderren liburu berri bat	157

HITZAURREA

Orain gutxi Vienan agertu den *Proletalgoaren diktadura deitutako* Kautskyren liburuxka (Wien 1918, Ignaz Brand, 63 orr.), II Internazionalaren erabateko lur-jotze ideologiko lotsagarrienaren adierazle da, herrialde guztietako sozialista zintzoek aspaldi honetan aipatzen ari izan diren lur-jotze horren adierazle da. Nahikotxo herrialdetan iraultza proletarioa gaur eguneko afera izatera igaro da. Horregatik, Kautskyren sofismak, damutu baten ahotan ohikoak direnak aztertzea eta honek marxismoaz nola arnagatzen duen ikustea beharrezkoa da.

⁶ “Kautsky, II Internazionalako autoritate gorena; marxismoa hitzez onesteak, praktikan “struivismora”¹ edo “brentanismoa”² (hau da, proletalgoaren nolabaiteko “klasearteko borroka” ez iraultzailea onartzen duen doktrina liberal burgesera, Struve³ errusiar idazleak eta Brentano⁴ alemaniar ekonomistak garbitasun osoz adierazi dutenera) nola eraman gaitzakeenaren gaineko adibide ezin arruntagoa da.

¹ **Struivismoa edo marxismo legala:** Errusian, XX. mende hasieran, batik bat inguru intelektual burgesetan ugaldu zen ildo filosofikoa. Bere ordezkariak ezagunena Piotr Struve izan zen, eta beste kide ezagun batzuk Nikolai Berdiaiev eta Sergei Bulgakov izan ziren. “Marxista legalek”, marxismoa, legalitatera mugatzeaz gain, Errusiako estatu feudalean kapitalismoaren hazkundera justifikatzeko erabili nahi izan zuten. Korrante honetako partaideen arabera; Errusia, feudalismotik atera eta garapen industrial kapitalistan sartu behar zen, modu honetan, pixkanaka-pixkanaka askatasun liberalak lortzen hasiko zelarik eta “mendebaldartu” egingo zelarik. Ildo honek “mendebalzaletasun” handia zuen, puntu hori ildo honen oinarrietako bat zen; azken finean marxismoa (batez ere *Kapitala* liburua) Errusia “asiar atzerapenetik” “europar kapitalismo aurreraturantzko” igarobiderako justifikazio teoriko bezala erabiltzen zuten (ekoizpenaren garapena, kapitalismoaren hazkundera...). Marxista legalen arabera, errusiar burgesia oso ahula eta politikoki ezgaia zen, beraz, gertatu beharreko iraultza liberalak beste mota batetako justifikazio teoriko bat behar zuen (laburbilduz; marxista legalentzat, marxismoa kapitalismo liberalaren tresna gisa erabili behar zen). Struivistek hasiera batean Errusiako Alderdi Sozialdemokratan militatzen zuten, laster bertatik atera eta Alderdi Liberal Konstituzionalistan sartuko ziren. 1905eko iraultzaren ostean gobernu tsaristaren aldeko sutsu izango ziren, errepresioa iraultzaren aurkako babes bakarra zela esanaz (azken finean, burges antiiraultzaile batzuk ziren). Euren ikuspegiak 1909an ateratako *Vekhi (Norabideak)* liburuan azaldu ziren. Hauetako batzuek, Piotr Struve berak adibidez, Armada Zuriko buruzagi politiko bezala bukatu zuten. (Itzultzailearen oharra)

² **Brentanismoa edo katedra-sozialismoa:** XIX. mendean, Alemanian batez ere, zenbait intelektual burgesen artean zabalduak ideologia (alemanaz, *Kathedersozialismus*). estatuak ekonomian esku sartzea eskatzen zuten, lan-munduaren esparruko legeak onar daitezkeen galdatuz. Katedra-sozialismoak klase borroka ukatzen zuen eta sindikatu erreformisten alde zegoen, kapitalisten eta langileen arteko interes batasuna emango zela uste zutelarik. Katedra sozialista gehienak Lujo Brentanok sortutako *Verein für Sozialpolitik* (Politika Sozialerako Elkartea) taldean batzen ziren. XIX. mendeko Alemanian, lassallearren alderdiarengan eta geroago Bismarcken erreforma sozialengan eragin ideologikoa izan zuten. Geroago, keynesianismoan eta Ongizate estatuaren oinarri teorikoan (“merkatu-ekonomia soziala”) ere influentzia izan zuten. (Itzultzailearen oharra)

³ **Piotr Struve:** Errusiar politikari eta filosofo atzerakoia. Gaztetan marxismoarekin bat egin bazuen ere, a laster “marxismo legala” zeritzon korrante filosofiko burgesaren buru izango zen zen; ideologia marxista Errusia atzeratuaren “zibilizatzeko” burgesari justifikazio teoriko bat ematera mugatzearen aldekoa, eduki politiko iraultzailearen aurkako eta marxismoa kapitalismo liberalarekin elkartzearen aldekoa. Geroago, “marxismo legaletik” liberalismora joko zuen eta demokrata-konstituzionalistekin bat egingo zuen. 1905eko iraultza eta gero, Gobernuarekin lerrotatuko zen, erabat monarkiko egingo zen eta errusiar intelektualitatearen eta monarkiaren arteko iraultzaren aurkako aliantzaren alde agertuko zen. Guda inperialistaren aldekoa izango zen, eta Errusiar Guda Zibilean, Armada Zuriaren buru politikoetako bat izango zen. (Itzultzailearen oharra)

⁴ **Lujo Brentano:** Alemaniar ekonomista, “katedra-sozialismoaren” ordezkari nagusienetakoa izan zena. Ekonomi katedraduna izan zen hainbat unibertsitatetan. estatu burgesa “erreformatzearen” eta ez suntsitzearen aldekoa izan zen. 1914an alemaniar inperialismoaren aldeko manifestu bat sinatu zuen. Hala ere, 1919ko Alemaniar Iraultzan, Bavariako Gobernu sobietarrean parte hartu zuen Ekonomi Ministro gisa. (Itzultzailearen oharra)

Plekhanoven⁵ adibidean ere, hori ikusten dugu. Ageriko sofismen bitartez, marxismoari bere arima iraultzaile bizia idokitzen zaio; hauxe borrokarako bide iraultzaileak ezik, bide hauetarako prestaketa eta propaganda ezik, masak hona bideratzeko heziketa ezik onartzen da. Kautskyk, ideologiak alboratuz, sozialchovinismoaren⁶ oinarritzko pentsamoldea, hots, guda honetan nazioaren defentsa egitea eta ezkerari eginiko emakida diplomatiko nabarmenen bat, kredituak bozkatzeko abstenitzea, gudari aurkakotasuna aldarrikatzea eta abar “adiskidetzen” ditu. 1909an iraultzen aro baten hurbiltzeari buruz eta guda eta iraultzaren arteko harremanari buruz liburu oso bat idatzi zuen Kautskyk, 1912an zetorren guda iraultzaren onerako baliatzeaz mintzatzen zen Basileako Manifestua⁷ sinatu zuen Kautskyk; orain bereak eta bi egiten ditu sozialchovinismoa justifikatzeko eta zuzitzeko, eta Plekhanoven antzera, iraultza-idea oroz, borroka iraultzaile efektibo batetara bideratutako ekintza oroz trufa egiterakoan burgesiarekin bat egiten du.

7

Langile klaseak ezin izango du bere mundu mailako iraultzaren helburua erdietsi baldin eta apostasia honi, nortasun falta honi, oportunistoarekiko menpeko jarrera honi, marxismoaren egundoko faltsutze teoriko honi bihozgabe gudarik egiten ez badio. Kautskysmoa ez da kasualitatez sortu, II Internazionalaren kontraesanen emaitza da, hitzez marxismoari leialtasuna aldarrikatzearen eta egitez oportunistoaren aurrean makurtzearen arteko nahasketa da”. (G. Zinoviev eta N. Lenin, Sozialismoa eta guda, Geneva, 1915, 13-14 orr.)

8

Jarrai dezagun. 1916an idatzi nuen (Petrogradon 1917an agertu zen) *Inperialismoa, kapitalismoaren fase gorena*⁸ liburuan, inperialismoari buruzko Kautskyren

⁵ **Georgi Plekhanov:** Askoren ustez, marxismoa errusiar lurtean zabaldu zuena izan zen, nolabait esateko “errusiar marxismoaren sortzailea”. Alderdi Sozialdemokrataren II Kongresuaren ondoren, hasiera baten boltxebike eta mentxebikeen artean zalantzati agertu bazen ere, geroago azken hauekin bat egingo zuen. Hasiera batean, mentxebikeen barruan boltxebikeekin berrelkartzeko korrantea bultzatu bazuen ere, urteak joan ahala gero eta antiboltxebikeago izango zen, I Mundu Gudaren aurrean postura sozialchovinista izango zuelarik. Otsaileko iraultzaren ondoren, mentxebikeen barnean eskuin-eskuineko ildo bat bultzatuko zuen, *Jedinstvo* (Bateratzea) izenekoa, erabat sozialchovinista, gobernu burgesaren aldekoa eta boltxebikeekin lotura guztiak puskatzearen aldekoa; postura hauek mentxebikeen zuzendaritzak baino era argiagoan azalduz. Urriko Iraultzaren aurka agertu zen eta Finlandiara ihes egin zuen. Hurrengo urtean zendu zen. Halere, sobietar Errepublikak bere memoriari gorazarre egingo zion, eskola garrantzitsu bati bere izena jarritz. (Itzultzailearen oharra)

⁶ **Sozialchovinismoa:** Guda inperialistaren garaian, mundu mailako mugimendu sozialistaren baitan sortutako korrante antimarxista, benetako sozialismo iraultzaile internazionalistaren erabat aurkakoa. sozialchovinisten arabera, langile sozialistek euren herrialdeetako burgesiarekin bat eginik guda inperialistan parte hartu behar zuten, lubakietan beste herrialdeetako langileen aurka borrokatuz. II Internazionalako alderdi sozialdemokrata nagusiak, ordurako erreformismoak usteldurik, postura honetara atxiki ziren, adibidez II Internazionalaren ikur zen Alemaniakoa. Joera honek, ondorio bezala, inperialismoa eta burgesiaren politika sendotzea zekartzan. Ez da kasualitatea joera sozialchovinistarekin bat egin zuten gehienak, guda inperialistaren aurretik, burgesiarekin kolaboratzearen aldekoa zen sozialismoaren eskuin hegalekoak izatea. sozialchovinistak, izenez sozialistak baziren ere, praktikan chovinista burges inperialistak ziren. (Itzultzailearen oharra)

⁷ Basilean 1912ko azaroaren 24 eta 25ean II Internazionalako Biltzar Nagusia bildu zen; Balkanetako Lehen Guda zela eta. Guda honetan Balkanetako lur batzuegatik, alde batetik Liga Balkanikoa (Serbiak, Montenegrok, Greziak eta Bulgariak osatua) eta beste batetik Otomandar Inperioa lehiatu ziren. Basileako Kongresuan, guda honetan potentzia inperialista handiek interes batzuegatik parte hartuz gero; langileek europar mailako guda ekiditeko euren indarra eta borroka iraultzailea erabiliko zutela erabaki zen, eta “Guda gudaren aurka!” kontsigna adostu zen. Balkanetako Lehen Guda Liga Balkanikoak irabazi zuen, eta beraz, Turkiar Inperioak European zituen lur gehienak galdu zituen. (Itzultzailearen oharra)

⁸ **Inperialismoa, kapitalismoaren fase gorena:** Lenin, *El imperialismo, fase superior del capitalismo*. Ez dago euskarazko itzulpenik. Gomendatutako liburu bat da; lan honetan (Lehen Mundu Gudan idatzia izan zen), Leninek, kapitalismoak inperialismora eta inperialismoak guda inperialistara eramaten duela azaltzen baitu. Leninek inperialismoa sorrarazten duten arrazoiak eta bere garapena ikuspegi marxista batetik aztertzen ditu eta langile

arrazoiketa guztien aizuntze teorikoak zehatz-mehatz aztertu nituen. Hor, Kautskyk inperialismoaz ematen zuen definizioa aipatzen nuen: “Inperialismoa, kapitalismo industrialaren maila handiko garapen egoera baten emaitza bat da. Nazio kapitalista industrialetako bakoitzak, *nekazari*-eskualde (kurtsiba Kautskyrena da) gero eta handiagoak bertan bizi diren nazioen iritzia kontutan hartu gabe anexionatzeko edo menperatzeko joerak bereizten du”. Definizio hau guztiz okerra zela nabarmentzen nuen; inperialismoaren kontraesanik sakonena estaltzeko eta horrela oportunistoarekin kontziliazioa bilatzeko “egokia” zelakoan. Inperialismoaren gaineko nire definizioa ematen nuen: “Inperialismoa, monopolioen eta finantza-kapitalaren nagusitasuna gauzatu izan deneko, kapital esportazioak lehen mailako garrantzia hartu dueneko, mundua trust internazionaletan banatzen hasi deneko eta munduko lurralde guztiak herrialde kapitalista garrantzitsuenen artean banatuz bukatzen direnoko garapen urratsean dagoen kapitalismoa da”. Kautskyk inperialismoaz egiten duen kritika, kritika burgesarena baino are kaskarragoa, filistiarra zela frogatzen zuen.

Azkenik, 1917ko abuztuan/irailean, hau da, Errusiako Iraultza Proletarioa (1917ko Urriak 25/Azaroak 7) baino lehenago, *estatu eta Iraultza. estatuari buruzko doktrina marxista eta proletalgoaren eginkizunak iraultzan*⁹ idatzi nuen, Petrogradon 1918an agertu zen liburuxka. Lan honen VI kapituluan, *Marxismoaren pailardatzea oportunisten aldetik* izenburutzat daukanean, Kautskyri arreta berezia jartzen diot, Marxen doktrina guztiz itxuraldatu duela eta oportunistoaz ordeztu duela, “hitzez onetsi egiten badu ere, eginez iraultzari muzin egin diola” frogatuz.

Funtsean, Kautskyk bere proletalgoaren diktadurari buruzko liburuxkan egiten duen oinarritzko akats teorikoa, Marxen estatuari buruzko teoria nik neuk *estatu eta Iraultza* nire liburuxkan zehatz-mehatz azaldu nuen moduan itxuraldatzean datza.

Aurretiaz eginiko ohar hauek beharrezkoak dira. Boltxebikeek boterea lortu baino lehen eta, beraz, Kautskyren gaitzespena izan baino lehen, Kautskyri damutu bat izatea publikoki leporatu izan diodala argi frogatzen baitute.

Lander Perez

mugimenduak zein paper izan behar duen azaltzen du. Lan honen oinarritzko ondorioak inperialismoa kapitalismoaren ondorio logikoa dela eta kapitalismoaren kontraesanak muturreraino eramatean datzala dira; beraz gorpil hau apurtzeko, langile mugimenduak iraultzara jo behar duela ezartzen da. (Itzultzailearen oharra)

⁹ *Estatu eta Iraultza*: Leninismoa ulertzeko ezinbesteko lana da, iraultza proletarioaren eta proletalgoaren diktaduraren ezaugarriak azaltzen dituelako, eta azken honek burgesiaren diktadurarekiko duen ezberdintasunak zehazten dituelako. estatuaren definizio marxista egiten du, eta baita estatuaren eta Iraultzaren gaineko kontzepzio marxistak azaldu eta kontzepzio hauek eta kontzepzio oportunistak zertan ezberdintzen diren zehaztu. (Itzultzailearen oharra)

Sobietar ARGITALETXEAREN OHARRA

Leninek 1918ko urriaren hasieran ekin zion *Iraultza proletarioa eta Kautsky damutua* liburua idazteari, Karl Kautskyren *Proletalgoaren diktadura* liburuxka irakurri eta berehala. Liburuxka horretan, II Internazionalako buruzagi ideologikoak iraultza proletarioari buruzko teoria marxista itxuraldatu eta erabat faltsutu egiten zuten eta sobietar estatua kalumniatzen zuten.

Leninen arabera, iraultza sozialistari eta proletalgoaren diktadurari buruzko Kautskyren ideia oportunistak agerian uzteak egundoko garrantzia zuten. 1918ko abuztuan, *Sozialistische Auslandspolitik* (Kanpo Politika Sozialista) aldizkariak Kautskyren artikulua bat argitaratu zuen, non alderdi sozialdemokratei boltxebikeen kontra borrokatzeko deia zabaltzen zen.

Leninek, herrialde eskandinaviarretarako Errepublika sobietarraren ordezkari guztiahalduna zen Vorovski jaunari, Kautskyren diktadurari buruzko liburuxka eta honek boltxebikeei buruz idatzitako artikulua guztiak argitaratu orduko bidali ziezazkion eskatu zion.

Urriak 9an, liburuxka bukatu aurretik, Leninek *Iraultza proletarioa eta Kautsky damutua* izeneko artikulua idatzi zuen. Urriak 11an Pravda egunkarian argitaratu zena. Geroago, 1918an Bernan eta 1919an Vienan alemanez argitaratu zen, eta urte horretan italieraz argitaratu zen Milanen.

Leninen *Iraultza proletarioa eta Kautsky damutua* liburuxka, 1919an Ingalaterran, Frantzia eta Alemanian agertu zen.

IRAULTZA PROLETARIOA ETA KAUTSKY DAMUTUA

I. Kautskyk Marx liberal eskas bat nola bilakatu duen

Kautskyk bere liburuxkan tratatzen duen oinarritzko afera, langile iraultzaren funtsezko edukia, hau da, proletalgoaren diktadura da. Une honetan herrialde guztientzako, batez ere herrialde aurreratuentzako eta are gehiago gudan daudenentzako, bereziki garrantzi handiko afera bat da. Arrandikeriatan erortzeko arriskurik gabe, proletalgoaren klase borroka ororen afera nagusia dela esan dezakegu. Horregatik arreta handiz aztertzea beharrezkoa da.

Kautskyk modu honetan planteatzen du afera: “bi korronte sozialisten arteko aurkakotasuna” (hau da, boltxebikeen eta ez- boltxebikeen artekoa) “arras ezberdinak diren modu biren arteko aurkakotasuna da: modu *demokratikoaren* eta *diktadurazko* moduaren artekoa” (3. orr)

Bide batez, Errusiako ez-boltxebikeak, hau da, mentxebikeak¹⁰ eta eseristak¹¹ sozialistatzat hartuz; Kautskyk hitza, hau da, *izendapena* eta ez proletalgoak burgesiaren aurka daraman borrokan daukaten lekua aintzat hartzen duela ikus dezakegu. Hori da hori marxismoa ulertzeko eta aplikatzeko modua! Baina honetaz aurrerago arituko gara.

14

Orain jar dezagun arreta gauzarik garrantzitsuenean: “modu demokratiko eta diktadurazkoaren” arteko “antitesi erradikalari” buruzko Kautskyren aurkikuntza handian. Hor dago kokka. Hori da Kautskyren liburuxkaren mamia. Eta nahasketa hain izugarri batez, marxismoarekiko erabateko apostasia batez ari garenez, Kautskyk Bernstein¹² oso atzean utzi duela ohartaraztea beharrezkoa zaigu.

¹⁰ **Mentxebikeak:** Hitz honekin, 1902an Errusiar Langileen Alderdi Sozialdemokrata banandu zenean agertutako boltxebikeen aurkako korronte burges-ttiki bati izendatzen zitzaion. Izen hori jarri zitzaion, banatzeko unean euren postura gutxiengoarena zelako (errusieraz, “gutxiengo” *menxinstvo* esaten da). Mentxebikeak, hasiera batean, boltxebikeengandik hauen diziplina iraultzailea (zentralismo demokratikoa, koadro-militanten Alderdia, Alderdiarenganako konpromisoa eta abar) onartzen ez zutelako banandu ziren, baina sakoneko ezberdintasun ideologikoak laster agertuko ziren: laster burgesiaren bidaide izatearen aldeko agertuko ziren. 1905eko Iraultzarekin batera bi korronteen arteko ezberdintasunak handi-handi egin ziren eta 1912an erabateko banaketa eman zen. Guda inperialistaren garaian, mentxebike gehienak sozialchovinista egin ziren. 1917ko Urriko Iraultza Sozialistaren aurka azaldu ziren, joera erabat antikomunistara atxikiz. (Itzultzailearen oharra)

¹¹ **Eseristak:** SR sigletatik (sozial-iraultzaileak) datorren hitza. Hitz honekin, Errusiako alderdi jakin bat izendatzen da, XIX. mendeko errusiar mugimendu populista jatorria zuena. Eseristek, laborantza-giroaren eta errusiar tradizio zaharren idealizazioan oinarritutako sozialismo populista baten alde egiten zuten. Alderdiaren ideologiak; sozialismo zientifikoa, marxismoaren baliabideak eta klase borroka ukatzen zituen. laborantza burgesia-ttikiaren ordezkari politikoa zen. Eseristen eskuin atala, 1917ko Urriko Langile Iraultzaren aurka jarri zen eta Armada Zuriarekin borrokatu zen Guda Zibilean; ezker atala hasieran alde jarri bazen ere, 1918an kontrairaultzara pasa zen. Alta, eserista batzuek Alderdi Boltxebikearekin bat egin zuten. (Itzultzailearen oharra)

¹² **Eduard Bernstein:** Alemaniako ideologo oportunistak eta errebisionista. XIX mendeko 80ko hamarkadan Alemaniako Alderdi Sozialdemokrataren egunkariaren editorea izan zen. 90eko hamarkadan, *Neue Zeit* aldizkarian, “Sozialismoaren arazoak” izenarekin zenbait artikulua atera zituen, geroago *Sozialismoaren aurrebaldintzak eta sozialdemokraziaren eginkizunak* izenburuarekin liburu bezala argitaratuko zirelarik. Artikuluotan, ikuspuntu ezin errebisionistagoa ematen zuen: Alderdiaren mui iraultzailea ezereztatzearen aldekoa, Alderdia legalitate burgesera moldatzearen aldekoa eta liberalismoaren aldekoa. Honek, mundu mailako mugimendu sozialistan hautsak harrotu zituen, eztabaida sakona piztuz. Bernsteinek, nahiz eta bere burua “marxistatzat” jo, egia esan,

Proletalgoaren diktaduraren afera, estatu proletarioak estatu burgesarekiko izan behar duen jarreraren afera da, demokrazia proletarioak demokrazia burgesarekiko izan behar duen jarreraren afera da. Eguna bezain argi dagoela dirudi. Baina Kautskyk, historiako testuak errepikatzearen poderioz momifikaturik dagoen institutuko irakasle baten gisa, XX. mendeari burugogor bizkarra emanaz XVIII. mendeari so egiten dio; eta ehungarren aldiz, neurrigabeko aspertura eraginez, demokrazia burgesak absolutismoarekiko eta Erdi Aroarekin izan beharreko jarrerari buruzko kontzeptu zahar horiekin ekin eta ekin dabil!

Egia esan, ametsetan haginik gabe murtxikatzen dabilela dirudi!

15

Izan ere, honek, gauzen arteko harremana batere ez ulertzea esan nahi du. Egoera “demokraziarekiko mespretxua” (11 orr.) aldarrikatzen duen jendea egongo balitz bezala aurkezteko Kautskyren eginahal horrek irribarrea soilik eragiten baitu. Kautsky, auzia liberalen erara aurkeztearren, auzia halako zakilkeriez iluntzera eta nahastera beharturik aurkitzen da, demokrazia *burgesen* ordez orokorrean demokrazia hitz eginez, eta horrez gain klasezko kontzeptu hori ekidin eta demokrazia “auresozialistaz” hitz egiten ahalegintzen da. Gure hitzontziak, liburuxkaren heren bat inguru, 63 orrialdeetatik 20, proletalgoaren iraultzaren afera itzalean utzi eta demokrazia burgesa apaintzen duen burgesiarentzat oso atsegina den hizketa-mizketarekin bete du.

Haatik, Kautskyren liburuxkak *Proletalgoaren diktadura* du izenburua. Mundu guztiak badaki haxe Marxen dotrinaren *funtsa* dela. Eta Kautskyk gaiaz kanpo hitz eta pitz egin ondoren, proletalgoaren diktadurari buruzko Marxen hitzak aipatu *behar ditu*.

Barregarria dena, Kautsky “marxistak” erabilitako *modua* da! Entzun:

“Marxen hitz bakar batean soilik oinarritzen da ikuspuntu hori” (Kautskyk demokraziarekiko mespretxutzat jotzen duena): halaxe dio liburuxkaren 20. orrialdean. Eta 60. orrialdean errepikatu egiten du (boltxebikeek) “Marxek 1875an, gutun baten erabilitako proletalgoaren diktadurari buruzko bost duroko hitz bitxi bat” (horrela, hor dakarren bezala! des *Wörtchens*) “garaiz gogoratu dutela” dioenean.

Ikus dezagun Marxen “bost duroko hitz bitxi” hori:

“Gizarte kapitalistaren eta gizarte komunistaren artean, lehenengoa bigarrena bihurtzearen bilakatze iraultzailearen aroa dago. Aro honi ere bai, igarotze politiko bat dagokio, zeinen estatua *proletalgoaren diktadura iraultzailea* ez den beste ezer izan ez daitekeena.”¹³.

16

Lehenik eta behin, Marxen dotrina iraultzailea laburbiltzen duen argudio ezagun hau, “hitz bakar bat” dela eta are “bost duroko hitz” bat dela esatea, marxismoari barre egitea da, marxismoaz guztiz damutzea da. Ez dugu ahaztu behar Kautskyk Marxi buruz ia osorik dakiela eta bere idatziez esan dezakegunez, bere lan-mahaian edota burmuinean badituela halako fitxategi batzuk, non Marxek idatziriko guztia ordenarik handienaz eta aipua erabiltzeko erosotasun handienaz ordenatua dagoen. Kautskyk

bere idatzietan marxismotik erabat aldentzen zen eta marxismoaren oinarri ideologikoak “berrikusi” egiten zituen. Hori dela eta, Bernsteinen eta haren jarraitzaileen ikuspuntuak definitzeko “errebisionismo” hitza sortu zen. (Itzultzailearen oharra)

¹³ Karl Marx: *Gothako Programari eginiko Kritika*.

ezin du Marxek zein Engelsek bai gutunetan zein inprimatutako lanetan proletalgoaren diktaduraz *sarritan* hitz egiten zutela *alde batera utzi*, bai Komunaren aurretik eta batez ere honen ostean. Kautskyk ezin dio ezjakinarena egin “proletalgoaren diktadura” esamoldearen esangurari: estatu burgesaren makineria “suntsitzeko” proletalgoak duen eginkizuna, historikoki konkretuena eta zientifikoki zuzenena den moduan adierazita. Marxek zein Engelsek 1852tik 1891ra, *berrogei urtez*, 1848ko eta batez ere 1871ko iraultzen esperientzia kontutan hartuz aztertu izan zuten eginkizun hori izendatzeko modua, alegia.

Nola azaldu dezakegu marxismoaren exegeta Kautskyk marxismoaz egiten duen egundoko itxuraldaketa hau? Halako fenomeno baten oinarri filosofikoa bilatzen badugu, dialektika eklektizismoaz eta sofistokokeriaz ordeztu izan dela esan dezakegu. Kautsky ordezte hauetan maisu dugu. Esparru politiko praktikoa batetara iragaten bagara ordea, dena, oportunistekiko, hots, azken finean burgesiarekiko zurikeriara mugatzen da. Guda hasi zenetik gero eta gehiago hobetuz, hitzez marxista eta izatez burgesiaren morroi izatearen honetan benetan iaio egin zaigu Kautsky.

Proletalgoaren diktadurari buruzko Marxen “bost duroko hitz” horrekiko Kautskyren “irakurketa” mirezgarria irakurri eta gero, norbera honetaz are ziurrago dago. Entzun:

17

“Zoritxarrez, Marxek ez zuen diktadura hau nola ulertzen zuen modu zehatzagoan adierazi” (damutu baten gezur hutsa, Marxek eta Engelsek, marxismoaren exegeta Kautskyk nahita albo batera utzi dituen hagitz zehaztutako nahikotxo azalpen utzi baitzituzten). “Zentzu zorrotzean, diktadura hitzak demokrazia eza esan nahi du. Baina noski, hitz honek, estu- estuan, inolako legeren azpian ez dagoen pertsona baten botere pertsonala ere esan nahi du. Botere pertsonal hau, despotismoarengandik, estatuzko instituzio iraunkorra izan beharrean, behin-behineko izaera beharrezkoa izatean ezberdintzen da.

“Proletalgoaren diktadura” adierazpidea erabiltzeak, hau da, pertsona baten diktadura ezik, klase batena aipatzeak, Marxek diktadura hitza literalki ulertu izanaren hipotesia baztertzen du.

Kasu honetan ez *zen gobernu forma* batez ari, proletalgoak botere politikoa eskuratzen duen toki guztietan derrigorrez eman beharreko *egoera* batez baizik. Marxek Ingalaterran eta Iparramerikan trantsizioa modu baketsuan, hots, demokratikoan egin zitekeela zioen ikuspuntuari eutsi izanak; hemen gobernu-formez ez zela ari frogatzen du”. (20. orr.)

Argudio oso hau, irakurlea Kautsky “teorikoak” erabiltzen dituen prozedurez jabetu dadin nahita aipatu dugu.

Kautskyk auziari diktadura “*hitzaren*” definiziotik hastea ahalbideratuko ziokeen moduan ekitea aukeratu du.

Oso ondo. Bakoitzak auziei nahi bezala ekiteko eskubide osoa du. Baina hau egiteko modu serio eta ondratua, ondratua ez den modutik bereizi beharra dago. Arazoari modu serioan ekin nahi diona, modu horretan ekinez “*hitzaren*” *bere definizioa* ematetik hasi beharko litzateke. Orduan auzia argi eta garbi planteatuko zatekeen. Kautskyk ez du egiten. “Zentzu zorrotzean –idazten du– diktadura hitzak demokrazia eza esan nahi du.”

18

Lehenik, hau ez da definizio bat. Kautskyk diktadura hitzaren definizioa ematea ekidin nahi izango balu, zergatik aukeratzen du auziari ekiteko modu hori?

Bigarrenik, hau erabat faltsua da. Liberal batek

“demokraziaz” era orokorrean hitz egitea logikoa da. Marxista batek sekula ere ez luke “zein klaserentzat?” galdetzea ahantziko. Adibidez, mundu guztiak daki –eta Kautsky “historiagileak” ere badaki–, Antzinaroko esklaboen matxinadek eta baita ere asaldura handiek estatu greko-erromatarraren benetako izaera, *esklabisten diktadurarena* agerian uzten zutela. Diktadura honek esklabisten arteko, eurentzako demokrazia ezabatzen al zuen? Aski ezaguna da ez zela horrela.

Kautsky “marxistak” egundoko zentzugabekeria bat eta gezur bat esan du, klase borroka “ahantzi” egin baitu...

Kautskyren baieztapen liberal eta gezurtia baieztapen marxista eta egiazko bat bihurtzeko honako hau esan beharra dago: diktadurak ez duela zertan beste klaseengan diktadura ezartzen duen klasearentzat demokrazia eza esan nahi, baina bai diktadura berarengan edo bere aurka ezartzen den klaseentzat nahitaezko demokraziaren ezabapena (edo murrizte handi bat, zein ezabatzeko beste modu bat den).

Baina baieztapen honek, egia izanik ere, ez du diktadura definitzen.

Azter dezagun Kautskyren esaldia:

“(…) Baina noski, hitz honek, estu-estuan, inolako legeren azpian ez dagoen pertsona baten botere pertsonala ere esan nahi du (…)”

Bere muturra edonon sartzen duen kume itsu batek bezalaxe, Kautskyk hemen ideia zuzen batekin topo egin du (diktadura inolako legeren azpian ez dagoen botere bat dela), baina halere ez du diktaduraren definiziorik eman, eta gainera faltsukeria historiko nabarmen bat esan du: diktadura pertsona bakar baten boterea dela. Hau gramatikalki ere okerra da; diktadura pertsona talde batek, oligarkia batek, klase oso batek edota abarrek ezarri dezaketelako.

19

Gero, Kautskyk diktadura eta despotismoaren arteko ezberdintasuna adierazten du, baina nahiz eta bere baieztapena guztiz okerra izan, ez gara horretan luzatuko, guri interesatzen zaigun arazoarekin zerikusirik ez duelako. Ezaguna da oso XX. mendeari bizkarra ematean eta XVIII. mendera begiratzean eta XVIII. mendetik greko-erromatar antzinaroari begira egotean datzan Kautskyren zaletasuna; eta alemaniar proletalgoak boterea hartzean zaletasun hori kontutan hartuko duela eta esaterako, institutu bateko Antzin Historiako irakasle izendatuko duela espero dugu. Despotismoari buruzko gogoetara mugatuz, proletalgoaren diktaduraren definizio zehatz bat saihestea, edo ergelkeria galanta edo zitalkeria oso traketsa da.

Laburbilduz, diktadurari buruz aritu behar zen Kautskyk, berak jakinda gauza faltsu asko esan ditu, baina ez du definiziorik eman! Bere gaitasun intelektualengan konfiantzarik izango ez balu, nahikoa izango luke bere memoriara jotzea eta “fitxategietatik” Marx diktadurari buruz hitz egiten azaltzen duten kasu guztiak bilatzea. Ziur aski, definizio hau, edo funtsean honekin bat etorriko zen antzeko bat izango zuen:

Diktadura, zuzenki biolentzian oinarritzen den eta inolako legeren azpian ez dagoen boterea da.

Proletalgoaren diktadura iraultzailea, proletalgoak erdietsitako eta burgesiarengan biolentziaren bitartez ezarritako inolako legeren azpian ez dagoen boterea da.

Eta egi xume hau, edozein langile kontzienterentzat (herri langile xeheko kide bat denarentzat, ez, herrialde guztietako sozialinperialistak¹⁴ diren antzera, kapitalistek saldutako jendilaje burges txikiaren goi mailako sektorekoa) hain argi dagoen egi hau, euren askapenaren alde borrokatzen duten edozein esplotarentzat hain nabarmena den egi hau, edozein marxistarentzat zalantzarik gabeko egi hau, Kautsky jaun jakintsuari “guda bidez idoki” behar zaio! Nola azaldu hau? Burgesiaren zerbitzura dauden gaitz-esale mespretxagarri bihurtutako II Internazionalen buruengan sartutako menpekotasun izpiritua dela eta, jakina.

20

Kautsky terminoak itxuraldatuz hasi da, diktadura adiera zorrotzean pertsona baten diktadura dela bezalako zentzugabekeria esanez, eta gero –itxuraldatze horretan oinarrituz!–, “beraz”, Marxen klase diktadurari buruzko hitzak adiera zorrotzean ez direla esanez (baizik eta, ez dezagun ahaztu, diktadura hitzak biolentzia iraultzailea esan nahi beharrean, demokraziaren azpian, demokrazia burgesaren azpian, jakina, gehiengoa modu “baketsuan” konkistatzearen zentzua izango luke).

Hau da hau! “Egoeraren” eta “gobernu formaren” arteko ezberdintasuna egin behar da! Sekulako sakontasunezko duen ezberdintasuna! Txepelik arrazoitzen duen pertsona baten ergelkeria “egoera” eta zakilkeriak esateko erabiltzen duen “forma” ezberdintzea bezalako.

Kautskyk diktadura “nagusitasun egoera” bezala interpretatzeko *beharra* du (horrela agertzen da bere liburuxkaren hurrengo orrialdean, 21.ean); halaxe, biolentzia iraultzailea, *biolentzia bidezko iraultza* desagertu egiten delako. “Nagusitasun egoera” edozein gehiengok... “demokrazian” duena da! Horrelako azpikeria baten bidez, iraultza, zorionez, besterik gabe *desagertzen* da!

21

Baina amarru hau baldarregia da, eta ez da Kautsky salbatzeko nahikoa izango. Diktadurak klase baten beste baten gaineko *biolentzia iraultzailea* suposatzen duela, damutuentzako hain desatsegina den hori esan nahi duela ezin da inolaz ere ezkutatu. “Egoeraren” eta “gobernu formaren” arteko ezberdintasuna egitea, zentzugabekeria nabarmena da. Kasu honetan gobernu formez hitz egitea ergelkeria da, ume batek ere baitaki monarkia eta errepublika gobernu forma ezberdinak direla. Kautsky jaunari, gobernu forma bi hauek, kapitalismoaren menpeko trantsiziozko “gobernu forma” guztiak bezalaxe, *burges estatuaren*, hau da, *burgesiaren diktaduraren* aldaeretakoa bi baino ez direla azaldu behar zaio.

¹⁴ **Sozialinperialistak:** sozialchovinnostak izendatzeko beste modu bat. Izen hau, guda inperialistan parte hartzearen alde egon zirelako, euren herrialdeko inperialismoaren konkista belikoak txalotzen zituztelako, askotan gobernu inperialistetan sartu zirelako eta inperialismoak, herri kolonizatuak masen kontura, zenbait langileentzako zekartzan “hobekuntza” materialei esker erosotutako “langile aristokraziaren” (finean, hauek, kapitalismoaren eztanda ekiditeko asmoz kapitalismoak “baretutako” sektoreak ziren) ordezkari zirelako jarri zitzairen. (Itzultzailearen oharra).

Laburbilduz, hemen gobernu formen gainean mintzatzea, Marx ergelki eta horrez gain trakets aizuntzea da; Marx hemen, argi eta garbi, *estatu* forma edota motari buruz ari delako, ez gobernu forma eta motari buruz.

estatu burgesaren makineria bortizki suntsitu gabe eta Engelsen hitzetan “jada, hitzaren zentzu zorrotzean estatu bat ez den”¹⁵ beste *berri* batez ordeztu gabe, langile iraultza ezinezko da.

Kautskyk hau ezkutatzeko eta itxuraldatzeko beharra du; damutu bat izateak horretara bultzatzen du.

Ikus ezazue nolako aitzakia ziztrinak erabiltzen dituen:

Lehen aitzakia: “Marxek Ingalaterran eta Iparramerikan trantsizioa modu baketsuan (hots, demokratikoan) egin zitekeela zioen ikuspuntuari eutsi izanak hemen gobernu formez ez zela ari frogatzen du” (...)

Gobernu formak ez du honekin inolako zerikusirik, estatu burges batentzako ohikoak ez diren monarkiak, militarismoaren gabezia nabarmentzen direnak, egon badaudelako eta alor honetan oso ohikoak diren errepublikak, militarismoa eta burokrazia dituztenak, ere badaudelako. Hau gertaera historiko nabarmen bat da eta Kautskyk ezin du aizundu.

22

Kautskyk modu serio eta ondratuan arrazoitu nahi izan balu, galdera hau egingo ziokeen bere buruari: Ba al dago iraultzari buruzko salbuespenik gabeko lege historikorik? Erantzuna hau izango zatekeen: ez, ez dago halako legerik. Lege horiek ohikoari bakarrik aplikatu daitezke; adibidez, kapitalismoan ohikoa, tipikoa, arrunta denari, Marxek behin “ideala” deitu zionari.

Jarrai dezagun. Ba al zegoen 70eko hamarkadan, Ingalaterra edota Iparramerika, *aztertzen dugun zentzuan*, salbuespen bezala hartzeko arrazoirik? Historia alorreko arazoetan zientziak galdegiten duenarekin ohitua dagoen pertsona orok galdera hau planteatzea beharrezkoa dela badaki. Ez planteatzeak zientzia aizuntzea esan nahi du, sofismetan jolastea esan nahi du. Eta behin planteatutakoan, erantzunak ez du zalantzarik: proletalgoaren diktadura iraultzailea burgesiaren aurkako biolentzia da; Marxek eta Engelsek sarritan esan duten arabera (bereziki Guda *Zibila Frantzia*¹⁶ liburuan eta honi egindako hitzaurrean), *militarismoaren eta burokraziaren existentziak* biolentzia hau bereziki beharrezkoa egiten dute. Ingalaterran eta Iparramerikan hain zuzen, Marxek azalpen hau egin zuenean, XIX. mendearen 70. hamarkadan, hain zuzen instituzio hauek ez zeuden! (Eta orain bai Ingalaterran zein Iparramerikan, badaude).

Bere apostasia estaltzeko, Kautsky, ematen duen urrats bakoitzeko tranpa egin beharrean aurkitzen da!

Eta ikus ezazue konturatu gabe astobelarriak nola erakutsi dituen: “modu baketsuan, *hots, demokratikoan*” idatzi baitu!!

¹⁵ Friedrich Engels: August Bebeli idatziriko gutuna, 1875eko martxoaren 18-28. *Gothako Programari eginiko Kritikarekin batera* argitaratua.

¹⁶ **Guda Zibila Frantzia**: Liburu honetan, Marxek eta Engelsek Komunaren langile iraultzaren buruzko azalpena, Komunaren barne funtzionamendua eta garapen historikoa azaltzen dituzte. Ideologia marxista ulertzeko, liburu gomendagarria da oso. (Itzultzailearen oharra)

Diktadura definitzerakoan, Kautskyk bereak eta bi egin ditu irakurleari kontzeptu honen oinarria, hots, *biolentzia iraultzailea* ezkutatzeko. Eta orain egia azaleratu da: iraultza baketsuaren eta *indar-bidezko iraultzaren* aurkakotasunaz ari da.

23

Hor dago kokka. Kautskyren aitzakia guztiak, sofisma guztiak eta faltsukeria maltzur guztiak; *indar-bidezko* iraultza *saihestea*. Hau ukatzen duela eta langile politika *liberalaren* aldera, hau da, burgesiaren aldera pasatu dela estaltzeko beharrezkoak zaizkio. Hor dago kokka.

Kautsky “historiagileak” historia hainbestearainoko zinismoaz itxuraldatzen du, ezen garrantzitsuena “ahazten” duen: kapitalismo aurremonopolistak –zeinen goraldia, hain zuzen XIX. mendeko 70. hamarkadan eman zen–, Ingalaterran eta Iparramerikan modu arras arruntean azaleratzen ziren bere oinarrizko ezaugarri *ekonomikoen* arabera, nolabaiteko zentzu erlatiboan, bakea eta askatasunarekiko atxikimendua zuen ezaugarri. Aldiz, inperialismoak, hots, kapitalismo monopolistak, XX. mende arte heldutasun osoa lortu ez duenak; bere oinarrizko ezaugarri *ekonomikoen* arabera guztiz kontrakoa du ezaugarri: bakea eta askatasunarekiko gutxiengo atxikimendua eta toki guztietan militarismoa erabat garatzea. Iraultza baketsu edo indar-bidezko bat zein ohikoa edo posiblea den hitz egitean honetaz “ez ohartzea”, burgesiaren morroirik eskasaren mailara jaistea da.

Bigarren aitzakia: Parisko Komuna proletalgoaren diktadura izan zen, baina burgesiari bere bozka eskubidea kendu gabe sufragio unibertsalaren bidez, hots, “*demokratikoki*” aukeratua izan zen. Eta Kautskyk, garaipen itxuraz, hauxe ondorioztatzen du: “Marxentzat (edo Marxen arabera), proletalgoaren diktadura, proletalgoak gehiengoa izanez gero demokrazia garbitik atera beharreko egoera bat da”. (*bei überwiegendem Proletariat*, 21. orr.)

Kautskyren argudio hau hain da barregarria, ezen norberak, bere burua benetako *embarras des richesses* batean (gehiegikeriatik jaiotako zailtasuna... objektzioen gehiegikeriatik kasu honetan) ikusten duen. Lehenik eta behin; burgesiaren gainak eta loreak, estatu Nagusiak, burgesiaren gorengo mailek, Parisetik Versaillesera ihes egin zutela jakina da. Versaillesen Louis Blanc¹⁷ “sozialista” zegoen, beraz gezurra da Kautskyk Komunan sozialismoaren “joera guztiek” parte hartu zutela dioen hori. Ez al da barregarria Parisko hiritarrak erabat gudan zeuden bi esparrutan zatitze hori, bietako baten burgesia oldartzaile politikoki aktiboa zegoelarik, “sufragio unibertsalean oinarritutako demokrazia garbi bat” bezala aurkeztea?

24

Bigarrenik, Komunak Versaillesen aurka, gobernu burgesaren aurka, *Frantziako* langile gobernu gisa borrokatu zuen. Zein zerikusi dute “demokrazia garbiak” eta “sufragio unibertsalak” Parisek Frantzia osoaren patua erabakitzearekin? Marxek

¹⁷ **Louis Blanc**: Frantziar historialaria eta sozialista burges ttipia. Bere “sozialismoa” klase adiskidantzan eta klase borroka ukatzean oinarritzen zen. 1848ko iraultzaren ostean, Behin-behineko Gobernu (burges-ttipi) iraultzaileak “langile auzia aztertze komisioko” arduradun izendatu zuen, eta postu horretatik, erreformismoa bultzatu eta langileek klase borroka azken ondorioetara eramanez zezaten eta iraultza herrikoia iraultza sozialistarantz bidera zezaten ekiditen lagundu zion burgesiari. Halere, erbestera ihes egin behar izan zuen, bai eskuinean zein ezkerrean etsai gehiegi izan zituelako. 1849an itzuli zen Frantziara, baina laster berriz erbestera egin behar izan zuen, Louis Napoleon Bonaparteren Bigarren Inperioaren aurkakoa zelako. 1871an, Parisko Komunaren etsai izan zen eta III Errepublikarekin lerrokatu zen. (Itzultzailearen oharra)

Komunak Frantzia osoarena zen Bankua ez bereganatzearen akats bat egin zuela uste zuenean¹⁸; “demokrazia garbiaren” printzipio eta praktikatik abiatzen al zen?

Ongi nabarmentzen da Kautskyk idazten duen herrialdean poliziak jendeari “taldean barre egitea” debekatzen diola, bestela barreak akabatua izango zen jada.

Hirugarrenik, Marx eta Engels buruz dakizkien Kautsky jaunari, modu adeitsuan, Engelsek Komunaren gainean... “demokrazia garbiari” buruz zuen iritzi hau gogoraraziko diot:

“Jaun hauek (antiautoritarioek) ez al dute sekula ere iraultzaren bat ikusi? Zalantza izpirik gabe, iraultza bat inolako gauzarik autoritarioena da; populazioaren zati batek fusilak, baionetak eta kainonak bezalako baliabide autoritarioak erabiliz, beste zatiari bere borondatea inposatzen dion ekintza da iraultza; eta alderdi irabazleak, bere borroka alferrikakoa izan ez dadin, lortu berri duen nagusitasuna, atzerakoiei armek ematen dieten izuaren bidez mantendu behar du. Iraungo al zuen Pariseko Komunak egun oso bakar bat herri armatuaren agintea burgesiaren aurka erabili izango ez balu? Ez al diogu leporatu behar aginte hori nahikoa erabili ez izana?”¹⁹

²⁵

Horra “demokrazia garbia”! Zenbat barre egingo zukeen Engelsek, klaseetan banatutako gizarte batean, abstraktuan “demokrazia garbiaz” hitz egitea bururatuko zitzaiokeen burges- ttipi edota “sozialdemokrata” (azken hitz hau, Frantzian 40. hamarkadan zuen zentzuan edo Europa osoan 1914-1918 urteetan izan duen zentzuan ulertuta²⁰) kaxkarraz!

Nahikoa da. Kautskyren zentzugabekeria guztiak zenbatzea ezinezkoa da, bere esaldi bakoitza apostasiak lokaztutako putzu erraldoi bat delako.

²⁶

Marxek eta Engelsek Parisko Komuna zehatz-mehatz aztertu dute, honen meritua “orduko estatuaren makineria” *apurtzeko, puskatzeko* egindako saiakeran zetzala frogatuz. Marxek eta Engelsek ondorio honi emandako garrantzia hainbestearainokoa zen, ezen 1872an *Manifestu Komunistaren* programa (nolabait) “zaharkituan”

¹⁸ Friedrich Engelsek, Karl Marxen *Guda Zibila Frantzian* liburuari eginiko *Sarreran*, ideia hau plazaratzen zuen. (Itzultzailearen oharra)

¹⁹ Friedrich Engels: **Autoritateaz**, erdaraz, *De la autoridad*. Ez dago euskarazko itzulpenik.

²⁰ Hitzaren zentzua: “sozialdemokrata” hitza, sinbolo bezala, historian zehar modu ezberdinean erabilia izan da eta izen hau aldarrikatu izan duten taldeak ere historian zehar aldatu egin dira. Frantzian, 40. hamarkadan, hitz hori sozialista humanista burges-ttipiek erabili izan zuten, klase borroka proletarioan oinarritutako sozialista iraultzaileen (marxisten eta Internazionalaren enbrioi izango zirenen, hau da, euren burua “komunista” izendatzen zutenen) aurka. Alta, geroago, hitz hori sozialista iraultzaileek erabili izango zuten, adibidez Alemanian alderdi marxistak bere burua “sozialdemokrata” bezala definitu zuen (Marxek honen gainean “egia da hitza ez dela zuzenena, baina ulergarria bada. Garrantzitsuena ez da hitza, edukia baizik” komentatu zuen) eta berdin egin zuten beste zenbait herrialdeetako alderdi marxistek. II Internazionalan alderdiak “sozialdemokrata” deitzea ez zegoen gaizki ikusia eta garai horretan herrialde askotan hitz hori “marxista” hitzaren baliokidetzat hartuko zen. Errusiako Alderdi marxistak ere, hasieran, “sozialdemokrata” bezala definitu zuen bere burua (boltxebike eta mentxebikeetan zatitu baino lehen). Baina 1914ko Lehen Guda eman zenean, II Internazionalako alderdi gehienak (“sozialdemokratak”) sozialchovinista bezala nabarmenduko ziren, eta geroxeago, Urriko Iraultza Sozialistaren eta boltxebikeen aurka (hauek euren burua “sozialdemokratengandik” bereizteko, Marxen hitz zaharra berreskuratu eta “komunista” bezala izendatzen hasi zirelarik) aritu ziren. Hori dela eta, hortik aurrera, sozialdemokrata hitza, sozialismoaren barruko erreformistak, oportunistak eta kapitalismoarekin “ondo konpontzen” zirenak, iraultza sozialistaren aurka jartzen zirenak eta kapitalismoa kudeatzearen aukera egin zutenak izendatzeko erabili zen. Leninek, noski, hitz hau mesprekuz badio, ez da II Internazionalaren garai onenak aipatzen ari, hitz honek antikomunismoa ordezkatzeko zuten garaia baizik. Horren harira dator azalpena. (Itzultzailearen oharra)

emendakin hori *soilik* sartu zuten²¹. Marxek eta Engelsek; Komunak estatua eta burokrazia ezabatzen zituela, *parlamentarismoa* ezabatzen zuela, “estatua den gorotz xurgatzaile hori” suntsitzen zuela eta abar frogatu zuten; baina Kautsky jaun jakintsuegiak, lotarakoa jantzi eta aditu liberalek mila aldiz kontatutako “demokrazia garbiari” buruzko ipuinak errepikatzen ditu.

1914ko abuztuak 4ean Rosa Luxemburgek²² alemaniar sozialdemokrazia *kiratsa darion gorpu* bat zela esan zuenean, ez zitzaion arrazoirik falta.

Hirugarren aitzakia: “Diktaduraz gobernu forma gisa mintzatzen bagara, ezin gaitzke klase baten diktaduraz mintza. Lehen esan dugun bezala, klase batek gaina hartu ahal duen arren, ezin duelako gobernatu (...)” “Erakundeek” edo “alderdiek” gobernatzen dute.

27

Nahastu egiten duzu, nahastu besterik ez duzu egiten zuk, “nahaste-borrastearen aholkulari” jaun horrek! Diktadura ez da “gobernu forma” bat, hori zentzugabekeria barregarri bat da. Marxek ez du “gobernu formaz” hitz egiten, erabat ezberdina, guztiz ezberdina den estatu-formaz edo motaz baizik. *Klase batek* gobernatu ezin omen duen hori ere guztiz okerra da: halako zentzugabekeria bat parlamentu burgesetik haratago, “gobernu alderdietatik” haratago ikusten ez duen “kirten parlamentario” batek soilik esan dezake. Kautskyri edozein europar herrialdek eman diezazkioke klase menderatzailea gobernu-jardueran egondako adibideak; adibidez Erdi Aroko lur-jabeak, antolaketa eskasa izan zuten arren.

²¹ Karl Marx eta Friedrich Engels: Marxek ideia hau, bai 1872an Ludwig Kugelmanni bidalitako gutunean zein *Guda Zibila Frantzian* liburuan azaldu zuen. Friedrich Engelsek, aldiz, Marxen *Guda Zibila Frantzian* liburuarri 1891an idatzitako *Sarreran* egin zuen. (Itzultzailearen oharra)

²² **Rosa Luxemburg:** Militante iraultzaile poloniarra; Poloniako, Alemaniako eta Errusiako mugimendu sozialistetan parte hartu izan zuen. Iraultzaile handia izan zen, historiako handienetakoa. Polonia eta Lituaniako Sozialdemokrazia deituriko erakunde bat fundatu zuen eta Alemaniako Alderdi Sozialdemokratako kide bezala, ezker atalean kokatu zen, Bernsteinen errebisionismoaren eta Kautskyren oportunistoaren aurka ausarki borrokatuz. Errusian parte-hartze txikiagoa izango zuen, baina 1903ko Kongresuan, hasiera batean mentxebikeekin lerrokatuko zen (bere geroagoko ibilerak, hasierako posizio hori sobera zuzendu bazuen ere), Lenin eta boltxebikeen “koadro-alderdi” kontzeptuaren aurrean, “masa-alderdi” kontzeptuarekin ados zegoelako. 1912an kartzelaratu izan zen, gudaren aurkako manifestaldi batean parte hartzeagatik; hurrengo urtean askatuko zuten. 1914an, Alemaniako Alderdi Sozialdemokratak gudaren aldeko hautua egin zuenean, zera esan zuen Luxemburgek: “Sozialdemokrazia kaka-usaina darion hilotz ustel bat da”. Beraz, internazionalista bakan batzuekin batera (Karl Liebknecht, Clara Zetkin, Franz Mehring eta abar), Liga Espartakista (internazionalista) sortu zuen. Leninekin erabat ados zegoen inperialismoa borrokatzean eta guda inperialista guda iraultzaile bihurtzean (berea da “Sozialismoa edo basakeria!” esaldia), baina bi buruzagien artean ezberdintasun teorikoak zeuden. Adibidez, Luxemburgen akatsen artean, inperialismoaren definizioan egindako oker batzuk edota herrien autodeterminazioaren inguruan izan zuten eztabaida (Rosa Luxemburg herrien autodeterminazioaren aurka zegoen, “eskubide demokratiko-burges” bat bezala ikusten zuelako, potentzial iraultzaile antiinperialistak ez zuela uste zuelako eta langileen batasunaren eta internazionalismoaren aurka “nazionalismoari” egindako emakida bat zela uste zuelako; Lenin ordea, autodeterminazio eskubidearen alde zegoen) zeuden. Hala ere, funtsean (erreformismoaren traizioari dagokionean, iraultza proletarioaren alde egiterakoan, eta guda inperialista guda iraultzailea bihurtzerakoan), Leninekin ados zegoen. Hasiera batean Urriko Iraultza Sozialistaren alde agertu zen, baina ez abangoardiako Alderdiaren eta zentralismo demokratikoaren alde, “Alderdiaren militarizazioa” kritikatu zuen eta “langile demokrazia” (Pannekoeken “kontseilu komunismoaren” antzeko zerbait) proposatu zuen. Aldi berean, zuzendaritza zentralista demokratikoaren aurkakoa zen eta Leninek arbuiauriko “espontaneismo” kontzeptua marxismorako berreskuratzen saiatu zen. 1918an Alemaniako Alderdi Komunista fundatu zuen eta sozialdemokratek aldarrikatutako Errepublikak burgesaren aurka azaldu zen. 1919ko Alemaniar Iraultzan Gobernuaren aldeko tropa paramilitarrek erail egin zuten, bere lagun Karl Liebknechtekin batera. Leninek eta boltxebikeek, honen ikuspuntu idealistak gora-behera, emakume honen ekarpen bikainak eta lan aparta beti goratu zituzten eta Iraultza proletarioaren martir tratua eman zioten. (Itzultzailearen oharra)

I. Kautskyk Marx liberal eskas bat nola bilakatu duen

Laburbilduz: Kautskyk proletalgoaren diktaduraren kontzeptua modurik sinesgaitzenezan desitxuratu du Marx liberal eskas bat bihurtuz; hau da, bere burua, demokrazia burgesaren klase edukia atonduz eta estaliz eta klase zanpatuaren biolentzia iraultzailea edozer baino lehen saihestuz, “demokrazia garbiari” buruzko pellokeriak botatzen dituen edozein liberalen mailara jaitsi du. Kautskyk “proletalgoaren diktadura iraultzailea” kontzeptua, zapaltzaileen aurkako klase zapalduaren biolentzia iraultzailea desagertzeko moduan “interpretatzen” duenean, Marxen desitxuratze liberaleko marka guztiak hausten ditu. Bernstein damutua Kautsky damutuaren ondoan ume koxkor bat besterik ez da.

II. Demokrazia burgesa eta demokrazia proletarioa

Kautskyk hainbeste kaka-nahasten duen afera, modu honetan planteatzen da.

Sen onaz eta historiaz trufa egiteko asmoz ez bada, argi dago *klase* ezberdinak dauden bitartean ezin daitekeela “demokrazia garbiaz” hitzik egin, *klase* demokraziaz bakarrik baizik. (Parentesien artean, esan dezagun “demokrazia garbia” ez klase borroka ez estatuaren izaera ulertzen ez dituen *ezjakinaren* ohiko esaldia izateaz gain, esaldi guztiz hutsala dela; gizarte komunistan, demokrazia, eraldatuz eta ohitura bihurtuz joaten den heinean desagertuz joango delako, baina sekula ez delako “demokrazia garbi” izango).

“Demokrazia garbia” langileak tronpatzeko iruzur liberal bat da. Historiak feudalismoa ordeztzen duen demokrazia burgesa eta demokrazia burgesa ordeztzen duen demokrazia proletarioa ezagutzen ditu.

Kautskyk demokrazia burgesa Erdi Aroa baino aurrerakoiagoa delakoan datzan “egi” hori frogatzen eta langileek burgesiaren aurka hura derrigor erabili behar dutela esaten orrialde hamarkada sorta erabiltzen dituenean, horixe, langileak tronpatzeko hitzontzikeria liberal hutsala baizik ez da. Bai Alemania jantzian zein Errusia eskolagabeen pellokeria hutsa da. Kautskyk; gaur egungo demokraziaren, hots, demokrazia *kapitalistaren izate burgesa aintzakotzat ez hartzeko asmoz Weitlinge*²³ edota Paraguaiako jesuitez eta beste gauza askotaz jakitun-taxuaz hitz eginez egiten duena langileak ke “jakintsuaz” nahastea da.

30

Kautskyk marxismotik liberalek onartzen dutena, burgesiak onartzen duena (Erdi Aroaren kritika, kapitalismoak oro har eta demokrazia kapitalistak bereziki historian zehar jokaturako paper aurrerakoa) hartzen du; eta burgesiarentzat onartezina dena (burgesia akabatzeke proletalgoaren indarkeria iraultzailea) zokoratu, isilarazi eta ezkutatu egiten du. Horregatik, bere uste subjektiboa edozein izanda ere, bere posizio objektiboa dela eta, Kautsky, derrigorrean, burgesiaren morroi suertatu da.

Erdi Aroarekiko aurrerapen handi bat suposatzen duen demokrazia burgesak; betiere –kapitalismoaren pean hala behar du izan– estua, moztua, faltsua, hipokrita, aberatsentzako paradisua eta esplotatuentzako, pobreentzako iruzurra izaten da oraindik. Kautsky “marxistak” ez du marxismoaren oinarrian datzan egia hau ulertzerik lortu. Oinarrizko afera honetan, Kautskyk burgesiaren “gustuko gauzak” esaten ditu, demokrazia burges oro aberatsentzako demokrazia egiten duten baldintzen kritika zientifiko bat egin ordez.

²³ **Wilhelm Weitling:** Alemaniako langile mugimenduaren militantea izan zen honen hasierako egunetatik. Weitlingen ideologia komunismo utopikoa zen, eta berdintzaletasun erradikala erlijioarekiko fede sutsuarekin uztartzen zuen; bere ustez, ideologia komunistak hasierako kristautasunaren mezuarekin antzekotasun handia zuen. 1848ko alemaniar iraultzak porrot egin ostean AEBra erbesteratu zen. Bertan, 1850 eta 1855 artean, *Republik der Arbeiter (Langileen Errepublik)* aldizkaria editatu egin zuen; geroago politika utzi egin zuen. Marxek eta Engelsek biziki estimatzen zuten, oso ideologo burutsua zelako eta langile klaseko jatorrikoa zelako; baina beste alde batetik bere idealismoa materialismo zientifikoarekin bateraezina zela ikusten zuten (adibidez, Weitlingen fede erlijiosoaren auziak hor zerikusia zuen) eta Weitlingen sektarismoa eta gehiegizko mesianismoa (hau da, bere burua salbatzaile bakarraren pare jartzea) ez zuten batere laket. (Itzultzailearen oharra)

Has gaitzen, bada, Kautsky jaun ezin jakintsuagoari Marx eta Engelsen adierazpen teorikoak gogorarazten, gure exegetak bere lotsarako “ahaztu egin” dituenak. Burgesiari atsegin emateko asmoz ahaztu ere bai. Eta gero gauzak modurik ulerterrazenean azalduko ditugu.

31

Ez soilik antzinako estatu feudala, baizik eta baita ere “gaur egungo ordezkartzeko estatua, kapitalak soldatapeko lana esplotatzeko darabilen tresna da” (Engels, bere estatuari buruzko lanean²⁴). “estatuak, borrokan zehar, iraultzan zehar, etsaia indarkeriaren bidez menperatzeko erabiltzen den erakunde iragankorra baizik ez denez gero, ez du batere zentzurik “estatu herrikoi askeaz”²⁵ hitz egiteak; izan ere proletalgoak estatuaren beharra duen bitartean, ez du askatasunaren mesederako behar izango, bere etsaiak menperatzeko baizik, eta askatasunaz hitz egiten hasi gaitzkeenean, estatuak, hala ulertua izanez gero, izateari utziko dio”. (Engels; Bebel²⁶ 1875eko martxoaren 28an idatzitako gutunean). “estatuak, bai errepublika demokratikoan zein monarkian, da klase batek beste bat zanpatzeko erabiltzen duen aparatua eta ez beste ezer”. (Engels; Marxen *Guda Zibila Frantzia* lanari eginiko hitzaurrean). Sufragio unibertsala “langile klasearen heldutasun mailaren indizea baino ez da. *Gaur egungo estatuan ezin da gehiago izatera iritsi eta ez da sekula ezer gehiago izango*”. (Engels; bere estatuari buruzko lanean²⁷. Kautsky jaunak tesi honen lehenengo zatiari, burgesiarentzat onargarria de zatiari, modu aspergarrian milaka itzuli ematen dizkio. Aitzitik, azpimarratu dugun bigarren zatia, burgesiarentzat onartezina dena, Kautsky damutuak ez du aintzakotzat hartzen!). “Komuna –zioen Marxek– ez zen erakunde parlamentario bat izanen, baizik eta lan korporazio bat, aldi berean legegilea eta betearazlea izango zelarik... Sufragio unibertsala, hiru edo sei urterik behin, parlamentuan klase menderatzailearen zein kidek herria ordezkatu eta zapalduko (*ver- und zertreten*) duten aukeratzeko barik, komunetan antolatutako herria zerbitzatzeko tresna izango zen. Sufragio indibiduala ugazabak, euren negozioetarako langile, inspektore eta administratzaile bila dabilzanean, zerbitzatzeko tresna den modu berean.”. (Karl Marx, bere Parisko Komunari buruzko *Guda Zibila Frantzia* lanean).

32

Kautsky jaun txit jakintsuarentzat, oso ondo ezagutzen dituen hauetako tesi bakoitza bere traizioa agerian uzten duen zaplazteko bat da. Kautskyren liburuxka osoan ez da egi hauen ulermen ttantta bat ere agertzen. Oso-osorik, marxismoaren burla bat da!!

²⁴ Friedrich Engels: Ikus Engelsen *Familiaren, jabetza pribatuaren eta estatuaren jatorria* lana.

²⁵ “**Estatu herrikoi askea**” XIX mendeko alemaniar sozialdemokraten kontsigna ezaguna izan zen, Gothako Programan azaltzen zena. Kontsigna hau programa horren oportunistoaren adierazle zen. Izan ere kontsigna honetan, estatuaren kontzeptua idealizatu egiten zen, eta ez zen estatuaren jitea modu zehatzean azaltzen; klase menperatzailearen tresna zela ezkutatu egiten zen, eta “herritar guztien” estatu “aske” utopiko bat aldarrikatzen zen. Marxek eta Engelsek kontzeptu hau gogor kritikatu zuten. (Itzultzailearen oharra)

²⁶ **August Bebel**: Alemaniar militante sozialista ospetsua, II Internazionalaren sortzaileetako bat izan zen. Bere hutsegite politikoak gora-behera, Marx eta Engelsen jarraitzaile onenetako bat izan zen. 1869an, Wilhelm Liebknechtekin batera, Langileen Alderdi Sozialdemokrata (eisenachtarren alderdia) sortu zuen, marxismoak ideologikoki eragindako alderdia. 1875ean, Alderdi horrek Alemaniako Langileen Elkarte Nagusiarekin batzea erabaki zuen, Bebel batze horrekin ados zegoelarik; honek Bebel eta Marx eta Engelsen arteko behin-behineko urruntze bat suposatu zuen. Alemaniako Langileen Alderdi Sozialdemokrataren lehendakari izendatuko zuten, eta postu horretan jarraituko zuen 1912 arte. Marx eta Engels zendu ostean, alemaniar sozialdemokraziaren ordezkari marxista ezagunena izan zen. Erreformismoaren eta oportunistoaren etsaia izan zen eta emakumeen mugimenduaren eta mugimendu proletarioaren harremanari buruzko zenbait ekarpen teoriko egin zituen. (Itzultzailearen oharra)

²⁷ Friedrich Engels: *Familiaren, jabetza pribatuaren eta estatuaren jatorria* liburua aipatzen ari da Lenin.

Har itzazue gaur egungo estatueta lege konstituzionalak, har ezazue hauek gobernatzeko modua, biltzeko edo inprimatzeko askatasuna, “legearen aurreko hiritarren berdintasuna”; eta uneoro langile ondratu eta kontziente orok ondotoxoz ezagutzen duen demokrazia burgesaren hipokrisia hori hor ikusiko duzue. Ez dago estaturik, demokratikoena barne, zeinen Konstituzioak “ordena asaldatuz gero” –hau da, klase zanpatuak bere esklabotasun egoera “asaldatuz” gero, esklaboen propioa ez den zerbait eginez gero–, burgesiari guda-estatua aldarrikatzean, tropak langileen aurka bidaltzean eta abarrean datzan irteeraren bat edo gordelekurik eskaintzen ez dion. Kautskyk, lotsagabe, demokrazia burgesa apaintzen du, adibidez Iparramerikan edo Suitzan burgesik demokratikoenek eta errepublikanoenek greban dauden langileen aurka egiten dutenaren aurrean txintik ere ez dioenean.

33

Ene bada, Kautsky jaun jakintsu eta adituak isildu egin du ba! Politikari aditu honek ez daki hori isiltzea azpikeria dela. Nahiago du langileei umeentzako ipuinak kontatzea, adibidez demokraziak “gutxiengoaren defentsa” esan nahi omen duen hori. Harrigarria badirudi ere, halaxe da! Gure Jaunaren 1918ko urte honetan, mundu mailako sarraski inperialistaren eta munduko “demokrazia” guztietan gutxiengo internazionalistak²⁸ (hau da, Renaudel eta Longuet, Scheidemann eta Kautsky, Henderson eta Webb²⁹ bezalakoek egin antzera sozialismoa

²⁸ **Internazionalistak:** Testuinguru honetan, Lenin, XX mendearen hasieran mundu mailako mugimendu sozialistaren baitan agerturiko korrante batez ari da. Korrante hau erabat marxista eta iraultzailea zen. Euren bozeramaile ezagunena Lenin bera zen. Internazionalistek, guda inperialistari amaiera iraultza sozialistaren bidez soilik eman ahal zitzaiola esaten zuten. Guda honen aurrean, internazionalistak, langile klaseak bere herriko burgesiarekin nazio kapitalista defendatzeko bat egitearen eta herri ezberdinetako langileak nazio kapitalistaren izenean elkar akabatzearen aurka azaldu ziren; eta beraz klaseen arteko gudaren alde agertu ziren, “*Guda gudaren aurka!*” lelopean langile internazionalismoa hedatuz. Internazionalistak, sozialchovinisten (guda inperialistan parte hartzearen, burgesiarekin bat egitearen eta nazio kapitalistaren defentsaren aldekoak) eta sozialbakezalea-kautskitarren (hitzez gudaren aurkako sozialistak, baina izatez guda inperialista esaldi bakezaleekin estaltzen zuten bakezale burgesak) aurka gogor aritu ziren. Orduko mugimendu sozialistaren baitan korrante oportunistak nagusi zirenez gero, internazionalistek gutxiengoa osatzen zuten, hala ere ez zuten koherentzia alde batera utzi. Politika internazionalistaren fruiturik ezagunena 1917ko Urriko Iraultza Sozialista izan zen, Alderdi Boltxebikearen eskutik heldu zena. Guda bukatutakoan, internazionalistek, herrialde bakoitzeko Alderdi Komunistak sortu zituzten. (Itzultzailearen oharra)

²⁹ Zenbait buruzagi sozialdemokrata. **Pierre Renaudel:** Frantziar Alderdi Sozialistako (SFIO) buruetako bat, sozialchovinista. 30eko hamarkadan faxismora hurbilduko zen, horregatik, SFIOtik egotzia izango zen. **Jean Longuet:** Frantziar sozialista, ogibidez publizista izandakoa. Familia sozialista batean jaiotakoa izan zen (aita Parisko Komunaren kide izan zen, eta ama, mugimendu marxistaren kide aktiboa. Karl Marx beraren iloba izan zen, amaren aldetik), halaxe, gaztetatik Frantziako Alderdi Sozialistan (SFIO) parte hartu zuen. 1914an, Lehen Mundu Guda hasterakoan, posizioa sozialbakezaleari atxekiko zitzaion. 1916an SFIOren Le Populaire (Herrikoia) egunkaria sortu zuen. 1917an Urriko Iraultza Sozialistaren aurka agertu zen, baina baita ere honen aurkako interbentzio militar inperialistaren aurka. 1920an Tourseko Kongresuan (Internazional Komunistan sartzea erabaki zuen gehiengoaren aurka (hauek alderdi berri bat sortuko zuten, PCF) azaldu eta SFIO izena gordeko zuten gutxiengo sozialdemokratarekin geratuko zen. 30eko hamarkadan, komunistekin batera, faxismoaren mehatxuaren aurka borrokatu zen, adibidez, Espainiako Guda Zibila eman zenean, Errepublikaren kausaren lagun izan zen eta frantziar gobernuaren “eskusartze ezaren” postura kritikatu zuen. **Philip Scheidemann:** Alemaniako Alderdi Sozialdemokrataren buruetako bat, ideia errebisionisten aldekoa. I Mundu Gudan posizio sozialchovinistaren alde egin zuen. Alemaniak guda inperialista galdu ostean, hiltorian zegoen monarkiaren azken gobernuan sartu zen, ministro bezala. 1919ko otsailean, Alderdi Komunistak Errepublika Sozialista aldarrikatu zuenean, Scheidemannek estatu Sozialista ekiditeko Errepublika (burgesa) aldarrikatu zuen. 1919ko otsailetik ekainera Alemaniako Errepublikako behin-behineko gobernuko lehen ministro izan zen; beraz, Iraultza Espartakistaren aurkako errepresio gogorraren erantzule izan zen, eta Bavariako Errepublika sobietarra inbaditzeko agindua eman zuen. **Arthur Henderson:** Alderdi Laboristako kide; errebisionista eta anti-iraultzaile porrokatua. 1908tik 1910era eta 1914tik 1917ra, Alderdi Laboristaren buruzagi izango zen. 1914an posizio sozialchovinistara atxikiko zen, eta 1915an Hezkuntza Ministro bezala liberalen gobernuan sartuko zen; halere 1917an dimittitu egingo zuen. sobietar Errusiaren etsaia izan zen, eta proletalgoa eta burgesiaren arteko kontziliazioaren aldekoa. 1924ko gobernu laboristaren Barne Ministro izango zen. 1929tik 1931 arte iraun zuen

doilorkeriaz traizionatu ez dutenak) jazartzen direneko bosgarren urtean, Kautsky jaun jakitunak “gutxiengoaren defentsari” buruzko koplak abesten ditu. Nahi duenak, Kautskyren liburuxkaren 15 orrialdean irakur dezake. Eta 16. orrialdean, halako jaun aditua... XVIII. mendeko Ingalaterrako whig eta torie³⁰ buruz mintzatuko zaizue!!!

34

Hori duk hori jakituria! Hori duk hori burgesiarekiko morrontza! Hori duk hori kapitalisten aurrean makurtzea eta haien oinetakoak miazkatzea! Ni neu Krupp³¹, Scheidemann, Clemenceau³² edo Renaudel izango banintz; milioitan ordainduko

gobernu laboristan, Kanpo Arazoetako Ministro izango zen. 1931an, “batasun nazionalako” gobernuan ez sartzea erabaki zuen eta alderdiburu izango zen berriz, hurrengo urterarate. **Beatrice eta Sydney Webb senar-emazteak:** Ekonomistak eta filosofoak, Fabiandar Elkartearen teoriko nagusiak. Sindikatu eta kooperatiben gaiaren inguruan zenbait liburu eta teoria idatzi zituzten. Webb senar-emazteak ez zeuden Marxekin ados, ez honen kapitalismoaren definizioan, ez honen klase-borrokaren gaineko ikuspuntuetan; eta iraultza sozialistaren ordez “demokrazia industrialia” defendatzen zuten, hau da, industriaren indar produktiboen garapenarekin batera, langileei soldatan eta bizi-kalitatean hobekuntzak bermatzea eta sindikatuei enpresen kudeaketan parte hartzeko aukera ematea proposatzen zuten. Alderdi Laboristaren sorkuntzan garrantzi handia izan zuten, Alderdi Laboristaren lehen estatutuak Sidney Webbek idatziko zituen. Borroka feminista-sufragista ere zenbait ekarpen egingo zituzten.

1914ko guda hasterakoan, posizio sozialchovinistari atxikiko zitzairen; hala ere Urriko Iraultza Sozialistaren ondoren SESBra egindako bidai baten ondorioz, SESBen lorpen sozial eta ekonomikoez jabeturik eta baita sexu-berdintasuna lortu zutela ikusita, sobietar Batasunaren jarraitzaile egingo ziren. 40eko hamarkadan hil egingo ziren biak; euren teoriak izan dituen eragin garrantzitsuenak “Beveridge txostenean” eta honen harira sorturiko Ongizate estatuan aurkitzen ditugu. (Itzultzailearen oharra)

³⁰ Garai hartako Ingalaterrako parlamentuan zeuden bi “alderdi” edota fakzioak. **Torien fakzioa** (ingeleraz singularrean *tory*, pluralean *tories*); lur-jabe handien, laborantza guneko handikien eta Eliza Anglikanoaren hierarkiaren defendatzaile zen, eta aldarrikapen liberal edota progresisten aurka tradizio feudalak defendatzen zituen. Toriak; protekzionismoaren aldekoak, Gortearerikiko hurbilekoak, erreformekiko mesfidatiak eta aristokraziari kalte egin ziezaiekeen neurrien aurkakoak ziren. Toriak gaur eguneko Alderdi Kontserbakorraren arbaso dira. **Whigak** (ingeleraz singularrean *whig*, pluralean *whigs*); finantz zirkuluen, merkatal burgesiaren eta aristokrazia burgestuaren aldekoak ziren. Whigak; sufragio eskubidea zabaltzearen (baina ez sufragio unibertsaleraino) aldekoak, salerosketa askearen aldekoak, parlamentuaren subirautzaren aldekoak eta erregearen botere absolutuaren aurkakoak ziren. Whigak gaur egungo Alderdi Liberalaren arbaso dira. (Itzultzailearen oharra)

³¹ **Krupp:** Alemaniako familia burges aberatsenetako bat, euren enpresa-jarduera metalurgiar eta guda industriara emana zen. Bai Lehen zein Bigarren Mundu Guda xaxatuz aritu ziren, gudotan egundoko etekinak ateratzen baitzituzten. Tradizio handiko merkatal familia bat izan zen. Halere, XIX. mendean hasi ziren nabarmentzen eta handiki familia bat bilakatzen. Izan ere garai hartan eman izan zen industrializazioa, eta Krupp familiak oso ondo baliatu izan zuen aukera hori. Alemaniak izan zituen guda orotan, estatuari armak saltzen zizkieten (eta baita ere noizbait etsaiei, adibidez 1866ko Gudan Austria-Hungariari ere saldu zizkieten). Lehen Mundu Guda ostean, 1923an, frantziarren Ruhr- go okupazioa eman zenean, Gustav Krupp atxilotu egin zuten, honek Alemaniako armadari arma kopuru handia salduz Versaillesko Itunean sartzen ziren klausula batzuk puskatzen zituela argudiatuz. Halere, presio handia zela eta (Krupp alemaniar nazionalisten ikurra bihurtu zen), askatu egin behar izan zuten. Krupp familiak Alderdi Naziari diru kopuru handia eman zion, naziak iraultza komunistaren aurkako balazta zirelako. Hitler boterera igotzeko asko presionatu zuten eta euren eragina diktadorearen alde jarri zuten. Honek, ordainetan, preso juduak esklabo bezala erabiltzea ahalbideratu zien eta baita ere 1943an, “Krupp Legea” egin zuen, non enpresak familiaren eskuetan jarraitzea bermatzen zuten eta betiere “Krupp” izena izan behar zuela ebatzen zuten (lege horrek oraindik indarrean jarraitzen du). Bigarren Mundu Guda bukatuta, aliatuek Krupp enpresaren bi jabeak, Gustav Krupp eta bere seme Alfred Krupp, atxilotu eta guda kriminal bezala epaitu nahi zituzten. Zahartasunak Gustav zigorretik salbatu zuen arren, Alfredi 12 urtetako kartzela zigorra jarri zioten. Halere, laster Guda Hotza hasiko zen, beraz, arrazoi politikoak (antikomunismoa) zirela eta, askatu egingo zuten. 1999an, Krupp enpresa Thyssenekin batu zen, ThyssenKrupp AG enpresa sortuz. (Itzultzailearen oharra) 32

³² **Georges Clemenceau:** Frantziar kazetari eta politikaria. Bere karrera politikoa III Errepublikarekin hasi zen, Alderdi Erradikaleko (burgesia liberal errepublikar “aurrerakoiaren” alderdia) kide egin zenean. Hasieran Gobernu ezberdinekiko oso kritikoa izango bazen ere eta horrek “ezkertiar” fama bat emango bazion ere, pixkanaka eskuinerantz mugitzen hasiko zen. Adibidez, hasieran politika koloniala kritikatu zuen arren, pixkanaka frantziar langileen eta mugimendu sozialistaren aurkako errepresio gogorra, inoiz baino latzagoa erakutsiko zuen, honek burges “aurrerakoiak” azken finean ere burgesak direla irakatsi zion askori (Clemenceauk bere buruari “Frantziako lehen polizia” deitzen zion). Hala ere, 1909an dimititu beharra izan zuen. Bere ikuspuntuak mantendu zituen eta Lehen Mundu Guda uztartzean, Gobernuari kritika (Clemenceauren aburuz “ahula” omen zen) eta posizio militarista gogorra uztartzen zituen. Halaxe, 1917an, aurreko Gobernu “ahula” erori eta gero, lehen ministro izendatu zuten berriz. Clemenceauren politika populistak, erabateko gudan, bake-negoziazioak ukatzean eta garaipeneko konfidantzan oinarritutakoak, prentsan eta armadan babes handia izan zuten, Gobernu “indartsu” bat

nioke, Judasen musuz sarituko nuke, langileen aurrean laudatuko nuke, bera bezalako jende “errespetagarriekin” “batasun sozialista” gomendatuko nuke. Proletalgoaren diktaduraren aurkako liburuxkak idaztea, Ingalaterrako XVIII. mendeko whigak eta toriak ahotara ekartzea, demokraziak “gutxiengoaren defentsa” esan nahi duela esatea eta aldi berean estatu Batuetako Errepublika “demokratikoan” internazionalisten aurka egindako pogromei³³ buruz txintik ere ez esatea ez al da burgesiari ipurgarriketa zerbitzua egitea?

35

Kautsky jaun jakintsuak “txikieria” bat –agian kasualitatez...– “ahaztu” du: demokrazia burgesa batetako alderdi nagusiak gutxiengoaren defentsa beste alderdi burges bati soilik uzten diola eta proletalgoari ordea, edozein oinarrizko arazo serio eta sakonetan, “gutxiengoaren defentsaren” ordez, guda-egoerak eta pogromak suertatzen zaizkiola. *Demokrazia zenbat eta garatuagoa izan, orduan eta hurbilago gaude pogrometik edo guda zibiletik burgesiarentzat arriskutsua den desadostasun politiko sakon bat ematen den bakoitzean*. Kautsky jaun jakintsuak; demokrazia burgesaren “lege” hau Frantzia errepublikanoan Dreyfus aferan³⁴, estatu Batuetako Errepublika demokratikoan beltzak eta internazionalistak jipoitzean, Ingalaterra demokratikoan Irlandaren eta Ulsterren³⁵ adibidean, eta Errusiako Errepublika

ikusten zutelako. Beste alde batetik, politiko “bakezale” edo “derrotistak” atxilotzeari ekin zion “nazio-segurtasunerako mehatxua” zirelakoan. Frantziar eta ingeles inperialistek guda irabazterakoan, Clemenceauk galtzaileen espolioa onesten zuten bake tratatuak sinatzea defendatu zuen eta halaxe izan zen azkenean (Versailleseko Ituna, Trianongo Ituna...). Urriko Iraultza Sozialista zanpatzeko, Errusiaren aurkako nazioarteko interbentzio inperialista defendatu zuen. 1919an, anarkista bat Clemenceau tiroz hiltzen saiatu zen, baina huts egin zuen. 1920an Errepublikako lehendakari izateko hauteskundeak galdu egin zituen eta politika utzi egin zuen. (Itzultzailearen oharra) espansionismoa eta “Alemaniaren aurkako mendekua” babestuko zituen. “Dreyfus auzian” Dreyfusen aldeko posizioa izango zuen. 1906an Alderdi Erradikalak hauteskundeak irabazterakoan, lehen ministro izatera iritsiko zen. Bere Gobernuak greban zeuden

³³ **Pogrom**, pluralean, *pogromak* (errusieraz, “istilu oldarkorra”): Pogromak Errusiar Inperioan gertatzen ziren jazarpen antisemitak ziren. Pogromak, gehienetan, agintariak piztutako giro antisemita batean gertatzen ziren, jendetza jazartzaileak poliziaren laguntza duelarik. Pogromek itxura espontaneoak bazuten ere, tokiko agintarien edota polizien laguntza izaten zuten, hauek jendea alkoholizatu eta juduen kontra xaxatzen zutelarik. Errusiar Inperioan, pogromak, tsarren politikaren parte ziren, batez ere mugimendu iraultzaileari erantzuteko. “Pogrom” kontzeptua errusiar jatorrikoa bada ere eta hasieran jazarpen antisemitei erreferentzia egiteko bazen ere, gaur egun, edozein tokitan edozein gutxiengoren kontrako jarrera oldarkor masiboak deskribatzeko erabiltzen da. (Itzultzailearen oharra)

³⁴ **Dreyfus afera**: Dreyfus auzia, XIX. mende bukaerako frantziar gizartea bitan banatu zuen eskandalu politikoa izan zen. Auzia, 1894an, Alfred Dreyfus deitutako armadako alsaziar ofizial judutar baten aurkako epaiketa bidegabe batekin hasi zen. Dreyfusi Alemaniaren alde espioitza egitea eta goi mailako traizioa gezurren bidez leporatu zioten eta bizi arteko zigorrera eta umiliazio publikora kondenatu zuten. Eskuin muturrak kasu hori atzerakoikeria eta antisemitismoa hedatzeko erabili izan zuen. Eskuineko militarrek Errepublikaren aurkako kolpea emateko aitzakia bila zenbiltzan, eta Guda Zibil estali baten giroa zebilen. Hala ere, laster Dreyfus erruduna ez zela eta epaiketa bidegabea izan zela jakin izan zen, eta ezkerreko sektoreek eta intelektualek Dreyfusen aurkako prozesuaren errebisioa eta epaiketa justu bat eskatzen zuten kanpaina indartsu bat hasi zuten. 1898an, Émile Zola idazleak *J'accuse* gutun ireki ospetsua idatzi zion Errepublikako lehendakari Felix Faure jaunari, ekintza horrek dreyfusisten kausari popularitate handia eman ziolarik. Herri kanpainaren presioa zela eta, 1899an Dreyfus barkatua eta indultatua izango zen, baina bere errugabetasuna ez zen 1906 arte aldarrikatuko, beraz urte horretararte itxaron behar izan zuen armadan berriz sartzeko. Bi aldeei *dreyfusards* eta *antidreyfusards* izenez izendatzen zitzairen. Leninen definizioaren arabera, “Dreyfus auzia, kamarilla militar atzerakoien ohiko gaiztakerietako bat zen”. (Itzultzailearen oharra)

³⁵ **Irlandako askapen borroka**: Irlandako askapen borrokak, aurretiaz zenbait saiakera egin bazituen ere, 1916ko Matxinadarekin izan zuen bere benetako hasiera. Aurreko urteetan, britainiar gobernua irlandar herriak eskatutako autonomia (*Home Rule*) ezarriko zuela askotan aginduta ere, promesa horietan emandako hitza behin eta berriz jateak irlandar herrian atsekabea sortu zuten. Izan ere britainiar inperialismoaren elite ekonomiko eta politikoen eta Irlandako kolonialismoaren jarraitzaileek (unionistek edo loialistek) ez zuten halako emakidarik eman nahi eta Alderdi Liberalak zuzendutako Londreseko Gobernu presionatzen zuten pausu hori ekiditeko asmoz (loialistak, Ulster eskualdean, non kopuru handi bat ziren, talde paramilitar antiabertzaleak sortzera iritsi ziren). 1914an piztutako guda inperialistak autonomiarako borroka itzaliko zuela ematen zuen, orduan nagusi zen irlandar

demokratikoan 1917ko apirilean emandako boltxebikeen aurkako jazarpenean eta pogromen antolaketan nabaritu zezakeen. Nahita, guda garaiko adibideez gain; guda aurreko garaiko, bake garaiko adibideak ere aipatu ditut. Kautsky jaun adeitsuak XX mendeko gertaera hauen aurrean begiak ixtea eta langileei sekulako interesa duten XVIII mendeko whig eta toriei buruzko gauza berri eta miresgarriak, izugarri hezitzaileak eta sinestezineko sustantziakoak kontatzea egoki ikusten du.

37

Legebiltzar burgesa har ezazue. Onargarria al da Kautsky jaunak demokrazia *zenbat eta garatuagoa* izan legebiltzar burgesek orduan eta Burtsarekiko eta bankariekiko menderakuntza *handiagoa* dutela esaten sekula ere ez entzutea? Honek ez du esan nahi parlamentarismo burgesa erabili behar ez denik (eta boltxebikeek, agian, munduko beste edozein alderdik baino arrakasta handiagoz erabili izan dute, 1912-1914 urteetan, laugarren Dumako³⁶ langile ordezkari osoa gurea izan baitzen). Baina bai esan nahi du liberal batek soilik ahaztu dezakeela Kautskyk egin bezala parlamentarismo burgesak *duen izaera historikoki mugatu eta baldintzapekoa*.

alderdi abertzaleak, Irlandar Alderdi Parlamentarioak (alderdi autonomista moderatua, Londreseko Gobernuarekin konpromisoak lortzearen aldekoa, sozialki kontserbakorra, finean irlandar burgesia nazionalaren ordezkaria), britainiar inperialismoarekin bat egin baitzuen, pausu honek guda bukatzerakoan Gobernu britainiarrak Irlandari emakidak emateko aukera ahalbideratuko zuelakoan. Halere, irlandar guztiek ez zuten Alderdi Parlamentarioaren biraketa britainiarzalearekin bat egin eta erakunde herriko abertzale batzuek (ideia aurrerakoidunak eta guztiz errepublikarrak zirenak) britainiar zampaketa nazional eta sozialari aurre egiteko erabakia hartu zuten. 1916an, Britainia Handia guda inperialistan sartua zegoelarik, irlandar herritar batzuk euren herriaren askapenaren alde matxinatu egin ziren. Bazko Astelehenean izan zen Matxinada, James Connolly sindikalista sozialista eta Peadar Kirby idazlea buru zutelarik. Dublin hiriko eraikin nagusiak hartu zituzten eta Pearsek Irlandar Errepublika aldarrikatu zuen. Connolly ordea, matxinatutako bolondres armatuak sortu berria zen Errepublikaren armada zirela aldarrikatu zuen "Irlandar Armada Errepublikarra" (IRA) izena Irlandan lehen aldiz erabiliz. Matxinadak porrot egingo bazuen ere (aste baten buruan matxinoek amore eman behar izan zuten eta britainiarrek buruzagiak, Connolly eta Pearse barne, exekutatu egin zituzten), irlandar herriarengan zapalkuntzaren kontzientzia hedatzea lortu zuen eta bi urteren buruan Sinn Féin alderdiak hauteskundeak irabaziko zituen. Honek, aukeratutako parlamentariak Britainiar Parlamentura bidali beharrean, Irlandar Parlamentu bat (*Dail Éireann*) eta Gobernu bat eratuko zituen eta 1916ko Aldarrikapen Errepublikarra berretsiko zuen. Ingalaterrako burgesiak ez zuen irlandar herriaren independentziarako aukera onartuko eta ejertzitza bidali zuen independentzia nahia zapaltzera. 1921 arte, britainiar armadak eta IRAk (Errepublikaren armadak) guda gogor bat izan zuten (Irlandaren Independentzia Guda). 1921an britainiar gobernuak eta irlandar errepublikanismoaren eskuineko aldeak Itun Anglo-Irlandarra sinatu zuten, gudari bukaera emateko asmoz. Itun horretan, Britainia Handiak Irlandako Hegoaldearen "independentzia" mugatu bat onartzen zuen; baina irlandarrek Iparraldeko sei konterriak unionista britainiarzaleen esku utzi behar zituzten, euren estatuari "Errepublika" baino "estatu Aske" deitu behar zioten, Britainia Handiko erregeari leialtasuna zin egin behar zioten eta kanpo politikan Britainia Handiarekiko hurbiltasuneko politika eraman behar zuten. Itun honek, Itunaren eta "estatu Askearen" aldekoen eta errepublikar filo-ezkertiarren arteko beste guda bat (Irlandako Guda Zibila) sortu zuen, azken hauek Irlandar Iraultza bukaeraraino eraman nahi izan baitzuten. Guda hori 1923an bukatu zen Itunaren aldekoen garaipenarekin, beraz amets errepublikarra eta askapen osorako itxaropena zapuztu egin ziren. Leninek Irlandaren askapenaren kasua aipatzen du politika parlamentarioaren antzutasuna eta demokrazia burgesaren hipokrisia salatzen eta bide iraultzailea baino beste biderik ez dagoela ohartarazteko (1916an "Europar Irlanda zutitu egin da, "askatasunaren maitale" diren ingelesek exekuzioen bitartez baretu dituztelarik" esan zuen). Beste alde batetik, Leninek Ulster aipatzen du; Irlandak bere autogobernuaren eta burujabetzaren aldeko pausuak ematen zituen bakoitzean, Ulsterren sakon errotutako oligarkia britainiarrek (Alderdi Unionistak ordezkaturik) honen kontra arituz eta baita ere talde paramilitarrak sortuz, Ingalaterrako Gobernuak "presionatzen" zutelako, horrela Irlanda askatasunik gabe uzteko. (Itzultzailearen oharra)

³⁶ Duma: Errusiako parlamentua; 1905ean tsarrak herriaren iraultza nahiak asetzeko deitutakoa. Halere, argi zegoen Duma ez zela hasieran piztu ziren itxaropenek aditzera emandako parlamentu demokratikoa, tsarraren interesetan erabiliko zerbitzuko-parlamentua baizik. Boltxebikeek, hasieran boikota egiten bazioten ere, gerora, Dumaren iruzurra deslegitimatzeko asmoz, intsurrekzio iraultzailea ezinezkoa zen testuinguru batean Duman parte hartu zuten, ez hau indartzeko asmoz, baizik eta hau monarkiaren eta burgesiaren aurkako plataforma bezala, iraultzaren onerako tresna (eta ez helburu) bezala erabiliz. Guztira Duman lau legealdi izan ziren eta azkenengo Duman, Gobernu tsaristak hauteskundeetan langileen bozka eskubideak eta ordezkari mugatu egin zituen, iraultzaileen presentzia eta parte hartzea mugatu asmoz. (Itzultzailearen oharra)

estatu burgesik demokratikoenean, zanpatutako masek, uneoro, kapitalisten “demokraziak” aldarrikatutako berdintasun *formalaren* eta proletarioak *soldatapeko esklabo* egiten dituzten hamaikatxo muga eta amarru *errealen* arteko kontraesan iraingarriarekin topo egiten dute. Kontraesan hau da kapitalismoaren ustelkeriaren, faltsukeriaren eta hipokrisiaren aurrean masei begiak irekitzen dizkiena. Hauxe da sozialismoaren aldeko agitatzaile eta propagandistek masen aurrean hauek iraultzarako *prestatzeko helburuarekin* salatzen duten kontraesana! Eta iraultzen aroa *hasi denean* Kautskyk honi bizkarra ematen dio eta *hiltzorian dagoen* demokrazia burgesaren xarma goratzeari ekiten dio.

38

Demokrazia proletarioak eta honen formetako den bat sobietar botereak; demokraziari populazioaren gehiengo erraldoiarentzako, langile eta esplotatuentzako orain arte ezagunak ez ziren garapen eta hedapen maila bat eman dio. Kautskyk egiten duen antzera, diktadurari bi orrialde eta “demokrazia garbiari” hamarnaka orrialde emanaz demokraziari buruzko liburuxka oso bat idaztea eta honetaz *ez ohartzea*, gauzak modu liberalean erabat itxuraldatzea da.

Kanpo politika har ezazue. Herrialde burgesetako batean ere ez, demokratikoenean ere ez, ez da modu irekian egiten. Toki guztietan masei iruzur egiten zaie, eta Frantzia, Suitza, Iparramerika eta Ingalaterra bezalako herri demokratikoetan beste herrialdeetan baino ehun aldiz gehiago eta modu finagoan egiten da. Botere sobietarrak kanpo politika misterioan estaltzen zuen estalkia modu iraultzailean idoki du. Kautsky ez da hortaz ohartu. Ez du hortaz ezertxo ere esaten, harrapari-gudaren eta “eragin esparruak banatzeko” (hau da, mundua gaizkile kapitalisten artean banatzeko) itun sekretuen garaian garrantzia *handia* badu ere, bakea eta milioika pertsonen bizitza eta heriotza horren menpe daudelako.

Estatuaren egitura har ezazue. Kautsky “txikikeriez” ohartzen da, adibidez hauteskundeak (sobietar Konstituzioan) “zeharkakoak” izateaz, baina ez du arazoaren funtsa ikusten. estatu-Makineria, estatuaren aparatuak *klase* izaera bat duenaz ez da ohartzen. Demokrazia burgesean, kapitalistek, mila amarru erabiliz – demokrazia “garbia” zenbat eta gehiago garatu, hainbat eta burutsuagoak eta eraginkorragoak direlarik–, masak Gobernuan parte-hartzetik, biltzeko askatasunetik, inprimatzeko askatasunetik eta abarretik *lekutzen* dituzte. Botere sobietarra, masak, hain zuzen masa esplotatuak, Gobernura goratu dituen lehena (hobe esanda, bigarrena, Parisko Komuna berdina egiten hasi baitzen) izan da. Behargin masek legebiltzar burgesean (demokrazia burgesaren barruan oinarrizko arazoak *sekula konpontzen ez dituen*a: bankuek eta burtsak konpontzen baitituzte) parte hartzea *ekiditen* duten mila oztopo daude, eta langileek, legebiltzar burgesa langileentzako arrotza den instituzio bat dela, burgesiak langileak *zapaltzeko tresna bat dela*, klase etsai baten, esplotatzaileen gutxiengoaren instituzioa dela ondotox dakite eta hala dute sentitzen., ikusten eta nabaritzen.

39

Sobietak beharginen eta masa esplotatuen zueneko organismoak dira, hauei estatua euren kabuz antolatzeko eta gobernatzeko *erraztasunak* ematen dizkietenak. Beharginen eta masa esplotatuen abangoardia den hirietako proletalgoak, enpresa handiei esker denetan batuen egoteak ematen duenaren abantaila duenez gero, inori baino errazagoa egingo zaio ordezkariak aukeratzea eta aukeratutakoak kontrolatzea. sobietar antolakundeak, behargin eta esplotatu guztiak euren abangoardia den proletalgoaren inguruan bateratzea automatikoki *errazten* du.

sobietar antolaketarekin aparatu burges zaharra, burokrazia, aberastasunak ekarriko erregaliak, hezkuntza burgesa, harremanek emandako pribilegioak eta abar (berezko pribilegioak, demokrazia burgesa hainbat eta garatuago egon hauetariko aniztasun handiagoa topatzen dugularik) guztiz desagertzen dira. Inprimatzeko askatasuna gezur hutsa izateari uzten dio, burgesiari tailer grafikoak eta papera desjabetzen zaizkiolako. Berdina gertatzen da eraikuntza onenekin, jauregiekin, hotelekin, landetako jaunen etxeekin eta abarrekin. sobietar botereak, esplotatzaileei milaka eta milaka eraikin onenetako desjabetu zizkien, modu honetan, masentzako biltzeko eskubidea, haren gabeziak demokrazia iruzur bihurtzen den eskubide hori, *milioi bat aldiz* “demokratikoagoa” eginez. Tokikoak ez diren sobietendako hauteskundeak zeharkakoak izateak sobieten biltzarrak bizkorragoak egiten ditu, administrazio *osoa* hain kostu handikoa ez izatea, arinagoa izatea eta bizitza irakinaldi handi baten dagoen une batean eta bat- batean tokiko ordezkari bat bere postutik kentzeko edota sobieten Biltzar Nagusira bidaltzeko erabakia, langileen eta baserritarrengandik hurbilago egotea lortzen du.

40

Demokrazia proletarioa edozein demokrazia burges baino *milioi bat bider* demokratikoagoa da. Botere sobietarra errepublika burgesetan demokratikoena baino milioi bat bider demokratikoagoa da.

Honetaz ohartzen ez dena, edo burgesiaren morroi kontziente bat da, edo politikoki erabat hilda dagoen gizon bat, hautsez betetako liburu burgesek bizitza erreala ikusten uzten ez dioten eta leporaino aurreiritzi demokratiko-burgesez bete dagoen gizon bat, beraz objektiboki burgesiaren morroia den gizon bat da.

Honek *afera* klase *zanpatuen* aldetik *planteatzeko* gauza ez den gizon bati soilik egin liezaioke ihes.

Ba al dago munduko herrialde burges demokratikoenen artean; sobietar Errusian gertatzen denaren antzera, *masako langile arruntak*, *masako jornalari arruntak* edo landako erdi- proletarioak (hau da, zanpatutako masen, populazioaren gehiengo erraldoi baten ordezkariak) bere batzarrak eraikinik onenetan egiteko *askatasuna*, bere ideiak azaltzeko eta bere interesak defendatzeko inprentarik handienak eta paper erreserbarik onenak izateko *askatasuna*, bere klaseko gizon- emakumeak gobernura bidaltzeko eta estatua “organizatze” *askatasuna*, pixka batekoa bada ere, duen herrialderik?

Barregarria da Kautskyk enteratuta dagoen edozein langileri edo jornalari hau galdetuz gero, milatik erantzuterakoan zalantza egingo duenen bat aurkituko duela pentsatzea ere. Egunkari burgesei noizbait egiak ihes egiten dien zatikako aitormen horiek entzunda, oldez, mundu osoko langileek sobieten Errepublikari begiko dute, hor demokrazia *proletarioa*, *txiroendako demokrazia* ikusten dutelako eta ez demokrazia burges oro, hauetan onena barne, den aberatsendako demokrazia.

41

Funtzionario burgesek, legebiltzar burgesek eta epaile burgesek gobernatzen gaituzte (eta gure estatua “organizatzen” dute). Hau mundu osoko herrialde burges guztietako, demokratikoetakoak barne, zanpatutako klaseetako hamarnaka eta ehunka milioika pertsonen euren esperientziak ezagutzen duten egia garbi, nabarmen eta zalantzarik gabeko bat da.

Errusian, ordea, aparatu burokratiko osoa guztiz birrindu da, honetatik ezer zutik utzi gabe, legebiltzar burgesa disolbatu egin da eta langile eta baserritarrei ordezkariak *askoz ere hurbilago* bat eman zaie; *euren* sobietek funtzionarioen postua hartu dute edo *euren* sobietak funtzionarioen gainetik daude, *euren* sobietak dira epaileak aukeratzen dituztenak. Gertaera xume hau nahikoa da klase zanpatu guztiek sobieten boterea, hau da, proletalgoaren diktaduraren forma hau errepublika burgesik demokratikoena baino milioi bat bider demokratikoagoa dela aldarrikatu dezaten.

Kautskyk edozein beharginentzat hain ulergarria eta nabarmena den egia hau ez du ulertzen, eta ez du ulertzen galdera hau egitea “ahaztu zaiolako” edo egiteko “ohitura galdu duelako”: demokrazia *zein klaserentzat?* Berak, demokrazia “garbiaren” (hau da, klaserik gabekoa? edo klaseen gainetik dagoena?) ikuspuntutik arrazoitzen du. Shylocken³⁷ erara argudiatzen du: “haragi libera bat” eta kito. Hiritar guztien berdintasuna eta kito; bestela ez dago demokziazirik.

42

Kautsky jakintsuari, Kautsky “marxista” eta “sozialistari” zera galdetu beharko diogu: Egon al daiteke esplotatzailearen eta esplotatuaren arteko berdintasunik?

Ikaragarria, sinestezina da II Internazionalaren zuzendari ideologikoaren liburuxka batez ari garela galdera hau egin behar izatea. Baina hasitakoa bukatu behar ohi da. Kautskyri buruz idazteari ekin diogu; beraz, aditu honi, esplotatzailearen eta esplotatuaren arteko berdintasunik zergatik ezin daitekeen egon azaldu beharko diogu.

³⁷ **Shylock**: William Shakespeareren *Veneziako merkataria* komediako pertsonaia, kupidarik gabeko lukuraria. (Itzultzailearen oharra)

III. Egon al daiteke esplotatzailearen eta esplotatuaren arteko berdintasunik?

Kautskyk hauxe argudiatzen du:

(1) “Esplotatzaileak populazio osoaren gutxiengo txiki bat izan dira beti” (Kautskyren liburuxkaren 14. orrialdea).

Hau zalantzarik gabeko egia da. Honetatik abiatuz, nola argudiatu beharko dugu? Marxista gisa, sozialista gisa argudiatu genezake; orduan, esplotatuen eta esplotatzaileen arteko harremanean oinarritu beharko gara. Liberal gisa, demokrata burges gisa argudiatu genezake; orduan, gehiengoaren eta gutxiengoaren arteko harremanean oinarrituko gara.

Marxista gisa argudiatzen badugu, honako hauxe esan beharko dugu: esplotatzaileek, halaber, estatua (demokrazia, hau da, estatu forma batez ari garenez gero) esplotatuen aurkako euren klasearen, esplotatzaileen klasearen tresna bihurtzen dute. Horregatik, esplotatzaileek esplotatuen gehiengo bat menperatzen duten bitartean, estatu demokratikoa ere, derrigorrez, esplotatzaileen demokrazia bat izango da. Esplotatuen estatua honetatik guztiz bereizi behar da, esplotatuentzako demokrazia eta *esplotatzaileak menpe geratzea* izan behar da, eta klase bat menperatuta egoteak honen aurkako diskriminazioa esan nahi du, “demokraziatik” kanpo uztea esan nahi du.

Liberal gisa argudiatzen badugu, honako hauxe esan beharko dugu: gehiengoak erabakitzen du eta gutxiengoak men egiten du. Managaitzak zigortuak izanen dira eta kito. Ez da zertan orokorrean estatuaren izaeraz edota bereziki “demokrazia garbiaz” hitzik egin beharrik, ez du aferarekin zerikusirik gehiengo delako eta gutxiengo delako. Haragi libera bat haragi libera bat da eta kito.

Kautskyk, zehazki, hala argudiatzen du:

(2) “Zein arrazoi daude proletarioaren nagusitasunak demokraziarekin bateraezina den forma bat har dezan edo har zezan?” (21 orr). Gero, esaldi luze eta errepikakorrek, Marxen aipu bat baita eta Parisko Komunako hauteskunde estatistikak erabiliz, proletarioak gehiengo osatzen duela azaltzen du. Ondorioa: “Masetan hain sakonki errotuta dagoen Alderdi batek ez du zertan demokrazia eraso beharrik. Demokrazia erasotzen den bakoitzeko ezin izango du biolentzia alde batera utzi. Biolentziari biolentziaz soilik erantzun liezaioke. Baina masak bere alde dituela badakien erregimen batek, hauek demokrazia *defendatzeko* soilik erabiliko lituzke, ez hau *ezabatze*ko. Benetako erokeria bat egingo luke bere oinarrikeria sendoena, sufragio unibertsala, autoritate moral indartsu baten iturri emankorra, ezabatu nahi izango balu”. (22. orr)

Ikusten dugun bezala, Kautskyren argudiotik esplotatzaileen eta esplotatuen arteko harremana desagertu egin da. Ez da orokorrean gehiengo, orokorrean gutxiengo, orokorrean demokrazia, ezaguna dugun “demokrazia garbia” baino besterik gelditzen.

Ohar zaitetze hau Parisko *Komuna dela eta* esaten dela! Garbiago geratu dadin, ikus dezagun Marxek eta Engelsek *Komuna zela eta* diktaturaz ziotena:

Marx: “(...) Langileek (...) burgesiaren erresistentzia garaitzeko (...) klase burgesaren diktadura euren diktadura iraultzaileaz ordeztzen badute (...) orduan estatuari forma iraultzaile eta iragankor bat ematen diote”³⁸.

45

Engels: “(...) (Iraultzan) garaitu duen alderdiak, alferrik borrokatu izana nahi ez badu, bere nagusitasunari bere armek atzerakoiei ematen dien izu honen bitartez eutsi behar dio. Pariseko Komunak egun bakar bat iraungo ote zukeen herri armatuaren autoritate hau burgesiaren aurka erabiliko ez balu? Ez al diogu ordea, nahikorik erabili ez izana leporatu behar? (...)”³⁹.

Engels: “(...) estatua, borrokan, iraultzan, etsaiak indarrez menperatzeko erabiltzen den erakunde guztiz iragankor bat izaki, estatu herrikoi askeaz hitz egitea zentzugabekeria da: proletalgoak estatua behar duen heinean ez du askatasunaren mesederako behar izango, bere etsaiak menperatzeko baizik, eta askatasunaz hitz egin has gaitzkeenean, estatuak, hala ulertuta, izateari utziko dio (...)”⁴⁰.

Alde batetik Kautskyren eta bestetik Marx eta Engelsen artean, zeruaren eta lurraren artean edota liberal baten eta proletario iraultzaile baten artean alde berdina dago. Demokrazia garbia, Kautskyk aipatzen duen “demokrazia” hori, “estatu herrikoi askearen” perifrasi bat baino ez da, hau da, *erabateko zentzugabekeria*. Kabinete bateko zakil ezin adituago baten jakituriaz edo hamar urtetako neskatila baten xalotasunaz Kautskyk zera galdetzen du: Zertarako diktadura, gehiengoaz izanez gero? Marxek eta Engelsek azaltzen dute:

-Burgesiaren erresistentzia zanpa-zanpa egiteko.

-Atzerakoiei beldurra emateko.

-Burgesiaren aurka herri armatuaren autoritateari eusteko.

-Proletalgoak bere etsaiak indarrez menpera ditzan.

46

Kautskyk ez ditu azalpen hauek ulertzen, demokraziaren “garbitasunak” txora-txora eginik, honen izaera burgesa ikusten ez duelarik; “kontsekuenteki”, gehiengoak, hala denez gero, gutxiengoaren erresistentzia “txikitzeko”, “indarrez txikitzeko” beharrik ez duela deritzo, demokrazia erasotzen dituzten kasuak erreprimitzea nahikoa dela deritzo. Demokraziaren “garbitasunak” txora-txora egin duelarik, Kautskyk, *nahi gabe*, demokrata burges guztiek beti egiten duten akats berdina egin du: berdintasun formala (erregimen kapitalistaren pean gezurra eta hipokrisia hutsa besterik ez dena) benetako berdintasun gisa hartzen du! Txikikeria bat!

Esplotatzailea ezin daiteke esplotatuaren pareko izan.

Egi hau, Kautskyri oso desatsegina egiten bazaio ere, sozialismoaren mamia da.

Beste egi bat: Ezin daiteke benetako berdintasunik, berdintasun efektiborik egon klase batek beste bat esplotatzea guztiz ezinezko egin arte.

³⁸ Karl Marx: *Axolagaberia politikan* izeneko artikuluan. Artikulu honen erdarazko izenburua, *El indiferentismo en materia política* da. Ez dago euskarazko itzulpenik.

³⁹ Friedrich Engels: *Autoritateaz* artikuluan.

⁴⁰ Friedrich Engels: 1875eko martxoaren 18-28an Bebeli bidalitako gutunean.

Esplotatzaileak bat-batean hiriburuan emandako matxinada garaile baten bidez edo tropen errebolta baten bitartez garaitzea posible da. Baina oso noizbehinkako kasu arraroak kenduta, esplotatzaileak ezin daitezke bat-batean desagerrarazi. Nolabaiteko hedapena duen herrialde batean ezin dira kapitalista eta lur-jabe guztiak bat-batean desjabetu. Gainera, desjabetzeak, berez, ekintza juridiko edo politiko bezala, ez du arazoa konpontzen, ezta hurrik eman ere; hain zuzen, lur-jabeak eta kapitalistak benetan *joanarazi* egin behar direlako, lantegietan eta lursailetan administrazio proletario berriaz ordeztu egin behar direlako. Ezin daiteke belaunaldiz belaunaldi urteetan zehar heziketarik, aberastasunengatik eta hartutako ohiturengandik bereizten diren esplotatzaileen eta errepublika burges aurrerakoi eta demokratikoenetan ere, hein handi batean astotutako, eskolatu gabeko, beldurtutako eta barreiatutako masa ezjakin bat osatzen duten esplotatuen artean berdintasunik egon. Iraultzaren garaipena jazo eta urte askotara, esplotatzaileek, halaber, euren alde abantaila handi pila dituzte: dirua dute (hau ezin da kolpe batez desagerrarazi), askotan baliagarriak diren zenbait ondasun higigarri, antolakunde eta administrazio ohitura dute. Administrazioaren “sekretu” denak ezagutzen dituzte (ohiturak, prozedurak, baliabideak, aukerak), heziketa maila altuago bat dute, (burges erara bizi eta pentsatzen duen) goi mailako pertsonal teknikoarekin harremanak dituzte eta gainera (eta hau oso garrantzitsua da) jarduera militarren ezagutza askoz ere handiagoak dituzte eta abar eta abar.

47

Esplotatzaileak, herri bakar baten garaituak izan badira ere – eta hau izaten da kasu ohikoa, herri askotan aldi berean ematen den iraultza salbuespen arraro bat baita–, hala ere esplotatuak baino *indartsuago* izango dira, euren nazioarteko harremanak oso boteretsuak direlako. Gainera, esplotatuen parte bat, erdi- mailako baserritarren, artisauen eta abarren artean masarik atzeratuenetakoak, esplotatzaileen gibelean doaz eta joan daitezke; iraultza guztiek, Komunak barne (Versailleseko armadan proletarioak baitzeuden, Kautsky ezin jakintsuagoak “ahaztu” egiten du hau), frogatzen duten bezala.

Beraz, iraultza gutxi-gora-behera serio eta sakon batean, auziaren konponketa gehiengoak gutxiengoarekiko duen jarreran soilik oinarritzen dela esatea egundoko zakilkeria da, liberal eskas baten aurreiritzi ergela da, *masak tronpatzea da*, hauei egia historiko nabarmen bat ezkutatzea da. Egia historiko hori honako hau da: iraultza sakon orotan, *ohikoa*, esplotatzaileek, urte askotan zehar esplotatuekiko abantaila handiak izaten jarraituko dutenek, erresistentzia luze, *gogor eta desesperatu* bat jartzea da. Esplotatzaileak ez dira inoiz ez esplotatuen gehiengoaren menpe jarriko –agian Kautsky tontolapiko elezuriaren fantasia goxoan bai– aurretik euren abantaila azken borrokaldi desesperatu batean, borrokaldi sorta batean frogan jarri ez badute.

48

Kapitalismotik komunismora iragateak garai historiko oso bat darama. Garai hau ematen ari den bitartean, zapaltzaileek euren boterea berrezartzeko *itxaropena* mantentzen dute; itxaropen hori euren boterea berrezartzeko *saiakeretan* gorpuzten delarik. Lehen porrota pairatu eta gero, zapaltzaileek, euren porrot hau espero ez zutenek, porrot hau gertatuko zatekeen ideia bera ere onartzen ez zutenek; hamar aldiz indar gehiagorekin, sekulako grinarekin, ehun aldiz biderkatutako gorrotoarekin borrokara joko dute, euren “paradisu galdua” berreskuratzeko, euren familiek, orain “jendaila madarikatu” horrek miseriara (edo lanbide “madarikatu” batetara)

kondenatu dutenek lehen zuten bizi goxoa berreskura dezaten. Eta kapitalisten atzetik, burgesia ttipiaz osatutako masa handi oso bat abiatzen da. Herri guztietako hamarkadetako eta hamarkadetako esperientzia historikoak erakusten duenez, zalantzatia dena. Hau da, lehen momentuan langileriaren alde jar daitekeena baina langileen lehen porrot edota atzera pausuarekin batera zalantza egiten duena, urduri jartzen dena, intziri egiten duena, alde batetik bestera erraztasun handiz igarotzen dena... Hitz batez, gure mentxebike eta eseristen antzera.

Eta baldintza horietan, borroka desesperatu, zorrotz baten garaian, historiak gaurkotasunean aspaldiko eta mila urteetako pribilegioen existentzia bera oholtzan jartzen duenean; gehiengoaz eta gutxiengoaz, demokrazia garbiaz, diktaturaren beharrik ez izateaz, esplotatzaileen eta esplotatuen arteko berdintasunaz mintzo denik bada!! Txepelkeriaz eta filisteismoz betetako zer nolako zuloan erori behar izan den horretarako!

Baina 1871ren 1914aren tartean dauden kapitalismo nolabait "baketsuaren" hamarkadek; oportunistora moldatutako alderdi sozialistak filisteismoz, adimen gabeziak, apostasiak eta abarrez beteriko Augiasen zalditegia⁴¹ bilakatu ditu.

49

Agian irakurleak, lehenago aipatutako paragrafoan Kautskyk sufragio unibertsalaren (zein, parentesien artean aipa dezagun, Kautskyrentzat autoritate moral indartsuaren iturri emankorra da; Engelsek ordea, Komunaz ari zela herri armatuak burgesiaren aurka duen autoritateaz hitz egiten du; argigarria da filistiar batek eta iraultzaile batek "autoritateaz" dituzten ideiak konparatzea...) aurkako erasoaz hitz egiten duela nabaritu du.

Ohartarazi beharrean gaude, esplotatzaileei bozka eskubidea kentzea afera *errusiar huts* bat dela, ez orokorki proletalgoaren diktaturarena. Kautskyk bere liburuxkari batere hipokrisiarik gabe *Boltxebikeen aurka* izenburua jarri izango balio, izenburua eta edukia bat etorriko ziren eta orduan Kautskyk zuzenean sufragio eskubideaz hitz egiteko eskubidea izango zukeen. Baina Kautskyk, ezer baino lehen, "teoriko" bat izan nahi izan du. Bere liburuari "*Proletalgoaren diktadura*", *hala, orokorrean*; jarri dio izenburutzat. sobietez eta Errusiaz, liburuxkaren bigarren zatian, seigarren kapitulutik aurrera mintzatzen da. Lehen zatian aldiz (eta nik hortik hartu dut aipua), *diktaturaz eta demokraziaz orokorrean* mintzatzen da. Hauteskunde-eskubideaz hitz egiten ari zela, Kautskyk, bere burua, *teoriarekiko errespetu fisik gabeko* boltxebikeen aurkako polemista bezala *agerian uzten du*. Teoria, hau da, demokraziaren eta diktaturaren klasezko oinarri orokorren inguruko azterketa, ezin baita puntu konkretu batez bakarrik, esaterako, hauteskunde-eskubideez aritu behar, afera guztiaz baizik: *mantendu* al daiteke demokrazia *aberatsen edota esplotatzaileentzako*, esplotatzaileak uzkaileak eta euren estatua esplotatuen estatuz ordeztzen ari den garai historiko batean?

50

Holaxe, eta soilik holaxe planteak dezake auzia teoriko batek.

⁴¹ **Augiasen zaldikortak:** Greziar mitologiaren arabera, Augias Elidako erregearen zaldikortak denbora luzez garbitu barik egon ziren eta Herakles (edo Herkules) heroi mitologikoak egun bakar batean garbitzea lortu zituen, bere "Hamabi proba" ospetsuetako bat horixe izan zelarik. "Augiasen zaldikortak" esapidea, zikinkeraren eta zaborraren pilaketa handia edo desordena demasa izendatzeko erabiltzen da. (Itzultzailearen oharra)

Komunaren adibidea ezagutzen dugu, honi buruzko eta honen inguruko marxismoaren fundatzaileen argudio guztiak ezagutzen ditugu. Material hauek oinarritzat hartuta; adibidez diktadura eta demokraziaren auzia, Urriko Iraultza baino lehenago idatzitako *estatua eta Iraultza* liburuan aztertu dut. Sufragio eskubidearen mugaketari buruz *ez dut hitz bat bera ere esan*. Eta orain, arazo hau diktaduraren arazo orokor bat ez, baizik eta berariazko arazo nazional bat dela esan behar dugu. Errusiar Iraultzaren *baldintza bereziak* ikertuz, bere garapenerako *ibilbide berezia* aztertuz enfokatu beharreko arazo bat da. Hurrengo orrialdeetan hau aztertzeko asmoa dut. Baina European emateke dauden iraultza proletarioek, denek edo hauetako batzuek, burgesiarentzako bozka eskubidea mugatu egingo dutela alde aurretik esatea hanka-sartze bat izango litzateke. Hala gerta daiteke. Gudaren eta Errusiar Iraultzaren esperientziaren ostean, litekeena hala izatea da; baina ez da diktadura gauzatzeko *beharrezkoa*, ez da diktaduraren kontzeptu logikoaren *derrigorrezko* ezaugarri bat, ez da ez historian ez klase mailan diktaduraren kontzeptuaren baldintza *ezinbesteko* bat.

Diktaduraren ezaugarri ezinbesteko bat, baldintza beharrezkoa dena, esplotatzaileak *klase* bezala *indarrez* erreprimitzea eta beraz “demokrazia garbiaren” *urraketa*, hau da, *klase horrekiko* askatasunaren eta berdintasunaren *urraketa* da.

Hau eta hau bakarrik da auzia alor teorikoan planteatzeko modua. Eta Kautskyk, honela ez egiterakoan, boltxebikeen aurka ez dela teoriko gisa aritzen, burgesiaren eta oportunisten menpeko gaitz-esale gisa baizik, frogatzen du.

Mugaketa zehatz bat, esplotatzaileendako demokraziaren urraketa jakin bat, zein herrialdeetan, kapitalismo baten edo beste baten berariazko zein baldintzetan (modu erabatekoan edo ia erabatekoan) gauzatu den zehaztea; kapitalismo bakoitzaren, iraultza bakoitzaren berezitasun nazionaletan oinarritzen da. Arlo teorikoan, auzia ezberdina da eta honela planteatzen da: Izan al daiteke proletalgoaren diktadura *esplotatzaileen klasearendako demokraziaren urraketak gabe?*

51

Kautskyk hain zuzen afera hau, teoria alorrean oinarritzko eta garrantzitsu *bakarra* dena saihestu du. Marxen eta Engelsen mota guztietako pasarteak aipatzen ditu, goian aipatu ditudan gure arazo honi dagozkionak *ezik*.

Edozertaz, liberalentzat eta demokrata burgesentzat onargarria den edozertaz, hauen ideien mugak apurtzen ez dituen edozertaz hitz egiten du garrantzitsuenaz *ezik*: proletalgoak burgesiaren *erresistentzia garaitu gabe, bere etsaiak indarrez erreprimitu gabe* ezin duela garaitu; eta “indar-bidezko errepresioa” dagoenean, “askatasunik” ez dagoenean, *jakina ez dagoela demokraziarik*.

Kautskyk ez du hau ulertu.

Igaro gaitezen orain Errusiar Iraultzaren esperientziara eta Ordezkarien sobieten eta Biltzar Konstituziogilearen⁴² arteko gatazkara; gatazka honek, azken honen disoluziora eraman zuen, burgesiari bozka eskubidea kenduz.

⁴² **Biltzar Konstituziogilea, bere deialdia eta disoluzioa:** 1917ko Errusiako otsaileko iraultza burgesaren ondorioz, alderdi burges eta burges-ttiki ezberdinek, tsarismoaren ondoren etorriko zen erregimen berriari forma emateko Biltzar Konstituziogile “demokratiko” bat deituko zutela agindu zuten; eta Biltzar honek egingo omen zituen errejimen berriaren Konstituzioa eta lehenengo legeak. Hala ere, pixkanaka-pixkanaka Biltzar horren deialdia

III. Egon al daiteke esplotatzailearen eta esplotatuaren arteko berdintasunik?

atzeratuz joan ziren eta Biltzar horretarako deialdi-hitzematea, guda inperialista luzatzeko eta botere burgesa zilegiztatzeko estalki bat zela agerian geratu zen. Garai hartan, boltxebikeen taktika, Botere sobietarra galdatzen zen aldi berean, Biltzar Konstituziogilearen deialdia galdatzea zen, Biltzar horren izaera burgesa agerian uzteko asmoz eta Biltzar horri eta oro har instituzio burgesi sobieten aurrean aipua kentzeko asmoz. Halere, Behin-behineko Gobernuaren pean, Biltzar Konstituziogilea ez zen sekula deitu. Boltxebikeek behin boterean egonda deitu egin zuten; sobietekin alderatuz, instituzio burges bat zela agerian uzteko eta masentzako alferrikakoa zela jakitera emateko. Urriko Iraultza Sozialistaren ondoren, 1918ko urtarrilak 5ean bildu zen, baina bi arrazoirengatik laister desegin zen: lehenik, Langile eta Nekazarien sobietetan oinarritutako langile demokrazia Biltzar Konstituziogilean oinarritutako demokrazia parlamentarioa baino aurreratuagoa eta errejimen sozialistarako aproposagoa zelako; eta bigarrenik, alderdi burgesek (mentxebikeek eta eseristek), Biltzar Konstituziogilea agitazio antiiraultzaile eta antisozialistarako tresna gisa erabili nahi izan zutelako. Ordez, Gobernu sobietarra ezarri zen. Guda Zibilean, Biltzar Konstituziogilea, eta botere politikoa honen esku uztea eskatzea, zurien esloganen eta propagandaren oinarrietako bat izan zen. (Itzultzailearen oharra)

IV. Ez daitezela sobietak estatu-erakundeak bihurtzen saiatu

Sobietak proletalgoaren diktaduraren gauzatze-modu errusiarra dira. Proletalgoaren diktadurari buruz lan bat idazten duen teoriko marxistak fenomeno hau benetan aztertu izango balu (eta ez bakarrik proletalgoaren diktaduraren aurkako intziri burges-ttipiak errepikatu, Kautskyk egin duen moduan, doinu mentxebikeak abestuz), diktaduraren definizio orokor bat ematetik hasiko litzateke eta gero, sobietak, bere forma bereizi, nazional bezala, proletalgoaren diktaduraren formatako bat bezala aztertuko litzuzke.

Jakina da Marxen diktadurari buruzko doktrinaren bere “konponketa” liberalaren ostean, Kautskyrengandik ezin daitekeela ezer seriorik espero. Baina sobieten auziari ekiteko eta berau konpontzeko duen modua xelebrea da erabat.

1905eko iraultzan sortu zirenekoa gogoratu, sobietek, “guztietan unibertsalena (*umfassendste*) zen antolaketa proletario modu bat sortu zuten, soldatapeko langile denak biltzen zituelako” idazten du (31 orr.). 1905ean sobietak ez ziren tokiko korporazioak besterik, 1917an Errusia Osoko mailako antolakunde bat bihurtu dira.

“Sobietar antolakundeak –idazten du Kautskyk–, jadanik historia handi eta loriatsu bat du. Etorkizun handiago eta loriatsuago bat du, eta ez Errusian bakarrik. Toki guztietan agerian geratzen ari da proletalgoaren borroka politiko eta ekonomikoan, finantza-kapitalak arlo politiko eta ekonomikoan dituen indar erraldoien aurka antzinako metodoak nahikoa ez direla. (*Versagen*: alemaniar hitz horrek “nahikoa ez dira” baino zertxobait gehiago esan nahi du, baina “ezgauza” baino zertxobait gutxiago). Ezin dira albo batera utzi ohikoan beharrezko izaten jarraitzen dutelako, baina noizbehinka, irtenbidea emateko ezgai diren arazo batzuk planteatzen zaizkie; arazo hauetan, arrakasta, langile klasearen indarraren tresna politiko eta ekonomiko guztien batasunak ekarriko duelarik”. (32 orr.)

54

Gero, masa-greben inguruko digresio batekin jarraitzen du, eta honen ondoren, sindikatuak bezain beharrezkoa den sindikatuetakoa “burokrazia”, “gure garaian gero eta eragin handiagoa daukaten masazko borrokaldi erraldoiendako ez da egokia (...)” dio.

“(...) Hortaz –dio Kautskyk–, antolaketa sobietarra gure garaiko fenomeno garrantzitsuenetako bat da. Kapitalaren eta lanaren arteko etortzeke dauden borrokaldi handietan garrantzi erabakigarria izatea hitzematen du.

Baina sobietei gehiago galda geniezaieke? 1917ko Azaroko Iraultzaren ostean (hau egutegi berriaren arabera, egutegi zaharraren arabera Urriko Iraultza dena⁴³),

⁴³ Errusiako egutegia, Urriko Iraultza Sozialistaren aurretik, gainontzeko herrietan baino hamahiru egun atzerago zihoan. Egutegi honi, *egutegi julianoa* deitzen zitzaion, europar herri gehienetan erabiltzen dena *egutegi gregorianoa* den bitartean. Horregatik ematen da daten arteko nolabaiteko nahasketa hori; adibidez, Errusiako Urriko Iraultza, egutegi julianoaren arabera Urriaren 25ean eman zen, baina egutegi gregorianoaren arabera, Azaroaren 7an. 1918an, langile gobernu sobietarrak egutegi julianoa baztertu eta gregorianoa erabiltzea ebatzi zuen, beste herrialdekoenarekin parekatuz. (Itzultzailearen oharra) baserri-guneetan klase borroka garatzearen aurka zeuden. Ezkerreko eseristak laborantza-guneetako sobietetan present zeuden eta bertan euren lerro politiko burges-ttipia aurrera eramaten eta estatu sozialistaren neurriak oztopatzen saiatzen ziren. 1918an (estatu

boltxebikeek ezkerreko eseristekin⁴⁴ batera errusiar Langile Ordezkarien sobietetan gehiengoa konkistatu zutelarik, Biltzar Konstituziogilea disolbatu ostean, ordura arte *borroka erakunde*a zen sobieta estatu-*erakunde* egin dute. Errusiar herriak Martxoko Iraultzan (egutegi berriaren arabera, egutegi zaharraren arabera Otsaileko Iraultza) konkistatu zuen demokrazia ezabatu egin dute. Honekin bat, boltxebikeek euren buruari ez diote dagoeneko *sozialdemokrata* deitzen. *Komunista* deitzen diote". (33 orr. kurtsiba Kautskyrena da).

55

Errusiar mentxebikeen argitalpenak ezagutzen dituen segituan ohartuko da Kautskyk Martovi, Axelrodi, Steini⁴⁵ eta abarri makurkeriaz koptatzen diela. "Makurkeriaz" hitz egokia da. Zeren eta, neurria lotsagabeki galduta, mentxebikeen aurreiritziak oinarri hartuta, gertaerak desitxuratzen baititu. Adibidez, bere

Kolpearen aferarengatik) sobietetatik kanporatuak izan baziren ere, baserri-guneetan euren eragina mantentzeko gai izan ziren eta Guda Zibilean guda irabazteko eta hirietako gosearen aurka borrokatzeko beharrezkoak ziren neurrien aurka egin zuten "laborantzeroaren defentsaren" aitzakiarekin. Ez zuten Armada Zuriarekin bat egin, baina toki batzuetan, Armada Gorriaren aurka borrokatzen zuten talde gerrillariak edo "laborantza armada berdeak" sortu zituzten (finean, herrixketako kulaken eraginpeko edo hauen interesak defendatzen zituzten taldeak). Alta, ezkerreko eserista gutxi batzuek Alderdi Boltxebikearekin eta komunismoarekin bat egin zutela esan beharra dago. 20ko hamarkadan, ezkerreko eseristen alderdia desagertu egin zen. (Itzultzailearen oharra)

⁴⁴ **Ezkerreko eseristak:** Urriko Iraultza Sozialistaren inguruko egunetan, Alderdi Eseristaren zuzendaritza Iraultzaren aurka eta instituzio burgesen alde azaldu zenean, eseristen ezkerreko atala alderdiarengandik bereizi eta bere kasa jokatzen hasi zen. Ezkerreko eseristek, hasieran sobieten Errepublikatxalotu zuten eta boltxebikeekin itun bat sinatu ondoren, hauekin batera Gobernu sobietarrean lanean hasi ziren. Alta, Brest-Litovskeko ituna sinatu behar izan zenean, ezkerreko eseristek ez zuten hori onartu, Errusiak lurraldeak zituelako eta Alemania inperialistaren aurka guda jarraitu nahi izan zutelako. Ezkerreko eseristen probokazio batek (Alemaniako enbaxadore Mirbach kontea hiltzeak) Brest-Litovskeko negoziazioak eten nahi izan zituen eta uztailak 6-7an Gobernu sobietarrean aurkako altxamendu kontrairaultzailea (estatu Kolpea) hasi zuten. Orduan burutzen ari zen sobieten V Biltzar Nagusiak estatu Kolpe eserista zapaltzeko baimena eman zuen, eta hurrengo egunetan kolpisten buruzagiak jada atxilotuak suertatu ziren eta altxamendua ezerezean utzia. Ezkerreko eseristek, Brest-Litovskeko bakeaz gain, bazuten sobietar Iraultzaren aurka egoteko beste arrazoi bat. Izan ere, Brest-Litovskeko negoziazioa aitzakia bazen ere, funtsean beste bat zen: Iraultza Sozialista laborantza-guneetan garatzen hasi zen heinean, ezkerreko eseristek, ideologia eserista-populistaren seme ziren legez, laborantza-guneetako burgesia-ttapiaren eta jabetza ttapiaren alde egin zuten (hauxe, baserri-guneetako "herri-komunitatearen", "batasun izpiritualaren" eta "autonomiaren" defentsaren diskurtsuaren atzean), hori dela eta,

⁴⁵ Zenbait buruzagi mentxebike. **Julius Martov:** Errusiar mentxebikeen buruzagietako bat. Gaztetan, San Petersburgon, Leninekin batera Langile Klasearen Askapenerako Borroka Batasuna sortu zuen, eta geroago Errusiar Langileen Alderdi Sozialdemokrataren fundatze prozesuan parte hartu zuen. Alderdi honen II Biltzar Nagusian, 1903an, boltxebike eta mentxebikeen arteko banaketa eman zenean, Martov azken hauen buru bezala agertu zen, Lenin boltxebikeen zuzendari zen bitartean. Hain zuzen ere, zatiketaren arrazoia Alderdiaren antolakuntza ereduari buruzkoa izan zen; halere, bi urte beranduago, 1905eko iraultzan, bereizketa politiko-ideologiko sakonagoa eman zen eta praktikan bi alderdi bereizi azaleratu ziren (nahiz eta ofizialki, 1912 arte, Alderdi Sozialdemokrata bakarra izan). I Mundu Gudarekin batera (guda inperialista), Martov mentxebikeen barneko gudaren "aurkako" fakzio sozialbakezalean kokatuko zen. Otsaileko iraultzarekin batera, Martov mentxebikeen ezker fakzioan kokatuko zen, sobieten ordezkariek Behin-behineko Gobernu burgesean parte hartzearen eta hau babestearen aurkakoan eta boltxebikeengana hurbiltzearen aldekoan; halere, Urriko Iraultzarekin batera, Alderdi Mentxebikearen zuzendaritzak Iraultza Sozialistaren aurkako jarrera hartu zuenean, Martovek jarraitu egin zituen, Botere sobietarrearen eta proletalgoaren diktaduraren aurka jarritz. 1920an Alemaniara erbesteratu zen. **Pavel Axelrod:** *Iskra* aldizkariaren Zuzendaritza Kontseiluko kide izan zen boltxebike eta mentxebikeen zatiketa eman arte; Axelrod azken hauen alde azalduko zen. "Likidazionisten" aldekoa (boltxebikeak Alderditik egotziz, Alderdiaren egitura klandestinoak "likidatzearen" eta alderdi legal erdi-liberal bat egitearen korrante antiiraultzailearen aldekoa), I Mundu Gudaren garaian, sozialchovinismoaren eta sozialpazifismoaren artean balantzaka aritu zen. Otsaileko iraultzaren ostean, posizio erreformisten aldekoa izan zen eta Urriko Iraultzaren erabat aurkakoa izango zen. Erbestean sobietar Errepublikaren aurkako eskusartze militar inperialistaren aldeko propaganda egin zuen. **Stein:** Errusiar mentxebikea, 1906az geroztik Alemanian bizi izandakoa. Kautskyrekin harreman handia izan zuen eta guda inperialista hasi zenean, posizio sozialbakezalea atxikiz, Kautsky eta Bernsteinekin batera *Sozialistische Auslandspolitik* (Kanpo Politika Sozialista) aldizkaria editatu zuen. 1917tik aurrera Alemaniako Alderdi Sozialdemokrataren zatiketa kautskistan (Alemaniako Alderdi Sozialdemokrata Independentea) militatu zuen. Errusiar Iraultza Sozialistaren aurkari sutsua izan zen. (Itzultzailearen oharra)

informatzaileei, Berlingo Steini edota Stockholmeko Axelrodi, boltxebikeen komunistarako izen aldaketa eman zeneko uneari buruz eta sobietek estatu-antolakunde diren aldetik, duten paperari buruz galdegiten ez da molestatu ere egin. Datu hauek jakingo balitu Kautskyk ez lituzke lerro barregarri horiek idatziko; izan ere, boltxebikeek bi auziok *1917ko apirilean*, adibidez Datu hauek jakingo balitu Kautskyk ez lituzke lerro barregarri horiek idatziko; izan ere, boltxebikeek bi auziok *1917ko apirilean*, adibidez nire *1917ko apirilaren 4ko "tesietan"*⁴⁶, hau da, 1917ko Urriko Iraultza baino *askoz ere lehenago* (eta hori 1918aren urtarrilaren 5ean eman zen Biltzar Konstituziogilearen disoluzioa ez aipatzearen) planteatu baitzituzten.

56

Baina osorik aipatu dudan Kautskyren arrazoiketa, sobieten auzi osoaren *koxxa* da. Sobietek ea estatu-erakunde izatera jo behar duten (boltxebikeek 1917eko apirilean "Botere osoa sobietentzat!" zioen kontsigna bota zuten; eta apiril bereko Alderdi Boltxebikearen Konferentzian, errepublika parlamentario burges batek asebetetzen ez zituela, aitzitik Komunaren moduko edo sobieten erako langileen eta nekazarien errepublika bat aldarrikatzen zutela adierazi zutenean) *edo* ea sobietek joera hori jarraitu ez, boterea eurentzat hartu ez, estatu-erakunde bihurtu ez baizik eta "klase" baten "borrokarako erakunde" izaten jarraitu behar duten jakitean (Martovek esan zuen bezala; gurari xalo hauen atzean, zuzendaritza mentxebikearen pean sobietak *langileen burgesiarekiko menderakuntzarako* tresna bat besterik ez zirela ezkutatu); hor dago *koxxa*.

57

Kautskyk Martoven hitzak makurkeriaz errepikatzen ditu, boltxebikeen eta mentxebikeen arteko eztabaida teorikoaren zatiak hartuz eta zati hauek inolako kritika edo irizpiderik gabe esparru teoriko orokorrean, esparru europar orokorrean proiektatu. Eraitza, Kautskyren aipatutako arrazoiketa ezagutzen duen errusiar langile kontziente ororengan egundoko barrea eragiteko gai den nahaste-borraste bat da.

Zeri buruzkoa den azaltzen diegunean, langile europar guztiek (sozialinperialista gutxi batzuk kenduta) amorratutako Kautskyri halako barre berbera egingo diote.

Martoven akatsa ohizkanpoko nabarmenkeriaz itxuragabekeriarraino puztuz, a zer mesede kaxkarra egin dion Kautskyk! Ikus dezagun Kautskyri zer atera zaion.

Sobietak soldatapeko langile guztiak barne hartzen dituzte. Finantz kapitalaren aurkako borroka politikoan eta ekonomikoan, proletalgoak antzina erabili dituen metodoak ez dira nahikoa. sobietak paper ezin garrantzitsu bat jokatu beharrean daude, eta ez Errusian soilik. Europan kapitalaren eta lanaren artean emango diren borrokaldi handi erabakigarrietan paper garrantzitsu bat izango dute. Hau da Kautskyk dioena.

⁴⁶ "**Apirileko Tesiak**": "Apirileko Tesiak", otsaileko iraultza burgesaren eta Behin-behineko Gobernuaren ezarketaren ondoren boltxebikeek jarraitu beharreko estrategiaren hamar puntutako Leninek idatzitako laburpen baten izena zen. Apirileko Tesiek boltxebikeen estrategia iraultzailea markatuko zuten eta beharrezkoak izan ziren bai boltxebikeen barneko estrategia iraultzaile zuzen baten inguruko zalantzak uxatzeko (Kameneven *de facto* zuzendaritzapean izandako ordura arteko estrategia zalantzia, horren adibide dugu), zein boltxebikeen eta alderdi burges-ttipi sasisozialisten (mentxebikeen eta eseristen) arteko bereizketa egiteko. Apirileko Tesien artean; guda inperialistarekin behin betiko eta berehala bukatzeko eta lantegien nazionaltzea bermatzeko, boterea sobieten esku egon behar zela planteatzen zen eta horretarako Gobernu burgesa iraultzaz uzkailezea beharrezkotzat jotzen zen. "Botere osoa sobietentzat!" eskatzen zuen kontsigna Apirileko Tesietan formulatu zen. (Itzultzailearen oharra)

Aunitz ongi. Ez al dute “kapitalaren eta lanaren arteko borrokaldi erabakigarriek” bi klase hauetako zein nagusituko den erabakiko?

Horretaz, ezer ez. Jainkoak bedeinka gaitzala.

Borrokaldi “erabakigarrietan” soldatapeko langile guztiak biltzen dituzten sobietak ez litezke estatu-erakunde bat bihurtu beharko!

Baina zer da estatua?

Estatua, klase baten beste batengatiko zanpaketarako aparatu besterik ez da.

Beraz, klase zanpatuak, behargin guztien eta gaur egungo gizartean esplotatutako guztien abangoardia denak, “kapitalaren eta lanaren arteko borroka erabakigarrietara” jo behar du, baina ez du kapitalak lana zanpatzeko darabilen aparatua ezta ukitu ere egin behar! aparatua hori ez du apurtu behar! Ezin du bere antolaketa unibertsala esplotatzaileak erreprimitzeko erabili!

58

Bikain, miresgarri, Kautsky jauna! “Guk”, klase borroka liberal guztiek onesten duten bezala onesten dugu, hau da, burgesia uzkaile gabe...

Hemen, marxismoarekiko zein sozialismoarekiko Kautskyren haustura agerian geratzen da. Hau, funtsean, berak zanpatzen duen klasearen erakundeak estatu-erakunde bihurtzea ezik dena onesteko prest dagoen burgesiaren aldera iragatea da. Dena kontziliatzen duen eta kontraesan sakon guztiak saihesteko esaldiak besterik ez dituen Kautskyk, ez du jada bere posizioari eusteko modurik.

Kautskyk botere politikoa langile klasearen eskuetara igaroarazteari uko egiten dio; edo asko jota, langile klasea estatu- aparatua zaharraren, aparatua burgesaren jabe egitea onartzen du, baina ez du inondik inora ere hau puskatzea eta txikitzea eta horrela beste berri batengatik, aparatua proletario batengatik ordeztzea onartzen. Kautskyren arrazoiketa modu batean edo bestean “irakurtzen” edo “azaltzen” bada ere, argi dago kasu bietan marxismoarekiko haustura eta burgesiaren aldera igarotzea nabarmena dela.

*Manifestu Komunistan*⁴⁷, langile klaseak behar duen estatuaz mintzatzerakoan, Marxek jada “estatua, hau da, langile klasea klase menderatzaile bezala antolatua” idazten zuen. Eta orain, bere burua marxistatzat daukan gizon batek, kapitalaren aurkako “borroka erabakigarrian” eta guztiz antolatuta dagoen proletarioak bere klase antolaketaz estatu-antolaketarik egin behar ez duela dio. Alemaniari buruz hitz eginez, Engelsek 1891an “estatuarekiko sineskerietan oinarritutako fedea burgesiaren kontzientzia orokorra, eta baita langile askorena izatera igaro dela” zioena, Kautskyk kasu honetan agerian utzi du⁴⁸. Borroka ezazue, langileok, gure filistiarak “baimendu” egiten du (burgesiak ere “baimentzen” du, edonola ere langileek borrokatu egiten dutelako eta falta zaien gauza bakarra euren aizkora ondo zuzentzea delako). Borroka ezazue, baina ez zaitezte garaitzera ausartu ere egin! Ez ezazue burgesiaren estatu-aparatua puskatu, ez ezazue “estatu-antolamendu” burgesa “estatu-antolamendu” proletarioaz ordeztu!

59

⁴⁷ **Manifestu Komunista:** Marxen eta Engelsen lanik ezagunena. Marxen eta Engelsen pentsamoldearen muina azaltzen den maisulana. (Itzultzailearen oharra)

⁴⁸ Friedrich Engels: Lenin, Engelsek Karl Marxen *Guda Zibila Frantzian* liburuari eginiko *Sarreraz* ari da. (Itzultzailearen oharra)

Estatua klase baten beste batengatiko zampaketa tresna besterik ez dela dioen Marxen ideiarekin benetan bat etorriko zatekeen pertsona bat, egia honi buruz zer edo zer hausnartu izango zukeen pertsona bat; sekula ere ez zatekeen erakunde proletarioak finantza-kapitala garaitzeko gai izanez gero estatu- erakunde bihurtu behar ez ziratekeela esatearen zentzugabekeriara iritsiko. Hori da estatua “dena dela” klaseez aparte edo hauen gainetik dagoen erakunde bat dela pentsatzen duen burges-ttipia agerian uzten duena. Izan ere zergatik “*klase bat bakarra*” den proletalgoak, proletalgoaz gain herri osoa, burgesia-ttipi osoa, nekazari guztiak menderatzen dituen kapitalari guda egin ahal dio eta “*klase bat bakarra*” izanagatik ezin du bere antolakundea estatu-antolakunde bihurtu? Burges- ttipia klase borrokaren *beldur* delako eta bukaeraraino eramaten ausartzen ez delako, hau da, *garrantzitsuena* egiten ez duelako.

Kautsky ikaragarriko nahastean sartu da eta bere burua guztiz agerian utzi du. Ikus ezazue: bera izan da Europa kapitalaren eta lanaren arteko borrokaldi erabakigarrietara hurbiltzen ari dela eta proletalgoak borroka politiko eta ekonomikoan erabilitako aurreko metodoak nahikoa ez direla aitortu duena. Baina metodo hauen funtsa demokrazia burgesa erabiltzea zen. Orduan, zer?...

60

Kautsky arrazoiketa azkenengo ondorioetara eramatearen eta hortik ondorioztatzen diren egiak ikustearen beldur izan da.

...Beraz, atzerakoi bat, langile klasearen etsai bat eta burgesiaren morroi bat soilik jar daiteke demokrazia burgesaren xarma margotzen eta iragan jada zaharkitu bati begira demokrazia garbiari buruz ele egiten. Demokrazia burgesa Erdi Aroarekiko aurrerakoia izan zen eta orduan erabili behar *izan zen*. Baina orain, langile klasearentzat *ez da nahikoa*. Orain aurrera begiratu behar da, ez atzera, eta demokrazia burgesa demokrazia proletarioaz ordezttera jo behar da. estatu demokratiko burgesaren barnean iraultza proletarioako prestaketa lana egitea, langile armadaren instrukzioa eta formakuntza egitea posible (eta beharrezkoa) izan da; baina “borrokaldi erabakigarrietara” iristerakoan proletalgoa marko horretara mugatzea, kausa proletarioari traizio egitea da, damutu bat izatea da.

Kautskyk barregarri sartu du hanka, Martoven argudioa erabili baitu Martovek argudio hau Kautskyk erabiltzen ez duen *beste argudio batean* oinarritzen duela *ikusitako gabe!* Martoven dioena (eta Kautskyk errepikatzen duena), Errusia oraindik sozialismorako helduta ez dagoela da, nondik logikoki, sobietak borroka tresna izatetik estatu-erakunde izatera bihurtzeko goizegi dela ondorioztatzen den (honetaxe uler ezazue: egokiena, sobietak, buruzagi mentxebikeen laguntzaz, langileak burgesia inperialistaren *menpe jartzeko* tresna bihurtzea da). Baina Kautskyk orain *ezin du* Europa sozialismorako heldua ez dagoenik argi esan. 1909an, oraindik damutu bat ez zenean, iraultza goiztiar bati beldurra ezin ziezaiokeela izan, porrotari beldur izatearren iraultzari uko egiten ziona traidorea zela esaten zuen. Kautsky ez da *argi eta garbi* atzera egiten ausartzen. Eta emaitza, burges-ttipiaren koldarkeria eta ergelkeria agerian uzten dituen zentzugabekeria bat da: alde batetik Europa sozialismorako heldua dago eta lanaren eta kapitalaren arteko borrokaldi erabakigarrietarantz doa; baina beste alde batetik, *borroka-erakundea* (hau da borrokan sortzen, garatzen eta sendotzen ari den erakunde bat), zanpatuen abangoardia, antolatzaile eta buruzagia den proletalgoaren erakundea *ezin da* estatu-erakunde bihurtu!

Politikaren ikuspuntu praktikotik, sobietak borroka erakunde bezala beharrezkoak direla baina estatu-erakunde bihurtu behar ez direla dioen ideia, ikuspuntu teorikotik dena baino are zentzugabeagoa da. Egoera iraultzailerik gabeko bake garaietan ere, langile masen eta kapitalisten arteko borrokak, esaterako masazko greben kasuan, bi aldeetan sekulako aiherra, borrokaren beroa eragiten du, burgesiak “etxeko jauna” bera dela eta hala izaten jarraitu nahi duela dioten adierazpenak behin eta berriz egiten ditu eta abar. Eta iraultza garaietan, bizitza politikoa pil-pilean dagoenean, sobietak bezalako erakunde bat, industria *guztietako* langile *guztiak* eta baita soldadu guztiak eta laborantza-guneetako behargin eta txiro guztiak biltzen dituen; berez, borrokaren norabideak eramanda, ofentsibaren eta erresistentziaren “logika” berarengatik, boterearen arazoa modu irmo baten planteatzen duen erakundea dira. Posizio neutral bat hartu nahi izatea, proletalgora burgesiarekin “kontziliatzea” nahi izatea, porrot negargarri batetara daraman ergelkeria bat da: hala gertatu zen Errusian Martoven eta beste mentxebike batzuen predikuekin eta hala gertatuko da Alemanian Kontseiluak⁴⁹ hedapen nahikoarekin garatzen badira, batu eta zurkaiztu egiten badira. sobietei borrokatzeko baina botere osoa euren eskuetan ez hartzeko, estatu-erakunde ez bihurtzeko esatea; klaseen arteko elkarlaguntza eta proletalgoraren eta burgesiaren arteko “bake soziala” predikatzea bezalakoa da. Borroka basati batean, halako posizio batek porrot lotsagarri bat ez den beste edozertara eramango duela pentsatzea barregarria da. Kautskyren betirako patua ur biren artean igeri egitea da. Teorian oportunistekin ezertan ere ados egongo ez balitz bezala egiten du; baina benetan, praktikan, oinarrizko auzi guztietan (hau da, iraultzari dagokionean) eurekin ados dago.

⁴⁹ **Alemaniko Langile Kontseiluak** alemanaz *Räte* izenez ezagutzen ziren, izen horrek alemanaz Biltzar edo Kontseilu esan nahi du, hau da, errusierazko *sobiet* hitzaren baliokidea da. (Itzultzailearen oharra)

V. Biltzar Konstituziogilea eta Sobietar Errepublika

Biltzar Konstituziogilearen eta batez ere boltxebikeek hau desegitearen afera, Kautskyren liburuxka osoaren oinarritzkoa den afera da. Behin eta berriz hona itzultzen da. II Internazionalaren buruzagi ideologikoaren lan osoa boltxebikeei “demokrazia ezabatzea” leporatzen dioten zehar-esanez josia dago (ikus lehengo Kautskyren aipuetako bat). Arazoak badu bere garrantzia, noski, demokrazia burgesaren eta demokrazia proletarioaren arteko elkar-harremana *praktikan*, hemen eta orain, iraultzan planteatzen delako. Ikus dezagun gure “teoriko marxistak” nola planteatzen duen.

Kautskyk, 1917aren abenduaren 26an *Pravda* egunkariann⁵⁰ argitaratutako nire *Biltzar Konstituziogileari buruzko tesiak*⁵¹ aipatzen ditu. Honela, itxuran, bere aldetik seriotasun handiagorik ezin daitekeela izan ematen du, aferaz dokumentuak eskuan dituela hitz egiten baitu. Baina ikus dezagun Kautskyk aipua *nola* egiten duen. Tesiak 19 direnik ez du esaten, eta ezta ere horiek bai Biltzar Konstituziogile bat zuen errepublika burges arrunt baten eta Errepublika sobietar baten arteko elkar-harremanaz, zein gure iraultzan zehar emandako Biltzar Konstituziogilearen eta proletalgoaren diktaduraren arteko desakordioaren historiaz mintzo direnik. Kautskyk guzti hori albo batera uzten du eta irakurleari tesi hauetako “bik garrantzia handia” dutela diotso: bata, eseristak Biltzar Konstituziogilerako hauteskundearen ostean baina hau batu aurretik zatitu egin zirela dioena da (baina tesi hau bosgarrena denik ez du esaten); eta bestea, sobieten Errepublikak, oro har, Biltzar Konstituziogileak ordezkatzeko duena baino maila handiagoko demokrazia bat ordezkatzeko duela dioena (tesi hau hirugarrena denik ez du esaten).

64

Eta hirugarren tesi horretatik Kautskyk zatiki oso bat bakarrik aipatzen du, honako baieztapena:

“Sobieten Errepublika ez da soilik erakunde demokratiko mota goren bat (Biltzar Konstituziogile bat goiburu duen edozein errepublika burges *arruntekin* alderatuz), baizik eta baita ere sozialismorantz ahalik eta minik gutxien⁵² eragingo duen igarotzea bermatzeko gai den modu bakarra” (Kautskyk “arrunt” hitza eta “Erregimen

⁵⁰ *Pravda* (errusieraz, *Egia*): Alderdi Boltxebikearen egunkari ofiziala. 1912an sortu zen, baina 1914an Gobernuak itxi egin zuen, guda inperialistaren aurkako propaganda egitearren. 1917ko otsaileko iraultzaren ondoren berriz atara zen kalera, eta martxotik aurrera, Komite Zentral Boltxebikearen organu bezala aurkezten zuen bere burua. 1917ko uztailean, Errusiako Gobernu burgesak debekatu egin zuen. Urriko Iraultza Sozialistaren ondoren berriz atara zen kalera, eta Alderdiaren organu izan zen sobietar Batasuna desagertu arte. Debekuak zirela eta, askotan izena aldatzearen beharra izan zuen; momentu ezberdinetan *Listok “Pravdi”* (Pravdaren orrialdea), *Proletari* (Proletarioa), *Rabotxi* (Langilea) edo *Rabotxi Put* (Langilearen Bidea) izenak erabili behar izan zituelarik. 1991an Jeltsinek Alderdi Komunista debekatzekoan, egunkariak itxi egin behar izan zuen. Gaur egun badaude zenbait egunkari “Pravda” marka erabiltzen dutenak; tartean, Errusiar Federazioko Alderdi Komunistaren egunkariak *Gazeta “Pravda”* (“Pravda” Kazeta) du izena. (Itzultzailearen oharra)

⁵¹ Ikus lan honen lehen eranskina. (Itzultzailearen oharra)

⁵² Bide batez, Kautskyk behin baino gehiagotan errepikatzen du “ahalik eta minik gutxien” esaldia, baliteke ironiaz egiten duela, hala ematen du. Baina zikin jokatzeko duenez gero, orrialde batzuk aurrerago tranpa egiten du eta aipua faltsutzen du: “minik gabeko” pausu bat! Noski, horrela erraza da arerioari zentzugabekeria leporatzea. Aizuntze honek, gainera, argudioaren funtsa isilean gordetzea ahalbideratzen dio: sozialismorantzko igarobiderik mingaitzena, txiroen antolaketa osoaz (sobietekin) eta antolaketa honi estatuaren botere zentralak (proletalgoak) emandako laguntzaz bakarrik da posible. (Leninen oharra)

burgestetik sozialistaranzko, proletalgoaren diktaduranzko igarobidea” hitzei ez die jaramonik egiten).

Aipu honen ondoren, Kautskyk egundoko ironiaz deiadar egiten du:

“Penagarria da ondorio horretara Biltzar Konstituziogilean gutxiengoan izan zirenean heldu izana. Aurretik inork ere ez zuen Biltzar Konstituziogilerik Leninek bezain besteko egoskortasunaz eskatu”.

Hitez hitz horrela dio bere liburuxkaren 31. orrialdean!

65

Hau da hau! Burgesiaren zerbitzuan dagoen gaitz-esale batek soilik faltsutu ditzake horrenbestearino gertatutakoak. Maila goren batetako estatuari buruzko boltxebikeen diskurtsoak Biltzar Konstituziogilean gutxiengoan geratu ondoren egin zuten asmakizuna izan zirela irakurleari ulertaraziko asmoz!! Halako gezur doilorra burgesiari saldutako azpisuge batek bakarrik esan lezake; edo berdina dena, P. Axelrodez fidatu da eta bere informatzaileak estaltzen ditu.

Izan ere, mundu guztiak baitaki, nik, Errusiara itzuli nintzen egun berdinean, 1917ko apirilaren 4ean, nire tesiak irakurri nituela, errepublika parlamentario burgesarekiko Komunaren erako estatu baten nagusitasuna defendatuz. Gero hau hainbatean *errepikatu* dut, prentsan adibidez, ingelesera itzultitako eta 1918an Iparramerikan New Yorkeko *The Evening Post*⁵³ egunkariak argitaratutako alderdi politikoei buruzko liburuxka batean⁵⁴. Eta are gehiago, 1917ko apirilaren bukaeran buruturiko Alderdi Boltxebikearen Konferentziak, langile eta baserritarren errepublika errepublika parlamentario burgesa baino hobea dela, gure Alderdia ezin zela mota honetako errepublika batekin poztu eta Alderdiaren programa zentzu honetan aldatu beharra zegoela zioen ebazpen bat onartu zuen⁵⁵.

66

Honen ostean, nola izendatu dezakegu alemaniar irakurleei nik Biltzar Konstituziogilea inork baino burugogorkeria handiagoz eskatzen nuela eta boltxebikeak gutxiengoa izan ondoren soilik Biltzar honen ohorea eta duintasuna “gutxiesten” hasi nintzela baieztatzean datzan Kautskyren burutazioa? Nola justifikatu al dezake halako burutazioa⁵⁶? Ez al zen Kautsky gertaera hauen jakitun?

⁵³ *The Evening Post* (ingeleraz *Arratsaldeko Mezularia*): New York hirian argitaratzen den egunkaria. Alexander Hamiltonek 1801ean *The New York Evening Post* izenburuarekin fundatu zuen. XIX mendean eta XX mende hasieran, ikuspegi oso liberala eta esklabotzaren abolizioaren aldekoa izan zuen, eta zenbait keinu “aurrerakoi” ere egiten zituen, adibidez, 1918ko urtarrilean aipaturiko Leninen artikulua argitaratu zuen eta Urriko Iraultza Sozialistaren ostean, AEBko Gobernuak eta Gobernu tsaristik sinaturiko akordioak salatu zituen. 1934an izena berriz aldatu zuen eta *The New York Post* izena hartuko zuen (gaur ere izen horrekin jarraitzen du). Hala ere, II Mundu Guda ostean, AEBko burgesiaren atalik atzerakoienaren eta inperialistenaren bozeramaile bihurtu zen. 1976an Rupert Murdoch handikiak erosi zuenean lerro politiko hau gogortu egin zuen eta gainera egunkari sentsazionalista bihurtu zuen. Gaur egun AEBko egunkaririk salduenetakoa da eta oso kontserbakorra da. AEBko egunkaririk zaharrena izatea aldarrikatzen du. (Itzultzailearen oharra)

⁵⁴ Vladimir Lenin; *Errusiako alderdi politikoak eta proletalgoaren eginkizunak* izeneko liburuxka. Erdarazko izenburua, *Los partidos políticos de Rusia y las tareas del proletariado* da. Ez dago euskarazko itzulpenik. Leninek liburuxka hau 1917an idatzi zuen, bi iraultzen artean. Liburuxka horretan, Leninek Errusiako alderdi politiko ezberdinak zein klase sozialen ordezkariak ziren, zein interesei erantzuten zieten eta Iraultzarekiko euren posizioa zein zen azaltzen zuen. Batez ere, boltxebikeen eta “sozialista” instituzionalista-burgesen (mentxebikeen eta eseristen) arteko ezberdintasuna erakusten zuen. (Itzultzailearen oharra)

⁵⁵ Lenin, Alderdi Boltxebikearen VII Konferentzia Nazionalaz eta bertan eman zen Alderdiaren Programaren berrikusketaz ari da. Honen testua, Leninek berak idatzi zuen. (Itzultzailearen oharra)

⁵⁶ Bidenabar: Kautskyren liburuan halako gezur mentxebike asko daude! Sututako mentxebike baten libelo bat da. (Leninen oharra)

Orduan zertarako ekin dio gertaera hauei buruz idazteari? Zergatik ez du gizalegez idatzi “Nik, Kautsky; Stein, P. Axelrod eta abarren datuetan oinarriturik idazten dut”? Bere objektibotasun itxurekin, porrotak mindutako mentxebikeen zerbitzurako bere papera estali besterik ez du nahi.

Baina hauek hasierakoak besterik ez dira. Ikus dezagun orain mamia.

Onar dezagun Kautskyk ez duela nahi izan edo ez duela izan (??) bere informatzaileen aldetik errepublika demokratiko burgesak asebetetzen dituen ala ez argitzen duten boltxebikeen ebazpenen eta adierazpenen itzulpenik jasotzerik. Onar dezagun, sinesgaitza bada ere. Baina Kautskyk, bere liburuaren 30. orrialdean nire 1917ko abenduaren 26ko tesiak *argi eta garbi aipatzen ditu*.

Kautskyk tesi hauen testu osoa ala Steinek, Axelrodek eta abarrek itzultitakoa bakarrik ezagutzen du? Kautskyk, oinarritzko auzi bati buruzko *hirugarren* tesia aipatzen du; boltxebikeek *herriari* sobieten errepublika, errepublika burgesa baino hobea zela, Biltzar Konstituziogilerako hauteskundeetan *aurretik* edo ondoren, ea noiz esan zutenaren buruzko *oinarritzko* tesia. *Baina Kautskyk bigarren tesia isiltzen du*. Bigarren tesi honek honako hau dio:

“Biltzar Konstituziogilearen deialdia eskatzerakoan, sozialdemokrazia iraultzaileak, 1917ko iraultzaren lehen egunetatik, sobieten *Errepublika, errepublika burges arrunta eta bere Biltzar Konstituziogilea baino demokrazia mota hobea dela* behin baino gehiagotan *azpimarratu* zuen”. (Kurtsiba nirea da).

67

Boltxebikeak printzipiorik gabeko pertsonak balira bezala, “iraultzaile oportunistak” (adierazpide hau Kautskyren liburu baten pasarte batean aurkitzen da, orain ez dut gogoratzen zein arrazoiengatik erabiltzen duen) balira bezala agerrarazteko asmoz; Kautsky jaunak, *alemaniar irakurleei* tesiek behin eta berriz “*errepikatutako*” adierazpideei erreferentzia egiten dietela *ezkutatu die!*

Horiexek dira Kautsky jaunak erabiltzen dituen prozedura eskas, makur eta mespretxagarriak. Modu honetan, auzi *teorikoaz* ez da arduratzen.

Egia al da ala ez al da errepublika parlamentario demokratiko burgesa Komunaren edo sobieten erako errepublika bat baino *txarragoa* dela? Hori da auziaren koxka, baina Kautskyk saihestu egiten du. Kautskyk Marxek bere Parisko Komunaren gaineko analisisan esandako guztia “ahaztu egin du”. Marxen ideia bera modu argian eta ulergarrian adierazten duen Engelsek Bebeli 1875eko martxoaren 28an idatzitako gutuna ere “ahaztu du”: “Komuna ez zen jada, hitzaren zentzu zorrotzean, estatu bat”.

Eta horra hor II Internazionalako teoriko gorena, bereziki *Proletalgoaren diktadura* gaiaz ari den liburuxka baten, eta batez ere errepublika demokratiko burges bat baino estatu forma hobea baten gaia askotan eta bikoiztasunik gabe planteatu den Errusiaz hitz egiterakoan, hortaz txintik ere ez diola. *Izatez*, zertan bereizten dira hori eta burgesiaren aldera pasatzea?

(Parentesien artean esan dezagun, honetan ere Kautsky errusiar mentxebikeen gibelean doala. Euren artean ere, Marx eta Engelsen “aipu guztiak” buruz dakitenak sobera aurki genitzake; baina 1917ko apiriletik Urrira eta 1917ko Urritik 1918ko urrira, mentxebike batek ere ez dio Komunaren erako estatu baten auziari *behin ere*

analizatzeari ekin. Plekhanovek ere saihestu egin du. *Ematen duenez, isiltzea besterik ez dute.*)

68

Jakina da Biltzar Konstituziogilearen disoluzioaren auziaz, euren burua marxistatzat eta sozialistatzat duten, baina *funtssezko* auzian, Komunaren erako estatu baten auzian, zinez burgesiaren aldera igarotzen diren pertsonekin eztabaidatzea txerriei bitxiloreak botatzearen antzekoa izango litzatekeela. Nahikoa izango litzateke liburuxka honen eranskin gisa nire Biltzar Konstituziogileari buruzko tesiak osorik inprimatzea. Horien bitartez, irakurleak; auzia teorikoki, historikoki, politikoki eta praktikoki 1917aren abenduak 26ean planteatu zela ikusiko du.

Kautskyk, teoriko bezala marxismoaren printzipio guztiei uko egin arren, Biltzar Konstituziogilearen aurkako sobieten borroka historiagile bezala ikertu ahal zukeen. Bere lan askok, Kautskyk historiagile marxista izaten *bazekiela* dioskute, eta lan horiek proletalgoaren ondare gisa geratuko dira, euren egilearen apostasia gora behera. Baina puntu honetan, Kautskyk, historiagile gisa ere, *errealitateari bizkarra ematen dio*, gertaera nabarmenen aurrean begiak itxi egiten ditu, gaitz-esale baten erara jokatzeko du. Boltxebikeak printzipiorik gabeko jende gisa agerrarazi nahi ditu eta Biltzar Konstituziogilea disolbatu aurretik honekin izan zuten gatazka nola *baretzen* saiatu ziren kontatzen du. Ez dago ezer txarririk horretan, ez dugu ezertan atzera egiteko beharrik. Tesiak osorik argitaratzen ditut eta bertan garbitasun osoz zera diot: Biltzar Konstituziogilean babesten zareten jaun burges-ttiki zalantziarik, onar ezazue proletalgoaren diktadura edo “bide iraultzaileen bidez” garaituko zaituztegu (18 eta 19 tesiak).

Burgesia-ttiki zalantziaren aurrean honela jokatu du eta jokatu du beti proletalgo benetan iraultzaileak.

69

Biltzar Konstituziogilearen auzi honi, Kautskyk ikuspegi formalista batetik heltzen dio. Nire tesietan argi eta garbi eta behin eta berriz esan dut iraultzaren interesak Biltzar Konstituziogilearen eskubide formalen ginetik daudela (16 eta 17 tesiak). Ikuspegi demokratiko formala, hain zuzen ere, proletalgoaren eta klase borroka proletarioaren interesen lehentasuna onartzen ez duen demokrata *burgesen* ikuspuntua da. Historiagile bezala, Kautskyk, parlamentu burgesak klase baten edo beste baten organoak direla onartu beharko zukeen. Baina orain (bere iraultzaren gaitzespen nazkagarria dela eta) Kautskyk marxismoa ahantzi du eta bere buruari *ez dio* Errusiako Biltzar Konstituziogilea zein klaseren organoa den *galdegiten*. Ez ditu baldintza konkretuak analizatzen, ez ditu gertaerak ikusi nahi, alemaniar irakurleei nire tesien edukia, ez soilik demokrazia burgesen izaera mugatuaren azterketa teoriko bat egitean (1-3 tesiak), ez soilik baldintza konkretuak aztertzean, zeinen arabera 1917ko Urriaren erdialdean eginiko alderdien zerrendek jada ez zuten 1917ko abenduko errealitatea ordezkatzen (4-6 tesiak), baizik eta baita ere 1917ko Urritik abendura doazen *klase borrokaren eta guda zibilaren historian* (7-15 tesiak) datzana ezkututzen die. Historia konkretu honetatik, “Botere osoa

Biltzar Konstituziogilearentzat!” kontsigna, *berez* kadeteen⁵⁷, Kaledinen⁵⁸ eta bere morroiei kontsigna bilakatu zela ondorioztatu genuen (14 tesia).

70

Kautsky historiagileak ez du hori ikusten, Kautsky historiagileak sufragio unibertsalak batzuetan parlamentu burges-ttipietara eta beste batzuetan parlamentu atzerakoi eta kontrairaultzaileetara eramanez dezakeenik ez du sekula ere entzun. Kautsky historiagile marxistak; hauteskunde forma, demokrazia forma gauza bat dela eta instituzio zehatz baten klase edukia beste bat denik ez du sekula entzun. Biltzar Konstituziogilearen klase edukiaren gaineko afera hau nire tesietan argi planteatua eta konpondua dago. Agian nire konponbidea ez da zuzena, hala bada ezerk ez liguke gure analisiari egindako kritika marxista batek bezain adina atsegin emango. Boltxebismoa kritikatzeko eragozten duen norbait omen dagoenez esaldi guztiz ergelak idatzi beharrean (Kautskyrengan hauetako asko daude), Kautskyk kritika hau egin beharra zuen. Baina arazoa bere aldetik kritikarik ez dagoela da. Alde batetik sobieten eta beste aldetik Biltzar Konstituziogilearen klase- edukiaren *arazoa ere ez du planteatu ere egiten*. Eta horregatik da ezinezkoa Kautskyrekin eztabaidatzea; irakurleei damutu izenez besterik zergatik ezin zaion eman *frogatzea* besterik ez dago.

Sobieten eta Biltzar Konstituziogilearen arteko urruntzeak bere historia du, historiagile batek alboratu ezin duena, hau klase borrokaren ikuspuntuan kokatu ez arren. Kautskyk hemen ere gertaeren historia ez du *aipatu* izan nahi. Alemaniako irakurleei, sobietak, mentxebikeen zuzendaritzapean ere, hau da, 1917ko otsailetik Urrira “estatuaren” erakundeekin (hots, erakunde burgesekin) desadostasunean zeudela agertzen duen gertaera guztiz nabarmena ezkutatu die (hau mentxebikerik egoskorrenek bakarrik ezkututzen dutelarik). Funtsean, Kautskyk, kontziliazioaren, konformismoaren, proletalgoaren eta burgesiaren arteko kolaborazioaren jarrera hartzen du; Kautskyk behin eta berriz ukatzen badu ere, ikuspegi hau bere liburuxka osoan zehar baieztatzen da. Biltzar Konstituziogilea ez zela disolbatu behar zioen esaldiak; burgesiaren aurkako borroka bukaeraraino ez zela eramanez behar, burgesia ez zela uzkaile behar eta proletalgora burgesiarekin kontziliatu behar zela esan nahi du.

71

⁵⁷ **Kadeteak**, edo era ofizialean esanda, *demokrata-konstituzionalistak* (KD). Alderdi hau Errusiako alderdi burges-liberal bat zen, monarkia konstituzionalaren aldekoa. Kadeteek tsarismoarekin itunak egitearen alde egin zuten eta guda inperialista bultzatu zuten. Otsaileko iraultzan burgesiak tsarra uzkaile ostean, burgesia handi ustez “demokratikoaren” ordezkari gisa, hitzez otsaileko iraultza babestera beharturik aurkitu baziren ere, finez, errepublika berriaren aurka konspiratzen zuten. Behin-behineko Gobernu burgesaren sostengu nagusietako bat izan zen: halaxe, bere politika, langileen aurkako errepresioan, lur-jabeen lurak banatzen zituzten nekazariak jazartzean, sobieten aurkako probokazioak eta mehatxuak burutzean eta guda inperialistaren jarraitzean oinarritzen zen. Otsaileko iraultzaz geroztik, Errusiako alderdirik atzerakoiena eta eskuindarra izan zen. Irailean Korniloven estatu-kolpea babestu zuten. Urriko Iraultza Sozialistaren etsai porrokatuak izan ziren eta Guda Zibilean Armada Zuria eta potentzia inperialisten interbentzioa babestu zuten. (Itzultzailearen oharra)

⁵⁸ **Alexei Kaledin**: Errusiar militarra, Don ibaiaren arko eskualdeko kosakoa. Gaztetatik Errusiar Armadan karrera militarra egin zuen, zalditerian batik bat. I Mundu Gudan postu garrantzitsuak izan zituen, bai Zalditeria Inperialean zein Armada arruntean. Otsaileko iraultza ez zuen onartu eta Behin-behineko Gobernuaren aurka konspiratzen zuen tsarismoa berriz boterean ezartzeko asmoz. 1917ko ekainean, Dongo kosakoen *ataman* (buru) izendatua izan zen eta Donen “Gobernu Militar Kosakoa” aldarrikatu zuen. Abuztuan iraultza zanpatzeko programa bat aurkeztu zuen. Kontrairaultzaile amorratu gisa, Korniloven estatu-kolpearen laguntzaile izan zen; baina kolpeak porrot egin ostean bere postutik kenduko zuten, atxilotua izan ez bazen ere. 1917ko Urrian, Iraultza Sozialista Proletarioarekin batera, Kaledinek Dongo lurraldean Gobernu kontrairaultzaile bat ezarriko zuen eta bere kosakoak Armada Zuriaren nukleo bat sortzeko erabili zituen. 1918ko urtarrilean, frontean izandako porroten ondorioz, bere buruaz beste egin zuen. (Itzultzailearen oharra)

Zergatik ez du esaten Kautskyk mentxebikeak 1917ko otsailetik Urrira lan ez oheragarri honetara ezer lortu gabe emanak izan zirela? Proletalgoa burgesiarekin kontziliatzea posible bazen, zergatik ez zen kontziliazio hori mentxebikeak nagusi zirenean lortu, zergatik lekutzen zen burgesia sobietetatik eta zergatik esaten zen (*mentxebikeek* esaten zuten) sobietak “demokrazia iraultzailea” zirela eta burgesia “elementu mugatuak” zirela?

Kautskyk, alemaniar irakurleei, mentxebikeek hain zuzen, euren nagusitasunaren “garaian” (1917ko otsailetik Urrira) sobietak demokrazia iraultzailatzat jotzen zituztela, eta *modu honetan* beste instituzioen gaineko euren nagusitasuna aitortzen zutela xixkatzen die. Xixkatze honi bakarrik zor diezaiokegu Kautskyk sobieten eta burgesiaren arteko desadostasuna, eguna joan eguna etorri, arrazoirik gabe, historiarik gabeko boltxebikeen jarrera txarraren erruz gertatutako zerbait gisa agerraraztea. Egia esan, konformismo mentxebikearen, proletalgoa burgesiarekin kontziliatze saiakeren *urte erdi baino gehiagoko* (iraultza batean egundoko tarte luzea) *esperientziak* herria saiakera hauen alferrikakotasunaz konbentzitu zuen eta honek proletalgoa mentxebikeengandik urrundu zuen.

Kautskyk sobietak proletalgoaren etorkizun handiko borrokarako erakunde bikainak direla aitortzen du. Baina halaxe bada ere, Kautskyren posizio osoa, haize bolada batekin, proletalgoaren eta burgesiaren arteko hil ala biziko borroka ekidin daitekeen ilusio burges-ttipia bailitzan desegin egiten da. Iraultza osoa ez baita borroka jarraitua eta halabeharrezkoa baino beste ezer, eta proletalgoa zanpatu *guztien* abangoardia, zanpatu guztiek euren askapenerako dituzten gurari guztien oinarria eta muina da. sobietek –masa zanpatuen borroka organoak–, jakina denez, masen iritzia eta aburu aldaketak beste edozein instituziok baino modu ezin azkarragoan, osoagoan eta leialagoan islatzen eta adierazten zuten (bidenabar, hauxe da demokrazia sobietarra demokrazia modu gorenetakoa bat izateko arrazoietakoa bat).

72

Otsailaren 28tik (egutegi zaharraren arabera) Urriaren 25era; sobietek Errusia osorako biltzar nagusi bi deitu zituzten, herrialdeko populazioaren gehiengo itzel baten, langile eta soldadu guztien eta hamar baserritarretik zazpiren edo zortziren ordezkariak bertan zeudelarik; eta hori tokiko, barrutiko, hirietako, probintzietako eta eskualdeetako hamaikatxo kongresu kontatu gabe. Garai honetan, burgesia ez zen gehiengo baten bat ordezkatu zuen instituzio bat bakarra ere deitzeko gai izan (iruzur hutsa izan zen eta proletalgoaren haserrea pizteko adina izan zen nabarmen faltsututako “Konferentzia Demokratikoaren”⁵⁹ salbuespenaz). Biltzar Konstituziogileak, ekainean burututako Errusia Osoko sobieten Lehen Biltzar

⁵⁹ **Konferentzia Demokratikoa:** 1917ko irailean, Kerenskiren Behin-behineko Gobernu burgesak (eseristez eta mentxebikeez osatutakoak), langileen aldetik Errusiako erregimen burgesarentzat babesa lortzeko asmoaz deitu zuen Biltzar. Konferentzia Demokratikoa, benetan, Kerenskiren posizioa indartzeko eta batere konpromisorik hartu gabe masen artean bere kreditua handitzeko saiakera bat izan zen. Konferentzia Demokratikoak Behin-behineko Gobernu sobieten bizkar indartzea zuen helburu. Konferentzia honek hartutako erabakien artean, “Aurre-legebiltzar” bat konbokatzea zegoen, zein Behin-behineko Gobernuaren kontsulta organo soil bat baizik ez zen izango (hau da, legebiltzar arrunt baten mailara ere ez zen iritsiko). Boltxebikeek ez zuten Konferentzia Demokratikoan partetik hartu eta “Aurre-legebiltzar” horretatik ere ziztu batean erretiratu ziren, hor parte hartzeak instituzio burgesekiko ilusioak piztu zitzaizkela eta benetako borroka sobieten ekintza iraultzailean zegoelako. Gai honek boltxebikeen artean eztabaida bat sortu zuen, Alderdiaren “eskuineko ildoak”, Kamenev buru zuelarik, “Aurre-legebiltzar” horretan parte hartu nahi izan zuelako. (Itzultzailearen oharra)

Nagusiak⁶⁰ islatu zuen masen sentimendu *berbera*, lerrokatze politiko *berbera* islatu zuen. Biltzar Konstituziogilea batu zenerako (1918ko urtarrilean), sobieten Bigarren⁶¹ (1917ko Urria) eta Hirugarren⁶² (1918ko urtarrila) Biltzar Nagusiak burutu ziren; biek ala biek masak erradikalizatu egin zirela, iraultzaileagoak zirela, mentxebikeei bizkarra eman zietela, boltxebikeen ondora pasa zirela, *hau da*, zuzendaritza burges-ttipia eta burgesiarekin akordio batekiko ilusioa arbuiaitu zituztela eta burgesia uzkaitezko proletalgoaren borroka iraultzailearen aldeko aukera egin zutela *garbitasun osoz erakutsi zutelarik*.

74

Hortaz, sobieten *kanpo historiak*, berak bakarrik jada, Biltzar Konstituziogilearen disolbatzea derrigorrezkoa zela eta Biltzar honen *izate atzerakoia* frogatzen zituen. Baina Kautskyk bere “kontsignari” eusten dio: hil bedi iraultza eta garai beza

⁶⁰ **Errusia Osoko Langileen, Nekazarien eta Soldaduen Ordezkarien sobieten Lehen Biltzar Nagusia:** Petrogradon, 1917ko ekainaren 3tik 24ra burutu zen. Garai hartan, boltxebikeak sobieten barruan gutxiengo bat ziren eta euren taktika politikoa sobieten baitan pedagogia politikoa egitean zetzan, hau da, sobietetako ordezkariek eta langile masak iraultzarantz hurbiltzean eta burgesiarekin kontziliatzearen aldeko alderdiak (eseristak eta mentxebikeak) isolatzean. Ekainaren 4ean, Leninek Biltzar Nagusi honen aurrean hitzaldi bat egin zuen. Biltzar Nagusi honetan, boltxebikeek Gobernu inperialista eta honekiko eseristen eta mentxebikeen konplizitatea salatu zuten. Hala ere, gehiengo mentxebike eta eseristak euren ebazpenak aurrera atera zituen eta Behin-behineko Gobernuari eta guda inperialistan parte hartzen jarraitzeari (zehazki frontean egingo zen ofentsiba militarri) babesa eman zioten. Ebazpenok, Botere sobietarraren eta Gobernu sobietarra sortzearen aurkakoak ziren. Eseristek eta mentxebikeek euren zuzendaritzapeko sobietaren Komite Exekutibo Nagusi bat izendatu zuten. (Itzultzailearen oharra)

⁶¹ **Errusia Osoko Langileen, Nekazarien eta Soldaduen Ordezkarien sobieten Bigarren Biltzar Nagusia:** Petrogradon, 1917ko Urriaren 25 eta 26ean burutu zen; mundu mailako historian garrantzia handia izan zuen, Urriko Iraultza Proletario Sozialista aintzatesi zuen lehen instituzioa eta haren lehen botere-erakundea izan baitzen. Boltxebikeen lerro politikoa zuzena izan zela frogatu zen, Biltzar Nagusi honetan boltxebikeek jada gehiengoa baitzuten. Biltzar Nagusia biltzen zen unean, langile armatuen destakamenduek eta masa iraultzaileek Behin-behineko Gobernu uzkaitezko Iraultza hasi zuten jada. Mentxebikeek eta eseristek Iraultza gaitzetsi egin zuten (“konspirazioa” zela esan zuten) eta burgesiarekin eta Behin-behineko Gobernuarekin adostasun batetara heltzeko dei egiten zuten mozioak aurkeztu zituzten. Biltzar Nagusiaren gehiengoa boltxebikeekin eta Iraultzarekin zegoela jakinik, mentxebikeek eta eseristek Biltzar Nagusia laga egin zuten. Urriak 25eko goizaldean, iraultzaileek hiria hartu zutelarik, Leninek, Biltzar Nagusiaren aurrean, boterea sobietena zela aldarrikatzen zuen adierazpena irakurri zuen. Hurrengo egunean, sobieten Biltzar Nagusiak langile eta nekazarien gobernua (Herriaren Komisarien Batzordea edo *Sovnarkom*, Lenin lehendakari zuelarik) izendatu zuen eta bakeari eta lurraren banaketari buruzko dekretuak onetsi zituen. Aldi berean, biltzarkideek sobieten Komite Exekutibo berri bat izendatu zuten, sobieten konposaketa berria (boltxebike iraultzaileen gehiengoa) modu zuzenago batean ordezkatuko zuena, honen lehendakari Lev Kamenev boltxebikea zelarik. Hala ere, bi astetara, azaroaren 21ean, Kamenevek dimititu egin zuen, Iraultzaren aurka ageri izan ziren mentxebikeak eta eseristak sobietar agintean barna sartzeko bere proposamena ukatua izan zelako (dimisio horrek Kameneven eta Alderdiaren harremanak asko okertuko zituen). Horrela, Jakov Sverdlov boltxebikea sobieten lehendakari berri izendatua izango zen. (Itzultzailearen oharra)

⁶² **Errusia Osoko Langileen, Nekazarien eta Soldaduen Ordezkarien sobieten Hirugarren Biltzar Nagusia:** Petrogradon, 1918ko urtarrilaren 10etik 18ra burutu zen. sobieten Biltzar Nagusi honetan, Jakov Sverdlov lehendakari boltxebikeak Herriaren Komisarien Batzordearen kudeaketa defendatzen zuen txosten bat irakurri zuen eta mentxebikeak eta eseristak txosten horren aurka (hots, sobietar Boterearen politikaren aurka) azaldu ziren. Halere, sobieten Biltzar Nagusiak sobietar gobernua politikara onetsi zuen. Biltzar Nagusi honek, Leninek idatzitiko *Herri Langile eta Zanpatuaren Eskubideen Adierazpena*, lehen Konstituzio sobietarra izan zenaren oinarria (Behin-behineko sobietar Konstituzio sozialista antzeko bat) onartu zuen. Gainera, Lurraren Banaketaren Gaietako Dekretua berretsi egin zen. Biltzar Nagusi honek Errusia sobietarra herrien borondatearen emaitza zela aldarrikatu zuen, beraz, autodeterminazio eskubidea onartu zuen. Aldi berean, nazio txikiakiko Gobernu sobietarraren politika onetsia izan zen. Beste berrikuntzen artean, Errusiaren izena “Errusiako sobietar Errepublika Sozialista Federatiboa” izango zela adostu zen. sobietar Boterea eta Alderdi Boltxebikea Biltzar Nagusi honetatik indartuta atera ziren, Biltzar Nagusi honetan herri zanpatuaren gehiengo zabal batek Urriko Iraultza Sozialista eta honen fruituak onesten zituela argi geratu baitzen. Beste alde batetik, mentxebike eta eseristen Iraultzarekiko erabateko urruntzea baieztatzen zen. Hemendik aurrera, bi alderdi hauek, kontrairaultzari erabat emanak izango ziren. (Itzultzailearen oharra)

burgesiak proletalgora “demokrazia garbiak” aurrera egin dezan! *Fiat justitia, pereat mundus!*⁶³

Hona hemen, Errusiako Iraultzan zehar burututako Errusia Osoko sobieten Biltzar Nagusien laburpen txiki bat:

75

Errusia Osoko sobieten Biltzar Nagusiak	Ordezkarien kopurua	Boltxebikeen kopurua	Boltxebikeen zenbatekoa ehunekotan
Lehena (1917-VI-3)	790	103	% 13
Bigarrena (1917-X-25)	675	343	% 51
Hirugarrena (1918-I-10)	710	434	% 61
Laugarrena (1918-III-14) ⁶⁴	1.232	795	% 64
Bosgarrena (1918-VII-4) ⁶⁵	1.164	773	% 66

76

Nahikoa da zenbaki hauek ikuskatzea Biltzar Konstituziogilearen aldeko argumentuak edota boltxebikeek populazioaren gehiengoa ordezkatzeko ez dituztela dioten (esaterako, Kautskyren) diskurtsoak barregarriak direla ulertzeko.

⁶³ Egin bedi justizia, hondatu bedi mundua! (Sobietar argitaletxearen oharra)

⁶⁴ **Errusia Osoko Langileen, Nekazarien eta Soldaduen Ordezkarien sobieten Laugarren Biltzar Nagusia:** Moskun, 1918ko martxoaren 14tik 16ra burutu zen. Bertan eztabaidatu zen gai nagusia sobietar Errusiaren eta Alemania inperialistaren arteko Brest-Litovskoko bake ituna izan zen. Bake itun horretan, sobietar Gobernuak alemaniar inperialismoari lurralde emakida handiak egin behar izan zizkion, eta Gobernu iraultzaile gisa potentzia inperialista handi batekin ituna egitearen estualdi latza pasatu behar izan zuen. Halere, bake itun hori sobietar Gobernuarentzat bizirauteko modu bakarra zen, ezin izan baitzuen aldi berean barneko kontrairaultzaren eta alemaniar armada trebatuaren aurka borrokatu. Alta; ezkerreko eseristen alderdia, anarkistak eta ezker muturreko boltxebike batzuk itun horren aurka agertu izan ziren. Leninek eta Kanpo Arazoetarako Herri Komisari Georgi Txitxerin jaunak ituna defendatzen zuten txosten bat aurkeztu zuten. Txosten hori onartua izan zen eta sobieten Biltzar Nagusiak ituna sinatzeko oniritzia eman zuen. Beste alde batetik Errepublika sobietarraren hiriburua Moskura aldatzea erabaki zen. (Itzultzailearen oharra)

⁶⁵ **Errusia Osoko Langileen, Nekazarien eta Soldaduen Ordezkarien sobieten Bosgarren Biltzar Nagusia:** Moskun hasi zen 1918ko uztailak 4ean. Sverdlovek eta Leninek Botere sobietarraren instituzioek aurrera eramandako politika defendatzen zituzten txostenak irakurri zituzten. Ezkerreko eseristek sobietar Gobernuari konfidantza erretiratzen zion, Brest-Litovskoko Bake Ituna eraustea eskatzen zuten eta sobietar Errepublikaren kanpo eta barne politika aldatzea eskatzen zuten mozio bat aurkeztu zuten. Mozio horrek bozketa galtzerakoan eta Biltzarrek boltxebikeen politika onesterakoan, ezkerreko eseristek, uztailaren 6an hilabete lehenago prestatuta zuten estatu kolpea eman zuten sobietar Gobernuari uzkaileteko asmoz. Orduan, Biltzar Nagusiak bere lana eten egin zuen eta 7an estatu kolpea menderatua izan zen. Uztailak 9an Biltzar Nagusiak bere lana berriro hasi zuenean; ezkerreko eseristen estatu kolpea gaitzetsi zuten, Gobernu sobietarrak kolpe horren kontra izandako jokabidea onartu zuen eta ezkerreko eseristak Langile eta Nekazarien sobietetatik kanporatzea erabaki zuen. Gainera, Biltzar Nagusi horretan sobietar Errepublikaren Konstituzioa onartu zen. Beste neurri batzuen artean; sobietar Herriak kanpo salerosketan monopolioa izango zuela onetsi zen, laborantza-guneko burgesen (kulaken) erresistentzia zapaltzeko deia egin zen eta Armada Gorriaren antolaketarako irizpide batzuk ezarri ziren. (Itzultzailearen oharra)

VI. Konstituzio sobietarra

Jadanik esana dut burgesiari bozka eskubidea ukatzea ez dela proletalgoaren diktaduraren ezaugarri derrigorrezko eta ezinbestekoa. Errusian, Urria baino askozaz ere lehenago diktadura horren aldeko kontsigna bota zuten boltxebikeek, ez zuten esplotatzaileei hauteskunde eskubideak kentzeari buruz hitzik ere egin. Diktaduraren alde *hau* ez dator inongo alderdiren “asmoetatik” eratorria, baizik eta borrokaren karian berez *sortu* da. Kautsky historiagileak, noski, ez du nabaritu ere egin. Ez du ulertzen mentxebikeak (burgesiarekin kontziliatzearen aldekoak) sobietetan oraindik nagusi zirenean, burgesia sobietengandik bere kabuz aldendu zela, boikotatu egiten zituela, sobieten kontra ari zela eta hauen aurka satorkerian zebilela. Sobietak inongo Konstituziorik gabe sortu ziren eta *urte batez baino gehiago* (1917ko udaberriatik 1918ko uda arte) inongo Konstituziorik gabe iraun zuten. Burgesiak zanpatuen antolaketaaren aurkako, antolaketa independente eta ahalguztidunaren (den-denak biltzen baititu) aurka zuen haserreak; burgesiak sobieten aurka eraman zuen borroka lotsagabe, berekoi eta ziztrinak; eta azkenik burgesia osoak (kadeteetatik hasi eta eskuineko eseristetan⁶⁶ bukatuta, Miliukovengandik⁶⁷ hasi eta Kerenskirengan⁶⁸ bukatuta) kornilovkerian⁶⁹ izan zuen konplizitate nabarmenak; guzti honek burgesia sobietetatik kanporatzeari *bide egin zion*.

⁶⁶ **Eskuineko eseristak:** Eskuineko eseristak, Alderdi Eserista bitan banatzerakoan honetatik agertutako sektore bat izan ziren. Sektore hau Behin-behineko Gobernu burgesaren aldekoa izan zen; sobietak boterea hartzearen aurkako, guda inperialistaren aldekoa, baseritarrek lur-jabeen latifundioak okupatzearen aurkako... Urrian, Iraultza Sozialista eman zenean, honen aurka azaldu ziren, eta sobieten II Biltzar Nagusiak Botere sobietarra aldarrikatzerakoan, Biltzar Nagusi hau laga eta Errepublikari sobietarren aurkako jarrera gogorra hartu zuten. Urriaren ostean kontrairaultzarekin erabat bat egin zuten eta Armada Zurian borrokatu zuten. Hainbat matxinada antiiraultzailetan parte hartuko zuten eta zenbait botere gune izatera iritsi ziren, hauetako batean, Samara hirian, *Komutx* (Biltzar Konstituziogileko Kideen Komitea) deitutako Gobernu antikomunista bat eratzea lortu zuten. Halere, Armada Gorriak guda irabazterakoan eskuineko eseristen alderdia desegin egin zen eta bere zuzendari gehienek erbestera jo zuten. (Itzultzailearen oharra)

⁶⁷ **Pavel Miliukov:** Alderdi Konstituzionalista Demokrataren buruzagia eta ideologo nagusia izan zen. Liberal- kapitalista gisa, sozialismoaren etsai porrokatua izan zen eta herri mugimendua tsarismoarekin adostasunetara heltzea nahi izan zuen. Otsaileko iraultzaren ostean, Lvov lehen ministroak Kanpo Arazoetarako Ministro izendatuko zuen. Postu honetatik guda inperialista “bukaeraino” jarraitzearen aldeko joera izan zuen eta tsarismoaren berrezarkuntzaren alde egin zuen. Aliatuei Errusiak guda inperialistan jarraituko zuela agindu zien eta tsarismoaren gudarekiko politikari eta konpromisoei eutsi zien (“Miliukov Oharra” deitutako adierazpen ezagunaren bitartez). Horrek langileen matxinada bat piztu zuen bere dimisioa eskatuz. Bere ospe txarra zela eta, apirilean dimititu beharra izan zuen. Urriko Iraultza Sozialistaren aurka agertu zen eta Guda Zibilean Armada Zuriaren aholkulari politiko bezala aritu zen. Zuriek guda galtzerakoan, Frantziara erbesteratu zen eta bertan hil zen. (Itzultzailearen oharra)

⁶⁸ **Alexander Kerenski:** Errusiar eserista. Bere karrera Duman hasi zuen, alderdi horren legebiltzarkide bezala. 1917ko otsaileko iraultza burgesaren ostean, guda jarraitzearen Guda Ministro izendatu zuten, beraz, gudaren jarraipenaren errudun nagusietako bat izan zen. 1917ko uztailean gobernuburu izan zen eta politika burgesa muturreraino eraman zuen: guda jarraitu, langile boterea ekidin, greben aurkako zapalkuntza... Gobernura iritsi eta berehala, boltxebikeak jartzeari eta atxilotzeari ekin zion eta egunkari boltxebike bi itxi zituen. sobieten agitazio iraultzailearen eta boltxebikeen izen on eta eragin gero eta handiagoaren aurrean, langile erakundeak eta Alderdi Boltxebikea legez kanpo uzteko, Kornilov jenerala deitu zuen, egitasmo hauek ahalbidera zitzazkeen diktadura militar bat inposatzeko estatu Kolpe bat eman zezan; halere, Kerenski eta Korniloven botere anbizio kontrajarriek eta langile erresistentziak, kolpea galarazi egin zuten. Urriko Iraultzak bere Gobernua uzkailei zuen, eta erbestera ihes egin zuen frantziar inperialismoaren aldeko bihurtuz. (Itzultzailearen oharra)

⁶⁹ **Kornilovkeria,** Korniloven estatu Kolpea: 1917an gertatutako gertakari nahasgarri bat izan zen. Lavr Kornilov jenerala Kerenskik deitu zuen Alderdi Boltxebikea suntsitzeko, sobieten boterea deuseztatzeko eta Behin-behineko Gobernuaren (eta Kerenskiren) diktadura ezartzeko. Baina beste alde batetik, kadeteek eta eskuineko beste konspiratzaile batzuek (Ingalaterrako enbaxadak barne), Korniloven diktaduraren alde presionatu zuten, Kerenski

78

Kautsky Korniloven kolpeaz zerbait aditu du, baina diktaduraren *formak* zehazten dituzten gertaera historikoekiko eta borrokaren norabide eta formekiko erabateko mespretxua dauka: izan ere, “demokrazia garbiaz” ari bagara, zer zerikusi daukate gertaerek? Honegatik, burgesiari hauteskunde eskubideak kentzean zentratzen den Kautskyren “kritikak”... ume batengan zirraragarria litzatekeen baina oraindik ofizialki ergeltzat hartua ez den gizon batengan oka eragiten duen lainotasuna du ezaugarri.

79

“(...) Sufragio unibertsalaz kapitalistak gutxiengo ñimiño batetara mugatuko balira, amore ematea gutxiago kostatuko zitzaien”... (33. orr.). Zirraragarria da, ez da hala? Kautsky adimentsuak, hain ondo ezagutzen duen historian zehar sarritan ikusi du bizitzaren esperientziaren poderioz hain ondo ezagutzen dituen lur-jabe eta kapitalistek gehiengo zanpatuaren borondateari bortxaz erantzuten dietela. Kautsky adimentsuak “oposizioaren” ikuspuntuari, hau da, legebiltzar borrokaren moduko ikuspuntuari, tinko eusten dio. Testualki honela dio: “oposizioa”. (34 orr. eta beste askotan).

Oi, ene historiagile eta politikari jakituna! Jakin ezazu “oposizio” kontzeptua borroka baketsu eta erabat parlamentario batetara mugatzen den kontzeptua dela; egoera ez iraultzaile bati, *iraultza ezari* dagokion kontzeptua dela. Iraultzan zehar, guda zibilean gupidagabea izango den etsai batekin egingo dugu topo; Kautskyren antzera guda honi beldur dioten burges-ttipien intziri atzerakoiek ez dute gertaera hau aldatuko. Burgesia bidegabekeria oro betetzeko prest dagoenean –versaillestarren⁷⁰ eta hauen eta Bismarcken⁷¹ arteko tratuen adibidea nahikoa litzateke historia Gogolen

ahulegia omen zelako eta hau baino buruzagi politiko eskuindarrago bat behar zutelako (zirkulu burgesen artean, Kerenskik bere popularitate ia guztia galdua zuen iraultzaileen aurka ahulegia zelakoan, eta “gizon indartsu” baten beharrean pentsatzen zuten eskuindarrek Kornilovengan pentsatzen zuten). Beste alde batetik, bai Kerenski eta bai Kornilov oso harroak ziren, euren buruez oso kontzeptu altu bat zuten. Halaxe, biek ala biek boterean egon nahi zuten eta bien arteko komunikazioetan (izan ere biak “Behin-behineko Gobernuaren alde” eta “boltxebikeen aurka” omen bazeuden ere, biek asmo hori euren diktadura pertsonalaren pean bete nahi zuten) gaizkiulertuak eman ziren. Kerenskik hori Kornilovi “estatu kolpea” leporatzeko erabili zuen (egia esan, Kerenski bera “estatu kolpe” horrekin ados zegoen bere botere pertsonalerako mehatxu bat izan zezakeela konturatu arte), eta Kornilovek, Kerenskik bere asmoak beteko ez zituela ikustean, Kerenski “boltxebikeen menpe” zegoela uste izan zuen. Petrogradoko langileek, kolpearen asmo antiproletarioak eta antisobietarrak ekiditeko, boltxebikeen zuzendaritzapean kolpe kontrairaultzaileen aurkako autodefentsa antolatu zuten; baina egia esan, ez zen talka armaturik gertatu (izan ere, teorian, Korniloven tropak ere Behin-behineko Gobernuaren alde zeuden eta Kerenski estatu kolpetik aldentzerakoan eta erresistentzia ikusterakoan, euren interbentzioa alferrikakoa zela ikusi zuten). Beraz, boltxebikeek zuzendutako masa proletarioen erresistentziak eta bi buruzagi kolpisten arteko lehiak, kolpea porrotera eraman zuen. Gertaera nahasgarri (eta komiko) honek Kerenskiren autoritatea asko ahuldu zuen; bai ezkerretik (bere izaera kontrairaultzailea eta boterezalea agerian agertu zelako) zein eskuinetik (Kornilov agerian utzi eta atxilotu egin zuelako). Beste alde batetik, boltxebikeen izen ona eta posizioa izugarri indartu zituen, eta hauek ordura arte zalantzan zeuden behargin masa handien aldekotasuna irabazi egin zuten. (Itzultzailearen oharra)

⁷⁰ **Versaillestarrek:** Parisko Komunaren aurka eta Adolphe Thiersek zuzendutako Frantziako gobernu kontrairaultzailearen alde borrokatu zuten tropei emandako izendapena. Izendapen hau, Thiersen Gobernu Versaillesen kokatzen zelako izan zen emana. (Itzultzailearen oharra)

⁷¹ **Otto Von Bismarck:** Prusiar politikaria, Alemaniaren Inperioaren birbateratzearen figura nagusia izan zen. Bere nazioarteko politika, estatuen arteko itunak armada indartsu batekin eta guda-mehatxuekin bilbatzean zetzan; eta halaxe, Prusia eta geroago Alemania, politiko-militarki, Europako herrialderik boteretsuena bihurtzea lortu zuen. 1862tik aurrera Prusiako lehen ministro izan zen eta 1873tik aurrera Alemaniakoa baita ere. Bismarckek Alemaniaren birbatzea lortzeko hiru guda egingo zituen: 1864an Danimarkaren aurka, 1866an Austriaren Inperioaren aurka eta garrantzitsuena 1871.ean Frantziaren Inperioaren aurka (zeinen ondoren, Alemaniaren birbatze ofiziala emango den). Barne politikan, Bismarckek Prusiak zuzendutako Alemania bat bilatzen zuen, hori dela eta Austriako Erresuma Alemaniaren birbatzetik kanpo utzi zuen, hala Prusiaren nagusitasuna bermatuz. Politika sozialari dagokionez; Bismarcken oinarri soziala Prusiako lur-jabe handiek (*junkers*), burgesia industrialak, armadak eta Eliza protestanteak osatzen zuten. Bismarcken politika komertziala hasieran librekanbista bazen ere, geroago protekzionismorantz egingo zuen. Langile mugimendu sozialistaren aurka errepresio gogorra erabiliko zuen, hau

Petruxka⁷² bezala ikustera ohitua ez dagoen edonorentzat-, burgesiak bera laguntzeko atzerriko estatuak deitzera eta eurekin batera iraultzaren kontra azpilanetan aritzera prest dagoenean; guda zibilari dagozkion arazoak “oposizioaren” ikuspuntutik planteatzea barregarria da. Kautsky “nahaste-borrasteren” antzera, proletalگو iraultzaileak ere lotarako jantzi eta esaterako Dutoven⁷³, Krasnoven⁷⁴ eta txekoslovakiarren⁷⁵ matxinada kontrairaultzaileak antolatzen dituen eta

debekatzera heldu arte (“Sozialistak Jazartzeko Legea”). Bismarcken ideologia “despotismo ilustratua” zen eta gobernu mota autoritarioa parlamentarismo itxurekin bilbatzen zuen; aurrerapen ekonomiko-soziala (adibidez, segurantza soziala), errepresio gogorrarekin (langile mugimenduaren kontra eta sindikatuen kontra); goitik etorritako modernizazioa, behetikako demokratismoa zanpatzearekin. Bismarck oso nazionalista-zentralista zen eta alemaniaratasuna protestantisismoarekin (eta prusiartasunarekin) identifikatzen zituen, hori dela eta, gutxiengo etniko poloniarren aurka, katolizismoaren aurka eta Bavariako autonomismoaren aurka kanpaina bortitzak eraman zituen. (Itzultzailearen oharra)

⁷² **Petruxka:** Nikolai Gogol errusiar idazlearen *Arima hilak* eleberrian agertzen den pertsonaia. Jaun feudal baten morroia zen; irakurtzerakoan, mekanikoki, silabaka, hitzak eta esaldiak bere osotasunean ulertu gabe irakurtzen zuena. (Itzultzailearen oharra)

⁷³ **Alexander Dutov:** Errusiar militar kontrairaultzailea, Orenburgko kosakoen buruzagia. Armada tsaristan karrera egin ondoren, I Mundu Gudan batailoi kosako batzuk zuzendu zituen. Otsaileko iraultzaren ostean joera politiko eskuindarreko erakundeetan parte hartuko zuen. Urriko Iraultza Sozialista eta gero, bere menpeko Orenburgko armada kosakoa Siberiako kontrairaultzaren buru zen Alexander Koltxak jeneral zuriaren esanetara jarri zuen. Txekoslovakiar Legioaren laguntzarekin zenbait hiri konkistatu zituen; baina 1920an, Koltxak armada garaitua izan zenean, Txinara erbesteratu zen. Bertan, 1921ean, Mahmud Khadzhamirov izeneko militante boltxebike iraultzaile batek hil egingo zuen. (Itzultzailearen oharra)

⁷⁴ **Piotr Krasnov:** Errusiar jeneral kosako tsarista. Armada tsaristan karrera egin ondoren, I Mundu Gudan, jeneral tituluarekin, zaldizko batailoi kosako batzuk zuzendu zituen. Behin-behineko Gobernuaren garaian Korniloven estatu Kolpean parte hartu zuen eta Urriko Iraultza Sozialista gertatzerakoan, Kerenskik armadako komandante goren izendatu zuen jaiotzen ari zen Iraultza zapal zedin eta boterea Kerenskiri itzul ziezaien. Boltxebikeek preso hartu bazuten ere, Krasnovek Iraultzaren aurka borrokatuko ez zuela hitza eman ostean aske utzi zuten. Hala ere, hitza jan egin zuen. 1918an, Don Eskualdeko Kosakoen Hordako buruzagi izendatuko zuten eta Don Eskualdean matxinada kosako antisobietar bat piztu zuen. 1919an, bere armada kosakoa Denikin jeneralak Ukrainan eta Errusiako Hegoaldean zuzentzen zuen Armada Zuriaren hierarkia pean jarri zuen; hala ere, Armada Zuriarekin desadostasun politiko sakonak izango zituen (itxuraz, Krasnovek “nazionalismo kosakoa” defendatzen zuen, eta hori Armada Zuriko errusiar inperialistek ez zuten ondo ikusten) eta urte horretantxe Alemaniara erbesteratuko zen. Bertan, zenbait jarduera propagandistiko antisobietarretan sartuko zen, Bigarren Mundu Guda iritsi arte. Guda horretan bere aberriari traizio egin zion eta sobietar Herria eraso zuten faxista alemaniarren zerbitzura jarri zen; Wehrmachtrako eta Waffen SSrako kosako antikomunistez osatutako dibisioak eratu zituen. Bigarren Mundu Gudan SESBk Alemania garaitu ondoren, sobietarrek Krasnov bere traizioagatik epaitu, hiltzera kondenatu eta exekutatu egingo zuten. (Itzultzailearen oharra)

⁷⁵ **Txekoslovakiarren matxinada kontrairaultzailea:** Matxinada kontrairaultzaile hau gertaera nahasiak zirela medio gertatu izan zen. Lehen Mundu Guda pizterakoan (orduan Txekia eta Eslovakia Austrohungariar Inperioaren menpe zeuden), txekoslovakiar nazionalistek (Thomas Masaryk Txekoslovakia estatuaren sortzaileak eta Milan Stefanik jeneralak zuzendurik), Txekoslovakiaren independentziari laguntzeko Austria-Hungariaren aurka borrokatu behar zela uste zuten, Errusiar Armadarako bolondres txekoslovakiarrek (Txekoslovakiar Legioa) erreklutatu zituzten. 1917rako, Errusiaren aldean txekoslovakiar asko zeuden, eta tropa hauek Txekoslovakiar Kontseilu Nazionalaren (Errusiaren aliatu politikoa) menpe jarri ziren, etorkizuneko txekoslovakiar armada izateko itxaropenaz. Alta, 1917ko Urriko Iraultza Sozialistaren ondorioz Errusia sobietarrak guda utzi zuen, beraz Txekoslovakiar Kontseilu Nazionalak Txekoslovakiar Legioa Frantziaren menpean jartzea erabaki zuen eta Gobernu sobietarrari Frantziarako ebakuatzea planteatu zion. Gobernu sobietarrak baldintza hori onartu egin zuen (ez zuen guda inperialista baten zertan parte hartu beharrik, ezta ere guda inperialista baten parte hartzen ari ziren tropei guda bere lurraldetik egitea uzteko beharrik) eta Siberiako Vladivostok hiriko portutik Ameriketara eta gero Europara ebakuatzea erabaki zuen (guda frontearrekin ahalik eta kontaktu txikiena izan zezaten). Hala ere, Vladivostokerako bidaian, txekoslovakiarrek, agian potentzia inperialistek xaxatuta, matxinatu egin ziren (bertsio historiko onartuen arabera, baita ere ebakatu beharreko gudako preso hungariarekin istiluka hasi eta gero, sobietar Gobernuak desarmatzea galdatu izan zenez, agindu honen aurrean matxinatzea erabaki izan zuten). Bertsioa edozein izan bazen ere, egia esan, zurien alde eta inperialistek finantzatuta matxinatu izan ziren, eta Vladivostokerako bidean zuriatzeko Siberiako zenbait hiri eta lurralde zabalak konkistatu izan zituzten (ondo entrenatutako eta armatutako legioa izaki, gorriei arazo handiak sortzen zizkieten). Hala ere, aurrera egin hala, legioko soldadu askok desertatu egin zuten (haietako asko, iraultzaile sozialistak zirenez, gorrien aldera pasa ziren). Txekoslovakiar Legioaren tropak sakabanatu egin ziren; askok Vladivostoketik Europara joateko plana jarraitu zuten, baina beste askok desertatu egin zuten, batez ere 1918ko ekainaren 11an, Errusian zeuden zelula komunista txekoslovakiarrek beren aberkideei

sabotatzaileei milioiak ematen dizkion burgesia hau “oposiziotzat” hartu behar du. Hori duk hori pentsamendu sakona izatea!

81

Kautskyri interesatzen zaion gauza bakarra auziaren alde formala eta juridikoa da, beraz Komunari buruz egiten dituen arrazoiketak irakurri ondoren, Bebelen hitzak gogoratu besterik ez dugu: juristak jende ezin atzerakoiagoa dira. “Egia esan –dio Kautskyk– kapitalistei bakarrik ezin zaizkie eskubiderik kendu. Zentzu juridikoan zer da kapitalista bat? Ondasunak dituen gizon bat? Arlo ekonomikoan hain aurreratua dagoen eta proletario kopuru hain handia duen Alemania bezalako herrialde batean ere; sobietar errepublika bat ezartzeak, masa handiei euren eskubideak kenduko lizkieke. Alemaniar Inperioan, 1907an, hiru multzo ekonomiko handietan – nekazaritzan, industrian eta salerosketan– biltzen ziren pertsonak (euren familiak barne), 35 milioi soldatapeko langile eta behargin eta 17 milioi ekoizle independente ziren. Beraz, litekeena, Alderdiak soldatapeko langileen artean gehiengoa izatea baina populazio osoaren baitan gutxiengoa izatea da”. (33. orr.)

Kautskyren argudiatzeko modu arrunta da hauxe. Ez al da hau burges baten intziri kontrairaultzailea? Zergatik sartu dituzu zuk, Kautsky jaunak, “ekoizle independente” guztiak eskubiderik gabeko pertsonen multzo barruan; errusiar baserritar gehienek soldatapeko langilerik enplegatzen ez dutela, eta beraz eskubiderik kentzen ez zaiela jakin badakizu? Ez al da hori aizuntzea egitea?

82

Zergatik zuk, ekonomista aditu horrek, ez dituzu laborantza ustiakuntza mota ezberdinei buruzko 1907ko alemaniar estatistika berberean agertzen diren eta ondotxo ezagutzen dituzun datuak hemen berridatzi? Zergatik ez dizkiezu datu horiek zure liburuxkaren irakurle diren alemaniar langileei aipatzen, modu horretan *zenbat esplotatzaile* dauden eta “laborantza jabeen” artean zein gutxi diren jakin dezaten?

Zure apostasiak burgesiaren zerbitzuko gaitz-esale bat bihurtu zaituelako.

Ikus ezazue, “kapitalista” kontzeptu juridiko zehaztugabe bat da, eta Kautskyk zenbait orrialde Konstituzio sobietarraren “*arbitrariotasuna*” salatzen ematen ditu. “Aditu arretatsuek” burgesia ingelesari Konstituzio burges berri bat (Erdi Arorako berria) egiteko eta hobetzeko mendeak eta mendeak ematen dizkio; baina guri, Errusiako langile eta baserritarroi, morrontza- zientziaren ordezkari honek ez digu inolako eperik ematen. Guri, zehaztasun txikieneraino zehaztutako Konstituzio bat hilabete batzuetako epeaz egitea galdatzen digu...

“Arbitrariotasuna”! Epai ezazue zuek *halako* gaitzespenarekin batera burgesiarekiko zer nolako mirabekeria handia eta zer nolako pedanteria ergela azalarazten dituen. Herrialde kapitalistetako juristek, ezin burgesagoak eta gehienak atzerakoi hutsak direlarik, hamarkadak eta mendeak eman dituzte langilea *zanpatzeko*, *txiroa* esku eta hanka lotzeko, herriko langile xumeari mila oztopo jartzeko araurik zehatzenak, lege eta zehaztasunez betetako bolumenak idazteari; baina, ene bada, liberal burgesek eta Kautsky jaunak hor ez dute inolako “arbitrariotasunik” ikusten! Hor ez dute “ordena” eta “legalitatea” besterik ikusten! Hor dena ondo meditatua eta idatzia dago txiroak ahalik eta gehien “zanpatzeko”. Hor milaka abokatu eta funtzionario burges daude (Kautskyk honi buruz ez du hitzik egiten, agian Marxek makina

burokratikoaren *suntsipenari* garrantzi handia ematen ziolako...) legeak, langileek eta nekazariak euren aginduek jartzen dituzten oztopoak sekula gaintu ez ditzaten moduan interpretatzen dakizkitenak. Hori ez da burgesiaren “arbitrariotasuna”, hori ez da herriaren odola asebate egin arte xurgatu duten esplotatzaile doilor eta ziztrinen diktadura, ez halakorik. Hori, egunik egun gero eta garbiago egiten den “demokrazia garbia” da.

83

Baina klase zanpatu eta esplotatuek, guda inperialistak euren atzerriko anaiengandik banatu dituztelarik, euren sobietak eratzen dituztenean, burgesiak zanpatzen, aberetzen eta sorgortzen zituen *masak* bizitza politikoan barneratzen dituztenean, *euren kabuz* estatu *berri* proletario bat eraikitzen hasten direnean; borroka basatian, Guda Zibilaren garretan *esplotatzailerik gabeko* estatu baten oinarritzko printzipioak *zirriborrotzen* hasten direnean; burgesiako gizatar guztiak, azpisuge sorta osoa euren morroi Kautskyrekin batera “arbitrariotasunaren” aurka oihuka hasten dira! Izan ere, nola izango dira langile eta nekazari ezjakin horiek, “jendaila” hori, euren legeak interpretatzeko gai? Abokatu jantzien, idazle burgesen, Kautsky eta hau bezalakoen eta antzinako funtzionario adituen aholkurik gabe non hartuko ote dute justiziaren zentzua langile xume horiek?

Kautsky jaunak, nire 1918ko apirilaren 28ko hitzalditik⁷⁶ hitz hauek aipatzen ditu: “(...) Masek, eurek zehazten dituzte hauteskundearen arauak eta epeak (...)”. Eta Kautsky “demokrata garbiak” zera ondorioztatzen du:

“(...) Beraz, hautesle Biltzar bakoitzak, hauteskundearen prozedura nahierara zehaztu dezake. Bidegabekeria kopurua eta proletalgo beraren barneko oposizioko elementu eragozleak kanpoan uzteko aukerak ikaragarri haziko ziratekeen” (37. orr).

84

Zertan ezberdintzen dira hori eta greba baten masek “lan egin nahi duten langile saiatuak” zanpatzen dituztelako intziri egiten duen kapitalistei saldutako lumadun morroi baten diskurtsoa? Zergatik ez da arbitrariotasuna demokrazia burges “garbi” batean funtzionario burgesek hauteskundearen prozedura finkatzea? Zergatik da euren betiko esplotatzaileen aurka *borrokatzeko altxatu diren*, halabeharrezko borroka honek trebatzen eta moldatzen dituen masen justiziaren zentzua aurreiritzi *burgesez* leporaino dauden zenbait funtzionario intelektual eta abokaturena baino okerragoa?

Kautsky benetako sozialista bat da, ez dezagun etxeko jaun agurgarri honen, hiritar ondratu honen zintzotasuna zalantzan jar. Langileen garaipenaren, iraultza proletarioaren aldeko sutsu eta sinetsia da. Bere gurari bakarra; masazko mugimenduaren *aurretik*, esplotatzaileen aurkako borroka gorria hasi *aurretik*, derrigorrez, guda zibilik eman *gabe*, *ezeren aurretik* intelektualtxo burges-ttipea eta ez-titsuek, lotarakoa jantzi dutela, *iraultzaren garapenaren arau* zehatz eta moderatu batzuk idaztean datza...

Judas Golovliov⁷⁷, haserre biziz, alemaniar langileei 1918ko ekainaren 14ean Errusia Osoko sobieten Komite Exekutibo Nagusiak mentxebikeen eta eskuineko

⁷⁶ Leninen hitzaldi hau, egun berean **Botere sobietarraren bat-bateko eginkizunak** deitutako artikulu moduan *Pravda* egunkarian eta sindikatuen *Izvestia VTsIK* (“VTsIKen berriak”) egunkarian argitaratu zen. Geroago ale soil bezala ere argitaratu zen. (sobietar argitaletxearen oharra)

⁷⁷ **Judas Golovliov**: Mikhail Saltikov Shtxedin errusiar idazlearen *Golovliov familia* deituriko eleberriko pertsonaia. Judas Golovliov, eleberririk guzti horretan hoberen imajinatutako eta deskribatutako pertsonaia da, biziki gogor irudikatutakoa. Judas Golovliovek lur-jabe bat ordezkatzeko du, hitzontzia eta hipokrita galanta. Lenin, hemen Golovliov aipatzerakoan, Kautsky ari da. (Itzultzailearen oharra)

eseristen alderdiaren ordezkariak sobietetatik kanporatzea ebatzi zuela esaten die⁷⁸. “Neurri hau –idazten du Judas Kautskyk, haserre zintzoak eramanda–, ez doa zigortu beharreko zenbait ekintza egin dituzten pertsona zehatzen aurka... Errepublikak sobietarraren Konstituzioak, sobietetako diputatuen immunitateaz ez du deus ere esaten. Kasu honetan, sobietetatik kanporatutakoak ez dira pertsona zehatzak, alderdi zehatzak baizik.” (37. orr.)

85

Bai, egia esan, hori izugarria da, gure iraultzaile Judas Kautskyren arabera iraultza arautzen duen demokrazia garbitik modurik onartezinenean lekutzea da. Guk, errusiar boltxebikeok, lehenik eta behin, Savinkov⁷⁹ eta abarri, Liberdanei⁸⁰,

⁷⁸ Erabaki hau, Errusia Osoko sobieten Komite Exekutibo Nagusiak 1918ko ekainaren 4ean hartu zuen, ebazpen baten bitartez. Ebazpen honek hala zioen: “Kontutan harturik, 1) (...) sobietar Boterea oso egoera zailean dagoela, bai nazioarteko inperialismoaren presioa zein honek Errusiar Errepublikaren barnean dituen aliatuen presioa pairatzen duelako (...) 2) sobietar erakundearen barnean sobietar Boterearen izen ona zikindu eta hau uzkaile nahi duten alderdien ordezkariak egotea onartezina dela eta 3) (...) hemen argitara emandako dokumentuek, (eskuineko) Alderdi Eseristaren eta mentxebikeen ordezkariak kontrairaultzaileekin bat eginik (...) langile eta nekazarien aurkako ekintzak antolatu dituztela frogatzen dituztela; Errusia Osoko sobieten Komite Exekutibo Zentralak, (eskuineko) Alderdi Eseristaren eta mentxebikeen ordezkariak erakunde honetatik kanporatzea ebatzen du, eta tokiko (...) sobiet guztiei talde hauetako ordezkariak kanporatzea proposatzen die”. (sobietar argitaletxearen oharra)

⁷⁹ **Boris Savinkov**: Errusiar eserista. Gazterik, tsarismoaren aurkako ikasle protesta batzuetan parte hartu eta gero, Alderdi Eseristan sartuko zen. Alderdi horren Borroka Erakundearen (beso armatua) parte hartuko zuen eta 1905eko iraultza baino arinagoko atentatu eta magnizidio ospetsu batzuetan parte hartuko zuen (adibidez Von Plehve Barne Ministro tsaristaren erailketan). 1908an Borroka Erakunde Eseristako buruzagia polizia sekretuaren agentea zela frogatzerakoan, Savinkovek erakunde horren buruzagitzan ordeztuko zuen, baina ahultasuna zela medio, hortik gutxira erakundea desegin egingo zen eta Savinkovek erbestera ihes egingo zuen. 1917an, otsaileko iraultzaren ostean, Errusiara itzuliko zen eta Alderdi Eseristaren barruan eskuin muturreko ildo defenstatuko zuen; guda inperialistaren aldekoa, sobietaren aurkakoa, langileen protesten aurrean ordena inposatuko zuen gobernu baten aldekoa, Alderdi Boltxebikea ilegalizatzearen aldekoa... Kerenski gobernuburu izan zenean, Gudarako Ministro-orde egingo zuen. Halere, bere ideologia biziki kontrairaultzailea zela eta, Korniloven estatu Kolpean parte hartu zuen (Korniloven manifestu politikoak Savinkovek idatziak ziren) eta horregatik bere kargutik eta Alderdi Eseristatik kanporatua izango zen. Urriko Iraultza Sozialistaren etsai amorratua izaki, Botere sobietarra indarrez kentzeko saiakera aunitz egin zituen; Jaroslavl hirian, interbentzionista inperialista ingeles eta frantziarrek finantzatuta, altxamendu zuri kontrairaultzaile bat piztuko zuen eta Armada Zuriko buruzagi politikoetako bat izango zen. 1919-21 arteko sobietar-Poloniar Guduan, Poloniar Armadaren laguntzaile militar bezala aritu zen. 1924an, matxina kontrairaultzaileak prestatzeko asmoz SESBra itzuli zen; baina sobietarrek atxilotu eta epaitu egingo zuten. 10 urteko kartzela zigorra jarriko zioten, hala ere hurrengo urtean, 1925ean, bere burua hil egin zuen. (Itzultzailearen oharra)

⁸⁰ **Liberdan**: Mikhail Liber eta Fiodor Dan buruzagi mentxebikeez eta euren jarraitzaileez irri egiteko erabiltzen zen esapidea. Esapide hori, lehen aldiz Demian Bedni boltxebikeak 1917ko abuztuak 25ean, *Sotsial-Demokrat* egunkarian erabili zuen. *Sotsial-Demokrat* egunkaria, *Pravda* boltxebikeen egunkari handiaren ordezkotako bat izan zen, hura legez kanpo zen garaietan. *Mikhail Liber*: Bund erakundearen buruetako bat; Errusiako Langileen Alderdi Sozialdemokrataren IV Biltzarrean (Bund erakundeak Alderdi Sozialdemokratarekin, formalki bada ere, berriz bat egin zuenean) erakunde horren ordezkaria izan zen. Hurrengo urtean mentxebikeekin batuko zen eta hauen buruetako bat izango zen. 1914an, Errusiako guda inperialistan parte hartzearen alde agertuko zen. 1917ko otsaileko iraultza burgesaren ostean, sobietetako buruzagitzak kargu bat izango zuen, eta bertatik, burgesiarekin kontziliazioa eta Behin- behineko Gobernu babestuko zituen, sobietak burgesiaren politikaren menpeko tresna antiiraultzaile bihurtzen saiatuz. Urriko Iraultza Proletarioaren aurka azalduko zen, eta hau gertatu ostean politika utzi egin zuen eta zenbait erakunde ekonomikotan egin zuen lan. *Fiodor Dan*: Errusiar mentxebikeetako bat, sozialchovinista. 1917ko otsaileko iraultzaren ostean, Behin-behineko Gobernu burgesaren aldekoa (nahiz eta bertan parte hartu ez). Petrogradoko sobietaren barnean, burgesiarekiko politika kolaborazionista eraman zuen. Urriko Iraultza Sozialistaren aurkakoa, 1922an sobietar Batasunetik egotzia izango zen, bere jarrera kontrairaultzailea zela eta. (Itzultzailearen oharra)

Potresovi⁸¹ (“aktibistei”⁸²) eta abarri immunitatea agindu behar izan genien; geroago, txekoslovakiarren kanpaina kontrairaultzailean parte hartzea edota Ukrainan edo Georgian alemaniar inperialistekin bat⁸³ norbere herrialdeko langileen kontrako aliantzetan aritzea “zigorgarri” bezala deskribatuko lukeen zigor kode bat idatzi beharko genukeen; eta soilik honen ostean, “demokrazia garbia” aintzat hartuta, zigor kode honen arabera “zenbait pertsona” sobietetatik kanporatzeko gai izango ginatekeen. Savinkov, Potresov eta Liberdanen bitartekaritzaz (edo euren propagandari esker) kapitalista anglo-frantziarren dirua jasotzen duten txekoslovakiarrek, Ukrainako eta Tbilisiko mentxebikeen bitartekaritzaz jaurtigai alemaniarrek lortu dituzten Krasnov bezalakoen antzera, guk gure zigor-kodea behar bezala idatzi arte geldirik egongo zirela eta gero, demokratarik garbienen moduan, “oposizio” paper batetara mugatuko zitekeela gainulertzen da...

86

Konstituzio sobietarrak “etekin-asmoz, soldatapeko langileak enplegatzen dituztenei” hauteskunde eskubideak kentzeak, Kautskyrengan sumindura moral berbera pizten du. “Etxeko industriako langile batek edo ofizial bakarra duen patroï batek –idazten du Kautskyk– proletario baten antzera bizi eta sentitu dezake bere burua, eta ez du bozkatzeko aukerarik”. (36. orr.)

87

Nola desbideratu garen “demokrazia garbitik”! Nolako bidegabekeria! Egia da, orain arte, marxista guztiek, patroï- ttipiak soldatapeko langileen esplotatzaile krudelenak eta zikoitzenak zirela suposatzen eta milaka frogekin baieztatzen zutela; baina Judas Kautskyk ez du patroï ttipien klaseaz hitz egiten (nork asmatuko ote zuen klase borrokaren zoritxarreko teoria hori?), norbanakoez, “proletarioen antzera bizi eta sentitzen duten” esplotatzaileez baizik. “Agnes aurreztaile” famatua, aspaldi hildakotzat eman genuena, orain Kautskyren lumak berpiztu du. Orain dela hamarkada batzuk, “Agnes aurreztaile” hau asmatu zuena eta alemaniar

⁸¹ **Alexander Potresov**: Errusiar mentxebikea, *Iskra* aldizkariko Zuzendaritza Kontseiluaren parte izan zen eta gerora “likidazionista” (mentxebikeen eskuineko fakzio antiboltxebike eta antiiraultzailea; alderdiaren egitura klandestinoak likidatzearen aldekoa eta alderdi guztiz parlamentario, legezko eta erdi-liberal bat egitearen aldekoa). Gudaren garaian sozialchovinista hutsa. Otsaileko iraultzaren ostean, langile politikoki aktiboak gudatik desmobilizatzearen aurkakoa. Urriko Iraultzaren ostean Errusiatik ihes egin zuen, eta erbestean Kerenskiren aholkularia izan zen. (Itzultzailearen oharra)

⁸² **“Aktibistak”**: Mentxebikeen barneko talde bat, talde antikomunista amorratua. Talde honek, Iraultza Sozialistaren lehen egunetatik Iraultza honen kontrako jarrera hartu zuen eta indarkeriaren bitartez Botere sobietarra uzkailei eta Behin-behineko Gobernu berrezartzeko asmoa zuen. “Aktibistek” intriga eta azpilan kontrairaultzaile guztietan parte hartu zuten, eta 1918an sobieten disoluzioa eskatu zuten. (Itzultzailearen oharra)

⁸³ Ukrainako eta Georgiako mentxebikeez eta inperialistekin izan zuten arma kontrabandoaz ari denean, Leninek herrialde horietako Gobernuen politika antisobietarra, antiiraultzailea eta alemaniarzalea (hau da, alemaniar inperialismoaren aldekoa) salatzen du. Izan ere, Iraultza Sozialista Proletarioaren ondoren, herri askotako burgesiak eta burgesia-ttipiak, “Errusia gorritik” banatzeko eta lurralde horietan sozialismoa zabaltzeko ez zedin, “independentzia” aldarrikatzeko saiakerak egiten zituen (“independentzia” faltsua, inperialisten menpe egoteko izanen baitzen). Adibidez, 1918an, Georgiak, Alderdi Mentxebikearen (ordura arte autonomia eskatu zuenaren) presiopean, bere “independentzia” eta Georgiako Errepublikak Demokratikoa aldarrikatu zuen. Errepublika hau laster alemaniarren babespean jarriko zen. Aldi berean, Ukrainako alderdi burges-ttipiek (eseristek batez ere), 1917ko Azaroan Ukrainaren “independentzia” (hau da, antisobietakeria eta inperialismoarekiko menpekotasuna) eta Gobernu propio bat (*Rada*) aldarrikatu bazuten ere, Brest-Litovskoko Itunaren ondorioz (Itun horretan Ukraina, *Radaren* ordezkariarekin, alemaniarren menpeko eragin zonalde bat bezala ezartzen zen), alemaniarrek, Pavlo Skoropadski *hetman* kosakoaren buruzagitzapean, eurekiko hurbilagoa zen gobernu bat inposatu zuten, *Rada* ahulegia omen baitzen. Bai Georgia zein Ukraina “independente” pro- inperialistak, sobieten Errepublikaren aurkako konfrontazio armatuan sartu ziren eta alderdi “sozialista” burges-ttipiek (mentxebikeek eta eseristek) sostengatuak ziren. Finean, Guda Zibilean Armada Gorriaren aurka borrokatu ziren. Honetaz ari da Lenin herri honetako mentxebikeak inperialistekin elkarlanean aritzen direla salatzen duenean. (Itzultzailearen oharra)

argitalpenetan aditzera eman zuena, demokrata “garbi” bat, Eugen Richter⁸⁴ burgesa izan zen; zeinek proletalgoaren diktadurak esplotatzaileen kapitala konfiskatzeak ekarriko zituen egundoko gaitzak iragarri zituen eta xalotasunez, zentzu juridikoan kapitalista bat zer zen galdetu zuen. Jostun txiro eta aurreztaile baten adibidea jarri zuen (“Agnes aurreztailea”), zeini “proletalgoaren diktadore” maltzurrek azken xentimoa ere kentzen zioten. Garai baten, alemaniar sozialdemokrazia osoak Eugen Richter demokrata garbiaren “Agnes aurreztaile” honen kontura sekulako barreak egiten zituen. Baina hori aspaldi izan zen, August Bebel bizi zenean eta argi eta garbi egia hau esaten zuenean: “gure alderdian oraindik nazional-liberal gehiegi daude”. Hori aspaldi izan zen, oraindik Kautsky damutu bat ez zenean⁸⁵.

88

Eta orain, “Agnes aurreztailea” “ofizial bakar bat duen eta proletario gisa bizi den eta sentitzen duen patroii ttipiarengan” berpiztu da. Boltxebike gaiztoak berarekin gaizki portatzen dira, bozkatzeko eskubidea kentzen diote. Egia da, Kautsky berak aitortzen duenaren arabera, Errepublika sobietarrean “hautesle Biltzar bakoitzak”, adibidez lantegi batekin erlazionatutako artisau txiro bat salbuespena bada, *benetan* “proletario baten antzera bizi bada eta sentitzen badu” eta esplotatzaile bat ez bada onar dezakeela. Baina fida al daiteke norbait estatuturik gabe jarduten duen gaizki antolatutako lantegi batetako langileen Biltzar batek duen bizitzaren gaineko ezagutzaz eta justiziaren zentzuaz? Ez al dago argi langileek “Agnes aurreztailea” eta “proletario baten antzera bizi den eta sentitzen duen artisau ttipia” gaizki tratatzeko arriskua hartzea baino hobe dela esplotatzaile *guztiei*, soldatapeko langileak dituzten *guztiei* bozka eskubidea ematea?

Utz dezagun apostasiaren gizatxar mespretxagarri horiek, burgesiak eta sozialchovinistek⁸⁶ bultzatuta, gure Konstituzio sobietarra esplotatzaileei bozka eskubidea kentzen diela eta iraindu dezaten. Hobe hala; alde batetik Europako langile iraultzaileen eta bestetik sozialismoaren buruzagi eta traidore zahar Scheidemann eta Kautskyren, Renaudel eta Longueten, Henderson eta Ramsay MacDonaldeen⁸⁷ arteko bereizketa hainbat eta zabalagoa eta handiagoa izango baita.

⁸⁴ **Eugen Richter:** Alemaniar kazetari eta filosofo liberala. Sozialismoaren etsai porrokatua zelarik, bere bizi osoan zehar askatasuna kapitalismoarekin eta sozialismoa diktadurarekin eta tiraniarekin lotzen saiatu izan zen. Mota horretako bere idatzirik ezagunena, *Sozialdemokratische Zukunftsbilder (Etorkizunerako liburuxka sozialdemokratak)* izan zen, non etorkizuneko gizarte sozialista nolakoa izango zen desitxuratzen zuen, sozialismoaren aurkako irain/libelo bat bezala. Liburu horretan “Agnes aurreztailea” pertsonaia agertzen zen, artisau txiro batentzat sozialismoa txarra zela frogatu nahi izan zuena. Politikari bezala, Alemaniako Legebiltzarreko diputatu izan zen, alemaniar liberal “aurrerakoiekin” bat egin zuen eta Bismarcken agintaritzaren aurkako izan zen. Bismarcken “Lege Antisozialista” kritikatu zuen sozialismoa puzteko arriskua omen zutelako, eta baita ere honen politika ekonomikoa (Segurantzza Soziala ezartzearena), “sozialismo kutsua” omen zuelako (Itzultzailearen oharra)

⁸⁵ Lenin, Alemaniako Alderdi Sozialdemokratak 1910eko irailak 10ean, Madgeburgo hirian burututako Biltzar Nagusian zehar, August Bebelek eman zuen hitzaldiaz ari da. Ikus Biltzar Nagusi honi buruzko Leninen *Bi Mundu* artikulua. (sobietar argitaletxearen oharra)

⁸⁶ *Frankfurteko Kazetaren* editorialean (1918-X-22, 293. orr.), Kautskyren liburuxkaren laburpen gogotsu bat ikusi dut. Burtsalarien egunkaria poz-pezik dago. Nola ez ba! Eta Berlingo burkide batek, *Vorwärts* egunkariak, scheidemanndarren egunkariak, artikulua berezi baten, Kautskyren ia lerro guztiekin bat datorrela dioela idazten dit. Biziki zoriontzen dugu! (Leninen oharra)

⁸⁷ **Ramsay MacDonald:** Ingalaterrako Alderdi Laboristaren kide eta legebiltzarkide, 1911an alderdi horretako buru izango zen. 1914ko gudan posizio sozialbakezaleara atxikiko zen eta laboristen artean posizio sozialchovinista nagusi zela eta, alderdiburu postutik dimititu egingo zuen. Liberalekin itunak egitearen aldekoa, iraultzari gorrotoa zion, eta Errusiar Iraultzaren aurka egon zen. 1921ean, berriz aukeratuko dute alderdiburu. 1924ko urtarrietik abendura lehen ministro izan zen (Ingalaterrako historiako lehen gobernu laborista). 1929an berriz izan zen lehen ministro, baina bi urteren buruan, gobernuan kontserbakorrak eta liberalek sartzea erabaki zuen “batasun nazionaleko”

89

Klase zanpatuetako masak, proletario iraultzaileen artean sortutako buruzagi jatorrak, *gurekin egongo dira*. Proletario hauei eta masa hauei gure Konstituzio sobietarra erakustearekin nahikoa izango da hau esan dezaten: hauek benetan *gureak* dira, langileen benetako alderdi bat direlako, benetako langile gobernu bat direlako. Langileak ez dituztelako, *aipatutako buruzagi guztiek egin duten bezala*, erreformen inguruko hizketaldiekin engainatzen; baizik eta esplotatzaileen aurka seriooki borrokatzen dute, iraultza seriooki eramaten dute aurrera, langileen askapen osoaren alde *benetan* borrokatzen dute.

Sobietek “praktiketan” urte oso bat eman ondoren, esplotatzaileei bozka eskubidea kendu *badiete*, honek sobietak benetan masa zanpatuen eta ez burgesiari saldutako sozialinperialisten eta sozialbakezaleen⁸⁸ organo direla *esan nahiko du*. sobiet hauek esplotatzaileei bozka eskubidea kendu badiete; honek, sobietak kapitalistekin kontziliazio burges- ttipirako organoak e direla, hizketaldi parlamentarioarako (Kautskyren, Longueten edo MacDonalden, esaterako) organoak ez direla, baizik eta esplotatzaileen aurka hil ala biziko borrokan ari den benetan iraultzailea den proletalgoaren organo direla *esan nahiko du*.

90

“Hemen, Kautskyren liburuxka ia ezagutu ere ez dugu egiten” idatzi dit egunotan Berlinetik ondo informatutako burkide batek. Nik, Alemaniako eta Austriako gure enbaxadoreei, liburu hau erosten eta langile kontzienteen artean dohainik *zabaltzen* errekurtsorik aurreztu ez dezaten gomendatzen diet; honela, sozialdemokrazia “europarra” –hau da, inperialista eta erreformista–, aspaldion “kaka usaina darion hilotza”⁸⁹ den sozialdemokrazia hori lokatzetan lurpera dadin.

Bere liburuaren bukaeran, 61. eta 63. orrialdeetan, Kautsky jaunak “teoria berriak” (boltxebismoa hala deitzen du berak, Marx eta Engelsek Parisko Komunari buruz egin zuten analisiari ekiteko beldur delarik) “Suitza bezalako demokrazia zaharretan jarraitzaileak aurkitu izana” modu mingotsean gaitzesten du. Kautskyrentzat “ulertezina da alemaniar sozialdemokratek teoria hau onestea”.

gobernu bat osatuz, beraz Alderdi Laboristatik kanporatua izan zen. 1935 arte izan zen gobernuburu, postu honetan greben aurkako eta kolonietako askapen mugimenduen aurkako zapalkuntza bortitza erabili zuen. (Itzultzailearen oharra)

⁸⁸ **Sozialbakezaleak:** Guda inperialistaren garaian, mundu mailako mugimendu sozialistaren baitan agertutako sozialismo iraultzaile internazionalistaren aurkako korrante antimarxista. Joera hau, teorian guda inperialistaren aurkakoa bazen ere, guda inperialista potentzia inperialista ezberdinen arteko bake itun utopiko batekin bukatzearen aldekoa zen; guda inperialista guda iraultzailea bihurtzea aldarrikatzen zuen politika leninistaren aurkakoa beraz. Izan ere sozialbakezaleek inperialismoa kapitalismoaren ondorio zela ukatzen zuten, gudatik iraultza sozialistaren bidez bakarrik atera zitekeela ukatzen zuten. Horregatik, sozialbakezaleak izenez sozialistak baziren ere, izanez pazifista burgesak ziren. Joera honetako teoriko ezagunena Karl Kautsky zen. (Itzultzailearen oharra)

⁸⁹ Rosa Luxemburgen esaldia. Esaldi hau, Alemaniako Alderdi Sozialdemokratak Alemaniako Parlamentuan guda inperialistarako kredituak onartu zituenean esan zuen. Rosa Luxemburg, beste gutxiarekin batera, alemaniar sozialdemokraziaren biraketa inperialistaren aurka agertu zen bakanetakoa izan zen, eta gudan zehar, guda inperialista guda iraultzaileaz borrokatzeko deia egin zuen. Horregatik, sozialdemokrazia jada iraultzailea ez zelako, Alderdi Sozialdemokratatik irten eta talde iraultzaile bat sortu zuen, *Liga Espartakista* (Alderdi Komunistaren iturburua). Hori erakusten du esaldi horrek; chovinismoak, erreformismoak eta inperialismoak sozialdemokrazia “ofiziala” guztiz usteldu dutela eta harengandik ahalik eta lasterren aldendu behar dela (hots, alderdi iraultzaile berriak eratu behar direla). Izan ere, garai hartan, askok alemaniar sozialdemokrazia mundu mailako eredutzat zuten eta guda inperialistari baietz esate hori sozialista askorentzat oso mingarria izan zen. (Itzultzailearen oharra)

Oso ulergarria da ordea; gudak emandako ikasgai gogorren ostean, bai Scheidemannek zein Kautskyk masei higuina ematen dietelako.

“Guk”, betidanik demokrazia aldarrikatu dugunok –idazten du Kautskyk–, orain bat batean uko egingo diogu!

“Gu”, sozialdemokraziaren oportunistok, Kolbek⁹⁰ eta abarrek *aspaldi* argi eta garbi esan zuten bezala, betidanik proletalgoaren diktaduraren aurka egon gara. Kautskyk hori badaki eta Bernstein eta Kolben ondora “itzultzea” bezalako gertaera nabarmen bat irakurleei ezkutatzea lortuko duela alferrik sinesten du.

91

“Guk”, marxista iraultzaileok, demokrazia “garbiaz” (burgesaz) ez dugu sekula ere fetitxe bat egin. Badakigu, Plekhanov 1903an (errusiar Scheidemann bat bihurtu zuen biraketa deitoragarria eman aurretik) marxista iraultzaile bat zela. Eta Plekhanovek orduan, programa onetsi zuen Alderdiaren Biltzar Nagusian, beharrezkoa baldin balitz proletalgoak iraultzan zehar kapitalistei hauteskunde eskubideak kenduko zizkiela, kontrairaultzailea balitz *edozein Legebiltzar disolbatuko* zuela esan zuen⁹¹. Hori da marxismoari dagokion ikuspuntu bakarra; honela edonork ikus lezake, lehen aipatu ditudan Marxen eta Engelsen adierazpenei esker bada ere. Marxismoaren oinarri guztien ondorio nabarmen bat da.

“Guk”, marxista iraultzaileok, herrialde guztietako kautskistek euren burgesiaren morroi paperean parlamentarismo burgesera moldatuz, gaur egungo demokraziaren izaera *burgesa* ezkutatzuz eta *bere* zabaltzea, *bere* aplikazio osoa soilik galdatuz atsegin dituzten hitzaldiak ez dizkiogu herriari botako.

92

“Guk” burgesiari hau esan diogu: zuek, esplotatzaileok eta hipokritok, demokraziaz mintzo zarete, eta aldi berean, edonon, *masa zanpatuei* milaka oztopo jartzen dizkiezue hauek politikan parte hartzea ekiditeko asmoz. Esana gogoan hartzen dizuegu eta zuen demokrazia burgesa masa hauen onerako zabal dezazuen galdatzen dizuegu, honela, masak, zuek esplotatzaileok uzkaileko zaituzteten *iraultzarako prestatu daitezten*. Eta zuek, esplotatzaileok, gure iraultza proletarioari aurre egiten saiatzen bazarete, gupidarik gabe birrinduko zaituztegu, eskubideak kenduko dizkizuegu, eta are gehiago, ogirik ere ez dizuegu emango; gure Errepublika proletarioan esplotatzaileek eskubiderik izango ez dutelako, ura eta sua ere kenduko dizkiegulako, benetako sozialistak eta ez Kautsky eta Scheidemannen antzekoak garelako.

⁹⁰ **Wilhelm Kolb**: Alemaniako Alderdi Sozialdemokrataren ildo oportunistako kidea; Lehen Mundu Gudan sozialchovinista izan zen. (Itzultzailearen oharra)

⁹¹ Plekhanoven hitzaldi hau Errusiako Langileen Alderdi Sozialdemokrataren II Biltzar Nagusikoa da, 1903ko uztailak 30ekoa (abuztuak 12koa), Alderdiaren Programa eztabaidatzerakoan emandakoa. (Biltzar Nagusi horretan alderdia bitan banatuko zen, boltxebikeen eta mentxebikeen artean. Banatzerako orduan Plekhanov ez zen lerrokatu, baina geroago mentxebikeekin bat egingo zuen). Hitzaldiak hala dio: “Proletalgo iraultzaileak goiko klaseen eskubide politikoak mugatu ahal izango ditu, goiko klaseek noizbait haren eskubide politikoak mugatu izan dituzten moduan. Neurri honen baliagarritasuna arau honen arabera soilik epaitu daiteke: *salus revolutionis suprema lex* (Iraultzaren osasuna lege gorena da). Hori da legebiltzarren iraupenaren auziaren gainean erabili behar izango dugun irizpidea. Iraultza gogo gartsu batek eramanda, herriak legebiltzar oso on bat, *chambre introuvable* bat (kamera ordezkazina) aukeratzen baldin badu, hau *legebiltzar iraunkor* bat izan dadin lortu behar dugu; baina hauteskundeek mesede egingo ez baligute, legebiltzarra ez bi urteren buruan, baizik eta posible balitz bi asteren buruan disolbatua izan dadin saiatu beharko ginatke”. Leninek Plekhanoven adierazpen hauek sarritan aipatzen zituen. (sobietar argitaletxearen oharra)

VI. Konstituzio sobietara

Honela mintzatzen gara eta mintzatuko gara beti “gu”, marxista iraultzaileok, eta horregatik zanpatutako masak gurekin eta gure alde egongo dira; Scheidemann eta Kautsky bezalakoek damutuen zabortegian bukatuko duten bitartean.

VII. Zer da internazionalismoa?

Kautskyk bere burua internazionalistatzat du eta uste sendo handiz hala adierazten du. Scheidemann bezalakoak “gobernuko sozialista” bezala izendatzen ditu. Mentxebikeak defendatzerakoan (berak ez du eurekin bat egiten duenik garbi esaten, baina euren ideia guztiak aplikatzen ditu), Kautskyk bere “internazionalismoaren” kalitatea ohizkanpoko argitasunaz frogatzen du. Eta Kautsky bakarrik ez dagoenez, baizik eta nahitaez II Internazionalaren giroan jaiotako korronte bat ordezkatzeko duenez (Frantzia Longuet, Italia Turati⁹², Suitza Nobs, Grimm, Graber eta Naine⁹³, Ingalaterra Ramsay MacDonald, eta abar), Kautskyren “internazionalismoa” aztertu beharra dago.

94

Mentxebikeak ere Zimmerwalden⁹⁴ egon zirela azpimarratu ostean (zalantzarik gabe, saria merezi du horrek... baina pixka bat urratutakoa), Kautskyk, berak onesten dituen mentxebikeen ideiak hala sailkatzen ditu.

⁹² **Filippo Turati**: Italiar erreformista. 1892an Italiako Alderdi Sozialista fundatu zuen, baina laster eskuineko ildo oportunistan kokatu zen eta burgesiarekin kolaboratzearen aldekoa izan zen. 1912ko Libiako guda inperialistaren aurka egin zuen, eta 1914ko Mundu Guda inperialistaren aurrean posizio sozialbakezaleari atxikiko zitzaien. 1919an, Alderdiaren gehiengoak onartutako programa eta ekimen iraultzailea deitoratu zituen. Italian faxismoa ezartzerakoan Frantzia erbesteratu zen. Bertan hil zen. (Itzultzailearen oharra)

⁹³ Zenbait suitzar buruzagi sozialista. **Ernst Nobs**: Suitzar politikari sozialdemokrata. Alderdi Sozialdemokratan sartu ostean, alderdi horretan postuak igotzen hasiko zen eta 1915ean alderdiaren alemanazko egunkariaren (*Volksrecht*, “Herriaren Eskubidea”) zuzendari izango zen, kargu horretan 1935 arte iraungo zuen. Guda lehertzerakoan internazionalisten alde egongo bazen ere, laster sozialismoaren eskuin ildora igaroko zen. 1919tik aurrera Suitzako Kontseilu Nazionaleko (Parlamentuko) kide. 20eko hamarkadatik aurrera mugimendu komunistaren etsaietako bat izango zen. 1942tik 1944ra Zürich hiriko alkate izan zen. Urte horretan Suitzako Kontseilu Federaletako (Gobernuko) kide izatera pasa zen, postu hori lortzen zuen lehen sozialista izaki. 1949an Suitzako lehendakari izan zen. **Robert Grimm**: Suitzar politikari sozialista; 1909 eta 1918aren artean, Suitzako Alderdi Sozialdemokrataren idazkari nagusi izan zen. Guda garaian “gudaren aurka” egon zen eta Zimmerwaldeko Konferentzia zuzendu zuen, Zimmerwaldeko Nazioarteko Komite Sozialistaren lehendakari izendatuko zutelarik. Halere, Konferentzia horretan izango zuen joera, kautskista eta egoera iraultzaile bat probokatzeko guda baliatzearen aurkakoa izango zen. Bere jarrera politikoa zela eta Zimmerwaldeko Konferentziaren barruan zatiketa bat gertatu izan zen. Bigarren Mundu Gudaren ostean, urte batez (1945-46 bitartean), Suitzako Kontseilu Nazionaleko (Parlamentuko) lehendakari izan zen. **Ernst Paul Graber**: Suitzako Alderdi Sozialdemokrataren zuzendaritzako kidea. 1912tik aurrera, Suitzako Kontseilu Nazionaleko kide. Guda inperialista lehertu zenean, “gudaren aurka” egon zen eta hasieran internazionalistengandik hurbil egongo bazen ere, laster kautskisten aldera pasatuko zen. 1919an Suitzako Alderdi Sozialdemokratako idazkari nagusi izango zen eta alderdi hori III Internazional Komunistan sartzearen aurka egongo zen. **Charles Naine**: Suitzar abokatua, Suitzar Alderdi Sozialdemokratako militante garrantzitsua. Alderdiaren frantses hizkuntzako *La Sentinelle* (*Zentinel*) eta *Droit du Peuple* (*Herriaren Eskubidea*) egunkari arduradun izango zen. 1911tik aurrera Suitzako Kontseilu Nazionaleko kide izan zen. Guda lehertzerakoan internazionalisten alde agertuko zen, baina hortik gutxira suitzar sozialdemokraziaren eskuin ildora iragango zen. 1919an II Internazionala berrezartzeko mugimenduan parte hartu zuen. (Itzultzailearen oharra)

⁹⁴ **Zimmerwaldeko Konferentzia**: 1915ean, Suitzako Zimmerwald herrian, gudaren aurka zeuden sozialistek burututako Konferentzia. Konferentziak 11 herrialdetako sozialistak bildu zituen, batik bat, gudan neutralak ziren herrialdeetakoak eta herrialde gudukatzaileetako alderdi sozialchovinistetako gudaren aurkako ezkerreko fakzioetakoak (Konferentzian izandako herrialde gudukatzaileetako alderdi oso bakarrak errusiarrak izan ziren). Zimmerwaldeko Konferentzia, mugimendu proletarioak buruzagi sozialchovinisten jarreragatik izan zuen haserrearen emaitza izan zen. Konferentziak honek Nazioarteko Komizio Sozialista bat aukeratuko zuen, Robert Grimm suitzarra lehendakari zela. Zimmerwaldeko Konferentzia bi ataletan banatua egongo zen; alde batetik, gehiengoa, joera “zentrastakoa” (hau da, mugimendu sozialistaren barruan, eskuin sozialchovinistaren eta ezker internazionalistaren artean kokatzen zena, “mugimendu sozialista osoaren batasunaren” aldekoa), sozialbakezalea eta kautskista; eta beste alde batetik “Zimmerwaldeko Ezkerra” deituriko gutxiengoa, internazionalista eta Leninek zuzendutakoa. Azken hauek ebazpen iraultzaileak aurkeztu zituzten (adibidez, herrialde bakoitzean “bake soziala”

“Mentxebikeek bake unibertsala nahi zuten. beligerante guztiek “anexiorik ez, kalte-ordainketarik ez” bake-kontsigna onar zezaten nahi zuten. Hori lortu bitartean, euren aburuz, errusiar armadak borrokarako jarrerari eutsi behar zion. Boltxebikeek ordea, edozeren gainetik bat-bateko bakea nahi zuten, behar izanez gero euren aldetik bake bereizi bat adosteko prest zeuden, indarrez inposatzen saiatzen ziren, honela armadaren baitan jada handia zen desantolaketa handituz” (27 orr.). Kautskyren arabera boltxebikeek ez zuten boterea hartu behar izan, Biltzar Konstituziogilearekin kontentatu egin behar izan ziren.

Hortaz, Kautskyren eta mentxebikeen internazionalismoa honetan datza: gobernu burges inperialistari erreformak galdatzean, baina beligerante denek “anexiorik ez, kalte-ordainketarik ez” kontsigna onartu arte gobernu honek zuzentzen duen gerrari babesa ematean. Ideia hau, Turatik, kautskitarrek (Haase⁹⁵ eta beste), Longuetek eta abarrek, “nazioaren defentsaren” *alde* zeudela plazaratu zutenek maiz adierazi dute.

95

Ikuspuntu teoriko batetik, horrek, sozialchovinistengandik bereizteko erabat ezgai direla eta nazioaren defentsaren arazoan itzelezko zuloan sartu direla suposatzen du. Ikuspuntu politiko batetik, internazionalismoa nazionalismo burges-ttipi batez ordeztea eta erreformismoaren aldera iragatea, iraultzari uko egitea da.

Proletalgoaren ikuspuntutik, “nazioaren defentsa” onartzea, guda hau oniriztea, zilegitzat jotzea da. Eta gudak, une konkretu batean, armada arerioa norbere lurraldean edo atzerrian egon arren inperialista izaten jarraitzen duenez gero (bai monarkiaren zein errepublikaren pean), nazioaren defentsa onestea, *berez*, burgesia inperialista eta harraparia babestea da, sozialismoari traizio egitea da. Errusian, Kerenskirekin, errepublika demokratiko burges batekin, gudak inperialista izaten

apurtzea, “bakearen aldeko” kontsignetatik haratago kapitalismoa suntsitzeko asmoetara berehala iragatea eta sozialchovinistekin puskatzea). Halere, sozialbakezalea kautskistek ez zuten halakorik onartu eta bi ildoen arteko harremanak gaiztotuz joan ziren. Hurrengo urtean, Konferentzia Kienthal deituriko suitzar herrian bildu zen, eta jada ez zegoen kide guztien arteko batasun sentimendurik. Zimmerwaldeko Konferentzia azken aldiz 1917an bildu zen, Suediako Stockholm hirian. Bertan, V. Vorovski ordezkari boltxebikeak, Zimmerwaldeko kide zen alderdi sozialbakezalea batek, mentxebikeek hain zuzen, Kereskiren errusiar Gobernuan parte hartzeagatik (Gobernu horrek guda inperialistan parte hartzen zuen) eta Errusian internazionalisten aurka egindako jazarpenagatik azalpenak eskatu zituen. Halere, gehiengo sozialbakezaleak ez zuen afera horren inguruko erabakirik hartu. Zimmerwaldeko Konferentziaren historiaren adierazle izan zen hau; heterogeneitate ideologikoak eramanda kontziliazioan galtzen zen eta indar iraultzaile bezala ez zuen ezertarako balio izan, bai ordea slogan bakezale “ongile” batzuk botatzeko. Halere, sozialchovinismoaren aurkako haserrearen adierazle izan zen eta indar iraultzaileek antolaketa bidean pausu batzuk emateko balio izan zuen. 1919an, III Internazionala (Komunista) sortu zenean, Zimmerwaldeko Konferentzia ofizialki hildakotzat eman izan zen. (Itzultzailearen oharra)

⁹⁵ **Hugo Haase:** Alemaniako sozialdemokraziaren buruetako bat izan zen, bere jarrera oportunistak izan zelarik. 1911an Alemaniako Alderdi Sozialdemokratako presidente izendatuko zuten August Bebelekin batera (hurrengo urtean Bebel hiltzerakoan, alderdiaren burutza Friedrich Ebert izeneko buruzagi batekin banatu beharko zuen). 1914an guda lehertzerakoan, alderdiaren bozeramaile gisa, alderdiaren posizio sozialchovinista azaldu behar izan zuen, baina hortik gutxira sozialchovinismoa laga egingo zuen. Hori dela eta, 1916an alderdiaren presidentetzatik dimititu egingo zuen eta alderdiaren barnean ildo pazifista bat (“Lanaren Talde Sozialdemokrata”) sortuko zuen. 1917an, Kautskyrekin batera, Alemaniako Alderdi Sozialdemokrata Independentea (USPD) sortuko zuen, joera kautskista eta sozialbakezaleakoa. 1918ko Alemaniako Iraultzan oso jarrera zalantzatia izan zuen; alde batetik Gobernu monarkikoaren aurka zegoelarik, grebak eta protestak bultzatu zituen, baina beste alde batetik Philip Scheidemannek zuzendutako Herriaren Ordezkarien Batzordea deitutako Behin-behineko Gobernu “sozialista” sartu zen; Batzorde horrek “sozialismoaren” eta “demokraziaren” izenean, Alemanian sobieten erako Errepublika bat ezartzea nahi zuen iraultza proletarioa zanpatu zuelarik. Praktikan, Haaseren papera mugimendu iraultzailea zanpatzen zuen Gobernu bati estalkia jartzearena izan zen. 1919ko hauteskundeetan USPD alderdiak izandako porrotaren ondorioz Gobernutik atera behar izan zuen. 1919ko Urrian, teoriarik zoro zegoen pertsona batek tiro egin eta zauritu egin zuen, eta handik gutxira hil egin zen. Hilketa horren arrazoiak eta zergatik ez dira sekula argitu. (Itzultzailearen oharra)

jarraitzen zuen, guda hori burgesiak klase menderatzaile gisa egiten zuelako (eta guda “politikaren jarraipena” da); hori argitasun handiz frogatu dute tsar ohiak Ingalaterrako eta Frantziako kapitalistekin mundua banatzeko eta beste herrialdeak arpilatzekeo eginiko itun sekretuek.

96

Mentxebikeek, guda defentsibo edo iraultzaile bat zela esanaz herriari ziria doilorki sartu diote; eta Kautskyk mentxebikeen posizioa onesterakoan herria engainatzea onesten du, kapitalari atsegina emateko langileak tronpatzen eta inperialismoaren uztarrarian jartzen dituzten burges-ttipien papera onesten du. *Kontsigna bat plazaratzeak* gauzak aldatuko dituela uste duenean (eta masei ideia zentzugabe hau buruan sartzen dienean), Kautskyk burges-ttipi filistiar arrunt bati eusten dio. Demokrazia burgesaren historia osoak ilusio hau larru gorritan uzten du; demokrata burgesek herriari iruzur egiteko nahi beste “kontsigna” plazaratu eta plazaratuko dituztelako. Koxka kontsignon zintzotasuna *frogatzean*, erranak eta *izanak* alderatzean, *esaldi* idealista edo arranditsuekin ez asebetetzean baizik eta *klase errealtatean* ikustean dago. Guda inperialistak ez dio inperialista izateari uzten hitzontziek edo burges-ttipiek filistiarek “kontsigna” goxo bat bota dutelako; baizik eta guda inperialista zuzentzen duen eta honi izaera ekonomikoko milioika loturez (baita unamez) lotuta dagoen *klasea* benetan *uzkailia* denean eta klase benetan iraultzaileaz, proletalgoaz ordeztua denean soilik utziko dio. *Beste modu batez ezinezkoa da bai guda inperialistatik zein bake inperialista harrapari batetik askatzea.*

Mentxebikeen kanpo politika onestean, internazionalistatzat eta zimmerwaldartzat jotzean; Kautskyk, lehenik Zimmerwaldeko gehiengo oportunistaren (zeozergatik bederen banatu ginen gu, Zimmerwaldeko *Ezkerra*⁹⁶, gehiengo horretatik!) ustelkeria agerian uzten du eta bigarrenik –eta hau da garrantzitsuenak– ikuspuntu proletariotik ikuspuntu burges-ttipira, posizio iraultzailetik erreformistara iragaten da.

97

Proletalgoak burgesia inperialista iraultza bidez uzkaileteko borrokatzen du: burgesia-ttipiak inperialismoaren “hobetze” erreformista aldeztu du, hortara moldatuz, hortara *makurtuz*. Kautsky oraindik marxista zenean, adibidez 1909an *Botereranzko bidea* idazterakoan, hain zuzen guda kasuan iraultza saihestezina zela ezartzen zuen ideia defendatzen zuen, *iraultzen aro bat* etortzeaz zela esaten zuen. 1912ko Basileako Manifestua argi eta garbi mintzo da 1914an eztanda egin zuen talde

⁹⁶ **Zimmerwaldeko Ezkerra:** 1915eko Zimmerwaldeko Konferentziaren baitan, Konferentzia horretako elementu iraultzaile internazionalistak biltzeko asmoarekin sortutako ildoak. Zimmerwaldeko Ezkerraren bizkarrezurra errusiar boltxebikeek eta alemaniar espartakistek osatzen zuten, beste herrialdeetako kideak ere baziren arren. Zimmerwaldeko Ezkerra bai sozialchovinisten zein Zimmerwaldeko gehiengo “ofizialistaren” aurkakoa zen. Zimmerwaldeko Ezkerraren proposamenen artean sozialchovinistekin (eta hauekin “batasuna” eskatzen zutenekin) behin-betiko apurtzea eta guda inperialista guda iraultzaile bihurtzea zeuden. Konferentziaren gehiengoak Zimmerwaldeko Ezkerraren ebazpenak atzera bota zituztenean, Zimmerwaldeko Ezkerrak Konferentziaren barruan jarraituko zuela, baina bere antolaketa propioa izango zuela adierazi zuen. Hala, nazioarteko aldizkari bat atera zuten: *Vorbote (Aurrekaria)*. Zimmerwaldeko II Konferentzia ospatu zenean (1916an, Kienthal herrian), fakzio hau indartu egin zen eta sozialbakezaleekiko distantziak markatu zituen. 1917ko Stockholmeko Konferentzian aldiz, Zimmerwaldeko bi fakzioak guztiz urrundu izan ziren (beste gauza batzuen artean, Zimmerwaldeko gehiengo sozialbakezaleak alderdi batek, errusiar mentxebikeek, Kerenskiren gobernuan parte hartuz sozialchovinismoaren politika jarraitu izan zutelako eta Konferentziak horren aurrean erabakirik hartu ez zuelako). Zimmerwaldeko Ezkerra mundu mailako internazionalisten antolaketa gune garrantzitsua izan zen, eta Errusiar Iraultza Sozialistaren eta boltxebikeen izen ona zabaltzen asko lagundu zuen. Zimmerwaldeko Ezkerra III Internazional Komunistaren kimetza izan zen. Lenin, Zimmerwaldeko barne borroka ideologikoz *Inperialismoa eta Sozialismoaren banaketa, Sozialismoa eta guda, Apirileko Tesiak* eta *Alderdi proletarioaren programaren proiektua* idatzietan aritu zen. (Itzultzailearen oharra)

alemaniar eta ingelesaren arteko guda inperialistatik eratorritzen den *iraultza proletarioaz*. Eta 1918an, gudatik eratorritako iraultzak hasi egin direnean, hauen izaera saihestezina azaldu beharrean, iraultzarako prestatzeko bitarteko, prozedurak eta taktika *iraultzailea* bukaeraraino hausnartu eta taxutu beharrean; Kautsky mentxebikeen taktika internazionalismo deitzera emana da. Ez al hori da apostasia?

Kautskyk mentxebikeak gorai patzen ditu, armada gudarako jarreran mantentzean ekin zutelako. Boltxebikeei, jada handia zen “armadaren baitako desantolaketa” handitzea aurpegiatzen die. Honek erreformismoa eta burgesia inperialistarekiko azpikotasuna gorai patzea, iraultza gaitzeste eta hau ukatzea esan nahi du; Kerenskiren pean gudarako jarrera mantentzeak, agintari *burgesdaun* (errepublikarrak izan arren) armadari eustea esan nahi baitzuen. Mundu guztiak jakin badaki –eta gertaeren norakoak argi eta garbi frogatu du– armada errepublikarrak espiritu *kornilovista* gordetzen zuela, agintariak kornilovistak baitziren. Ofizialeria burgesa kornilovista besterik ez zitekeen izan, inperialismorantz, proletalgoaren bortxazko menperatzerantz jotzea besterik ezin zukeen egin. *Praktikan*, mentxebikeen taktika, garrantzia gutxiko nabardurak konponduz eta akats txikiak zuzenduz (“erreformak” eginez) guda inperialistaren oinarri guztiak, diktadura *burgesa*ren oinarri guztiak bere horretan uztean zetzan.

98

Eta alderantziz baita: armada “desantolatu” gabe ez da iraultza handi bat ere eman eta ezin izango da eman; armada, erregimen zaharra eusten duen tresnarik zaharkituena delako, diziplina burgesaren eta kapitalaren nagusitasunaren, langileen kapitalarekiko duten menpekotasunaren eta otzantasunaren sorrera eta jarraipenaren gotorlekurik zurrunena delako. Kontrairaultzak sekula ez du eta ezin du armadarekin batera aldi berean langile armatuak egoterik utzi. Frantzia –idatzi zuen Engelsek–, langileek iraultza bakoitzaren ostean armaturik jarraitzen zuten, “horregatik, estatuaren burutzan zeuden burgesen lehen eginbeharrekoa, langileak desarmatzea zen”⁹⁷. Langile armatuak armada *berri* baten enbrioia ziren, erregimen sozial *berri* baten hazi organikoa ziren. Burgesiaren lehen eginbeharra, hazi hau zapaltzea, bere hazkundera saihestea izan zen. Iraultza garaile baten lehen eginbeharra, armada zaharra desegitea, disolbatzea eta armada berri batez ordeztzea da⁹⁸. Boterea konkistatzera goratu den klase sozial berriak sekula ezin izan du eta ezin izango du botere hori ez lortu ez sendotu armada zaharra guztiz suntsitzen ez badu (“desantolaketa”, hitz horrekin errefusatzen dute burges-ttiki atzerakoi edota beste barik, koldarrek). Inolako armadarik gabeko (Frantziar Iraultza Handiak ere aro ikaragarri honetatik iragan behar izan zuen) zailtasun eta probez betetako aro bat igarotzen ez badu. Guda zibil lazgarri batean klase berriaren armada berria, diziplina berria, antolaketa militar berria pixkanaka-pixkanaka sortzen ez badu. Kautsky historiagileak hori bazekien. Kautskyk damutuak ahaztu egin du.

99

Zein eskubide du Kautskyk Scheidemann bezalakoak “gubernuko sozialista” deitzeko berak Errusiar Iraultzan mentxebikeen taktika *onesten* badu? Kerenski babesten zuten eta bere gobernuan sartu ziren mentxebikeak ere “gubernuko sozialistak” ziren eta! Kautskyk, guda inperialista egiten duen *klase menderatzaileaz* aritzen saiatzen bada, ezin izango du ondorio hau inolaz ere itzuri. Baina marxista batentzat

⁹⁷ Friedrich Engels: Karl Marxen *Guda Zibila Frantzia* liburuari egindako *Sarreratik* hartutako aipua.

⁹⁸ Karl Marx: *Guda Zibila Frantzia* liburutik hartutako aipua.

derrigorrezkoa denaz, klase menderatzaileaz aritzea saihesten du, hori planteatzea damutu bat agerian uzteko nahikoa zatekeelako.

Alemanian kautskitarrek, Frantzia longuetistek, Italian Turatik eta abarrek modu honetan argudiatzen dute: sozialismoak nazioen arteko berdintasuna, askatasuna eta euren autodeterminazioa auresuposatzen ditu, *beraz*, tropa arrotzek gure herria erasotzen edo inbaditzen badute, sozialistek nazioa defendatzeko eskubidea eta betebeharra dute. Baina argudio hau, ikuspuntu teorikotik, sozialismoari erabateko iruzurra edo aitzakia doilor bat da; eta politikaren ikuspuntu praktikoan, bai gudaren izaera sozialaren gainean edota klase izaeraren gainean, zein alderdi iraultzaile batek guda atzerakoi baten aurrean dituen zereginetan pentsatzeko ezgai den izugarritzko ezjakin ergel batekin bat dator.

Sozialismoa nazioen aurkako indarkeriaren aurka dago. Hori eztabaidaezina da. Baina, sozialismoa, oro har, gizakien aurkako indarkeriaren aurka dago. Halere, anarkista kristauak⁹⁹ eta Tolstoiren¹⁰⁰ jarraitzaileak kenduta, inork ere ez du hortik sozialismoa biolentzia iraultzailearen aurka dagoenik ondorioztatzen. Beraz, orokorrean, biolentzia atzerakoa eta biolentzia iraultzailea ezberdintzen dituzten baldintzak aintzat hartu gabe “biolentziaz” hitz egitea, iraultza arbuiatzen duen filistiar baten pare jartzea edo xumeki, norbere burua eta besteak sofismen bidez tronpatzea da.

100

Beste hainbeste esan dezakegu nazioen aurkako biolentziaren inguruan. Guda oro nazioen aurkako biolentzia da, baina horrek ez du sozialistak guda iraultzailearen alde egotea eragozten. Guda baten klase izaera sozialista batek (damutu bat ez bada) planteatzen duen koxka da. 1914-1918 urte bitarteko guda inperialista, munduaren banaketarengatik, harrapakinaren banaketarengatik lehian nazio txiki eta ahulak arpilatu eta ito nahi dituzten bi talde inperialisten arteko guda bat da. Horrela definitu zuen guda hori 1912ko Basileako Manifestuak eta gertaerek definizio hori baieztatu dute. Gudaren gaineko ikuspuntu horretatik lekutzen dena, ez da sozialista.

101

Wilhelm II.aren garaiko alemaniar batek edo Clemenceauren garaiko frantziar batek “etsaiak nire nazioa inbaditzen badu, sozialista legez, nire nazioa defendatzeko eskubidea eta betebeharra dut” badio, ez du sozialista gisa, internazionalista gisa, proletario iraultzaile gisa argudiatzen, *burgess-ttiper nazionalista* bezala baizik. Argudio

⁹⁹ **Anarkismo kristaua:** Errusian, anarkismo kristaua, Lev Tolstoi idazlearen eta honen jarraitzaileen inguruan sortu izan zen. Ideologia hau, kontraesan edo oximoron batetik abiatzen bazen ere (anarkismoak, autoritate guztien aurkakoa izaki, printzipioz Jainkoa bezalako autoritate baten aurkakoa beharko luke), teoria filosofiko bezala kontraesan hori gainditzen saiatuko zen. Anarkista kristauak, “jatorrizko kristautasunaren” idealizazioan (hau da, Elizaren hierarkizazioa eman aurreko kristautasun “Biltzarriaren” idealizazioan) oinarritzen ziren. Aldi berean, pertsonaren ontasunean sinesten zuten; hala pertsona “onek” (baserritarrek, langileek, umilek) Jainko “perfektuaren” erresumaren paradisua (zerua) merezi dute, “gaitzok” (erregimen tsaristak) hori merezi ez dutelarik. Ideologia honen beste oinarrietako batzuk, bakezaletasuna eta arrandikeriaren ukazioa (“bizitza xumea”) ziren. Ikusi bezala, ideologia arras idealista eta manikeismoan oinarritzen zena izan zen eta intelektual taldeetara mugatzen zen, herri masengan presentziarik batere izan ez zuelarik. (Itzultzailearen oharra)

¹⁰⁰ **Lev Tolstoi:** XIX mendeko eta XX mende hasierako errusiar idazle handia. Bere lanik ezagunenak *Guda eta Bakea* (1869) eta *Anna Karenina* (1877) eleberriak izan dira. Lan horiek, eleberri onak izatez gain, garai hartako errusiar gizartea maisuki deskribatzen zuten. Tolstoi tsarismoaren eta honen ordenaren etsai porrokatua zen; baina bere ideologia ez zen iraultzailea, biolentzia sekula ere zilegi ez zela zioen, ezta erregimena uzkaitezko ere. Bere ustez, gizartea, pertsonak gero eta hobeagoak izanez alda zitekeen. Bere ideiak pazifismoaren eta anarkismo kristauaren arteko nahasketa antzeko baten ondorio ziren. Eragin handia izan zuen bai errusiar zein mundu mailako literaturan, eta baita ere politikari batzuetan; adibidez, Mohandas Gandhi indiarrek edota Martin Luther King afro-amerikarrak Tolstoiren eragina izan zuten. (Itzultzailearen oharra)

horrek langileak kapitalaren aurka daraman klase borroka iraultzailea aintzat hartzen ez duelako, mundu mailako burgesiaren eta mundu mailako proletalgoaren ikuspuntutik guda osoaren apreziazioa aintzat hartzen ez duelako, hau da internazionalismoa aintzat hartzen ez duelako eta ohikeriaz betetako nazionalismo negargarri bat besterik geratzen ez delako. “Nire herrialdea laidoztatzen dute, gainerakoak ez dit axola”: Horretara mugatzen da euren arrazoiketa eta horretan datza euren hertsikeria burges-ttipi eta nazionalista. Norbaitek pertsona baten aurkako biolentzia indibidualaren gainean “sozialismoa biolentziaren aurka dago, beraz nahiago dut traizioa egin kartzelara joan baino” argudiatuko balu bezala izango litzateke.

“Sozialismoak nazioen aurkako indarkeria gaitzesten du, *horregatik*, inbaditzen ari den etsaiaren aurka nire herrialdea defendatzen dut” esaten duen frantziarrak, alemaniarrek edo italiarrak sozialismoari eta internazionalismoari *traizio egiten* dio. Gizon horrek bere “herrialdea” besterik *ez baituelako ikusten*, ororen gainetik “bere”... *burgesia* ezartzen duelako; *bere* burgesia arpilatze kapitalistaren katebegietako bat egiten duten, guda hau inperialista egiten duten *nazioarteko loturetan* pentsatu gabe.

Burges-ttipi guztiek eta ergel tuntun eta ezjakin guztiek, damutuen –kautskitarren, longuetistan, Turatiren eta abarren erara, berdin-berdin argudiatzen dute: etsaia nire herrialdean dago, gainontzekoak bost axola niri¹⁰¹.

102

Sozialistak, proletario iraultzaileak, internazionalistak, beste era batean argudiatzen du: gudaren izaera (atzerakoia edo iraultzailea ote den) ez du lehena jotzen duenak edo “etsaia” dagoen lurraldeak baldintzatzen, guda sostengatzen duen *klaseak* eta guda konkretu hori ernaltzen duen politikak baizik. Guda, inperialista eta atzerakoia, hau da, burgesia inperialista despotiko, harrapari eta atzerakoiaren mundu mailako bi atalen artekoa balitz, burgesia osoa (herrialde txikietakoa barne) arpilatzearen gaizkide egiten da; beraz nik, proletalgo iraultzailearen ordezkari izaki, mundu mailako triskantzak dakarren izugarrikeriatik salbatzeko bide bakarra den gisa, *mundu mailako iraultza proletarioa* ahalbideratzeko eginkizuna dut. Ez dut “nire” herrialdearen ikuspegitik arrazoitu behar (hau burges-ttipi nazionalistaren, burgesia inperialistaren jostailu denik konturatzen ez den tuntun zorigaitzekoaren arrazoitzeko modua baita); mundu mailako iraultzaren ahalbideratzean, propagandan eta erraztean dudana *nire parte hartzearen* ikuspuntutik baizik.

Hori da internazionalismoa, hori da internazionalistaren, langile iraultzailearen, benetako sozialistaren eginbearra. Hor daude Kautsky damutuak “ahazten” dituen *hasi-masiak*. Baina bere apostasia are nabarmenagoa egiten da nazionalista burges-ttipien (Errusiako mentxebikeen, Frantziako longuetisten, Italiako Turatiren, Alemaniako Haase eta abarren) taktikari oniritzia eman eta gero boltxebikeen taktika kritikatzeko duenean. Ikus dezagun kritika hori:

¹⁰¹ Sozialchovinistek (Scheidemann, Renaudel, Henderson, Gompers eta abarrek) guda garaian ez dute “Internazionala” aipatzen entzun ere egin nahi. “Euren” burgesiaren etsaiak... sozialismoaren “traidoretzat” hartzen dituzte. *Euren* burgesiaren konkista-politika *sustatzen dute*. sozialbakezaleek (hau da, sozialistak hitzez eta pazifista burges-ttipiak izatez), mota orotako sentimendu “internazionalistak” azaleratzen dituzte, anexionen aurka protesta egiten dute eta abar; baina *praktikan*, *euren* burgesia inperialista *babesten* jarraitzen dute. Bi mota hauen arteko ezberdintasuna ez da handia, diskurtso zakarrak botatzen dituen kapitalista baten eta diskurtso elezuriak botatzen dituen beste baten arteko desberdintasuna handia ez den bezala. (Leninen oharra)

“Iraultza boltxebikea, berau europar iraultza orokor baten lehen harria izango zenaren hipotesian, Errusiaren ekimen ausartak Europako proletario guztiak altxatzera bultzatuko zituelakoan oinarritzen zen.

103

Honetatik abiatuz; bake separatu errusiarrak izango zuen formak, errusiar herriaren bizkar ezarriko ziren sakrifizioek eta lurralde galerek (literalki, mutilazioek, *Verstümmelungen*), nazioen autodeterminazioari emango zion irakurketak, garrantzia txikia zuten noski. Errusia defendatzeko gai ala ezgai izango zenaren auziak ere ez zuen garrantzirik. Ikuspuntu honetatik europar iraultza errusiar iraultzaren defentsarik onena eta antzinako errusiar lurraldeko herri guztiei benetako autodeterminazio osoa eman beharko ziena zitekeen.

Europako iraultza, han sozialismoa ezarri eta zurkaiztu beharko zuena, Errusiaren atzerapen ekonomikoak herrialde horretan ekoizpen sozialistaren gauzatzeari jartzen zizkion oztupo guztiak gainditzeko ere balio beharko zuen.

Hau oso logikoa eta oso arrazoitua zen, baldin eta oinarritzko hipotesi bat aintzat hartzen bazen: errusiar iraultzak, derrigorrez, europar iraultza ahalbideratu beharko zuen. Baina hala gertatuko ez balitz?

Gaurdaino, hipotesi hori ez da baieztatu. Eta orain, Europako proletarioei errusiar iraultza txoko batean lagatzea eta traizionatzea leporatzen zaie. Ezezagunen aurkako salaketa da, zeren eta nor egin daiteke europar proletarioaren jarreraren arduradun?” (28. orr.)

Eta Kautskyk behin eta berriz hau errepikatzen du. Marx, Engels eta Bebel eurek espero zuten iraultza-etzandari buruz behin baino gehiagotan okertu zirela, baina euren taktika, itxoiten ari ziren iraultza “*data finko batean*” (29. orr.) jartzean oinarritu ez zutela gehitzen du; boltxebikeek, “europar iraultzaren aldeko apustuan dena jokatu” omen duten bitartean.

Halako aipu luze bat; irakurleak, Kautskyk marxismoa ikuskera filistiar arrunt eta atzerakoi batez ordeztuz, hau zer nolako “trebetasunez” aizuntzen duen ikus dezan propio hartu dugu.

104

Lehenik, arerioari zakilkeria nabarmen bat egozte eta gero ihardestea ez da pertsona azkarren ohiko jardutea. Boltxebikeen aldetik ergelkeria galanta izango zatekeen beste herrialdeetako iraultzari *data finkoa* ezarriz itxarotea. Baina Alderdi Boltxebikeak ez zuen halakorik egin: iparramerikar langileei bidalitako nire gutunean (1918-VIII-20) erabat baztertzeko dut hori, Iparramerikako iraultza espero dugula, baina ez data finko baterakoa alajaina, esanez. Ezkerreko eseristekin eta “ezkerreko komunistekin”¹⁰² izan nuen eztabaidan (1918ko urtariletik martxora), ideia berdina

¹⁰² **Ezkerreko komunistak**, 1918an, bai Errusian zein Europako beste herrialde batzuetan sortutako nazioarteko korrante bat izan ziren. Errusian, 1918ko martxoan sinatu beharreko Bresteko Bake Ituna zela eta, Alderdi Boltxebikearen zuzendaritzarekin desadostasuna izan zuten. Itun hori Errepublikari sobietarraren biziraupenerako beharrezkoa bazen ere, ezker muturreko boltxebike batzuek ez zuten itun hori onartu nahi izan, potentzia inperialista batekin akordio bat sinatzea zelako eta hori europar iraultzari (eta Alemaniaren esku geratuko ziren lurraldeetako langileei) traizio egitea zeritzotelako. Horren ordez, Alemaniaren aurkako guda iraultzailea egitea proposatzen zuten, aurreko guda inperialistak akituta zegoen eta barne kontrairaultzari aurre egin behar izan zion Errusia sobietarrak hori egiteko gaitasunik ez bazuen ere (gainera, errusiar herriak, lau urte frontean eman ondoren bakea nahi zuten; armada osatzen zuten baserritarrentzat guda berri bat ulergaitza izango zen, are gehiago boltxebikeek bakearen alde hainbestetan borrokatu eta gero). Joera honetako pertsonarik ezagunena Nikolai Bukharin izan zen, eta *Kommunist* aldizkaria ateratzen zuten. Geroago, 20. hamarkada hasieran, ezkerreko

hainbatean adierazi izan dut. Kautskyk, amarru txiki... ñimiño bat egiten du, boltxebismoari egiten dion kritika hor oinarrituz. Kautskyk europar iraultza hurbila data finkorik gabe aintzat hartzen duen taktika eta europar iraultza data finko batetako espero duen taktika uztarri bereko lagun egiten ditu. Itxuraldatze txikia, ñimiñoa!

Bigarren taktika zakilkeria bat da. Lehena; edozein marxistarentzat, edozein proletario iraultzailerentzat derrigorrezkoa da; marxismoak derrigortzen duen moduan gudak Europako herrialde guztietan izan duen ondorioa kontutan hartzen duen bakarria delako, proletalgoaren eginkizun internazionalerentzat erantzun bat ematen dien bakarria delako.

105

Taktika iraultzaile orokorraren printzipioen auzi handia boltxebike iraultzaileek egin zezaketen baina egin ez zuten akatsaren arazo doilorrarengatik ordeztuz, Kautskyk, batere nahasmenik gabe, taktika iraultzaile orokorrari uko egin dio!!

Politikan damutua izaki, teorian taktika iraultzailearen aurrebaldintza objektiboen *auzia planteatzen ere ez daki*.

Eta orain bigarren puntura iritsi gara.

Bigarrenik, marxista orok iraultza europarra aintzat hartu behar du baldin eta *egoera iraultzaile* bat balego. Marxismoaren hasi-masietan sartzen da proletalgo sozialistaren taktika egoera iraultzailea dagoenean eta hauxe ez dagoenean ezin daitekeela berdina izan.

Kautskyk, marxista ororentzat beharrezkoa den aferan hau benetan planteatu izango balu, erantzuna bere usteen aurka doala konturatuko zatekeen. Guda baino askoz lehenago, marxista guztiak, sozialista guztiak, ados zeuden guda europarra gertatzeak egoera iraultzaile bat ernalduko zuela ziotenean. Kautskyk, damutu bat ez zenean, argi eta garbi onartzen zuen hori, bai 1902an (*Iraultza soziala*), zein 1909an (*Botereranzko bidea*). Basileako Manifestuak II Internazional osoaren izenean onartu izan zuen: zerbaitegatik herri guztietako sozialchovinistek eta kautskistek (“zentristek”, iraultzaileen eta oportunisten artean zalantzak dituztenek), diote Basileako Manifestuak adierazten duenari mamu beltzari baino beldur handiagoa!!

Beraz, Europan egoeran iraultzaile bat emango zela ustea, ez zen boltxebikeek izan zuten zoramen bat izan, marxista guztien *iritzi orokorra* baizik. Kautskyk egia honetaz ez du ezer jakin nahi, boltxebikeek “biolentziaren eta borondatearen erabateko

komunista gehienak, Alderdiaren barneko “Langile Oposizioa” deituriko fakzioan sartuko ziren; hala ere, beste batzuek Alderdiaz kanpoko taldeak eta alderditxoak sortuko zituzten, adibidez Gabriel Miasnikoven zuzendaritzapean. Europako beste herrialde batzuetan (Alemanian, Herbeheretan eta Italian, batik bat), ezkerreko komunistek, sortzen hasi ziren Alderdi Komunistak erradikalizatu nahi izan zituzten, eta hori ez lortzerakoan, euren alderdiak sortuko zituzten. (Esate baterako, Alemanian, Alemaniako Langileen Alderdi Komunistak (KAPD) indar handia izan zuen, momentu batzuetan, Alemaniako Alderdi Komunistak (KPD) zuenaren antzekoa). Europako ezkerreko komunisten ezaugarriak Alderdi Komunistaren abangoardia-zuzendaritzarekiko mesfidantza, masazko sindikatu “horietan” parte hartzeko ukoa, hirietako langileekiko eskusibotasuna (baserritarrek iraultzatik kanpo uzten zituzten) eta iraultza egiteko indar proletario abangoardiako gisa, langile biltzarretan eta asanbladetan zuten gehiegizko konfidantza izan ziren (Rosa Luxemburgen eragina nabarmentzen zen, bere teoriak defendatzen zituzten, Leninenak baino gehiago). Leninek, ezkerreko komunisten aurka; *Ezkerkeria, komunismoaren haurtzaroko gaixotasuna* (erdaraz *El izquierdismo, enfermedad infantil del comunismo*, ez dago euskarazko itzulpenik) idatzi zuen. Ezkerreko komunistek (“batzordeetako komunistak” ere deituak izan zirenak) gerora sortutako talde autonomoetan eta “marxista libertarioetan” eragin handia izan zuten. (Itzultzailearen oharra)

boterean beti sinetsi izan dutela” esatean; hori, egoera iraultzailearen auziaren aurrean egindako ihesa, ihes lotsagarria *estaltzen* duen esaldi huts bat baino ez da.

106

Jarrai dezagun. Egoera iraultzaile baten aurrean al gaude ala ez? Kautskyk hau planteatzen ere ez du jakin izan. Galdera honi arlo ekonomikoko gertaerek ematen diote erantzuna: goseak eta hondamendiak, gudak *toki orotan* utzi dituen ondorioak izanik, egoera iraultzaile bati bide ematen diote. Galdera honi arlo politikoko gertaerek ere erantzuna ematen diote: 1915etik aurrera, *herrialde guztietan*, alderdi sozialista zaharkitu eta ustelduetan banaketa prozesu bat antzematen da, eta honen arabera, proletalgoaren *masak* buruzagi sozialchovinistengandik banatzen dira ezkerretarantz jotzeko, ideia eta joera iraultzaileetarantz jotzeko, buruzagi iraultzaileengana jotzeko.

1918ko abuztuaren 5ean, Kautskyk bere liburuxka idazten zuen bitartean, iraultzaren beldur zen gizon bati soilik ahaztu zitzaizkiokeen halako gertaerak. Orain, 1918ko urriko bukaeran, denontzat nabarmena da Europako herrialde *sorta batean* iraultzak bizkortasun handiz aurrera egiten duela. Kautsky “iraultzailea”, marxista itxurak egiten jarraitu nahi duena, datorren iraultza ikusi ez duen filistiar bat bezala ageri zaigu; Marxek irri egiten zien 1847ko filistiarak bezalaxe!!

Hirugarren puntura iritsi gara.

Hirugarrenenik, Europan egoera iraultzaile bat dagoela onartuta zeintzuk dira taktika iraultzailearen berezitasunak? Kautsky, damutu bihurtuta, marxista ororentzat planteatu beharrekoa den auzi hau planteatzearen beldur da. filistiar burges-ttipi arruntaren edo nekazari ezjakin baten moduan argudiatzen du: “europar iraultza nagusia” lehertu al da ala ez? Lehertu baldin bada, *bera ere* iraultzaile egiteko prest dago! Baina orduan –nabarmetzen dugu guk–, edozein doilorrek (boltxebikeek tartean ezkutuan sartzen diren gizatxarren antzera) bere burua iraultzailetzat hartuko luke!!

107

Bestela, Kautskyk iraultzari bizkarra emango lioke! Honako egia hau ez du inolaz ere ulertzen: marxista iraultzailea burges-ttipitik eta filistiartik bereizten duena; masa ezjakinei heltzear dagoen iraultzaren beharra *aditzera emateko*, saihestezina dela *frogatzeko*, herriarentzat baliagarria dela *azaltzeko* eta proletalgora eta masa behargin eta esplotatu guztiak iraultzarako *prestatzeko* gaitasuna da.

Kautskyk, boltxebikeei, europar iraultza data finko baten emango zela esperoaz hordagoa botatzearen burugabekeria egotzi die. Burugabekeria hori Kautskyren aurka itzuli da, berak onartu duenez gero, europar iraultza 1918ko abuztuaren 5ean gertatuko balitz, boltxebikeek taktika zuzena zatekeelako! Hori da Kautskyk bere liburuxkan jartzen duen data. Eta abuztuaren 5 hori iragan eta aste gutxitara europar herrialde *sorta* baten iraultza hurbiltzear dagoela ikusi izan denean, Kautskyren apostasia osoa, bere marxismoaren aizuntze osoa, iraultzaile bezala arrazoitzeko eta are auziak iraultzaile eran planteatzeko bere ezgaitasun osoa nabarmen agertzen dira!

Europako proletarioei traizioa leporatzea –idazten du Kautskyk–, ezezagunen kontrako salaketa da.

Oker zabilta Kautsky jauna! Egiozu so zure ispiluari eta orduan ikusiko duzu akusazio hori zein “ezezagunen” aurka doan. Kautskyk ezjakinaren itxurak egiten ditu,

akusazioa *nork* botatzen duen edota *zein zentzu* duen ez jakitearena egiten du. Egia esan ondotxo daki akusazio hau alemaniar “ezkertiarrek”, espartakistek¹⁰³, Liebknechtek¹⁰⁴ eta bere lagunek bota dutela eta botatzen dutela. Akusazio honek, proletalgo alemaniarrak Finlandia, Ukraina, Letonia eta Estlandia¹⁰⁵ zanpatzerakoan errusiar (eta nazioarteko) iraultzari traizio egin zionaren *uste argia* adierazten du. Akusazio hau ez doa betiere zanpatutako *masaren* aurka; baizik eta batez ere eta ororen gainetik, agitazio iraultzailearekiko, masen inertzia gainditzeko hauen artean egin beharreko propaganda iraultzailearekiko betebeharrak bete ez *dituzten* Scheidemann eta Kautskyren antzerako *buruzagien* aurka, klase zanpatu baten errailetan azaleratzeke dauden instintu eta aspirazio iraultzaileekin *lehian* dauden buruzagien aurka. Scheidemanndarrek, gehienetan interes berekoiak direla medio,

¹⁰³ **Espartakistak:** Izen hau, Alemaniako mugimendu sozialistaren barruko ildo iraultzaileko partaideak izendatzeko erabili izan zen. Liga Espartakista (*Spartakusbund*) sortu zutenak (Rosa Luxemburg, Karl Liebknecht, Clara Zetkin, Leo Jogiches, Franz Mehring eta abar) guda inperialistaren erabat aurka zeuden eta erreformismoaren eta oportunitatearen etsaiak ziren. Alderdi Sozialdemokratak (SPD), ia osorik, guda inperialista babestu zuenean; espartakistek, ausartki, guda inperialista, Gobernuaren politika eta erreformisten saldukeria salatu zituzten. Euren buruzagi politikoa Karl Liebknecht izan zen, eta euren buruzagi ideologikoa, Rosa Luxemburg. Euren izena, Erroma klasikoko estatu esklabistaren aurkako esklaboaren iraultza zuzendu zuen Espartako esklaboaren izenetik hartu zuten. Espartakistak internazionalismoari eta iraultza sozialistari leialki atxiki bazitzairen ere, zenbait akats teoriko izan zituzten: esaterako, nazioen autodeterminazioaren balioari eta nazio zanpatuen askapen nazionalari ez zioten garrantzirik ematen, abangoardiako Alderdi proletarioak iraultzan izan behar zuen papera “asanbladekin” eta “kontseiluekin” alderatuz gutxietsi egiten zuten eta nekazariak iraultza proletarioan zuten papera ukatu egiten zuten. Leninek huts hauek kritikatu egin zituen eta espartakisten buruzagiekin zenbait eztabaida ideologiko izan zituen. 1916an espartakistak legez kanpo jarriak izan ziren. 1917an, Alderdi Sozialdemokrata Independentea (USPD), ideologia kautskista eta sozialbakezaleakoa SPDtik banandu zenean; espartakistak bertan sartu ziren, hori bai, antolaketa alorrean beren autonomia mantenduz. Urriko Iraultza Sozialistak espartakisten izen ona zabaldu egin zuen eta handik gutxira USPDtik atera egingo ziren, alderdi horren erreformismoa eta kautskismoa zirela eta. 1918-9 bitartean Errepublika Sozialistaren aldeko hainbat eta hainbat matxinada eta protestetan parte hartu izan zuten (arrakastatsuen, München hirikoa izan zen, Bavariako Errepublika sobietarra aldarrikatua izan zen eta hilabete batez iraun zuen). 1918ko abenduaren 30ean Liga Espartakista Alemaniako Alderdi Komunista (KPD) bihurtu zen. 1919an KPDk Berlinen langile iraultza sozialista bat piztu zuen (Iraultza Espartakista); halere, Alemaniako Gobernuak (“sozialdemokraten” esku zegoenak) iraultza hori zapaldu egin zuen eta Berlinen errepresio gogorra burutu zuten: eskuineko talde paramilitarrek KPDko bi buruak (Luxemburg eta Liebknecht) torturatu eta hil egin zituzten. Espartakistek ez zuten Alemanian iraultza sozialista arrakastaz burutzerik lortu, baina komunismoa Alemanian errotzeko hazia jarri zuten. (Itzultzailearen oharra) 104

¹⁰⁴ **Karl Liebknecht:** Alemaniar langile mugimendu iraultzailearen militante garrantzitsua. 1900ean Alemaniar Alderdi Sozialdemokratak (SPD) militante egingo zen eta 1907tik 1910era Nazioarteko Gazteria Sozialistako lehendakari izango zen. 1912an, Alemaniako Parlamentuko (*Reichsrat*) diputatu aukeratu zutenean; alemaniar eta nazioarteko mugimendu sozialistako ezker aldeko partaide bezala nabarmenduz zebilen. 1914an, Lehen Mundu Guda lehertzerakoan, Parlamentuan Alemaniaren parte hartzea eztabaidatzen zenean; SPDk aldeko bozka eman zuen (mugimendu sozialistaren baitan sekulako atsekabea sortuko zuen horrek) eta Liebknecht izan zen planteamendu internazionalistei modu leialean atxikiz aurka bozkatu izan zuen parlamentari bakarra. Urte horretan bertan, beste militante iraultzaile internazionalista batzuekin batera, Liga Espartakista (*Spartakusbund*) sortuko zuen. Mugimendu hau laster ilegalizatua izango zen (Liebknecht eta bere kideak 1916an SPDtik kaleratuak izango ziren) eta guda garaian Liebknecht hainbat alditan atxilotu izango zuten. 1918an kartzelatik behin-betiko aterako zen, eta Liga Espartakistako buruzagi zen Rosa Luxemburgekin batera *Die Rote Fahne (Ikurrin Gorria)* egunkari komunista sortuko zuen. 1918ko Alemaniar Iraultzan zehar, azaroaren 9an; Philip Scheidemannek “Alemaniar Errepublika” eta SPDko sozialchovinistek eta USPDko kautskistek osatutako Gobernu aldarrikatu zuenean; Liebknechtek, horrek sozialismoari eta Iraultzari suposatzen zion traizioak jabeturik, Alemaniar Iraultza Sozialista betetzeko asmoz, “Alemaniar Errepublika Sozialista Askea” aldarrikatu zuen, baina ez zuen arrakastarik izan. 1918an, Liga Espartakista Alemaniako Alderdi Komunista (KPD) bihurtu zen, Liebknechtek prozesu horretan parte hartu zuelarik. 1919ko urtarrilean, Rosa Luxemburgekin batera, Berlinen langileen iraultza komunista bat zuzendu zuen (“Iraultza Espartakista”). Hala ere, Iraultza Espartakista aste batean buruan zapaldua izango zen. Gobernu “sozialdemokrataren” esanetara zeuden eskuin muturreko paramilitarrek (*Freikorps*) errepresio bortitza burutu zuten, eta besteak beste Luxemburg eta Liebknecht atxilotu, interrogatu, torturatu eta erail egin zituzten. (Itzultzailearen oharra)

¹⁰⁵ **Estlandia:** Leninek adiera hau erabiltzen du, Estoniaz ari da. (Itzultzailearen oharra)

proletalgoa argi eta garbi, modu doilorrean eta zitalean traizionatu izan dute eta burgesiaren aldera igaro dira. Kautskitarrek eta longuetistek, zabu-zabuka, modu zalantzatian eta orduan indartsuak zirenei koldarki begiratu, berdin egin dute. Gudan zehar, Kautskyk, bere idatziekin izpiritu iraultzailea mantendu eta xaxatu beharrean, *itzali* besterik ez du egin.

109

Europako proletarioek errusiar iraultzari egin dioten traizioari buruzko “akusazio” honek duen balio *teoriko* itzela eta agitaziorako eta propagandarako duen balio are handiagoa Kautskyk ulertu ez izana, historiarako, alemaniar sozialdemokrazia ofizialaren “batez besteko” buruzagiaren baldarkeria burges-ttipiari egindako monumentua bezala geratuko da! Kautskyk ez du ulertzen germaniar “inperioaren” zentsurapean, “akusazio” hau, sozialismoa traizionatu ez duten sozialistek, hots, Liebknechtek eta bere lagunek; *alemaniar langileei*, Scheidemann eta Kautsky uzkaitezko, halako “buruzagiak” zokoratzeko eta baldartu eta doilortu egiten dituzten predikuetatik askatzeko, haien gainetik eta haiek gabe, iraultzarantz, *iraultza egitera* altxatu daitezzen *adierazteko* modu bakarra dela!

Kautskyk ez du ulertzen. Nola uler dezake bada boltxebikeen taktika? Nolatan espero dezakegu orokorrean iraultzaz damutzen den gizon batek, kasurik “zailenetako” batean iraultzaren garapenaren baldintzak aztertzea eta aintzat hartzea?

110

Boltxebikeena, taktika zuzena zen, taktika internazionalista *bakarra* zen; mundu mailako iraultzari beldur koldarrean, honenganako “fede falta” filistiar batean, besterengandik ezer jakin nahi gabe ororen gainetik “bere” nazioa (burgesiaren nazioa) defendatzeko gurari nazionalista hertsian oinarritzen ez delako, baizik eta europar egoera iraultzailearen *neurtze* zuzen batean (gudaren eta sozialchovinisten eta sozialbakezaleen traizioaren aurretik, mundu guztiak ikusten zuen) oinarrituta zegoelako. Taktika hau, taktika internazionalista bakarra zen, iraultza *herrialde guztietan* garatzeko, bultzatzeko eta pizteko herri bakar batean egin zitekeen gehiena egiten zuelako. Taktika horrek, jada, egundoko arrakasta izan du, boltxebismoa (eta inolaz ere ez errusiar boltxebikeen merituei esker, edonongo masek benetan iraultzailea den taktika bategatik duten aldekotasun sakonari esker baizik) *mundu mailakoa* egin baita, sozialchovinismotik eta sozialbakezaletasunetik konkretuki eta praktikoki bereizten diren teoria bat, programa bat eta taktika bat plazaratu baititu. Boltxebismoak, orain euren artean mokoka arituko diren eta hilotz bat berpizten saiatuz “batasunarekin” amets egingo dutenen Scheidemann eta Kautskyren, Renaudel eta Longueten, Henderson eta MacDonalden Internazional usteldua *errematatu* egin du. Boltxebismoak benetan proletarioa eta komunista den, bai bake garaiko lorpenak zein *hasi den iraultzen aroaren* esperientziak kontutan izango dituen III Internazionalaren oinarri ideologiko eta taktikoak *sortu ditu*.

Boltxebismoak, “proletalgoaren diktadura” ideari mundu osoan izen ona eman dio, hitz hauek lehenik latinetik errusierara eta gero munduko hizkuntza *guztietara* itzuli izan ditu; *Botere sobietarraren* ereduaz, herri atzeratu *batean ere*, langile eta nekazariak, esperientzia txikiena dutenak barne, gutxien jantzitakoak barne eta antolaketa lanetara gutxien ohitutakoak barne, urte oso batean, zailtasun erraldoiak aurrean izan arren, esplotatzaileen aurka borrokatuz (hauei mundu *osoko* burgesiak laguntzen zelarik) langileen botereari eustea, munduan izan diren demokrazia guztiak baino demokrazia hobe eta zabalago bat eraikitzea lortu dute. milioika langile

eta nekazarik sozialismoaren gauzateranzko lan emankorra *hastea lortu izan dutela* erakutsiz.

111

Boltxebismoak, praktikan, Europan eta Amerikan, iraultza proletarioaren garapenari orain arteko beste edozein alderdik lagundu izan diona baino gehiago lagundu izan dio. Aldi berean, mundu osoko langileek, egunetik egunera gero eta argitasun handiagoz ulertzen dute Scheidemann eta Kautsky bezalako taktikak guda inperialistatik eta burgesia inperialistaren boterepean gertatzen den soldatapeko esklabotzatik askatuko ez dituela, taktika honek herrialde guztientzako eredu bezala balio ez duela; mundu osoko masa proletarioek, egunetik egunera gero eta argitasun handiagoz ulertzen dute boltxebismoak gudak eta inperialismoak dakarren izugarrikeriatik askatzeko bide zuzena markatu duela, boltxebismoak *guztientzako taktikaren eredu bezala balio duela*.

Iraultza proletarioa denon aurrean agertzen ari da, ez soilik Europan, mundu guztian baizik; eta Errusian iraultza proletarioak izandako garaipenak, hau lagundu, azkartu eta babestu egiten du. Hau sozialismoaren garaipen osorako nahikoa ote da? Noski nahikoa ez dela. Herri bakar batek ezin dezake gehiagorik egin. Baina Botere sobietarrari esker, herrialde honek hainbeste egin du ezen bihar bertan mundu mailako inperialismoak, esate baterako inperialismo germaniar eta anglo-frantziarraren arteko koalizio batek errusiar Botere sobietarra zanpatzen badu ere, kasu honetan, kasu txarretan txarrenean ere, taktika boltxebikeak sozialismoari mesede izugarria egin izango ziokeen eta mundu mailako iraultza garaiezina lagunduko zukeen.

VIII. Burgesiarekiko menpekotasuna “analisi ekonomikoa” aitzakiatzat hartuta

Esan dugun bezala, Kautskyren liburuaren izenburua edukiarekin bat etorriko balitz, ez zatekeen *Proletalgoaren diktadura izango*, *Boltxebikeen aurkako eraso burgesen parafasia* baizik.

Gure teorikoak, berriz ere, iraultzaren izaera burgesari buruzko mentxebikeen “teoria” zaharrei, hau da, mentxebikeek marxismoaz egiten zuten itxuraldaketei (Kautskyk 1905ean *gezurtatu zuenari!*) bide egiten die. Errusiar marxistentzat gai hau oso gogaikarria bada ere, gure arreta merezi du.

1905 aurreko marxista guztiek, errusiar iraultza, iraultza burgesa zela zioten. Mentxebikeek, marxismoa liberalismoaz ordeztuz, hauxe ondorioztatzen zuten: beraz, proletalgoa ez da burgesiak onartutakoaz haratago joan behar, burgesiarekin bat etortzean oinarritutako politika egiteko beharra du. Boltxebikeek, horko hori teoria liberal burges bat zela zioten. Burgesiak estatua modu burgesean, *erreformistan*, ez iraultzailean eraldatzeko joera du; ahal den heinean monarkia, lur-jabeen jabetza eta abar gordez. Proletalgoak iraultza demokratiko burgesa bukaeraraino eraman behar du, burgesiaren erreformismoak berau “eskulotzerik” utzi gabe. Boltxebikeek iraultza burgesean ematen zen *klase desberdinen* indar korrelazioa honela adierazten zuten: proletalgoak baserritarrak bereganatzen ditu, burgesia liberala indargabetzen du eta monarkia, ertarokeria eta lur-jabeen jabetza handia ezabatzen ditu.

114

Iraultzaren izaera burgesa, proletalgoak *orokorrean* nekazariekin duen aliantzak zehazten du; nekazariak, orokorrean, merkatal ekoizpena oinarritzat duten ekoizle txikiak direlako. Horrez gain, gehitzen zuten orduan boltxebikeek, *erdiproletalgo osoa* euren gana hurbilduz (behargin eta esplotatu guztiak euren gana hurbilduz), proletalgoak erdi-mailako nekazariak indargabetzen ditu eta burgesia *uzkailtzen* du: horretan datza iraultza sozialista iraultza demokratiko burgesaz ezberdintzen duena (ikus nire 1905eko *Bi taktika* liburuxka *Hamabi urtetan* deituriko errekopilazioan, Petersburgo 1907).

Kautskyk 1905ean eztabaida honetan zeharka parte hartu zuen¹⁰⁶, orduan mentxebikea zen Plekhanovek kontsultatuta funtsean bere *aurka* jarri zenean, prentsa boltxebikean sekulako irriak sorraraziz. Orain Kautskyk eztabaida zaharrez (bere adierazpenek agerian utziko diotenaren beldur!) *ez du txintik ere esaten* eta halaxe, alemaniar irakurlea arazoa ulertzeko ezintasunean uzten du. 1918an Kautskyk ezin die alemaniar langileei esan berak 1905ean langileen eta burgesia liberalaren arteko aliantza beharrean, langileen eta baserritarren artekoa defendatzen zuenik. Ezin die esan aliantza hau zein baldintzetan defendatzen zuenik ezta aliantza honetarako zer programa egitasmo zuenik.

¹⁰⁶ Kautskyren *Errusiar iraultzaren bulka-ındarrak eta etorkizuna* artikuluari buruz ari da. Artikulu hau, errusieraz, 1906an, liburuxka batean Leninen hitzaurre batekin argitaratu zen. Artikuluaren erdarazko izenburua *Las fuerzas propulsoras y perspectivas de la revolución rusa* da. Ez dago euskarazko itzulpenik. (Itzultzailearen oharra)

Kautskyk atzera egiten du eta “analisi ekonomikoa” bat burutzearen itxurak eginez, Maslov¹⁰⁷ mentxebikearen aipua erabiliz, orain mentxebikeen kontzepzio liberal zaharrak errepikatuz, “materialismo historikoari” buruzko esaldi arranditsuen bidez, langileen burgesiarekiko menerapena defendatzen du; aipu hauek Errusiaren atzerapenari buruzko ideia berri bat frogatzeko balio diote, ideia berritik honetatik ondorio zahar bat ateratzeko. Hau da, iraultza gutxi-gora-behera burges batean burgesiak esandakoaz haratago ezin dela joan esateko balio diote! Eta guzti hau, Marxek eta Engelsek 1789- 1973 bitarteko Frantziako iraultza burgesa 1848ko Alemaniako iraultza burgesarekin konparatu ondoren esandako ooren gainetik!¹⁰⁸

115

Pisurik handiena duen “argudiora”, eta Kautskyren “analisi ekonomikoa” funtsezkoa dena iragan aurretik, beha dezagun lehen esaldietan egileak zer nolako ideien nahasketa edota arinkeria erakusten duen:

“Orain arte, Errusiaren oinarri ekonomikoa –oihukatzen du gure “teorikoak”– nekazaritza, zehazkiago esanda, laborantza ekoizpen ttipia da. Horra daude emanak populazioaren lau bostenak eta agian bost seirenak” (45. orr).

Lehenik eta behin; pentsatu al duzu zuk, teoriko adeitsu horrek, ekoizle ttipien masa horretan zenbat esplotatzaile egon daitezkeen? Asko jota, hamarretik bat, eta hirietan are gutxiago, han ekoizpen handia garatuago dagoelako. Puztu ezazu zenbaki hau sinestezina bilakatu arte, suposa ezazu ekoizle ttipien bostena hauteskunde- eskubideak galtzen dituzten esplotatzailez osatua dagoela. Eta hala ere, sobieten V Biltzar Nagusiko boltxebikeez osatutako %66 horrek *populazioaren gehiengo* ordezkatzeko zuela ikusiko duzu. Gainera, horri, ezkerreko eseristen artean kopuru garrantzitsu bat beti Botere sobietarraren aldekoa izan zela gehitu behar zaio; hots, hasieran ezkerreko eserista guztiak Botere sobietarraren aldekoak ziren, eta horietako batzuek 1918ko uztailan errebolta abenturazale¹⁰⁹ horretara jo zutenean,

¹⁰⁷ **Piotr Maslov:** Errusiar ekonomista sozialdemokrata. Bere laborantza auziari buruzko lanetan marxismoaren oinarriak berrikusten saiatu zen. 1903an mentxebikeen alderdian sartu zen eta 1917 arte hor egongo zen. Mentxebikeek laborantza auzirako zuten ideologo garrantzitsuenetako bat izan zen. Lehen Mundu Gudana zehar mentxebikeen *Delo* egunkariko erredaktoreetako bat izango zen eta bertatik sozialchovinismoa defendatuko zuen. Iraultzaren ostean politika laga zuen eta ikaskuntzan eta zientzian aritu zen. 1929an sobietar Akademian sartuko zen. Bere heriotza arte sobietar instituzioetan egin zuen lan. (Itzultzailearen oharra)

¹⁰⁸ Karl Marx; ***Burguesia eta kontrairaultza***. Erdarazko itzulpena, *La burguesía y la contrarrevolución* da. (Itzultzailearen oharra)

¹⁰⁹ **Ezkerreko eseristen estatu kolpea:** Ezkerreko eseristen estatu kolpea, alderdi honek 1918ko uztailan Botere sobietarra uzkaileteko egin zuen saiakera bat izan zen. Ezkerreko eseristak, hasiera batean, boltxebikeekin batera estatu Sozialista sobietarra eraikitzen lagundu bazuten ere, euren ideologia burges-ttipia eta zalantzatia zela medio, konbentzimendu faltagatik, azkenean Iraultzaren aurka jarri ziren. Bi izan ziren pausu hori ematera bultzatu zituzten faktoreak: batetik, Bresteko Bake Ituna (euren idealismoak eta eserismoari zegokion nolabaiteko errusiar nazionalismoak, Alemaniarekin bakea egitea onartezina iruditzen zela eramanen zituen) eta bestetik, klase borroka laborantza-gunera eraman izana (ideologia eseristak, laborantza munduaren idealizazioa eta nekazarien jabetza pribatu ttipia defendatzeak, laborantza-gunea Arkadia bat bezala kontsideratzen eramanen zituen eta bertan klase borroka eman zitekeenik ez zuten onartzen, hori dela eta, laborantza-gunean klase kontraesanak sakontzearen eta bertan Iraultza garatzearen aurka zeuden). Boltxebikeen eta ezkerreko eseristen arteko zatiketa politikoa martxoan eman zen, Brest-Litovskoko Ituna sinatzerakoan; orduan ezkerreko eseristak Gobernu sobietarretik irten egin ziren, baina ez sobieten Exekutibatik, ezta Txekatik ere. Ekainaren 24ean, ezkerreko eseristen alderdiak, Botere sobietarraren politika aldarazten (batez ere Bresteko bakea bertan behera uztearen eta laborantza-gunean Iraultza Sozialistaren garapena eta sakontzea lagatzearen inguruan) saiatzeko ebazpen bat onartu zuen, hori lortu ezean Botere sobietarra uzkaileteko asmoa azalduz. Uztailan, sobieten V Biltzar Nagusian, boltxebikeen eta ezkerreko eseristen artean eztabaida politikoa gogorra eman zen, baina gehiengo boltxebikeak ezkerreko eseristen proposamenak atzera bota zituen. Azken hauen buru zen Spiridonova andereak, Gobernu sobietarra “alemaniarren menpeko” bezala salatzen eta Gobernu sobietarra uzkaileteko deia egin zuen. Beste alde batetik, Errusia sobietarraren eta Alemaniaren arteko guda berriz pizteko asmoz, uztailaren 6an

alderdi zaharretik beste bi alderdi berri atera ziren: “komunista populistena”¹¹⁰ bata eta “komunista iraultzaileena”¹¹¹ bestea (biak, ezkerreko eserista zaharrek, alderdi zahararekin estatuaren posturik garrantzitsuenetara iritsitakoez osatutakoak. Adibidez, lehenaren kide Zax¹¹² zen, bigarrenaren kide ordea, Kolegaev¹¹³). Beraz, Kautskyk boltxebikeek soilik populazioaren gutxiengoa alde dutela dioen esamesa barregarri hori –nahi gabe!– gezurtatu du.

117

Bigarrenik: Pentsatu al duzu zuk, teoriko adeitsu horrek, laborantza ekoizle tipia proletalgoaren eta burgesiaren artean *halabeharrez* kili-kolo dabilela? Europaren historia garaikide osoak baieztatzen duen egia marxista hau Kautskyk unerik egokienean “ahaztu du”, berak errepikatzen duen teoria mentxebikea ezeztatzen du

probokazio-ekintza ezagun bat burutu zuten: ezkerreko eseristen alderdikoak ziren Txekako kide bik, Blumkinek eta Andreevek, Alemaniako enbaxadore Mirbach kontea hil egin zuten. Ekintza hori Dimitri Popov txekakide eseristak eta Txekako buru Felix Dzerzhinski boltxebikearen ordeko Alexandrovtx eseristak prestatu zuten; Txekako goi postuetan zeuden eseristek Dzerzhinski atxilotzea ere lortu zuten. Ezkerreko eseristek, euren menpe zeuden Txekaren destakamenduetako armekin, Moskuko auzo eta kale batzuk hartu zituzten eta kainonekin Kremlina bonbardatu zuten. Momentu batez Posta eta Telegrafoen bulegoa hartu zuten eta Gobernu boltxebikea uzkaile egin zutela iragartzera iritsi ziren. Jakina, ez zen halakorik gertatu, sobieten V Biltzar Nagusiak ezkerreko eseristen matxinada gaitzetsi egin zuen eta ezkerreko eseristak sobietetatik eta erakunde sobietarretatik (adibidez, Txekatik) kanporatu zituen. Uztailearen 7an matxinada kontrairaultzailea guztiz itzalia izan zen. Errusiako beste hiri batzuetan ere ezkerreko eseristak matxinatzen saiatu ziren; matxinada hauetako ezagunena, Ekialdeko Fronteko Muraviov komandantearen traizioa izan zen, zeinek uztailearen 10ean Simbirsk hiria hartu zuen; halere, egun bat baino ez zuen iraun. Matxinada honen porrotaren ostean ezkerreko eseristak banatu egin ziren: batzuk boltxebikeengana hurbildu ziren (adibidez Blumkin, Mirbach konteari tiro egin ziona, edota Proxian, estatu Kolpearen garaipenaren berri faltsua zabaldu zuena), beste batzuk kontrairaultzara eta *kulaken* defentsara pasa ziren. Buruzagien artean; Popovok Ukrainako anarkistekin bat egin zuen, Spiridonovak politika utzi egin zuen eta Alexandrovtx exekutatu izan zen. (Itzultzailearen oharra)

¹¹⁰ **“Komunista Populisten Alderdia”**: Ezkerreko eseristen alderdiak 1918ko uztailean estatu Kolpea ematerakoan, ekintza horrekin ados ez zeuden eserista ezkertiarrek sortu zuten alderdi bat izan zen. Abuztuaren 21ean, jarrera honetako pertsonen egunkari batek, *Znamia Trudovoi Komuni (Lanaren Komunaren Bandera)* izenekoak, alderdi berriaren manifestu ideologikoa argitaratu zuen; halere, Alderdia ofizialki 1918ko irailean sortu zen. laborantza auziari zegokionez, erdi-mailako baseritarrekin aliantza egitean zetzan Alderdi Boltxebikearen lerro politikoa onesten zuten. Alderdiko kideek sobietetan parte hartu izan zuten eta urte horretako azaroaren 6an Alderdi Boltxebikearekin bat egin zuten. (Itzultzailearen oharra)

¹¹¹ **“Komunismo Iraultzailearen Alderdia”**: Aurrekoaren antzeko ideologia zuen beste alderdi bat. Alderdia 1918ko irailaren azken astean sortu zen *Volia Truda (Lanaren Borondatea)* egunkariak bultzatuta. Alderdi honek ezkerreko eseristen asaldurak eta Bresteko bakea izorratzeko saiakerak salatu zituen. Alderdiaren Kongresuak boltxebikeen baseritarrekiko aliantza politika onesten zuela eta Botere sobietarra babestea beharrezkotzat jotzen zuela adierazi zuen. Halere, bere programa oso kontraesankorra zen: alde batetik sobieten Botereak erregimen sozialista ezartzeko baldintzak zituela aitortzen bazuen, beste alde batetik kapitalismotik sozialismoranzko igarotzean proletalgoaren diktaduraren beharizanaren kontzeptuarekin ez zetorren ados. Kominternen II Biltzar Nagusiak herrialde bakoitzeko Alderdi Komunista bakarra egon zitekeela ebatzi ondoren, 1920ko irailean alderdi honek Alderdi Komunistarekin bat egin zuen. (Itzultzailearen oharra)

¹¹² **Zax**: Militante eserista, ezkerreko aldekoa. Urriko Iraultza Sozialistan paper aktiboa izan zuen, Komite Militar Iraultzaileko kidea izan baitzen. Iraultzak garaipena lortu ondoren, Zax Herri Instrukziorako Komisario-orde eta Txekaren lehendakariorde izan zen. 1918ko uztailean ezkerreko eseristek estatu kolpea eman ondoren, alderdi honetatik banandu egin zen eta “Komunista Populisten Alderdia” sortu zuen. 1918an bere alderdiak boltxebikeekin bat egiterakoan, Alderdi Boltxebikean sartu zen. Guda Zibilean gorriekin borrokatu zuen, geroago armadan eta sobietetan egin zuen lan. (Itzultzailearen oharra)

¹¹³ **Andrei Kolegaev**: 1906tik militante eserista izandakoa; laster eseristen Borroka Erakundean sartuko zen eta pertsonalitate tsaristen aurkako zenbait ekintza burutuko zituen. 1917an alderdi horren ezkerreko aldearekin bat egin zuen. Urriko Iraultza Sozialistarekin bat egin zuen eta 1917ko abenduan, ezkerreko eserista gisa, Herri Komisarioen Batzordean sartu zen, Nekazaritzarako Herri Komisario gisa. 1918ko martxoan, Bresteko bakea sinatu zenean, bere alderdiak bezalaxe, bake horrekin ados ez zegoela esan zuen eta bere postua laga egin zuen. Alta, 1918ko uztailean ezkerreko eseristek estatu kolpea jo zutenean, sobietarrekin egin zuen bat, ordura arte bere alderdia zenaren aurka. Orduan alderdi berri bat sortu zuen: “Komunismo Iraultzailearen Alderdia”. Guda Zibilean gorriekin borrokatu zuen eta Armada Gorriaren Kontseilu Militar Iraultzaileko kide izan zen. 1918an, Kolegaev Alderdi Komunistan sartu zen. Guda Zibilean ostean, lan administratiboan aritu zen. (Itzultzailearen oharra)

eta! “Ahaztu izango” ez balu, laborantza ekoizle ttipiak gehiengoa diren herrialde batean proletalgoaren diktaduraren beharra ezin izango luke ukatu.

Azter dezagun orain gure teorikoaren “analisi ekonomikoaren” mamia.

Botere sobietarra diktadura bat denik inork ez du zalantzan jartzen, dio Kautskyk.

“Baina *proletalgoaren* diktadura al da?” (34. orr.)

“Sobietar Konstituzioaren arabera, baserritarrak populazioaren gehiengoa dira eta ekimen legegileetan eta administratiboetan parte har dezakete. *Proletalgoaren* diktadura bezala aurkezten diguten hori, modu kontsekuentean gauzatuko balitz eta orokorrean mintzatzuz, klase bat diktadura zuzenean gauzatzeko gai izango balitz, benetan hau alderdi batek soilik egin ahal badu ere, *baserritarren* diktadura izango litzateke”. (35.orr)

118

Eta halako arrazoiketa hain sakon eta burutsuaren ostean, Kautsky xaloa ironiaz mintzaten saiatzen da:

“sozialismoranzko igarobide ahalik eta mingaitzena, honen ardura nekazarien bizkar jartzen denean bermatuta dagoela ematen du”. (35. orr.)

Gure teorikoa, mota guztietako xehetasunez eta Maslov erdi-liberalaren jakitun-mailako aipuen bitartez, ideia berri batekin saiatzen da: baserritarrak zerealen prezioak gora egitean eta hirietako langileen soldata baxua izatean eta abarren interesaturik daude. Esan dezagun bide batez, gerra-ondoko gertaera berriei, adibidez baserritarrek zerealen truke salgaiak eta ez dirua eskatzeari, edo nekazariak lanabesen faltan daudela eta hauek lortzeko modurik ez izateari zenbat eta arreta gutxiago jarri; ideia berri hauek gero eta modu gogaikarriagoan adierazten direla. Honetaz, gero, arreta handiagoz arituko gara.

Hortaz, Kautskyk, boltxebikeei, proletalgoaren Alderdiari diktadura, sozialismoa gauzatzeko lana, nekazari burges-ttipien eskuetan uztea leporatzen dio. Hagitz ongi, Kautsky jauna!! Zure aburu ilustratuaren arabera, zeinek beharko luke izan nekazari burges-ttipiekiko Alderdi proletarioaren jarrera?

Gure teorikoak nahiago du honetaz txintik ere ez esatea, agian “zer esaterik ez denean, hobe isilik egon” esapidea gogoratu duelako. Baina honako argudiatze honek agerian uzten du:

“Errepublika sobietarraren lehen egunetan, laborantza sobietak, orokorrean *nekazarien* sobietak ziren. Orain, Errepublika honek sobietak langileen eta nekazari txiroen erakundeak direla esaten du. Nekazari aberatsek sobietetako hauteskundeetan parte hartzeko eskubidea galtzen dute. Nekazari txiroa “proletalgoaren diktaduraren” peko laborantza erreforma sozialistaren produktu iraunkor eta ugarizat hartzen da”. (48. orr.)

119

Txunditzeko moduko ironia! Errusian edozein burgesen ahotan entzun daiteke; guzti horiek Errepublika sobietarrak nekazari txiroak daudela argi eta garbi aitortzeaz irri egiten dute. Sozialismoaz irri egiten dute. Horretarako eskubidea dute. Baina egundoko triskantza eragin duen lau urtetako guda baten ostean, gure herrialdean oraindik nekazari txiroak egoteaz –eta denbora luzez egongo dira, gainera– irri egiten duen “sozialista”, apostasia ugari den giro batean bakarrik jaio ahal izango zatekeen.

Baina oraindik gehiago dugu:

“(…) Errepublika sobietarrak baserritar aberats eta txiroen arteko harremanetan eskuhartzen du, baina hori ez du lurren banaketa berri baten bitartez egiten. Hirietako biztanleek ogi falta izan ez dezaten, laborantza-gunera langile armatuen destakamenduak bidaltzen dituzte, hauek baserritar aberatsei euren zerealen soberakinak entregatu arazi egiten dietelarik. Zereal hauen zati bat hirietara doa, eta beste zati bat baserritar txiroengana”. (48 orr.)

Jakina, neurri horrek hiri handietatik haratago zabaltzerik izateak (eta Errusian herrialde osoan zehar zabaltzea dauka), Kautsky sozialista eta marxista haserrarazi egiten du. Kautsky sozialista eta marxistak, filistiar baten hoztasun (edo hertsikeria) ezin imitagarri, ezin konparagarri, miresgarriaz, honetaz seguru ustean ohartarazten da:

“(…) Hauek (baserritar aberatsen desjabetzeek), bere sendotze bidean lasaitasunaren eta segurtasunaren premia larrian dagoen ekoizpen prozesuan, asaldurazko eta guda zibilezko elementu berri bat (guda zibila “ekoizpen prozesura” eramanda, naturaz kanpoko gauza omen da!) sartzen dute”. (49 orr.)

Bai, halaxe da, euren zerealekin espekulatzan duten, soberakinak ezkututzen dituzten, zereal-monopolioari buruzko legea sabotatzen duten esplotatzaileen lasaitasunak eta segurtasunak Kautsky marxista eta sozialistari aienak eta malkoak eragiten omen dizkio. “Gu denok sozialistak eta marxistak eta internazionalistak gara” diote ahots batez Kautsky, Heinrich Weber¹¹⁴ (Viena), Longuet (Paris), MacDonald (Londres) eta abarrek, denok langile klasearen iraultzaren alde gaude, baina... zerealekin espekulatzan dutenen lasaitasuna edota segurtasuna ez aztoratzekotan! Eta kapitalistekiko menerapen higuigarri hau “ekoizpen prozesuari” buruzko aipu “marxista” batez estaltzen dugu... hau marxismoa bada, zer izango ote da burgesiarekiko morrontza?

120

Ikus dezagun gure teorikoari zer ateratzen zaion. Boltxebikeei laborantzagoaren diktadura proletalgoaren diktaduraz janztea leporatzen die. Aldi berean guda zibila laborantza-gunera eramatea (guretzat gure *meritu bat* da); laborantza-guneetara esplotatzaileei, baserritar aberatsei monopolio zerealistaren legea apurtuz ezkututzen duten soberakinak desjabetzen dizkien eta “proletalgoaren eta baserritar txiroen diktadura” gauzatzen dutela aldarrikatzen eta hauek laguntzen dituzten langile armatuen destakamenduak eramatea leporatzen digu.

Alde batetik, gure teoriko marxistak bere burua beharginen eta esplotatuen zuzendari den klase iraultzaileak populazioaren gehiengoari (esplotatzaileak barne beraz) men egitearen, demokrazia garbiaren aldeko bezala aurkezten du. Bestetik,

¹¹⁴ **Heinrich Weber:** Otto Bauer austriar buruzagi sozialista ezagunaren ezizena. 1907tik 1914ra Alderdi Sozialdemokratako idazkari nagusia izan zen, eta guda inperialista piztu zenean, bere alderdiak bezalaxe jarrera anbigua izango zuen, kautskismoari lotutakoa. Urriko Iraultza pizterakoan, Bauerrek aldekatasunaren eta aurkakotasunaren arteko ikuspegia izan zuen, izan ere, bere ikuspegia europar sozialdemokrazia oportunistak eraginda baitzegoen. Urriko Iraultzaren osteko urteetan, Bauer sozialdemokrazia eta marxismo-leninismoaren arteko erdibideko ikuspegi bat izaten saiatu zen, baina porrot egin zuen eta sozialdemokraziarantz hurbildu zen berriz. Austriako Errepublikaren garaian, Gobernu burgeseko Kanpo Arazoetarako Ministro izan zen. Otto Bauerren ekarpen teoriko ezagun bat “autonomia nazional-kulturalarena” izan zen. Bere posizio politikoak “austromarxismo” bezala laburbilduko ziren eta geroagoko eurokomunismoan eragina izango zuten. (Itzultzailearen oharra)

gure aurka, iraultzak halaberrez izaera burgesa duela azaltzen du, nekazariak bere osotasunean harreman sozial burgesen esparruaren barruan sartzen direlako; eta aldi berean klase-ikusuntu proletarioa, marxista defendatzen duenaren uste- xedea du!

121

Analisi ekonomikoa beharrean, hau atzekoz aurrera dago eta sekulako kakanahastea da. Marxismoaren ordeztu, doktrina liberalaren zatikiak eta burgesiarekiko eta *kulakekiko*¹¹⁵ menerapenaren aldeko predikuak.

1905ean jada, boltxebikeek, orain Kautskyk nahasten duen afera argi utzi zuten. Bai, gure iraultza burgesa da baserritar *guztiekin batera goazen heinean*. Horri buruz oso ideia argia geneukan eta 1905etik hona hamaika aldiz esan dugu; sekula ez gara prozesu historikoaren beharrezko etapa hau dekretu bidez ezabatzen saiatu. Puntu hau gure aurkako “froga” bezala erabiltzeko Kautskyren saiakerek; zer nolako nahaste-borrastean sartu den eta 1905ean, oraindik damutu bat ez zenean, berak idatzitakoa gogorarazteari zer nolako beldurra dion bakarrik frogatzen dute.

Baina 1917ko *apiriletik*, Urriko Iraultza gertatu baina askoz ere lehenagotik, guk boterea hartu baino askoz ere lehenagotik; argi eta garbi esaten genuen eta horrela azaldu genion herriari orain iraultza ezin zela etapa honetan gelditu, herriak aurrera egin baitzuen, kapitalismoak aurrera egiten jarraitu baitzuen, hondamena inoiz ikusi gabeko proportzioetara iritsi baitzen, eta horrek *sozialismorantz* aurrera egin zenezagun (nahi ala ez) *galdata izango* baitzuen; beste era batera ez *baitzegoen* aurrera egiterik, gudak akitutako herria salbatzerik eta behargin eta esplotatuen sufrimendua *arintzerik*.

Guk esan bezala gertatu da. Iraultzaren jazoerak gure planteamendua zuzena zela egiaztatu du. *Hasieran*, nekazari “guztiekin” batera monarkiaren aurka, lur-jabe guztien aurka, ertarokeriaren aurka (eta honaino iraultza burgesa, iraultza demokratiko-burgesa bakarrik ari da gertatzen). *Ondoren*, nekazari txiroekin batera, semiproletalgoarekin batera, esplotatu guztiekin batera *kapitalismoaren aurka*; adibidez laborantza- guneko aberatsen, kulaken eta espekulatzailen aurka; zentzu honetan, iraultza, iraultza sozialista bihurtuz. Bi iraultzen artean Txinako harresi artifizial bat zutitu nahia, bi iraultzak langileriaren prestakuntza maila eta laborantzagatzen esplotatuarekin duen harremana *ez diren beste zerbaitez* banatzea; marxismoaren desitxuratzetik handiena, berau eskastea edo marxismoaren tokian liberalismoa jartzea da. Ertarokeriarekiko burgesiaren izaera aurrerakoiari buruzko aipu sasi-zientifikoaren bidez, burgesia atzerakoia proletalgotik sozialistaren aurka ezkutuka defendatzea izango litzateke.

116

Bide batez esan dezagun sobietek demokrazia mota goren bat ordezkatzeko dutela, *langile eta baserritar masak* politikara batzean eta lotzean, “herriarengandik” (hitza Marxek 1871an benetako herri-iraultza¹¹⁶ aipatzen zuen zentzuan ulertuta) hurbilen dagoen neurgailua direlako, masen klasezko heldutasun politikoaren garapena eta handitzea neurtzeko barometrorik hautemangarriena direlako. Konstituzio sobietarra ez da inongo “planen” arabera idatzia izan, ez da bulegoetan idatzia eta herriari jurista burgesek inposatua izan. Ez, Konstituzio hori *klase borrokaren* garapen

¹¹⁵ *Kulak*: Errusiar nekazari aberatsak, gehienetan beste nekazarien bizkar espekulatu aberastutakoak. (Itzultzailearen oharra)

¹¹⁶ Karl Marxek Ludwig Kugelmanni 1871ko apirilaren 12an bidalitako gutuna. (Itzultzailearen oharra)

prozesutik, *klase kontraesanak* helduz zihoazen heinean *sortu da*. Hori frogatzen dute Kautsky ukatzen tematzen diren gertakariak.

123

Hasieran, sobietek nekazari guztiak barne hartzen zituzten. Nekazari txiroen garapen faltak, atzerapenak eta ezjakintasunak; zuzendaritza kulaken, aberatsen, kapitalisten eta intelektual burges-ttipien esku uzten zuen. Burgesia-ttipiaren, mentxebikeen eta sozialista iraultzaileen¹¹⁷ nagusitasunaren garaia izan zen hori (Kautsky bezalako segapotoek edota damutuek soilik uste ahal dute batzuk zein besteak sozialistak direnik). Burgesia-ttipia, derrigorrez eta halabeharrez, burgesiaren diktaduraren (Kerenski, Kornilov, Savinkov) eta proletalgoaren diktaduraren artean kili-kolo dabil, bere egoera ekonomikoaren ezaugarriengatik ekintza politiko independente bat eramateko ezgai delako. Bide batez esan dezagun Kautskyk, bere errusiar iraultzari buruzko analisisan, burgesiari bere nagusitasuna estaltzeko eta masak tronpatzeko balio dion “demokraziaren” kontzeptu juridiko eta formazkoa erabiliz, “demokraziak” batzuetan *burgesiaren diktadura* eta beste batzuetan diktadura horren aurrean makurtzen den burgesia-ttipiaren erreformismo ezgaia esan nahi dituela ahaztuz auzia saihesten duenean, marxismoa ukatzen duela. Kautskyren arabera, herrialde kapitalista batean alderdi burgesak zeuden, bere gibelean proletalgoaren gehiengoa eta bere masa zeraman alderdi proletario bat zegoen (hau da, boltxebikeak), baina ez zegoen alderdi burges-ttipirik. Mentxebikeek eta eseristek ez zituzten *klase-sustrairik*, ez zituzten sustrai burges-ttipirik!

Burgesia-ttipiaren, mentxebikeen eta eseristen zalantzek masak bideratu dituzte, eta hauen gehiengoa, “beheko maila” guztiak, proletario eta erdiproletario guztiak halako “zuzendariengandik” banandu dituzte. Boltxebikeek sobietetan nagusitzea lortu zuten (Moskun eta Petrogradon 1917aren Urria orduko lortu zuten) eta mentxebikeen eta eseristen artean banaketa areagotu egin zen.

Iraultza boltxebikearen garaipenak, zalantzen bukaera, monarkiaren eta jabetza latifundistaren suntsipena (Urriko Iraultza baino lehen *ez zen suntsitua izan*) ekarri zuen. Guk, iraultza *burgesa bukaeraraino* daramagu. Nekazariak, *guztiak*, gurekin zeuden. Proletalgo sozialistarekin zuten aurkakotasuna ezin zen berehalakoan agerrarazi. sobietek, nekazariak *orokorrean* barne hartzen zituzten. laborantza masaren klase zatiketa ez zen oraindik heldutasunera iritsi, ez zen oraindik azaleratu.

124

Prozesu *hau* 1918ko udan eta udazkenean joan zen forma hartzen. Txekoslovakiarren matxinada kontrairaultzaileak kulakak iratzarri zituen eta hauek Errusian zehar zenbait errebolta eragin zituzten. Ez dira ez liburuak ez egunkariak izan, *bizitza bera* baizik nekazari txiroei euren interesen eta kulaken, aberats okituen, laborantza burgesiaren interesen arteko bateraezintasuna azaldu diena. “Ezkerreko eseristek”, alderdi burges-ttipi gisa, masen gorabeherak islatzen zituzten eta euretako zati batek txekoslovakiarrekin bat egin zuen (Moskuko matxinada, non Proxianek¹¹⁸ –ordu

¹¹⁷ “**Sozialista iraultzaileak**” aipatzerakoan, eseristei buruz ari da Lenin, noski. Eseristen izen ofiziala “Alderdi Sozialista Iraultzailea” zen eta askotan izen horrekin izendatuak ziren, bai eurengatik, zein beste alderdiengatik. Noski, horrek ez zuen esan nahi alderdi iraultzailea zirela, eta are gutxiago alderdi sozialista iraultzaile bakarra zirela. Garaiko esapidea zen, besterik ez. (Itzultzailearen oharra)

¹¹⁸ **Prox Proxian**: Armeniar eserista, Gobernu tsaristak hainbat alditan zigortua izan zen eta erbesteratu beharra izan zuen. Otsaileko iraultzaren ostean, Errusiara itzultzerakoan, eseristen ezkerreko aldean kokatu zen; eta alderdia banatzerakoan, ezkerreko eseristen alderdiaren sortzaile eta buruzagietako bat izan zen. Urriko Iraultza Sozialistan parte aktiboa izan zuen eta honen ondoren, 1917ko abenduan, Herri Komisarioen Batzordean (Gobernu sobietarrean) sartu zen Posta eta Telegrafoetarako Herri Komisario bezala; baina 1918ko martxoan, Brest-

batez!– telegrafoa bere menpean zuela, Errusiari boltxebikeen erorketa iragarri zion, gero txekoslovakiarren aurka borrokatzera igorria zen Muraviov komandantearen traizioa¹¹⁹ etorriko zen). Beste zati batek, lehen aipatu dugunak, boltxebikeekin jarraitu zuen.

125

Hirietan horniketaren krisia larritzeak, zereal-monopolioa gauzatzea gero eta premia handiagoz galdatzen zuen. (Bere analisi teorikoetan Maslovek duela hamar urte idatzitako gauza ezin ezagunagoak eta errepikatuak berriz errepikatzen dituen Kautsky teorikoak hau “ahaztu” du!)

estatu zaharrak, lur-jabeen eta burgesen estatuak, estatu demokratiko eta errepublikarra barne; laborantza-guneetara burgesiaren esanetara zeuden destakamendu armatuak bidaltzen zituen. Kautsky jaunak ez daki! Horretan ez du ikusten ez, “burgesiaren diktadurarik”, Jainkoak bedeinka gaitzala! Hori “demokrazia garbia” omen da, batez ere Legebiltzar burgesak onartzen badu! Avksentiev¹²⁰ eta S. Maslovek¹²¹ Kerenskirekin, Tseretelirekin¹²² eta gainontzeko elementu eserista eta

Litovskeko bakea sinatu ondoren, ezkerreko eseristak bake horrekin ados ez zeudenez, postu hori laga egin zuen. Moskun ezkerreko eseristen estatu kolpean parte hartu zuen, kolpe horrek porrot egin ostean politika laga zuen. Urtearen amaieran hil egin zen. Bera hiltzerakoan, Leninek, Proxianen omenezko artikulu bat argitaratu zuen: *Proxian burkidearen oroimenez*, non Proxianen alde hitz egiten zuen, eta balantzean, honek sozialismoa eraikitzeko egindakoa 1918ko estatu kolpean ahultzeko egindakoa baino askoz gehiago zela esaten zuen (Itzultzailearen oharra)

¹¹⁹ **Muravioven traizioa:** Muravioven traizioa Errusiako Guda Zibileko gertaera bat izan zen. Mikhail Muraviov armada tsaristan karrera egin zuen ofizial bat izan zen eta 1917an eseristekin bat egin zuen. Urriko Iraultza Sozialista gertatzerakoan, teorikoki iraultzaren alde egin zuen, ezkerreko eseristekin lerrotatuz. Hala, 1917ko Urriko Iraultzan; Petrogradoko indar gorrien artean zegoen, zurien lehen matxinada kontrairaultzailea zapaldu zuten artean egon zen, eta geroago Ukrainako indar gorriak zuzenduko zituen (gorrien alderako Kiev hartuko zuen). Armada Gorriak Ekialdeko Frontera bidali zuen, han gertatzen ari zen kontrairaultza (batez ere txekoslovakiarren eraginez sortutakoa) zapaltzeko helburuarekin. Halere, ezkerreko eseristen estatu kolpearekin batera, Muraviovek Botere sobietarrari traizio egin zion eta indar antiboltxebikeak (teorian gudan bere aurka ari zirenak) batu nahi izan zituen, Moskura joan eta Langile Boterea uzkaileteko asmoz. Uztailaren 10ean, txekoslovakiarren laguntzarekin Simbirsk hiria hartu zuen, eta han Bresteko Ituna “bertan behera uzten zuela” aldarrikatu zuen eta Alemaniaren aurkako guda deklaratu zuen. Hiriko Posta Bulegoetatik, Errusian boltxebikeen aurka ari ziren indar guztiei (zuriei, txekoslovakiarrei, inperialista interbentzionistei...) Mosku hartzeko koalizio batean batu zitezten deialdia egin zien. Gobernu sobietarra Muravioven mugimendua zapaltzeko laster abiatu zen eta Simbirskeko komunistek hiriko biztanle eta soldaduen artean propaganda iraultzailea egin zuten; horrela, hasieran Muravioven alde jarri ziren soldadu asko, bere asmoez jabeturik, honen kontra jarri zirelarik. Hurrengo egunean, uztailaren 11an, sobietarrek Simbirsk berriz hartu zuten eta Muraviov atxilotzen saiatu ziren. Honek erresistentzia jarri izan zuen eta bi aldetako tiroketan hil egin zen. Muravioven traizioa eragin zuten arrazoiak ez daude guztiz argi, baina badirudi bere ideologia eseristak eta Alemaniari zion gorrotoak, Bresteko Bakearen guztiz aurkako postura hartzea izan zutela emaitza, eta horrela, Mendebaldeko inperialismoak erraz erabil zezakeen tresna bihurtu zela. (Itzultzailearen oharra)

¹²⁰ **Nikolai Avksentiev:** Errusiar eseristen buruetako bat, guda inperialistaren garaian sozialchovinista izandakoa. Hasiera batean Errusia Osoko Nekazarien sobieteko lehendakari izan zen; postu horretatik Iraultza oztopatzen saiatu zen. Urriko Iraultza Sozialistaren ondoren, antiiraultzaile amorratu bilakatu zen; Biltzar Konstituziogilearen izenean Iraultzaren aurkako matxinadak zuzendu zituen eta Guda Zibilaren garaian Omsk hiriko Gobernu pro-kapitalista batean hartu zuen parte: *Errusia Osoko Behin-Behineko Gobernuan*. Guda bukatuta erbestera joan zen eta han hil egin zen. (Itzultzailearen oharra)

¹²¹ **Semion Maslov:** Errusiar eserista, Alderdi Eseristaren eskuineko aldekoa. 1917an Nekazarien Ordezkarien sobietaren zuzendarietako bat izan zen. Lehen Mundu Gudan, Kooperatiben zuzendari izatera iritsi zen. 1917ko irailean Behin-behineko Gobernuko Nekazaritza Ministro izendatu zuten. Postu horretatik, hasieran defendatzen zuen lurraren sozializazioa alde batera utzi eta lur-jabeen jabetza gordetzen zuen lege-proiektu bat aurkeztu zuen. Urriko Iraultza Sozialistaren ostean, politika laga egin zuen eta sobietar erakunde ekonomiko eta kulturaletan egin zuen lan. (Itzultzailearen oharra)

¹²² **Irakli Tsereteli:** Georgiar mentxebikea, 1905eko iraultzaren ostean “likidatzaileen” ildoan kokatuko zen. Guda inperialista piztu zenean sozialbakezaleen artean kokatuko bazen ere, 1917ko otsaileko iraultzaren ostean ordea, guda jarraitzearen alde egingo zuen (sozialchovinista), eta sobieten barnean langile iraultzaren aurkako eta Behin-behineko Gobernu burgesaren aldeko jarrera erakutsiko zuen. Maiatzean, Posta eta Telegrafo Ministro bezala gobernu burgesean sartuko zen. Urriko Iraultzaren erabat aurkakoa; Georgiako gobernu mentxebike

mentxebikeekin batera 1917ko uda eta udazkena bitartean “laborantza komiteetako” kideak espetxeratu izanaz Kautskyk “ez du ezer ere entzun”, hor Kautsky isilik dago!

126

Den-dena; errepublika demokratikoaren bitartez burgesiaren diktadura gauzatzen duen estatu burgesak, herriari burgesia zerbitzatzen duela esateko ezintasunera, egia esateko ezintasunera eta bikoiztasuna erabiltzeko beharrera mugatzen da.

Komunaren erako estatuak, estatu sobietarrak, ordea, herriari argi eta garbi *egia* diotso: proletalgoaren eta baserritar txiroen diktadura dela; hain zuzen egia horren bitartez errepublika demokratikoetan astotuta bizi diren eta sobietei esker politikara, *demokraziara*, estatuaren administrazioa gehitzen diren hamarnaka eta hamarnaka milioi hiritar berri erakarriz. Errepublika sobietarrak laborantza-guneetara langileen destakamendu armatuak bidaltzen ditu, lehenik jantzienean, hiriburu-erakundeak osatutakoak. Langile hauek sozialismoa laborantza-guneetara daramate, baserritar txiroak euren aldera batzen dituzte, antolatu egiten dituzte eta *burgesiaren erresistentzia txikitzen* laguntzen diete.

Egoeraz jabetu direnek eta laborantza-gunera joan izan direnek, *bertara* “Urriko” Iraultza (hau da, iraultza proletarioa) 1918ko udan eta udazkenean iritsi izan dela diote. Biraketa bat ematen da. Kulaken matxinaden ondoren, baserritar txiroen gorako mugimendu bat hasten da, “nekazari txiroen komiteen”¹²³ hazkundera ematen da. Armadan langile klasetik datozen komisarioen, ofizialen, dibisio eta armada-buruen kopurua handitu egiten da. Bitartean, Kautsky segapotoak, (1918ko) uztaileko krisiak¹²⁴ eta burgesiaren uluek beldurtuta, honen gibelean morroki doa eta nekazariak boltxebikeak uzkailez dauden ustea aditzera ematen duen liburuxka oso bat idazten du; segapoto honek ezkerreko eseristen defektzioan boltxebikeak sostengu-esparruaren “murrizketa” bat ikusten duen bitartean (37. orr.), hain juxtu, momentu honetan boltxebismoaren *benetako* sostengu-esparrua *guztiz zabaltzen da*, hamarnaka milioi baserritar txiro kulaken eta laborantza burgesiaren eraginetik askatuz, bizitza politiko *independente* batetara batzen direlako.

127

Ezkerreko eseristetan, nortasunik gabeko intelektualetan eta baserritar kulaketan zenbait ehunen galdu ditugu; baina trukean, milioika baserritar txiro irabazi ditugu.¹²⁵

kontrairaultzailean parte hartuko zuen. Iraultza Georgiara zabaldu zenean, Frantziara ihes egin zuen. (Itzultzailearen oharra)

¹²³ **Nekazari Txiroen Komiteak (Kombed)**, 1918ko ekainaren 11an sortu izan ziren klase borrokarako laborantza organismo batzuk izan ziren. laborantza-guneetan eman zen klase borrokan garrantzia handia izan zuten, kulaken aurkako borrokan eta nazionalizatutako lurren eta lanabesen birbanaketan lan handia bete zuten (guztira kulaken 50 milioi hektarea lur nekazari txiroen artean banatu zituzten); eta baita ere guda bezalako une kritiko batean espekulazioaren aurka borrokatzen eta ekoizpen soberakinak horien beharra zutenen artean (hiriko biztanleen edota Armada Gorriaren artean) banatzen eta Armada Gorriko gudari berriak erreklutatzen. Guztira 80.000 bat Kombed sortu ziren Errusia osoan. Nekazari Txiroen Komiteak proletalgoaren diktadurak laborantza-gunean izan zuen eustoinik sendoena izan ziren. Boltxebikeen langileria eta laborantzagaren aliantzarako ezinbesteko oinarri izan ziren. 1918ko azaroan, euren lana beteta, sobieten VI Biltzar Nagusian desagertu egin ziren, Nekazarien sobiet arruntekin batuz. (Itzultzailearen oharra)

¹²⁴ **Uztaileko krisia:** Hitz hauekin, Lenin, 1918an Volgaren eskualdean, Uraletan eta Siberian, mentxebikeek eta eskuineko eseristek interbentzionista inperialista atzerritarren laguntzaz antolatu zituzten kulaken matxinada kontrairaultzaileen sorta bat izendatzen ari da. (sobietar argitaletxearen oharra)

¹²⁵ Sobieten VI Biltzar Nagusian; ahotsa eta bozka zuten 967 ordezkari 950 boltxebikeak ziren eta ahotsa bai baina bozik ez zuten 351 ordezkari 335 boltxebikeak ziren. Hortaz, boltxebikeak %97a ziren. (Leninen oharra)

Iraultza proletarioa hiriburuetan eman eta urte batera, hauen eragin eta laguntzaz laborantza-guneko bazterrik galduenetara iritsi da, sobietar Boterea eta boltxebismoa erabat zurkaiztuz eta herrialde barruan aurka dituen indarrak ez dagoela frogatuz.

Nekazari guztiekin iraultza demokratiko burgesa bete ostean, laborantza-gunea zatitzea lortu zuenean, laborantza- guneetako proletarioak eta erdiporletarioak irabaztea lortu izan zuenean eta kulaken eta burgesiaren, laborantza burgesia barne, aurka biltzea lortu zituenean, Errusiako proletalgora iraultza sozialista burutzera erabat igaro zen.

Hiriburuetako eta zentro industrial handietako proletalgora boltxebikeak baserritar aberatsen aurka baserritar txiroak bere ingurura batzea lortu izango ez balu; Errusia iraultza sozialistarako “heldua ez zegoela” frogatu izango zatekeen, laborantzagoak “osotasun bat” izaten jarraituko zukeen, hau da, kulaken, aberaskumeen eta burgesiaren zuzendaritza ekonomiko, politiko eta izpiritualaren azpian jarraituko zukeen eta iraultzak ez zukeen iraultza demokratiko burgesaren markoa gainditu izango. (Baina parentesien artean esan dezagun, honek ere ez zukeen proletalgora boterea hartu behar ez zukeenik frogatuko, iraultza demokratiko burgesa bukaeraraino berak soilik eraman izan baitu, mundu mailako iraultza proletarioa hurbiltzeko zerbait seriorik berak soilik egin izan baitu, Komunaren ostean estatu sozialistalaranzko bigarren urratsa den estatu sobietarra berak soilik sortu izan baitu).

128

Beste alde batetik, proletalgora boltxebikea, berehala, 1917ko Urrian edo Azaroan, nekazarien arteko klaseen arabera zatiketa itxaroten jakin gabe, zatiketa hau *prestatzen* edo gauzatzen jakin izan gabe laborantzagoan guda zibila edota “sozialismoaren ezarketa” “dekretatzen” saiatu izango balitz, erdi-mailako baserritarrei emakidarik egin gabe baserritar guztiekin egin beharreko aldi baterako bloke (aliantza) honi muzin egingo balio eta abar; hori marxismoaren desbideratze *blanquista*¹²⁶ bat izango zatekeen, *gutxiengo* bat gehiengo bati bere borondatea inposatzen saiatu izango zatekeen, zentzugabekeria teoriko batetara, nekazari guztien iraultza bat *oraindik* iraultza burges bat dela eta herri atzeratu baten *trantsizio sortarik* gabe, *igaroaldizko etapa batzuk* gabe iraultza sozialistarako egin ezin dela ez ulertzera iritsiko ginatekeen.

Kautskyk, garrantzi handiko afera politiko eta teoriko batean *dena nahasi du*, eta praktikan, proletalgoaren diktaduraren aurka oihuka dabilen burgesiaren morroi bat besterik ez dela frogatu du.

129

Kautskyk nahaste berbera edo handiagoa sortzen du garrantzi handiko beste gai baten: hain zuzen ere, eraldaketa sozialistarentzat oso zaila eta aldi berean oinarritzko garrantzizkoa den laborantza eraldaketarekiko Errepublika sobietarraren ekimen *legegilea* ondo planteatzeari eta gero zuzen burutzeari buruzkoan. Europako

¹²⁶ **Blanquismoa:** XIX mendean, frantziar mugimendu proletarioaren baitan zegoen korranteetako bat, Louis Auguste Blanquiren jarraitzaileek osaturikoa. Blanquisten arabera, iraultza konspiratzaile multzo txiki baten esku (eta ez Alderdi proletarioaren esku) utzi behar zen. Blanquismoaren ezaugarrietako bi, masekiko lotura eza eta klase borroka ulertzeko gaitasun gabezia ziren. Marxistek blanquismoaren grina iraultzailea txalotzen zuten, baina euren boluntarismo idealista eta hutsegite politiko nabarmenak kritikatzeko zituzten. Parisko Komunaren porrotaren ostean, korrante hau desagertu egingo zen. (Itzultzailearen oharra)

mendebaldeko marxista orok, dokumenturik garrantzitsuenak irakurriz soilik bada ere, gure politikaren *kritika* bat bidaliko baligu, ezinbesteko eskerronak emango genizkioke, honela guri zein mundu osoan itxura hartzen ari den iraultzari sekulako laguntza emango bait zigukeelako. Baina kritika egin ordez, Kautskyk marxismoa liberalismo bihurtzen duen eta berez boltxebikeen aurkako idazki zorrotz burges-ttipe hutsal eta pozoitsuen sorta bat besterik ez den egundoko nahasmen teorikoa eskaintzen digu. Irakurleak epai beza:

“Iraultza zela eta ezin zen jabetza handia mantendu. Hau lehen unetik argi zegoen. Lurra nekazariari ematea baino beste erremediorik ez zegoen (...)” (Ez da zuzena Kautsky jauna, zuk zuretzat “argi zegoena” jartzen duzu, *klase* ezberdinek aferarekiko izan zuten jarrera jarri beharrean. Historiak jada frogatu du burgesek mentxebike eta eserista burges-ttipeekin izan zuen koalizioak landa-jabetza handia mantentzeko politika jarraitu izan zuela. Frogarik onenak S. Masloven legea eta “laborantza komiteetako” kideak atxilotu izana dira¹²⁷. Proletalgoaren diktadurarik gabe, “laborantza herriak” ez zukeen kapitalistari loturiko lur-jabea garaituko).

130

“Baina hau egiteko moduei zegokienez, ez zegoen iritzi batasunik. Konponbide ezberdinak posible ziren”. (Kautsky, ororen gainera “sozialisten” arteko “batasunean” kezkatuta dago, euren buruari izen hori ematen diotenak edonor izanda ere. Baina ez du kontutan hartzen kapitalismoan klase sozial ezberdinak konponbide ezberdinetara heltzen direla). “Sozialismoaren ikuspuntutik, arrazoizkoena enpresa handiak estatuaren jabetzara igaroaraztea eta landa handiak lehen hor soldatapeko langile bezala lan egiten zuten nekazarien eskuetan ereintza-kooperatiba gisa jartzea zen. Baina konponbide honek, gaur egun Errusian ez dagoen laborantza langile baten motaren beharra du. Beste aukera bat, landa jabetza handia estatuaren eskuetara igaroaraztea eta lursail txikietan nekazarien artean banatzea izango zen. Halaxe, sozialismo apur bat gauzatuko zen (...)”

Beti bezala, Kautsky betiko leloan tematzen da: alde batetik aitortu besterik ez dago, bestetik onartu beharra dago. Konponbide ezberdinak *elkarren gainean jartzen* ditu, benetako ideia bakarrean, ideia marxista bakarrean arretarik jarri gabe: baldintza *berezi* hauetan, zein izan behar da kapitalismotik komunismoranzko *igarobidea*? Errusian soldatapeko laborantza langileak egon badaude, baina gutxi dira, eta Kautskyk, Botere sobietarrak *jada planteatutako* komunetako eta kooperatibetako ereintza-sistemaranzko igarotzearen auzia ez du ukitu ere egiten. Baina bitxienean, Kautskyk lursail txikien errentamenduan “sozialismo apur bat” ikustea da. Hauxe, funtsean, “sozialismotik” *ezer ez duen kontsigna burges-ttipe* bat baino ez da. Lurrak errentan ematen dituen “estatu”, Komunaren erako estatu bat *ezezik* errepublika parlamentario burges bat baldin bada (eta hau da Kautskyk beti suposatzen duena), lurra lursail txikietan errentan ematea *erreforma liberal* arrunt bat litzateke.

¹²⁷ Lenin, Behin-behineko Gobernuo Nekazaritzarako Ministro Semion Maslov eseristak aurkezturiko lege batez ari da. Lege hori Urriko Iraultza Sozialista baino egun batzuk lehenago atera izan zen, *laborantza eta abeltzaintza harremanak laborantza komiteek erregulatzeari buruzko arauak* izenburupean. Urriak 18an (31an) *Dielo Naroda* (Herriaren Kausa) egunkari eseristan partzialki argitaratua izan zen. Proiektu honek, laborantza komiteei erantsiriko errentamendurako funts berezi baten sorkuntza aurreikusten zuen, zeinek erregetzaren eta monasterioen lurrak bereganatuko zituen. lur-jabeek euren jabetza mantentzen zuten. lur-jabeek, lehen errentan lagatzen zituzten lurrak funts honi entregatu behar zizkieten, baina hortik aurrera, nekazariak errenta euren ordaindu behar zieten. Lege honek ez zuen laborantza auzia konpontzen eta burgesiaren interesei mesede egiten zien. Behin-behineko Gobernuak, baserritarren matxinadei eta baserritarrek lur-jabeen jabetzak okupatzeari, laborantza komiteetako kideen atxilotetarekin erantzun zieten. (Sobietar argialetxearen oharra)

131

Kautskyk Botere sobietarrak lurraren gaineko jabetza oro abolitzeari buruz ez du txintik ere esaten. Are okerrago: datuak modu sinestezinean erabiltzen ditu eta dekretu sobietarrak hauei mamia kenduz aipatzen ditu.

“Ekoizpen ttipiak ekoizpen-baliabideekiko jabetza pribaturako erabateko eskubidea izatea helburu duela” esan ondoren, Biltzar Konstituziogilea banaketa saihesteko gai zen “aginte bakarra” zela esan ondoren (Errusian baieztapen honek sekulako barregura eragingo luke, mundu guztiak orain, Biltzar Konstituziogilea txekoslovakiarren eta lur-jabeen kontsigna bihurtu denean, langile eta nekazariak sobieten agintea soilik aintzatesten dutela dakielako), Kautskyk honela jarraitzen du:

“Gobernu sobietarraren lehen dekretuetako batek zera dio: 1. Landa-jabetza handia oraintxe bertan batere ordainik gabe abolitzen da. 2. lur-jabeen, familia inperialaren, komentuen eta Elizaren jabetzak, abere guztiak eta lanabesak, dependentziak eta bertan dagoen guztiarekin batera, eskualdeko Nekazarien Ordezkariei sobieten menpeko barrutiko laborantza komiteen eskuetara igarotzen dira; Biltzar Konstituziogileak lurraren auziaren inguruan erabaki artean”.

Kautsky *puntu bi hauek bakarrik* aipatzen ditu eta zera ondorioztatzen du:

“Biltzar Konstituziogilearen inguruko aipua haizeak eraman du. Izan ere, azpi-barruti ezberdinetako baserritarrek lurrarekin nahi izan dutena egin dute”. (47. orr.)

Hor dituzue Kautskyren “kritikaren” adibide batzuk! Hor duzuen aizuntze baten antza handia duen lan “zientifiko” hori! Alemaniak irakurleari, lurraren jabetza pribatuaren inguruan boltxebikeek baserritarren aurrean amore eman dutela eta bakoitzari bere aldetik (“azpi-barruti ezberdinetan”) nahi izan duena egiten utzi izan zaiela aditzera ematen zaio!

132

Egia esan, Kautskyk aipatzen duen dekretuak, 1917ko

Urriaren 26ean (egutegi zaharraren arabera) atera izan zen lehen dekretuak, bost puntu *gehi* “gida-arau bezala erabili beharreko aginduaren” zortzi artikulua ditu; ez bi.

Hirugarren artikulua, etxaldeak “*herriaren eskuetara*” igarotzen direla eta “konfiskatu daitezkeen ondasun guztiak xehetasun handiz zerrendatzea” eta “zorrotasun iraultzaile handienaz babestea” beharrezkoa dela dio. Aginduak “lurraren gaineko jabetza pribaturako eskubidea betirako abolitua izanen” dela, “maila tekniko handia duten etxaldeetako lurak ez direla banatuak izanen”, “konfiskatutako lurretako lan-abere guztiak eta lanabesak, euren garrantziaren arabera, ordainik gabe estatuaren edo komunitateen erabateko gozamenara igaroko direla”, “lur osoa laborantza-funtsa nazionalera igaroko dela” dio.

Geroago, Biltzar Konstituziogilea disolbatzerakoan (1918-I- 5), sobieten III Biltzar Nagusiak, oraintxe sobietar Errepublikaren Oinarrizko Legearen parte den “Herri Langile eta Esplotatuaren *Eskubideen Adierazpena*”¹²⁸ onartu zuen. Bere II artikulua,

¹²⁸ *Herri Langile eta Zanpatuaren Eskubideen Adierazpena*: Errusiako sobietar Errepublika Sozialista Federalaren lehen Konstituzioaren oinarria izan zen. Adierazpen hau, sobieten Komite Exekutibo Zentralak 1918ko urtarrilak 3an onartu zuen, eta urtarrilak 4ean, Errusiako sobieten egunkari ofizialean, *Izvestia* izenekoan, argitaratua izan zen. Urtarrilak 5ean, Jakov Sverdlov boltxebikeak Biltzar Konstituziogileari aurkeztu zion, baina Biltzar Konstituziogile honen gehiengo kontrairaultzaileak (eskuineko eseristek eta mentxebikeek osatutakoak) errefusatu egin zuen. Errefusapen hori, Biltzar Konstituziogilea ixtera eramango zuen Biltzar honen izaera atzerakoi eta

lehen paragrafoan, “lurraren jabetza pribatua abolitua geratzen dela” eta “onibar eta laborantza-enpresa eredugarriak ondare nazional direla” esaten du.

Beraz, Biltzar Konstituziogileari egindako aipua ez zuen haizeak eraman; laborantza auzia konpontzeaz ordezkari nazionalen beste instituzio nazional bat, nekazarientzat askoz ere sona handiagoa zuena arduratu zelako.

133

Gero, 1918ko otsailaren 6an (19an), lurraren sozializatzearen legea atara zen, honek lurraren jabetza guztiaren abolizioa berriz baieztatzen zuelarik, hau, *esplotazio pribatuetako* abelburu eta lanabes guztiekin batera, *Botere sobietar federalaren kontrolpean* sobietar agintearen eskuetara igaroarazten zuelarik; bere helburuen artean zera jartzen zuen:

“Nekazaritza sozialistara iragateko asmoz, nekazaritzan etxalde indibidualen gainetik etxalde kolektiboaren sustatzea; lan eta produktuen aurreztearen ikuspuntutik abantaila gehien eskaintzen dituen delako”. (11. art., e puntua)

Lurraren gozamen *berdinkidea* ezarriz, legeak “lurra lantzeko eskubidea nork duenaren” oinarritzko auziaren gainean zera dio:

(20. art.) “Errusiako sobietar Errepublika Federalean, honako hauek dute eskari pertsonal zein publikoa betetzeko lurra ereiteko eskubidea: A) Asmo kultural edo hezitzaileak dituztelarik: 1) estatuak, Botere sobietarraren (federal, eskualdeko, probintziako, barrutiko, azpi-barrutiko edota herrixkako) organoek ordezkatzeko dutelarik. 2) Erakunde sozialek (tokiko aginte sobietarraren kontrolpean eta honen baimenarekin) B) Lantzeko: 3) laborantza komunek 4) laborantza kooperatibek 5) laborantza elkarteek 6) Norbanakoek edota familiek (...)”

Irakurleak, Kautskyk alemaniar irakurleari Errusiako estatu proletarioaren laborantza politika eta legegintzaz irudi faltsu bat emanaz, gaia guztiz desitxuratu duela ikusi dezake.

Kautskyk arazo garrantzitsuak, oinarritzkoak, ikuspuntu teorikotik planteatzen ere ez du jakin!

Honako hauek dira arazoak:

(1) Lurraren gozamen berdinkidea

(2) Lurraren nazionalizatzea: neurri batek eta besteak sozialismoarekin eta bereziki kapitalismotik komunismoranzko igarotzearekin duten harremana.

134

(3) Lurraren ereintza sozializatua, ereintza-lur ttipi zatikatutik ereintza-lur handi sozialistara iragateko bide gisa; bat al datoz auzi hau sobietar legegintzan planteatzeko modua eta sozialismoaren postuluak?

Lehen auziaren inguruan, komenigarria da oinarritzkoak diren bi gai hauek argi uztea:

(a) 1905eko esperientzia kontutan hartuz (adibidez, errusiar lehen iraultzan eman zen laborantza auziari buruzko nire lana aipatuko dut¹²⁹), boltxebikeek,

kontrairaultzailearen froga bat izan zen. sobieten V Biltzarrean, Errusiako sobietar Errepublika Sozialista Federalaren Konstituzioa onartua izan zen, eta *Herri Langile eta Esplotatuaren Eskubideen Adierazpena* Konstituzio horren solas-buruan txertatu zen, beste artikulua eta adierazpen batzuekin batera. (Itzultzailearen oharra)

¹²⁹ Vladimir Ilitx Lenin: *Sozialdemokraziaren laborantza programa Errusiako lehen iraultzan*. Artikulu honen erdarazko izenburua *El programa agrario de la socialdemocracia en la primera revolución rusa* da. Ez dago euskarazko itzulpenik. Leninek, artikulu honetan, errusiar marxisten eta batez ere boltxebikeen 1905eko iraultzako

berdinkidetasunaren kontsignak ikuspuntu demokratiko aurrerakoitik eta iraultzaile demokratikotik zuen garrantziaz ohartarazten zuten, eta 1917an, Urriko Iraultzaren *aurretik*, horretaz erabateko argitasunaz mintzatu ziren (b) Lurraren sozializatzearen legea onesterakoan –honen “arima” lurraren gozamen berdinkidearen kontsigna delarik–, boltxebikeek modurik zehatz eta zorrotzenez haxe adierazi zuten: ideia hau ez da gurea, gu ez gaude kontsigna honekin ados, baina gure beharra hau ezartzea dela uste dugu, nekazarien gehiengo handi batek hala eskatzen duelako. Eta beharginen gehiengoaren ideiak eta aldarrikapenak *eurek gaintitu beharko dituzte*; ez da posible aldarrikapen horiek “abolitzea” edo euren gaintetik “iragatea”. Guk boltxebikeok, baserritarrei kontsigna burges-ttipiak gaintitzen, kontsigna horietatik kontsigna sozialistetara ahalik eta azkarren eta errazen *iragaten lagunduko diegu*.

Langile iraultzaren analisi zientifiko bat eginez honi mesede egin nahi dion teoriko marxista batek, lehenik eta behin lurraren gozamen berdinkideak garrantzia demokratiko iraultzailea ote duenik, iraultza demokratiko *burgesa* bukaerara eramateko garrantzia ote duenik esan beharko luke. Bigarrenik, boltxebikeek euren bozaren bitartez gozamen berdinkidearen lege burges- ttipia onartzen laguntzean (eta gero leialtasun handienarekin betetzean) ondo jokatu badute esan beharko luke.

135

Kautsky ez da auziaren kokka non dagoen *ohartzeko* gai ere izan!

Kautskyk sekula ere ez zukeen gozamen berdinkideak iraultza demokratiko burges batean duen zentzu aurrerakoi eta iraultzailearen ideia gezurtatzerik lortuko. Iraultza hau ezin da haratago joan. Bukaerara heltzerakoan, konponbide demokratiko burgesak *nahikoa ez direla, masei hainbat eta argitasun, azkartasun eta erraztasun handiagoz* hauek gaintitzeko eta *sozialismora* iragateko beharra erakusten die.

Tsarismoa eta lur-jabeak uzkaile dituzten baserritarrek gozamen berdinkidearekin amets egiten dute, eta behin lur- jabeengandik eta estatu errepublikar demokratiko *burgesarengandik* askatuta ez dago hori eragotzi diezaiekeen indarririk. Langileek zera diotse nekazariari: kapitalismo “idealera” heltzea lagunduko dizuegu, ekoizle ttipiaren ikuspuntutik lurraren gozamen berdinkidea kapitalismoaren idealizatzea delako. Baina aldi berean, sistema honen hutsunez ohartaraziko zaituztegu, lurraren ereintza sozialera iragateko beharraz ohartaraziko zaituztegu.

Interesgarria litzateke Kautskyk, proletalgoak nekazarien borroka *horrela* zuzentzea zuzena izatearen ideia ihardesteko zer saiakera egingo zukeen ikustea!!

Kautskyk auzia saihestea nahiago izan du...

Gainera, alemaniar irakurleak beste barik tronpatu ditu, lurraren *legean* Botere sobietarrak komunei eta kooperatibei, hauek lehen mailan jarriz, lehentasun *esplizitua* ematen diela ezkutatuz.

Baserritar guztiekin iraultza demokratiko burgesa bukatu arte! Baserritar txiroekin, proletario eta erdiproletarioekin iraultza sozialistarantz aurrera! Hori da boltxebikeen politika eta hori da politika marxista bakarra.

136

Baina Kautsky nahastu egiten da, auzi bat bera ere planteatzen lortzen ez duelarik! Alde batetik, *ez da ausartzen* gozamen berdinkidearen inguruan proletarioek

baserritarrekin desadostasuna izan behar zutela esatera, desadostasun hori zein zentzubakoa den ulertzen duelako (bestetik, 1905ean, damutu bat izan aurretik, langileen eta nekazarien arteko aliantza iraultzaren oinarri gisa argi eta bipilki defendatzen zuen). Beste alde batetik, *sozialismoaren ikuspuntutik* berdintasun burges-ttipia zein utopikoa eta atzerakoia den “frogatzen” duten, *baina iraultza demokratiko burgesaren ikuspuntutik* berdintasunaren aldeko borroka burges-ttipia zein aurrerakoia eta iraultzailea den ahazten duten Maslov mentxebikearen arruntkeria liberalak sinpatiaz aipatzen ditu.

Kautsky bukaerarik gabeko korapiloan sartu da: ohartu zaitezte 1918ko Kautskyk errusiar iraultzaren izaera *burgesean ekiten* duela. 1918ko Kautskyk zera galdatzen du: ez zaitezte marko horretatik atera! Eta Kautsky honek berak nekazari *txiroei* lursail txikiak errentan ematen dien erreforma *burges-ttipian* (hau da, gozamen berdinkidera hurbiltzean) “*sozialismo apur bat*” (iraultza *burgesarentzat*) ikusten du!!

Uler beza gai denak!

Gutxi balitz, Kautskyk alderdi jakin baten benetako politika kontutan hartzeko ezgaitasun filistiarra duela frogatzen du. lur-jabeekin eta kadeteekin “koalizioan”, *lur-jabeekin adostutako laborantza erreforma liberal bat* defendatzen zuen 1917ko alderdi mentxebikearen benetako politika kontutan hartu nahi izan gabe (S. Masloven lege egitasmoa eta laborantza komiteetako kideen atxiloketak honen erakusgarri dira), Maslov mentxebikearen *esaldiak* aipatzen ditu.

Kautskyk ez du ikusi berdintasun burges-ttipiaren ustezko izaera utopiko eta atzerakoia inguruko P. Masloven esaldiek, izatez, baserritarrek lur-jabeak *iraultzaz* uzkailearen ordean, baserritarren eta lur-jabeen arteko *kontziliazioaren* aldeko (hau da, hauek haiek tronpatzeari buruzko) politika mentxebikea ezkututzen dutela.

137

A zer nolako “marxista” den Kautsky!

Boltxebikeak, hain zuzen iraultza demokratiko burgesaren eta iraultza sozialistaren arteko ezberdintasuna kontutan izan dituztenak dira: lehena bukaeraraino eramatean, bigarreneko ateak zabaltzen dituzte. Hau da politika iraultzaile bakarra eta politika marxista bakarra.

Kautskyk txantxa liberal gatzgabeak alferrik errepikatzen ditu: “baserritar ttipiak sekula, inon ez, ez dira limurtze teorikoaz ekoizpen kolektibora iragan” (50 orr).

Zein burutsua!

Sekula, inon ere ez dira herrialde handi bateko baserritar ttipiak estatu proletario baten eraginpean batean egon.

Sekula, inon ere ez dira baserritar ttipiak, baserritar txiroen baserritar aberatsen aurkako klase borroka ireki batetara, batzuen besteen aurkako guda zibilera iritsi; gainera txiroak estatuzko botere proletarioaren propagandaz, politikaz eta botere ekonomiko eta militarraz babesturik egotearen *berezitasuna ematen delarik*.

Sekula, inon ere ez dira guda baten ondorioz espekulatzailak eta aberats okituak hainbeste aberastu, ezta baserritar masa hainbeste txirotu.

Kautskyk pellokeriak errepikatzen ditu, gauza zaharrak behin eta berriro esaten ditu, proletalgoaren diktaduraren eginkizun berrietan pentsatze hutsaren beldur delarik.

Kautsky adeitsu hori, eta nekazariak ekoizpen ttipirako lanabes *nahikoa ez badituzte* eta estatu proletarioak lurra erregimen kolektiboan lantzeko makinak lortzen *laguntzen* badie, hori “limurtze teorikoa” izango litzateke?

138

Igaro gaitezen lurraren nazionalizatzearen auzira. Gure populistek, ezkerreko eseristek barne, guk praktikara eramandako neurria lurraren nazionalizatzea dela ukatu egiten dute. Ikuspuntu teorikotik oker dabilta. Merkantzia-ekoizpenaren eta kapitalismoaren markoa gaingitu ez dugunez gero, lurraren gaineko jabetza pribatuaren abolizioa, bere nazionalizatzea da. “Sozializatze” hitzak ez du joera bat, gurari bat, sozialismoranzko igarotzerako prestakuntza bat baino esan nahi.

Hortaz, zein izan behar da lurraren nazionalizatzearekiko marxisten jarrera?

Oraingoan ere Kautskyk ez daki auzi teorikoa planteatzen, edo bestela, nahita saihesten du –okerragoa dena–; errusiar argitalpenetatik, lurraren nazionalizatzearen, bere udalerraren (onibar handiak udalei entregatzea) eta bere banaketaren inguruko errusiar marxisten eztabaidak ezagutzen dituela badakigun arren.

Onibar handiak estatuaren eskuetara igarorarazteak eta gero lursail txikietan lur gutxien duten baserritarren eskuetara errentan banatzeak “sozialismo apur bat” gauzatuko duela dioenean, Kautskyk marxismoaz irri egiten du. Jada esan dugu hor sozialismotik ezer ez dagoela. Are gehiago: ez dago ezta bukaerara eramandako iraultza *demokratiko burgesik*. Kautskyk mentxebikeez fidatzearen zorigaitza izan du. Horren harira gauza bitxi bat jazo da: Kautskyk, gure iraultzaren izaera burgesa defendatzen duenak eta boltxebikeei sozialismorantz joateko euren burutazioa aurpegiratzen dienak; berak, erreforma liberal bat, *erreforma hau* laborantza ekoizpenetan ematen diren Erdi Aroko elementu guztien *ezabapenera eraman* gabe, sozialismo bezala aurkezten du! Kautskyk, bere aholkulari mentxebikeen antzera, iraultzaren beldur den burgesa liberala defendatzen du, iraultza demokratiko-burges kontsekuente bat defendatu beharrean.

139

Izan ere, zergatik egin estatuaren jabetzapeko onibar handiak soilik eta ez lursail guztiak? Halaxe, burgesia liberala, aurrekoa hainbat eta gehien mantentzera (hau da, ahalik eta ondorio gutxien dituen iraultza batera) iristen da eta lehengo egoerara itzultzeko erraztasunik handienak uzten ditu. Burgesia erradikalak, hau da, iraultza burgesa bukaeraraino eraman nahi duenak, *lurraren nazionalizatzearen* kontsigna botatzen du.

Kautskyk, aspaldi, duela hogeit hamar urte laborantza auziari buruz lan marxista bikain bat idatzi zuenak, ezin du Marxek adierazitakoa ahantzi: lurraren nazionalizatzea, hain zuzen *burgesiaren kontsigna kontsekuente* bat da¹³⁰. Kautskyk ezin ditu saihestu Marxen eta Rodbertusen¹³¹ arteko polemika eta Marxek lurraren nazionalizatzeak

¹³⁰ Ikus Karl Marx, *Gainbalioaren teoriak* (erdarazko izenburua *Teorías de la Plusvalía*). (Itzultzailearen oharra)

¹³¹ **Johann Karl Rodbertus-Jagetzow**: Alemaniar lur-jabe eta ekonomilaria, Prusiako lur-jabeen ideologo idealista, “estatu-sozialismoaren” ideologia asmatu zuen. Rodbertusen ustez, klase ezberdinen arteko aurkakotasuna, orduko lur-jabeen prusiar estatuaren eskusartzearekin gaingitu ahal zen; beraz, estatuaren paperaren justifikazioa egiten zuen (beraz, estatua klase-organo zapaltzaile bezala ulertzen zuen irakurketa marxistarekin ez zetorren bat). Gainbalioaren eta kapitalismoaren izaeraren gainean akats teoriko ugari egiten zituen. Lassalleren eta David Ricardoren eragin handia izan zuen, batez ere kapitalismo “askeak” klase herrikoiei zekarkien miseria azaltzerakoan;

ikuspuntu demokratiko burges batetik duen balio iraultzailea argitasun bereziz azaltzen duen *Gainbalioaren teoriak* lanean emandako azalpen nabarmenak.

P. Maslov mentxebikeak, Kautskyk zorigaitzez aholkulari gisa aukeratu duenak, errusiar nekazariak lur guztien (eurena barne) nazionalizatzea onar zezaketenik ukatzen zuen. Ikuspuntu hau, nolabait, errenta absolutua ukatzen zuen eta “lurraren emankortasun beherrakorraren legea” (edo “gertaera” Masloven hitzetan) onartzen zuen bere teoria “orijinalarekin” (finean, Marxen kritiko burgesek esandakoa errepikatzea zena) bat zetorren.

140

Egia esan, 1905eko iraultzak, errusiar baserriarren gehiengo erraldoi batek, bai komunitateetako kideen artean zein euren lursailen jabeen artean, lur osoaren nazionalizatzea nahi zuela agerian utzi zuen. 1917ko iraultzak hori baieztatu du eta boterea proletalgoaren esku utzi ondoren, errealitate bihurtu du. Boltxebikeek marxismoari fideltasuna gorde diote, iraultza demokratiko burgesaren gainetik “jauzi” egiten saiatu gabe (Kautskyk batere frogarik gabe hori leporatu nahi badigu ere). Boltxebikeak; baserriarren artean ideologo demokratiko burgesetan erradikalenak zirenei, iraultzaileenak zirenei, proletalgotik hurbilen zeudenei, hau da, ezkerreko eseristei lurraren nazionalizatzea zena egiten laguntzetik hasi dira. Errusian, lurraren gaineko jabetza pribatua 1917ko Urriaren 26an, hau da, iraultza proletario sozialistaren biharamunean abolitua izan zen.

Modu honetan, kapitalismoaren garapenaren ikuspuntutik perfektuena den oinarri bat (Kautskyk ezin du hau ukatu, baldin eta Marxekin puskatzen ez badu) eta aldi berean sozialismoranzko igarotzerako laborantza erregimenik *malguena* sortu da. Ikuspuntu demokratiko burges batetik Errusiako baserriar iraultzaileak *ezin daitezke urrunago joan*: ikuspuntu honetatik lurraren nazionalizatzea eta gozamen berdinkidea baino “idealagorik” edota (ikuspuntu berdinetik) “erradikalagorik” *ezin daiteke ezer egon*. Hain zuzen, boltxebikeak, boltxebikeak soilik, iraultza *proletarioari* esker, izan dira baserriarrei iraultza demokratiko burgesa benetan bukaeraraino eramaten lagundu izan dietenak. Eta modu honetan soilik egin dute iraultza sozialistaranzko igarotzea errazteko eta azkartzeko ahal izan duten guztia.

Honen ondoren Kautskyk bere irakurleei eskaintzen dien nahasmena epaitu dezakegu; boltxebikeei iraultzaren izaera burgesa ez ulertzea leporatu, eta bera marxismotik lurraren nazionalizatzearena *isilarazi* eta laborantza erreforma liberal bat, (ikuspuntu burges batetik) iraultzailetik gutxien duena, “sozialismo apur bat” aurkeztera iristeraino aldendu eta gero!

141

Horrekin lehen planteatu izan dugun hirugarren auzira hurbiltzen gara: zein puntutaraino izan du Errusiako proletalgoaren diktadurak lurraren ereintza amankomunera iragateko beharra? Kautsky, auzi honekiko ere, aizuntze baten antza handia duen zerbaitetan erortzen da: lurraren ereintza “komunari” buruz mintzatzen den boltxebike baten “tesia” aipatzera mugatzen da! Tesi hauetako bat errepikatu eta gero, gure “teorikoak” irabazle ahotsaz hauxe oihukatzen du:

“Gauza jakin bat eginkizun bat dela esateak, zoritxarrez, ez du hori betetzen. Errusian, nekazaritza kolektiboa, oraingoz, paperean gelditzera kondenaturik

eta estatuak miseria hori leundu edo ezabatu egin behar zuela esaten zuen, hau da, “goitik ezarritako sozialismoaren” aldekoa zen. Hala ere, klase borrokaren eta iraultza proletarioaren aurkakoa zen. (Itzultzailearen oharra)

dago. Sekula, inoiz ez dira nekazariak ekoizpen kolektibora limurtze teorikoak eraginda iragan” (50. orr).

Sekula, inoiz ez da egileren bat Kautskyren antzerako xixkatze literario bat egiteko moduko hainbeste lotsa galtzera iritsi. “Tesiak” aipatzen ditu, baina ez du Botere sobietarraren *legearen* hitzik aipatzen. “Limurtze teorikoa” aipatzen du, baina ez du lantokiak eta merkantziak bere esku dituen estatu-botere proletarioaz hitzik ere egiten! Kautsky marxistak 1899an, *laborantza auzia* lanean, estatu proletarioak baserritar ttipiak pixkanaka sozialismora igaroarazteko dituen baliabideez idatziriko guztia; 1918an Kautsky damutuak ahantzi egin du.

Jakina, estatuak babestutako zenbait ehundaka laborantza komunek eta sobietar ustiatetik (hau da, langile kooperatibek estatuaren kontura landutako etxalde handiek) oso gutxi ordezkutzen dute. Baina gertaera hau saihesten duen Kautskyren jarrera “kritika” bezala hartu al daiteke?

Errusian proletarioaren diktadurak burutu izan zuen lurraren nazionaltzea, iraultza demokratiko burgesa bukaeraraino eramango zenaren bermerik sendoena da, baita ere kontrairaultzaren garaipen batek nazionalizatzetik errepartora atzera egitea behartuko baluke ere (arazo hau 1905eko iraultzako marxisten laborantza programari buruzko liburu batean aztertzen dut). Gainera, lurraren nazionalizatzeko estatu proletarioari nekazaritzan sozialismora iragateko aukerarik handienak eman dizkio.

142

Laburbilduz: teorian, Kautskyk, marxismotik aldenduz sekulako nahasmena sortzen digu; praktikan burgesiarekiko eta erreformismo burgesarekiko bere menpekotasuna ikusten dugu. Hau da hau, nolako kritika!

Kautskyk industriari buruzko bere “analisi ekonomikoa” honako arrazoiketa bikain honekin hasten du:

Errusiak industria kapitalista handi bat du. Posible izango al litzateke horrekin ekoizpen sozialista antolatzea? “Hori pentsatu daiteke baldin eta sozialismoa langileek meatze eta lantegi ezberdinak jabetzan hartzean bazetzan” (literalki: eurenak egiten badituzte) “modu honetan, ekoizpena, horietako bakoitzean bere aldetik antolatuz” (52. orr). “Hain zuzen ere, gaur, abuztuaren 5ean, lerro hauek idazten ari naizenean –gehitzen du Kautskyk–, Moskutik Leninek abuztuaren 2an botatako hitzaldi bati buruzko berriak iritsi dira, eta berri horiek diotenez, hauxe esan zuen: “Langileek lantegiak euren eskuetan dituzte; baserritarrek euren lurra ez diete lur-jabeei itzuliko”. “Lantegiak langileentzat, lurra baserritarrentzat” dioen kontsigna, orain arte ez da sozialdemokrata izan, anarkosindikalista baizik.” (52-53 orr.)

Arrazoiketa hau osorik aipatu dugu, lehen Kautsky arrazoi osoz estimatzen zuten errusiar langileek euren begiekin burgesiaren aldera igaro den transfuga honek nola diharduen propio ikus dezaten.

143

Nork pentsatuko zuen! Abuztuak 5ean, Errusiako lantegien nazionalizatzeari buruzko hamaikatxo dekretu zeudenean, gainera langileek haietako bat bera ere “eureganatu” ez zutelarik, denak Errepublikaren jabetzakoak izatera igaro baitziren; abuztuak 5ean, Kautskyk nire hitzaldi batetako esaldi bat ageriko amarruz interpretatuz, alemaniar irakurleei Errusian lantegiak enpresa bakoitzeko langileen

esku uzten direla aditzera eman nahi die! Eta gero hamarnaka eta hamarnaka lerrotan, behin eta berriz lantegi bakoitza bere langileei soilik ez zaiela eman behar dioen hori errepikatzen du!

Hau ez da kritika, kapitalistek langile iraultza iraintzeko asmoz erositako burgesiaren morroiaren prozedura baizik.

Lantegiak estatuaren, komunitateen edota kontsumo- elkarteen eskuetara igaro behar dira, dio behin eta berriz Kautskyk, eta azkenik zera gehitzen du:

“Bide hau hartzen saiatu izan dira Errusian (...)” Oraintxe!! Zer esan nahi du honek? Abuztuan? Baina Kautsky ez al zen bere Stein, Axelrod eta errusiar burgesiaren beste lagunei lantegien inguruko edozein dekretu itzultzeko eskatzeko gai izan?

“(...) Zentzu honetan noraino iritsi den oraindik ez da ikusten. Halere, iluntasunean dirauen arren, Errepublika sobietarraren arlo honek interesik handiena pizten digu. Dekreturik ez da falta (...)” (Horregatik Kautskyk ez du hauen edukia ikusi nahi, edota bere irakurleei ezkututzen die!) “baina dekretu horien ondorioen gaineko berri fidagarriak falta dira. Estatistika osatu, zehatz, ziur eta azkarrik gabe, ekoizpen sozialista ezinezkoa da. Orain arte Errepublika sobietarrak ezin izan du hau egin. Bere neurri ekonomikoez dakiguna oso kontraesankorra da eta egiaztatzen ezinezkoa da. Hau ere diktaduraren eta demokraziaren zanpatzearen ondorioetako beste bat da. Ez dago ez inprenta ez adierazpen askatasunik (...)” (53.orr)

144

Honelaxe idazten dute historia! Kapitalisten eta Dutoven aldekoen prentsa “askean” Kautskyk langileen eskuetara igaro diren lantegiei buruzko datuak aurkituko lituzke... Klaseen gaintik kokatzen den “aditu serio” hau benetan miresgarria da! Kautskyk, lantegiak *soilik* Errepublikaren esku uzten direla eta lantegi hauez Botere sobietarraren organo bat, batez ere langile sindikatuen ordezkariak osatutako Ekonomia Nazionalaren Kontseilu Gorena arduratzen dela frogatzen dituzten kontaezinezko gertaerak ez ditu ukitu ere egin nahi. Gizon zorrortuaren¹³² setakeria ergelaz, behin eta berriz hauxe errepikatzen du: eman diezadatela demokrazia baketsu bat, guda zibilik gabekoa, diktadurarik gabekoa, estatistika onekin (Errepublika sobietarrak estatistika-departamentu bat sortu du, Errusiako elementurik adituenak hara eramanez, baina jakina denez, estatistika ideala ezin da denbora laburrean sortu). Hitz gutxitan, Kautskyk biolentziarik gabeko, borroka gogorrik gabeko, iraultzarik gabeko iraultza nahi du. Langile eta ugazaben arteko borroka gorriarik gabeko grebak eskatzea bezalakoa da. Ea nor den halako “sozialistaren” eta burokrata liberal eskasaren artean ezberdintzeko gai!

Eta halako “datuetan” oinarriturik, hau da, hamaikatxo gertaerari erabateko mespretxuz muzin eginez, Kautskyk zera “ondorioztatzen” du:

“Benetako lorpenei eta ez dekretuei dagokienez, zalantzarria da errusiar proletalgoak Errepublika sobietarrarekin, sobietetan bezalaxe sozialistak, ñabardura ezberdin batetakoak baziren ere, nagusi izan zituen Biltzar

¹³² “Gizon zorrortua”, Anton Txekhoven izen berdineko eleberriko pertsonaia da. Berrikuntza ororen beldur den gizon bakarti arruntaren pertsonifikazioa da. (Itzultzailearen oharra)

Konstituziogilearekin lortuko zukeena baina zeozer gehiago lortu izana”. (58. orr.)

145

Hau benetako harrikada bat da, ez al da? Kautskyren miresleei errusiar langileen artean hitz hauek hedatzea gomendatzen diegu, Kautskyk ezin baitzezakeen bere erorketa politikoa baieztatzen duen froga hoberik eman. Langile burkideok, Kerenski ere “sozialista” zen, baina “ñabardura ezberdin batetako”! Kautsky historiagilea goitzen batekin, eskuineko eseristek eta mentxebikeek “eurenganatu” zuten adjektibo batekin asebeste da! Baina Kautsky historiagileak, Kerenskiren agintaritzapean mentxebikeek eta eskuineko eseristek burgesiaren politika inperialista eta arpilatze babesten zutela baieztatzen duten gertaera frogagarriak ez ditu entzun ere egin nahi, eta Biltzar Konstituziogileak, guda inperialistaren eta burgesiaren diktaduraren aitzindari horiei gehiengo ematen zuela diskretuki isilarazten du. Eta honi “analisi ekonomikoa” deritzote!

Bukatzeko, “analisi ekonomikoaren” beste adibide bat:

“(…) Jaio eta bederatzi hilabetetara, ongizate orokorra hedatu beharrean, Errepublika sobietarra miseria orokorra zertan datzan azaltzera beharturik aurkitzen da” (41. orr.).

Kadeteek halako arrazoiketetara ohituta gaituzte. Errusian, burgesiaren morroi guztiek horrela argudiatzen dute: Hondamendira eraman duen lau urteko gudaren ostean, nazioarteko kapitalak, Errusiako burgesiari, honek sabotaia eta matxinadak jarrai ditzan eman dion laguntza handiaren ondoren; emaguzue bederatzi hilabetetan ongizate orokorra. Praktikan ez dago inolako desberdintasunik ez desberdintasun arrastorik Kautskyren eta burges kontrairaultzailearen artean. “Sozialismoz” mozorrotutako hizketaldi elezuriek; Errusian Kornilov, Dutov eta Krasnoven aldekoek zakarki, ahobetea eta itzulingururik gabe esaten dutena errepikatzen dute.

146

Goian idatzitako lerroak 1918ko azaroaren 9an idatzi izan dira. 9tik 10era doan gauean, Alemaniatic, lehengo Kielen eta Iparraldeko eta kostaldeko beste hiri batzuetan, non boterea Langileen eta Soldaduen Ordezkarien Batzorde baten eskuetara pasatu den, eta gero Berlinen, han ere boterea Batzorde baten eskuetara igaro delarik; iraultzaren hasiera loriatsua adierazten duten berriak iritsi dira¹³³.

¹³³ **Alemaniar Iraultza:** Alemaniar Iraultza, 1918aren bukaeran, Alemania guda galtzear zegoenean hasi zen, Kiel hirian. Iraultzaren arrazoiak; gudak ekarriko herri-miseria, kanoi-haragi bezala erabiltzen ziren tropen ezinegona, bakegogoa eta Errusiako Urriko Iraultza Sozialistaren eragina izan ziren. Iraultzaren hasiera Itsasarmadako destakamendu batzuen matxinadarekin eman zen. Izan ere, Itsasarmadako buruzagiek, guda galduta zegoela, ohorea salbatzeko (“ohorez hiltzeko”) azken gudaldi bat egitea erabaki zuten; marinelek noski, ez zuten euren almiranteen ohoreagatik hil nahi eta matxinatu egin ziren. Iraultza Ipar Alemaniako eta kostaldeko hiri guztietara zabaldurik zen eta edonon Langile eta Soldaduen Kontseiluak (*Räte*), Errusiako sobieten antzerakoak, sortzen hasi ziren. Azaroaren 9an, Liga Espartakistak deituta, Berlinen greba orokorra piztu zen eta horrek monarkiaren erorketa ekarri zuen. Halere, sozialchovinista erreformistek (SPD) eta kautskistek (USPD), langile iraultza eta Errepublika Sozialista helburu izan beharrean, gizarte kapitalistaren eta erreformismoaren aldeko hautua egin zuten. Hala, Langile Kontseiluetan hauteskundeak egin behar zirela esan zuten, eta behin Kontseiluetan gehiengoaren kontrola izanda, euren arteko Behin- behineko Gobernu bat izendatu zuten, “langileen zilegitasuna” zutela aldarrikatu. Amarru honen emaitza bezala, azaroaren 10ean espartakistek aldarrikatutako Errepublika Sozialistaren gainetik, Philip Scheidemannen ahotik Errepublika (burgesa) aldarrikatu zuten; eta horien Gobernuak erreforma sozial burgesez haratago ez zihoan programa demokratiko-burges bat onetsi zuen (horregatik, laster USPDKo kautskistak

Kautskyri eta iraultza proletarioari buruzko liburuxkarako idatzi behar nuen ondorioa ez dago jada idatzi beharrik.

1918ko azaroak 10

N. Lenin

Gobernutik aterako ziren). 1918ko abenduaren 16 eta 21 bitartean burututako Alemania Osoko Kontseiluen I Biltzar Nagusia; eskuineko sozialdemokratek (sozialchovinista oportunistek), Kontseiluek euren ardura exekutiboak lagatzea, hauek Gobernuaren esku uztea eta Biltzar Konstituziogile batendako hauteskundeetarako deialdia egitea onarrarazi zuten. Horrela, Kontseiluak eta Langile Boterea bertan behera geratu ziren. Hala ere, horrekin ez ziren iraultzaren garrak itzali, langile klasearen elementu borrokalariek bi alderdi sozialdemokratekin hautsi egin baitzuten. 1918ko abenduaren 30ean, Liga Espartakistaren kimetzetik Alemaniako Alderdi Komunista (KPD) sortu zen, Karl Liebknecht eta Rosa Luxemburgen zuzendaritzapean. Alderdi hau hurrengo urteetan iraultza sakontzen eta norabide sozialistarantz eramaten saiatu zen. Hori dela eta, 1919ko urtarrilean, Berlinen “Iraultza Espartakista” piztu zuten, hau da, KPDk zuzendutako langile matxinada bat. Halere, iraultza horrek hainbat arrazoiengatik porrot egin zuen, batez ere USPDko kautskistek izan zuten paperagatik; hasieran matxinadan presaka hasteko gogoa erakutsi zuten, gero boterea hartzeko zalantzati ibili ziren eta azkenean Gobernuarekin negoziazio politika batean sartuz traizio egin zuten. Iraultza Espartakistaren porrotaren beste arrazoi bi, garaipenerako beharrezko den prestakuntza eta zuzendaritza falta izan ziren. Alemaniako Gobernu sozialchovinista erreformistak, Noske Guda Ministroak batez ere, errepresio latza ezarri zuen eta iraultzaileen aurka eskuin muturreko talde paramilitarrak (*Freikorps*) erabili zituzten; hauek Luxemburg eta Liebknecht atxilotu, torturatu eta hil egin zituztelarik. Alemaniako Iraultzak, beste hirietan eman ziren matxinadetan (Bremen, Hanburgo...), zenbaitetan, egun batzuek boterea Hiriko Langile Kontseiluaren eskuetara iragatea lortu izan zuen, azkenean arrakastarik izango ez bazuten ere. Halako matxinadarik arrakastatsuen München hirian eman zen, non 1919ko apirilean Bavariako Errepublika sobietarra ezartzea lortu zuten, Eugen Leviné jaunaren lehendakari zapean; hala ere, hilabete barru, Alemaniako Errepublikaren armadak (SPDko sozialchovinistak gobernuan zirela) Bavariako Errepublika sobietarra konkistatu eta Bavarian berriz kapitalismoa ezarri zuen. Alemaniako Iraultzan zehar, proletarioak ez zuten Iraultza Sozialista burutzea lortu eta iraultza demokratiko-burges batekin konformatu behar izan zen; halere, monarkia uzkaile zuen eta zenbait aurrerapen sozial (askatasun demokratikoak, zortzi orduko laneguna...) bermatzen zituen Errepublika bat ezartzea lortu zuen eta batez ere Errusiako Errepublika sobietarrari Bresteko Bake Itun inperialista apurtzeko aukera eman zion. (Itzultzaileen oharra)

Lehen eranskina: Biltzar Konstituziogilearen gaineko tesiak

1. Sozialdemokrazia iraultzaileak bere programan Biltzar Konstituziogilearen deialdia sartzea guztiz zuzena izan zen, demokrazia burgesaren pean erakunde hau demokraziaren forma gorena delako, eta errepublika inperialistak, Kerenski buru zuelarik, Aurre-parlamentua¹³⁴ ezarriz demokraziaren aurkako erasoz betetako hauteskunde-iruzur bat prestatzen zuelako.

2. Biltzar Konstituziogilearen deialdia galdatzen zuen sozialdemokrazia iraultzaileak, 1917ko Iraultzaren lehen egunetatik sobieten Errepublika errepublika burges arrunta eta bere Biltzar Konstituziogilea baino demokrazia hobea dela behin baino gehiagotan azpimarratu izan du.

3. (Langileen, Soldaduen eta Baserritarren Ordezkarien) sobieten Errepublika erregimen burgesetik sozialistara igarotzeko, proletalgoaren diktadura ezartzeko erakunde demokratikoetan modurik gorenena izateaz gain (Biltzar Konstituziogile batez koroatutako errepublika burges arrunt batekin alderatuta), sozialismoranzko igarotzerik mingaitzena ziurtatzeko modu bakarra ere bada.

150

4. Gure iraultzan zehar, Biltzar Konstituziogilearen deialdia 1917ko Urriaren erdialdera aurkeztutako hautes-zerrenden arabera egiten da, Biltzar Konstituziogile horren hauteskundeak orokorrean herriaren eta bereziki masa beharginen adierazle zehatza izatea ezinezko egiten zituzten baldintzak zeudenean.

5. Lehenik eta behin, hauteskunde sistema proportzionalak, alderdiek aurkeztutako zerrendek herriaren baitako talde politikoaren arabera zatiketa zerrenda horietan agertzen den moduan islatzen dutenean soilik adierazten du zehazki herriaren borondatea. Eta aski ezaguna da gure herrialdean maiatza eta Urriaren artean, herriarengan eta batez ere nekazariengan jarraitzaile gehien zituen alderdia, sozialista iraultzaileen alderdia, 1917ko Urriaren zerrenda bakarrak aurkeztu zituen arren 1917ko Azaroan Biltzar Konstituziogilerako hauteskundearen ondoren eta hau deitu aurretik erdibitu egin zela.

¹³⁴ **Aurre-parlamentua:** Aurre-parlamentuaren deialdia, Kerenskiren Gobernuak deituriko "Konferentzia Demokratiko" burgesak Kerenskiri eta orduan sobietetan gehiengo teorikoa zuten alderdi burges-ttipiei (mentxebikeei eta eseristei) babesa eta zilegitasuna emateko egindako ahalegin bat izan zen; hain juxtu masak boltxebike iraultzaileengana hurbiltzen hasi zirenean eta iraultza proletarioa hurbiltzen hasi zenean. Aurre-parlamentuaren helburuetako beste bat; botere efektiboa langile erakundeetatik idoki eta sortu beharreko erakunde burgesei (deitzeke zegoen Biltzar Konstituziogileari, adibidez) emateko zubi lana egitea zen (hau da, sobietak edukiz husteko lehen pausua zen, errepublika burges arrunt baterako bidea erraztea zuen helburu). Aurre-parlamentuaren lehen bilkura 1917ko irailak 23an burutu zen, eta bertan alderdi burgesek Kerenskiren Gobernuaren "aholku-organismo" bat izan behar zela adostu zuten. Boltxebikeek, orduan Kamenevek zuzentzen zuen eskuin aldearen zuzendaritzapean (orduan Lenin alderdiaren zuzendaritzatik lekututa zegoen, Behin-behineko Gobernuaren jazarpenetik ihesean zebilelako), hasiera batean erakunde honetan parte hartzea erabaki zuten. Halere, Lenin egoera honetaz jabetu zenean, Komite Zentralari Alderdiak Aurre-parlamentua uzteko erabakia har zezan proposatu zion. Komite Zentralak erabaki hori onetsi egin zuen eta Urriaren 7an boltxebikeak Aurre-parlamentutik erretiratu egin ziren. Aurre-parlamentuari egindako boikota Iraultza Sozialistarako pausu garrantzitsua izan zen; izan ere, ilusio konstituzionalak alde batera utzita, Behin-behineko Gobernuaren eta boltxebike iraultzaileen arteko kontraesana eta bien esparruak ondo definitzera lagundu baitzuen. (Itzultzailearen oharra)

Horregatik, forma aldetik abiatuta ere, Biltzar Konstituziogilerako aukeratuak izan diren ordezkarien konposaketa ez da eta ezin da hautesle-masen borondatearekin bat etorri.

6. Bigarrenik, ez juridikoa ez formazkoa, baizik eta sozioekonomikoa den beste baldintza garrantzitsuago bat, alde batetik herriaren borondatearen eta batez ere behargin klaseen borondatearen eta beste batetik Biltzar Konstituziogilearen konposaketaren klase-ezberdintasunaren arteko jatorria eratzen duen baldintza; Biltzar Konstituziogilerako hauteskundeak, 1917aren Urriaren 25ean, beraz Biltzar Konstituziogilerako hautagai zerrendak jada aurkeztu zirenean hasi zen Urriko Iraultzaren, sobietar iraultza proletario eta baserritar honen garrantzia eta hedapen osoa oraindik herri osoak ezagutu ezin zituenean burutu zirelakoan datza.

151

7. Boterea sobietentzat konkistatu, nagusitasun politikoa burgesiari kendu eta proletalgoari eta nekazari txiroei eman dien Urriko Iraultza garapeneko etapa ezberdinak gaingitzen dabil.

8. Iraultza 24-25 egunetan hiriburuan lortutako garaipenarekin hasi zen, Errusia Osoko Langileen, Nekazarien eta Soldaduen Ordezkarien sobieten II Biltzar Nagusiak, langileen eta politikoki aktiboenak ziren nekazarien abangoardiak Alderdi Boltxebikeari garaipen argi bat eman zionean eta berau boterera igo zuenean.

9. Ondoren, Azaroan eta abenduan zehar, iraultzak armadaren eta nekazari guztien masak bereganatzen ditu; honek iraultzaren etapa oportunistak, etapa burgesa eta ez-proletarioa ordezkatzeko zuten eta arrazoi honen negatibitateak benetako herri-masa zabalen bultzadapean derrigor desagertu beharra zuten zuzendaritza-organismo zaharren (armadako komiteen, probintzietako laborantza komiteen, Errusia Osoko laborantza Ordezkarien sobietaren Komite Exekutibo Zentralaren eta abar) berritzea ekarri zuen.

10. Euren erakundeetako organismoak berritzeko masazko mugimendu boteretsu hau, gaurdaino, 1917ko abendu erdialdera ez da bukatu eta bere hurrengo helburua orain osatzen ari den Trenbideetako Langileen Biltzarra da.

11. Beraz, 1917ko Azaroan eta abenduan Errusian elkarren aurka borroka ari diren klase indarren baitako lerrotzeak, 1917ko Urriaren erdialdean alderdiek aurkeztutako hautagai zerrendek azaltzen zutenarekiko erabat desberdina izan behar du.

12. Ukrainan gertatu izan diren azken gertaerek (eta nolabait Finlandian, Bielorrusian eta Kaukason gertatu izan direnek); borrokaren gorrian, alde batetik Rada

ukrainarrak¹³⁵, Dieta finlandiarrak¹³⁶ eta abarrek ordezkaten duten nazionalismo burgesaren eta bestetik errepublika nazional horietako sobieten boterearen,

¹³⁵ **Rada ukrainarra:** Ukrainako Rada Zentrala (*Ukrainska Tsentralna Rada*); Ukrainako nazionalista burgesek eta alderdi "sozialista" burges-ttipiek 1917ko apirilean Kieven sortutako Gobernu-erakundea izan zen. Bere oinarri soziala burgesian eta burgesia-ttipian aurkitzen zen. Radaren helburua ukrainar burgesia nazionalaren interesak defendatzea izan zen, bai errusiar burgesia handiaren aurka, baina batez ere boltxebikeen eta ukrainar langile eta nekazari iraultzaileen aurka; horretarako demagogia "abertzalea" erabiltzen zutelarik Ukrainako nazio-askapen mugimendua euren interesetarako baliatu nahi izan zuten. Radako presidentea Mikhailo Hrushevski zen; idazkari nagusia, Volodimir Vinnitxenko; eta auzi militarretarako idazkaria, Simon Petliura. Radak zenbait "Adierazpen Unibertsal" egin zituen, erakunde horren eta Ukrainaren egoera politikoa aldarrikatuz. Halere oportunitatez jokatu izan zuten; adibidez, euren Lehen Unibertsalean (1917ko ekaina; Errusian Behin-behineko Gobernu boterean zelarik), "Ukrainako Errepublika Autonomoa", "Errusiar estatuaren baitan" aldarrikatu zuten (Errusiako Behin-behineko Gobernuak, bere chovinismoak eramanda, autonomia hori onartzeko ere traba handiak jarri zituen), eta Bigarren Unibertsalak (1917ko uztaila) egoera honetako legeak zehaztu zituen, independentzia aldarrikatu gabe. Halere, Urriko Iraultza Sozialistaren biharamunean (1917ko Urriak 26an), Ukrainako Rada burgeseko buruzagiek "Errusiako kolpea aintzatesten ez zutela" esanez (hots, Iraultza Sozialista Boltxebikea deitoratuz) eta "egoera kaotikoa konpondu artean, Ukrainako gobernu zilegi bakarra" zirela aldarrikatuz, Hirugarren Unibertsala plazaratu eta bertan "Ukrainako Errepublika Nazionala" (UNR) aldarrikatu zuten, "Errusiako Errepublikarekin lotura federalak" izango zituelarik (beraz, UNR bere zilegitasuna Urriko Iraultza Sozialistari zilegitasuna kentzean aldarrikatzen zuten, Urriko Iraultza Ukrainan deslegitimatua jaio zen, Iraultza Proletarioa Ukrainara hedatu ez zedin). Handik gutxira, Radak Laugarren Unibertsala (1918ko urtarrilak 24) atera zuen, "Ukrainako Errepublika Nazionalaren" "independentzia osoa" aldarrikatuz (beraz argi dago ukrainar burgesiaren autodeterminazio erretolika Errusiako Langileen Boterearen kontra- balantza bezala moldatzen zela: Errusian Langile Iraultza zenbat eta gorago Radak Ukraina Errusiatik hainbat eta gehiago aldentu nahi zuten). Haatik, 1917ko abenduan, Kharkiv hirian Ukrainako sobieten I Biltzarra ospatu zen eta bertan Ukrainako Herri Errepublika sobietarra aldarrikatu izan zen, Radaren Errepublika burgesaren aurkako guda zibila piztuz, eta Ukraina osoan Radaren aurkako matxinada iraultzaileak pizten hasi ziren. 1918ko urtarrilaren 26ean, Ukrainar Iraultza Sozialistak Kiev hiria hartu zuen Ukrainako presidente bezala Juri Piatakov jarriz eta Radak ihes egin behar izan zuen. Halere, Piatakovek bere agintaldian izaera ultraezkertiarrereko hainbat eta hainbat huts egin zituen; adibidez, nekazarietako aliantza politika ez zuen behar bezala eraman eta hauek oso erasokorra izan zen, beste alde batetik, errusiar chovinista ere izan zen. Bestalde, Radaren ideologia demagogia anti-errusiarrean (hau da, "errusiar" guztiak, atzerakoak edo iraultzaileak berdin ezarrituz, Iraultza Sozialista eta ukrainar boltxebikeak "errusiar tropak" edo "errusiar mugimendu" bezala tratatzen saiatzen ziren, ukrainar herria Iraultzara ez hurbiltzeko) eta "laborantzagoaren babes" demagogikoan (hau da, laborantza jabetza pribatuaren defentsan, laborantza erreforma leun liberal baten defentsan eta lurren nazionalizazio eta banaketan oinarritutako neurri erradikalen aurkako posturan) oinarritzen zenez, Piatakoven Gobernu-ekimenak Radari mesede egin zion. Radaren kanpo politika inperialismoarekiko aliantzan oinarritzen zen; izan ere, Errusian alderdi antiinperialista batek (boltxebikeek) boterea hartzerakoan Errusia gudatik atera egin zenez gero, inperialismoak Ekialdeko frontean guda jarraitu zezaten aliatuak nahi zituen, eta horrela, bai frantziar zen alemaniar inperialismoak Radari emakidak agindu egin zituzten. Alta, azkenean Rada azken hauekin lerrotatuko zen eta Brest-Litovskeko negoziaketetan Ukrainako Errepublika Nazionalak bere ordezkariak propioa eraman zuen, alemaniarren aldetik. Halaxe; bake hori sinatua izan zenean, alemaniarrek Ukrainan Radaren boterea berrezarri egin zuten, bertan Alemaniaren menpeko Ukraina "independente" bat aldarrikatuz. Haatik, Alemaniak, "independentzia" horren truke, Ukrainako Radari emakida handiak eta lehengai kopuru handiak bidaltzea eskatu zion, eta Rada eskari horiek betetzeko nekazarien artean errekisak egin behar izan zituela eta horrek ukrainar laborantzagoaren babes eta herri-oinarria galdu arazi ahal zizkiola jabetuta, Rada eta agintari alemaniarren arteko desadostasunak hasiz joan ziren. Honela, azken hauek Rada kendu eta ordez Alemaniari leialagoa izango zitzaion Gobernu bat jarri zuten: Pavlo Skoropadski *Hetman* kosakoarena, honek Ukrainako Errepublika Nazionala bertan behera utzi eta "Ukrainar estatua" deitutako estatu erdi-monarkiko bat (arruntki, *Hetmanatua* bezala ezagutua dena) aldarrikatu zuelarik. Skoropadskiren Gobernuak 1918ko abendu arte iraungo zuen, izan ere alemaniarrek guda galdu eta Ukrainatik ateratzerakoan, Skoropadski babesik gabe geratu izan baitzen (azken momentuan Errusiako Armada Zuriarekin aliantza bat egiten saiatu izan bazen ere). Orduan Rada berriz boterera iritsi zen, bere menpeko Direktorio Militarrak (Petliurak zuzendurik) Kiev hartu baitzuen. Hala ere Direktorio horrek gutxi iraungo zuen eta 1919ko otsailean, Ukrainako Errepublika sobietarra berriz Kieven goratu zen. Hala ere, gutxi barru, Ukrainako Errepublika Nazionalaren eta Armada Zuriaren tropen presio bateratuak, hiriburua denbora-tarte labur batez zurien esku utzi zuen. 1918-1919 artean, boltxebikeek (Alderdiaren VIII Kongresuan), Ukrainarekiko zuten lerro politikoa zuzendu beharra adierazi zuten eta lerro piatakovista okerra alde batera utzi zuten, "ukrainartze" mugimendua babestuz eta Ukrainako nazio askapen mugimendua askapen sozialistarekin uztartuz. Aldi berean, laborantzagoarekiko hurbiltze politika bat eraman nahi izan zen. Boltxebikeek, Piatakoven ordez, Christian Rakovski, Mykola Skrypnyk eta Hrihori Petrovski jarri zituzten Ukrainako Errepublika sobietarra zuzentzen. Politika berri honek Ukrainaren nazio askapena eta iraultza proletarioa uztartzerakoan emaitza bikaina izan zuen, herri oinarri handia batu zutelako (Errusiako tropa boltxebikeen laguntzarekiko

dependentzia murriztuz) eta Radaren demagogia indargabetu egin zutelako, erakunde honen barneko kontraesanak areagotuz. Honela azaldu zuen Radako buruzagietako bat izandako Volodimir Vinnitxenکو jaunak: “Errusiar boltxebikeen aurka borrokatzea oso erraza egin zitzaigun, baina ukrainar boltxebikeen aurka borrokatu behar izan genuenean, toki guztietan galtzaile ateratzen ginen”. Bestalde Radaren barruko kontraesanak areagotu egin ziren; alde batetik buruzagi ezkertiarrenak (Vinnitxenکو eta Hrushevski) boltxebikeekiko hurbiltze eta elkarlaguntza politika baten alde agertu baziren ere, eskuineko ildoko buruzagiak (Petliura batez ere) erabat antikomunistak ziren. Azken honek, 1920an, ukrainar laborantzeroaren betiereko etsaierekin, poloniar oligarkiarekin, Itun bat sinatu zuen, bi armaden artean Ukrainako Errepublika sobietarraren aurka borrokatzeko. Itun horren atzean, Petliuraren antikomunismoa eta poloniar burgesiaren eta batez ere Poloniako lehendakari Jozef Pilsudskiren nahi inperialistak zeuden (Pilsudskiren asmoen artean “Polonia Handia” eraikitzea zegoen; eta Petliurarekin sinatutako akordioaren arabera, UNR “independentek” Poloniari bere Galitzia eta Volinia eskualdeak lagatzeaz gain, Poloniak zuzendutako nazioen konfederazio batean sartu beharra izango zuen). Honela, Poloniak eta UNRk, Ukrainako Errepublika sobietarraren aurkako guda hasi zuten (Guda Poloniar-sobietarra), eta hasieran Kiev konkistatzea lortu bazuten ere, ukrainar eta errusiar sobietarrek kontraerasoa jo eta Ukrainan berriz garaile atera ziren, Iraultza Poloniara zabaltzea lortu ez bazuten ere. 1921ean Guda Poloniar-sobietarra bukatu zen eta Ukrainar Errepublika sobietarrak ia Ukraina osoko lurraldea bereganatu zuen; Mendebaldeko Ukraina (Galitzia eta Volinia), ordea, Poloniaren esku geratu ziren. Ukrainar Radak, Petliura buru zuela, erbestera ihes egin behar zuen. 1922an, Ukrainar Errepublika sobietarrak, beste sobietar errepublika batzuekin batera, sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna sortu zuen. (Itzultzailearen oharra)

¹³⁶ **Dieta finlandiarra:** Finlandiako aristokraziaren eta burgesiaren interesak defendatzen zituen Biltzar bat izan zen. Dieta hori; 1809an Errusiar Suediari guda bat irabazi eta gero Finlandia konkistatu zuenean, Finlandiaren legeak eta agintea nolabait errespetatu autonomia maila bat aintzatesi zionean, Finlandia Errusiar Inperioaren barne mantentzeko emakida bezala sortu zen. Hasieran Dietan lau estamentu (noblezia, elizgizonak, hiritarrak eta nekazariak) zeuden ordezkaturak, Frantziako estatu Nagusien antzeko sistema baten arabera. Nikolai II tsarrak, Finlandian eramandako errusiartzeko politikaren ondorioz Dietaren eskumen asko eta asko murriztu egin zituen; hala ere 1905eko iraultzak, tsarra bere politika atzerakoiaren zenbait puntu bertan behera uztera behartu zuen, (adibidez, Errusian parlamentu antzeko instituzio bat, Duma, ezartzera) eta horrela Finlandiako Dieta berriz ezarri zuen, hortik aurrera sufragio unibertsalaz aukeratuko zelarik. Baina horrek Dietarako hauteskundeak Finlandiako Alderdi Sozialistak (interes proletarioak eta Finlandiaren burujabetasuna uztartzen zuenak) irabaztea ekarri izan zuenez, 1908an tsarrak berriz errusiartzeko politikari ekin zion, eta horrela jarraituko zuen 1917 arte. Otsailko iraultzak finlandiar herriarengan burujabetasuna berriz lortzeko itxaropena ekarri bazuen ere, laster ikusiko zen Behin-behineko Gobernu ez zegoela auzi nazionalari konponbide demokratiko bat emateko prest. Finlandiako Dietako presidentek, Oskari Tokoi sozialistak (mentxebikeengandik hurbilekoak), Errusiar Behin-behineko Gobernuari Finlandiarentzat federalismo mailako autogobernu bat onartzea proposatu zion (Finlandiako herriaren burujabetasun gosea asetzeko adina, baina aldi berean, Finlandiako independentzia –iraultza sozialistarenzko eta proletarioaren diktadurarenzko aurrerapauso gisa- eskatzen zuten finlandiar boltxebikeen eta finlandiar langile biltzarren eskaerak ez betetzeko modukoa), baina Errusiako gobernu burgesak proposamen horri uko egin zion. Ekainak 23an Finlandiar Dietak independentzia adierazpen bat (*valtalaki*) egin zuen, baina noski, ez Errusiako Behin-behineko Gobernu burgesak, ez momentu horretan erreformistek kontrolatutako sobieten zuzendaritzak ez zuten onartu. Uztailak 21ean eseristek eta mentxebikeek osatutako Behin-behineko Gobernuak Finlandiako Dieta itxi egin zuen, honek Finlandiako langileen artean iraultza gogoa piztu eta Finlandiako askapen nazionalaren eta iraultza sozialistaren uztartzea beharrezko gisa azalatu zituelarik. Aldi berean, horrek Finlandiako burgesiaren erreakzioa piztu zuen eta Goardia Zuria antolatuta izan zen, langile biltzarrek Goardia Gorria antolatuta zuten bitartean. Urriko Iraultza Sozialistak egoera desblokeatu egin zuen eta Gobernu sobietarrak finlandiar ezkerri boterea hartzeko eta independentzia aldarrikatzeko hots egin zion. Halere, finlandiar sozialistek erreformismo kutsu handi bat zuten (Finlandian estrategien eta lerro politikoen arteko borroka ez zen Errusian bezala gertatu), eta boterea “bide parlamentarioak erabiliz” lortu nahi izan zuten, iraultza sozialistaren aldekoak gutxiengo baten utziz (honek Leninen eta boltxebikeen haserrea piztuko zuen, finlandiar sozialdemokratek, euren zalantzekin iraultzari kale egin baitzioten eta euren gehiengoa galdu baitzuten). Goardia Zuriaren eta Goardia Gorriaren arteko talka bortitzak ematen hasi ziren. Azaroan Pehr Svinhufund jaunak zuzendutako Gobernu kontserbakorrak Finlandiaren independentzia lortzeko proposamen bat plazaratu zuen, eta abenduaren 6an Finlandiako Dietak proposamen hori onartu egin zuen. 1917ko abenduaren 18an, nazioen autodeterminazioaren politikarekin bat eginik, Errusiako sobietar Errepublika Sozialista Federalak Finlandiaren independentzia onartu zuen, eta abenduaren 22an baieztatu. Dekretu hori, Leninek Finlandiako lehen ministro Svinhufund jaunari eskura eman zion. Hala ere, Svinhufundek politika atzerakoa egin nahi izan zuen, eta Mannerheim jeneralari, Goardia Zuria oinarri hartuta Finlandiako Armada Zuria antolatuzko agindua eman zion. Finlandiar boltxebikeek eta Goardia Gorriak, burgesiaren diktadura-politikaz oharturik iraultza hasi zuten. Horrela, herrialdearen hegoaldean, Helsinkiren inguruan lurralde batzuk askatu ostean Errusiako Errepublika sobietarraren babesarekin Finlandiako Langile Sozialisten Errepublika aldarrikatu zuten; Kullervo Manner eta Otto Ville Kuusinen buru zirelarik. Halere, Armada Zuriak alemaniar tropen laguntzaz Guda Zibila hasi eta bost hilabetetan Finlandiar Iraultza zanpatu egin zuen; Errusia sobietarrak, bere burkideen laguntzan, babes sinboliko batetik haratago esku hartzerik izan ez zuten bitartean (bere lurraldean

laborantza eta langile iraultzaren arteko klase lerroz berri bat ematen ari dela adierazten digute.

152

13. Beste alde batetik, aginte sobietarraren aurkako, Langileen eta Baserritarren Gobernuaren aurkako demokrata konstituzionalisten eta Kaledinen matxinada kontrairaultzailearekin hasi zen guda zibilak, klase borroka erabat zorrotz egin du eta historiak Errusiako herriei eta batez ere bere langile eta laborantza klaseei planteatzen dizkien arazoak bide demokratiko formal batetik konpontzeko aukera ezabatu egin du.

154

14. Burgesen eta lur-jabeen (gaur egun demokrata konstituzionalisten eta kaledinisten mugimenduan adierazten den) matxinadaren aurkako langileen eta nekazarien erabateko garaipenak soilik, esklabotzaren aldekoen matxinada horren aurkako errepresio militar gupidagabeak soilik berma dezake benetan langile eta nekazarien iraultzaren garaipena. Gertaeren jazotzeak eta klase borrokaren garapenak, "Botere osoa Biltzar Konstituziogilearentzat!" kontsigna –langile eta nekazarien iraultzaren lorpenak kontutan ez dituen, sobieten Boterea kontutan hartzen ez duena, Errusia Osoko Langileen, Nekazarien eta Soldaduen Ordezkarien sobieten II Biltzar Nagusiaren edota Errusia Osoko Nekazarien Ordezkarien II Biltzar Nagusiaren ebazpenak kontutan hartzen ez dituen-, demokrata konstituzionalisten, kaledinisten eta hauen gaizkideen kontsigna bihurtu du. Gaur, herriarentzat guztiz argi dago kontsigna horrek sobieten boterea kentzeko borroka ordezkatzen duela eta Biltzar Konstituziogilea sobieten boterearengandik banatuko balitz politikoki hila egozatekeela.

15. Bakearen afera, herriaren artean pil-pilean dagoen auzietako bat da. Errusian bakearen aldeko borroka iraultzailea Urriaren 25ean Iraultzak garaipena lortu eta gero bakarrik hasi zen, eta garaipen honek eman dituen lehen emaitzen artean itun sekretuen argitaratzea, armistizioa eta anexiorik eta kalte- ordainik gabeko bake orokor bat lortzeko helburuarekin negoziazioen hasiera aurkitzen ditugu.

155

Oraindik aurrera soilik dute herri-masa zabalek bakearen aldeko borroka iraultzailea ikusteko eta honen emaitzak aztertzeko aukera praktikoa, osoa eta publikoa.

Biltzar Konstituziogilerako hauteskunde garaian herri masek ez zuten halako aukerarik izan.

Beraz, alor honetan ere, gudaren amaierari buruz Biltzar Konstituziogilearen eta herriaren benetako borondatearen artean desadostasuna saihestezina da, noski.

16. Oraintxe azertu ditugun zirkunstantzien osotasunak; langileen eta nekazarien iraultza aurretik, burgesia nagusi zenean egindako alderdien zerrenden arabera deitutako Biltzar Konstituziogileak, Urriaren 25ean burgesiaren aurka iraultza sozialista hasi zuten masa behargin eta esplotatuen borondate eta interesekin derrigor gatazkan aritzea dakar. Guztiz naturala da iraultza honen interesek Biltzar Konstituziogilearen eskubide formalen aurrean lehentasuna izatea, baita ere eskubide hauek legeak herriari Biltzar Konstituziogileko diputatuak edozein momentutan berritzeko eskubidea ez onartzeagatik ahulduko ez balira ere.

17. Biltzar Konstituziogilearen auzia, klase borroka eta guda zibila kontutan izan gabe, demokrazia burges arruntaren marko batean, forma aldeko ikuspuntu juridiko batetik planteatzeko saiakera zuzen edo zeharkako oro, proletalgoaren kausari traizio egitea eta burgesiaren ikuspuntua hartzea da. Sozialdemokrazia iraultzailearen ezinbesteko eginkizuna da edonor, Urriko matxinada eta proletalgoaren diktadura neurri egokian aintzat hartzen jakin ez duten boltxebismoaren zenbait zuzendarik noizbait egiten duten akats horretaz ohartaraztea.

156

18. Alde batetik Biltzar Konstituziogilerako hauteskunderen eta bestetik herriaren borondatearen eta masa behargin eta esplotatuen interesen arteko desadostasunak sortutako krisiari eman diezaiokegun kalterik gabeko konponbide bakarra; Biltzar Konstituziogilerako ordezkari berriak hautatzeko herriaren eskubidea hainbat eta azkarren eta zabalaren bermatzean eta Biltzar Konstituziogileak Komite Exekutibo Zentralak hauteskunde berri horietarako ezarritako legea onartzean, sobieten Boterea, iraultza sobietarra eta bere bakearekiko, lurrarekiko eta langile kontrolarekiko politika argi eta garbi aintzatestean eta kontrairaultza demokrata-konstituzionalista eta kaledinistaren etsaien ondoan jartzean datza.

19. Baldintza hauek eman ezean, Biltzar Konstituziogilea dela eta sortutako krisia, bide iraultzaileetatik, sobieten Botereak kontrairaultza demokrata-konstituzionalista eta kaledinistaren aurka hartutako neurri kementsueneren, azkarrenen, tinkoenen eta irmoenen bidez soilik konpondu ahal izango da; kontrairaultza horrek bere burua babesteko aldarrikatzen dituen kontsignak edota instituzioak edozein badira ere (Biltzar Konstituziogileko kide izatea aldarrikatzea barne). Borroka honetan sobieten Boterea eskulotzeko edozein saiakera, kontrairaultzaren gaizkide izatea da.

Bigarren eranskina: Estatuari buruzko Vandervelderren liburu berri bat

Kautskyren liburua irakurri eta berehala, Vandervelderena¹³⁷ nire eskuetara iritsi da; Sozialismoa estatuaren aurka (Paris, 1918. urtea) du izenburua. Gura ez dela ere, bi liburuen arteko konparaketa derrigor egin beharra dago. Kautsky II Internazionalaren gidari ideologikoa da. Vandervelde, Nazioarteko Bureau Sozialistaren¹³⁸ lehendakari izaki, bere ordezkari ofiziala da. Biak ala biak II Internazionalaren hondamendiaren ikur dira, biek ala biek ele marxisten bidez, kazetari iaioen taxuz; hondamendi hori, euren porrota eta burgesiaren aldera iragatea “trebetasunez” estaltzen dute. Batek, oso nabarmen, marxismoari burgesiarentzat onartezina dena moztuz marxismoa aizuntzen duen alemaniar oportunisto astun eta teorizatzailean ohikoa dena erakusten digu. Bestea, nagusi den oportunistoaren latindar motako –ia-ia Mendebaldeko Europako (hots, Alemaniaren Mendebaldean dagoen Europako) esan daiteke– ohiko ekoizpena da; mota hau malguagoa, ez hain astuna, marxismoa oinarrizko prozedura berberaz baina modu sotilagoan aizuntzen duena delarik.

158

Biek ala biek, bai estatuari buruzko zein proletalgoaren diktadurari buruzko Marxen doktrina itxuraldatzen dute, Vandervelde batez ere lehen auziari eta Kautsky bigarren auziari emana delarik. Biek ala biek auzi biok elkartzen dituen lotura estua eta apurtezina estaltzen dute. Biak ala biak hitzez iraultzaileak eta marxistak dira, baina eginez, praktikan iraultzaz *ezer ez jakiteko* ahalegin guztiak egiten dituzten damutuak dira. Ez batak ez besteak ez dute ez Marx eta Engelsen lanak jantzen dituen kutsutik, benetako sozialismoa bere karikatura burgesarengandik bereizten duen kutsutik ezer ez: iraultzaren eginkizunak erreformaren eginkizunetatik bereiziz argitzetik, taktika iraultzailea taktika erreformistatik bereiziz argitzetik, burgesiarekin bere super-irabazietatik eta egundoko super- harrapakinetatik zatitxo bat banatzen duen potentzia “handietako” proletalgotik bereiziz, sistemaren, egoeraren ordenaren edo soldatapeko esklabotzaren *suntsipenean* proletalgoak duen papera argitzetik; guzti horretatik ez dute ezer ere ez.

Esandakoa baieztatzeko, ikus ditzagun Vandervelderren oinarrizko argudio batzuk.

Vanderveldek, Kautskyren antzera, Marx eta Engels kontu handiz aipatzen ditu. Eta Kautskyren antzera, Marx eta Engelsengandik, burgesiarentzat onartezina dena *ezik*, iraultzailea erreformistarengandik bereizten duena *ezik* oro aipatzen du. Proletalgoak botere politikoa konkistatzeaz nahi beste, hori praktikak jada marko erabat

¹³⁷ **Émile Vandervelde:** Belgikar oportunistak. 1900-1918 urteen artean II Internazionalaren buru izan zen, beraz Internazional horren porrotaren erantzule nagusienetako bat izan zen. Guda inperialistaren garaian muturreko sozialchovinista izandakoa. 1917an Errusiara joan zen bertako sozialisten artean guda inperialistaren aldeko propaganda egitera. Urriko Iraultza Sozialistaren etsai amorratua izan zen eta leninismoaren aurkako zenbait liburu atera zituen. 1918an Belgikako Gobernu burgesean sartu zen eta Versailleseko Itun inperialistaren sinatzaileetako bat izan zen. 1928tik 1938ra, Belgikako Langileen Alderdiaren lehendakari izan zen. (Itzultzailearen oharra)

¹³⁸ **Nazioarteko Bureau Sozialista:** 1900eko Pariseko II Internazionalaren Biltzar Nagusian sortu zen organismoa, II Internazionalarentzako “zuzendaritza-organo iraunkor” bat sortzeko asmoz jaio zen (ordura arte II Internazionalak ez zuen bere egitura propiorik, partaide ziren alderdiak urtero batzerakoan Biltzarrak burutzera mugatzen zen). Ofizialki 1918 arte iraun bazuen ere, praktikan 1914 arteko bizitza izan zen; urte horretan, Lehen Mundu Guda hastean, sozialchovinismoa zela eta biltzeari utzi egin baitzion. Bere presidente bakarra Émile Vandervelde belgikarra izan zen. (Itzultzailearen oharra)

parlamentario batetara mugatu baitu. Baina Marxek eta Engelsek, Komunaren esperientziaren ondoren, langile klasea ezin dela indarrean dagoen estatu-makina bereganatzera mugatu, baizik eta *puskatu* egin behar duela dioen egia azaltzeko asmoz *Manifestu Komunista* partzialki zaharkitua berritzeko beharra ikusi zutenaz; hortaz, *hitzik ere ez!!* Vanderveldek, Kautskyren antzera, ados jarri izango bailiran, iraultza proletarioaren *esperientzian* oinarritzkoa denaren inguruan, proletalgoaren iraultza burgesiaren erreformatik bereizten duenaren inguruan, ez du ahorik zabaltzen.

159

Kautskyren antzera, Vanderveldek, proletalgoaren diktaduraz honi jaramonik ez egiteko asmoz hitz egiten du. Kautskyk aizuntze baldarren bidez egiten du. Vanderveldek sotiltasun handiagoz egiten du. Laugarren atalean, “proletalgoak botere politikoa konkistatzeari” buruzkoan, “b” puntua “proletalgoaren diktadura kolektiboaren” auziari ematen dio, Marx eta Engelsen “aipuak” erabiltzen ditu (berriz diot, garrantzitsuenari, estatu-aparatu demokratiko burges zaharraren suntsiketari entzungo eginez) eta hauxe ondorioztatzen du:

“(…) Halakoa da bai, giro sozialistan iraultza sozialaz izaten den ideia; Komuna berri batena, oraingoan ez soilik puntu batean, mundu kapitalistaren zentro garrantzitsuetan baizik garaile aterako denarena.

Hipotesi bat da; baina gerraosteak herrialde askotan inoiz ikusi ez diren klase aurkakotasunak eta asaldura sozialak ekarriko dituen garai honetan, hipotesi honek gertaezinezkotik ez du ezer.

Eragozpen bakarra; Pariseko Komunaren porrotak, Errusiar Iraultza pairatzen ari den zailtasunez ez hitz egitearren, zerbait frogatzen badu, hori proletalgoa gertaerek bere eskuetan jarri dezaketen boterea erabiltzeko prestatzen ez den artean, erregimen kapitalistari amaiera ematea ezinezko izango dela da”.

Eta auziaren funtsaz hitz bakar bat gehiagorik ere ez!

Halakoxeak dira II Internazionalaren buruzagi eta ordezkariak! 1912an Basileako Manifestua sinatzen dute, non 1914an lehertutako gudak eta iraultza proletarioak duten harremanaz hitz egiten den, eta azken honen etorrerarekin *mehatxatzen* dute. Baina guda etortzerakoan eta egoera iraultzailea ematerakoan, Kautsky eta Vandervelde horiek ez zuten iraultzaz ezertxo ere jakin nahi izan. Begira ezazue arretaz: Komunaren erako iraultza gertaezinezkotik ezer ere ez duen hipotesi bat baino ez da! Honek, sobietek Europan izango duten balizko paperaren inguruko Kautskyren arrazoiketarekin analogia oso bat du.

160

Baina halaxe eskolatutako edozein *liberalek* arrazoitu dezake; oraintxe honek ere Komuna berri batek “gertaezinezkotik ezer ez duela”, sobietek etorkizunean paper handi bat dutela eta abar onartuko duelako. Iraultzaile proletarioa liberalarengandik bereizten duena, hark Komunaren eta sobieten *estatuzko* zeresan berria teoria aldetik aztertzen duela da. Vanderveldek, Komunaren esperientzia aztertzerakoan, gai honi buruz Marxek eta Engelsek zehaztasunez adieraziko guztia isilarazten du.

Praktikoki, politikoki, marxista batek, iraultza proletarioa (Komunaren erakoa, sobieten erakoa ala hirugarren mota batetako) derrigorrezkoa dela azaltzearen, horretarako prestatzea beharrezkoa dela azaltzearen, masen artean iraultzarako propaganda egitearen, iraultza horren aurkako aurreiritzi burges-ttipiak

ihardestearen eta abarreko eginkizunak sozialismoaren aurkako traidoreek soilik saihestu ditzaketela azaldu beharko luke.

Ez Kautskyk ez Vanderveldek ez dute antzeko ezer egiten, langileen artean sozialistak eta marxistak izatearen entzutea gorde nahi duten sozialismoaren aurkako traidoreak baitira.

Ikus dezagun teoria arloan auzia nola planteatzen den.

Errepublika demokratikoan ere, estatua ez da klase batek beste bat zanpatzeko aparatu bat besterik. Kautskyk hau egia dela badaki, onartu egiten du, ados dago, baina... funtsezkoena den auzia saihestu egiten du: proletalgoak estatu proletarioa konkistatzerakoan zein klase eta zein tresnekin zanpatu behar duen.

161

Vanderveldek marxismoaren oinarrizko tesi hau badaki eta onartu, harekin bat egin eta aipatu egiten du (bere liburuaren 72. orr.), baina... ez du *esplotatzaileen erresistentziaren zanpaketa* bezalako gai desatsegin (desatsegina jaun kapitalistentzat) bati buruzko ezer esaten!!

Vanderveldek, Kautskyren antzera gai “desatsegin” hau saihesten du. Horregatik dira damutuak.

Kautskyren antzera Vandervelde dialektika eklektizismoz ordeztean maisu dugu. Alde batetik, hori aitortu besterik ez dugu, bestetik, hori onartu behar dugu. Alde batetik, estatu bezala “nazioaren osotasuna” uler daiteke (ikus ezazue Littré¹³⁹ hiztegia, lan bikaina zer esanik ez, Vandervelderren liburuaren 87. orr.); bestetik, estatu bezala “gubernua” uler daiteke (ibidem). Vanderveldek, topiko jakitun hau kopiatzen du, Marxen aipuekin *batera* onetsiz.

“Estatu” hitzaren zentzu marxista zentzu arruntetik bereizten da –idazten du Vanderveldek–, eta horregatik, “gaizkiulertuak” gertatzen dira. “Marx eta Engelsengan, estatua ez da zentzu zabaleko estatua, ez da Gobernu organoa den estatua, gizartearen interes orokorren (*intérêts généraux de la société*) ordezkaria. estatu-boterea da, estatua aginte organoa da, estatua klase batek beste batekiko nagusitasuna izateko tresna da.” (Vandervelderren 75-76 orr.)

Marxek eta Engelsek, estatuaren suntsipenaz, bigarren zentzuan bakarrik hitz egiten dute. “(...) Oso borobilak diren baieztapenak okerrak izan daitezke. Klase bakarraren nagusitasun eskusiboan oinarritzen den estatu kapitalistaren eta klaseen desagertzea helburu duen estatu proletarioaren artean, tarteko maila asko daude” (156. orr.)

162

Hor duzue Vandervelderren “era”, Kautskyrenarengandik apenas ezberdintzen dena. Dialektikak, kontrario batetik bestera nola iragaten den eta historian krisiek izan duten esangura azalduz, egia absolutuak ukatzen ditu. Eklektikoak ez du “egia absolutuegirik” nahi iraultza “*tarteko mailengatik*” ordeztean datzan bere gurari burges-ttipi eta filistiara mugausle eran iragarazteko.

Kautsky eta Vandervelde bezalakoek, klase kapitalistaren nagusitasunerako organo den estatuaren eta proletalgoaren nagusitasunerako organo den estatuaren arteko

¹³⁹ **Émile Littré**: XIX mendeko frantziar filosofo positibista eta ilustratua, Auguste Comteren jarraitzailea. Bere lanik ezagunena, *Frantses hizkuntzaren hiztegia* (*Dictionnaire de la langue française*) da, “Littré hiztegia” bezala ezagutua dena. (Itzultzailearen oharra)

maila, hain zuzen ere burgesia *uzkailtzean* eta *bere* estatu-makina *puskatzean* datzan *iraultza* dela isilarazten dute.

Kautsky eta Vandervelde bezalakoek, burgesiaren diktadura, klase *baten*, hain zuzen ere, proletalgoaren diktadurak ordeztu behar duela eta *iraultzaren* “tarteko mailen ondoren”, estatu proletalgoaren pixkanakako desagertzearen “tarteko mailak” etorri behar direla ezkututzen dute.

Horretan datza hain zuzen, euren apostasia politikoa.

Hain zuzen ere, arlo teoriko eta filosofikoan, honetan datza dialektika eklektizismoaz eta sofistokokeriaz ordeztea. Dialektika konkretua eta iraultzailea da, klase baten diktaduratik beste klase baten diktadurarako “igarotzearen” eta estatu proletario demokratikotik ez-estaturantzko (“estatuaren desagertzerantzko”) “igarobidearen” artean bereizten du. Kautsky eta Vandervelderren eklektizismoak eta sofistokokeriak, burgesiari atsegin emateko, klase borrokan datzan konkretua eta zehatza den guztia ezabatzen du, iraultzaren apostasia gorde dezaken (eta gure garaiko *hamar sozialdemokrata ofizialetatik bederatzik hor gordetzen diren*) “igarotze” kontzeptu orokorraz ordeztuz!

Eklektiko eta sofista gisa, Vanderveldek Kautskyk baino arte eta sotiltasun handiagoa du; “zentzu hertsiko estatutik zentzu zabalerako estaturantzko igarotzea” *esaldiarekin*, iraultzak planteatutako arazo guztiak, iraultzaren eta erreformaren arteko ezberdintasun guztia, eta are marxista baten eta liberal baten arteko ezberdintasun osoa ezabatzen baita. Izan ere, zein burges eskolatu europarri otu ahal zaio zentzu “orokor” honetan, “orokorrean” “tarteko mailak” ukatzea?

163

“Bat gatoz Guesderekin¹⁴⁰ –idazten du Vanderveldek–, ekoizpen eta truke-baliabideak sozializatzea ezinezkoa dela dioenean, baldintza hauek eman ezean:

1. Klase baten beste batekiko nagusitasunerako organo den gaur egungo estatua, proletalgoak botere politikoa eskuratzearen bidez, Mengerrek¹⁴¹ “lanaren estatu herriko” deritzon eraldatzea.

¹⁴⁰ **Jules Guesde:** Frantziar kazetari eta politikari sozialista. Paul Lafargue nazioarteko buruzagi sozialista (Marxen suhia) oso lagun zuen eta Marx bera eta Engels ezagutzera iritsi zen. Kazetaritza militantean nabarmendu zen, eta horrela nazioarteko mugimendu sozialistaren erreferentzietako bat izatera iritsi zen. XIX mende bukaera aldera, frantziar sozialismoko buruzagi ezagunenetako bat zen, joera erradikalaren ordezkari zelarik. Guesdek sozialistek Gobernu burgesetan parte hartzea (adibidez 1901ean Alexandre Millerand René Waldeck-Rousseauren gobernuan sartzea) gaitzetsi egiten zuen. Guesderen eta ildo moderatuko ordezkari Jean Jaurèsen arteko liskarrek frantziar mugimendu sozialistaren zatiketa ekarri zuten, zatiketa hau 1905ean SFIO alderdia sortzearekin gaindituko zen. Alta, 1914an guda inperialista lehertzerakoan, jarrera sozialchovinista izango zuen eta frantziar inperialismoaren alde jarriko zen. 1914tik 1916ra, René Vivianik zuzendutako Gobernuan ministro postu bat izango zuen (hau da, 1901ean gogor gaitzetsi zuena, orain berak egingo zuen). Guesdek frantziar sozialismoaren historian jokaturako papera, paper bikoitza da: alde batetik onuragarria (Gobernu burgesarekiko gogortasuna, printzipio iraultzaile sozialistetan irmotasuna eta sozialismoaren zabalkundea), beste alde batetik kaltegarria (bere azken urteetako etapa chovinista eta proinperialista). (Itzultzailearen oharra)

¹⁴¹ **Anton Menger:** Austriar jurista eta idazlea. Bere lanik ezagunenak, *Lanaren Ekoizpen Osorako Eskubidea* (*Das Recht auf den vollen Arbeitsertrag in geschichtlicher Darstellung*) eta *Lege Zibila eta Txiroak* (*Das Bürger Recht un die besetzten Volksklassen*) dira. “Sozialismo juridikoaren” ordezkaria izan zen, marxismoaren aurkakoa, klase borroka onartzen ez zuelako eta ordezkari kooperatibetan eta klase-laguntzan oinarritutako “sozialismo” idealista bat proposatzen zuelako. Alemaniako sozialismoaren baitan Marxen arerio teoriko izan zen Ferdinand Lassalleren jarraitzaile izan zen; kontzeptu lassallearrak arlo juridikoan taxutu zituen. (Itzultzailearen oharra)

2. Aginte organo den estatua gobernu organo den estatutik bereiztea, edo Saint Simonen¹⁴² esapidea erabiliz, gauzen administrazioa gizonen gobernuarengandik bereiztea” (89. orr.)

164

Vanderveldek hori kurtsiban idazten du, halako planteamenduen garrantzia bereziki azpimarratuz. Baina hori nahasmen eklektikoa besterik ez da, marxismoarekin erabateko apurketa da! Izan ere “lanaren estatu herrikoia” ez baita 70. hamarkadako alemaniar sozialdemokratek aldarrikatzen zuten eta Engelsek “erokeriatzat” jotzen zuen “estatu herrikoi askearen” parafrasi bat besterik¹⁴³. “Lanaren estatu herrikoia” esaldia demokrata burges-ttipi baten (gure ezkerreko eseristen tankerakoak, adibidez) ahotan egokia den esaldi bat da, klase kontzeptuak *klaseetatik* at dauden kontzeptuez ordeztu dituen esaldi bat da. Vanderveldek estatu-boterea *proletalgoak* (*klase batek*) konkistatzea eta estatu “herrikoia” parekatzen ditu, horretatik sortzen den nahasmena ikusi gabe. Kautskyk, bere “demokrazia garbiaz”; nahasmen berbera, klasezko iraultzaren eginkizunengatik, klasezko diktadura proletarioarengatik, *klasezko* (langile) estatuarengatik mespretxu berbera sortzen ditu.

Jarrai dezagun. Gizonen gobernu estatu oro desagertzen denean soilik desagertuko da eta gauzen administrazioari bide egingo dio. Urrutiko etorkizun horri begira, Vanderveldek *gaurko* eginkizuna, burgesiaren *uzkailtzea* ezkututzen du, iluntasunean uzten du.

Jardute hau baita ere, burgesia liberalarekiko morrontza da. Liberalek, gizonak gobernatu behar izango ez direnean zer gertatuko denari buruz hitz egiteko ez dute arazorik. Zergatik ezin izango da ba halako amets inofentsiboen gainean mintzatu? Baina proletalgoak bere jabetzaren desjabetzaren aurka dagoen burgesiaren erresistentzia zanpatu behar duela ez dezagun aipatu ere egin. Hori galdatzen dute burgesiaren klase interesek. (24/4)

Sozialismoa estatuaren aurka. Hau Vanderveldek proletalgoari egiten dion makur-agur bat baino ez da. Agurtzeko makurtzea ez da oso zaila, politikari “demokrata” orok daki bere bozka emailen aurrean makurtzen. Baina “makurtzearen” ondoren eduki antiiraultzailea eta antiproletarioa dator.

165

Vanderveldek gaur egungo demokrazia burgesaren aurpegi zibilizatu, garbi eta txukunaren atzean dauden kontaezinezko iruzurrak, bortxakeriak, *eroskeria*, gezurrak, hipokrisia eta txiroen zanpaketak azaltzen dituzten Ostrogorskiren¹⁴⁴

¹⁴² **Claude Henri Saint-Simon**: XVIII-XIX mendeetako frantziar teoriko sozialista handia, “sozialismo utopikoaren” eskolakoa (eskola horretako hiru teoriko handienetako bat izango zen Charles Fourier frantziarra eta Robert Owen eskoziarrarekin batera). Kapitalismoari kritika handia egin zion, eta bere ordeztu gizarte kolektibista berdinkide bat proposatzen zuen, asoziazioetan eta Komunetan oinarritutako zena. Gerora bere ideia idealistak gaindituak izango ziren; hala ere, geroagoko teoriko sozialistengan eragin handia izango zuen, adibidez Karl Marx edo Pierre Joseph Proudhonengan. (Itzultzailearen oharra)

¹⁴³ Friedrich Engelsek August Bebeli 1875eko martxoaren 18-28an idatzitako gutuna.

¹⁴⁴ **Moisei Ostrogorski**: Bielorusiar historialari, jurista eta politologo. Politikoki liberal burgesa bazen ere (1906an Dumako lehen legealdian diputatu izatera iritsi zen); bere lanik handienak, *Demokrazia eta alderdi politikoaren antolaketa* (*La démocratie et la organisation des partis politiques*) deiturikoak, Ingalaterra eta AEBko historia aztertuz eta datu aunitz bilduz, demokrazia burgesaren izaera gezurtia eta antidemokratikoa agerian uzten zuen. Horrez gain, emakumeen eskubideen eta parekotasunaren inguruko lanak ere idatzi zituen. Petrogradoko Unibertsitatean zientzia politikoko irakaslea izan zen 1921ean hil egin zen arte. Max Weber eta Robert Michelskin batera soziologia politikokoaren fundatzaileetako bat bezala hartzen da, eta bai SESBen zein Mendebaldean eragin

aipeak kontu handiz errepikatzen ditu. Baina hortik ez du ondorioz ateratzen, demokrazia burgesak masa behargin eta esplotatuak zanpatzen dituela eta *demokrazia proletarioak burgesia zanpatu* behar izango duela ez du antzematen. Kautsky eta Vandervelde honen aurrean itsu daude. Burgesiaren klase-izpirituak, burgesia- ttipia gibelean darraikiolarik, auzi hau saihestea, zanpatze horren beharra isilaraztea edota besterik gabe ukatzea *galdatzen* du.

Eklektizismo burgesa marxismoaren aurka, sofistokeria dialektikaren aurka, erreformismo filistiara iraultza proletarioaren aurka. Hala behar zuen Vandervelderren liburuak.

Lenin

(Simbirsk, 1870 -Gorki, 1924)

Teoriko komunista eta militante iraultzaile errusiarra, 1917ko Urriko Iraultzaren zuzendari boltxebikeetako bat izan zen, SESBen eraikuntzan parte hartuz, Herri Komisarioen Kontseiluko presidente bezala, bestek beste.



Iraultza proletarioa eta Kautsky damutua

Leninek 1918ko urriaren hasieran ekin zion Iraultza proletarioa eta Kautsky damutua liburua idazteari, Karl Kautskyren proletarioaren diktadura liburuxka irakurri eta berehala. Liburuxka horretan, II Internazionalerako buruzagi ideologikoak iraultza proletarioari buruzko teoria marxista itxuraldatu eta erabat faltsutu egiten zuten eta sobietar estatua kalumniatzen zuten.